

ANUARIO
DEL
SEMINARIO DE FILOLOGIA VASCA
«JULIO DE URQUIJO»
XX - 1
1986



Excma. Diputación Foral de Guipúzcoa
DONOSTIA - SAN SEBASTIAN

ANUARIO
DEL
SEMINARIO DE FILOGOGIA VASCA
«JULIO DE URQUIJO»
XX - 1

1986



Excmo. Diputación Foral de Guipúzcoa
DONOSTIA - SAN SEBASTIAN

ISBN: 84-600-2992-1

Depósito Legal S.S. 400 - 1967

Impreso en Gráficas Echeverría - Easo, 47 - San Sebastián 1986

LUZAIDEKO ECHEVERRIREN DOTRINARI OHARRAK

JOSE M. SATRUSTEGI

Azken aldi honetan agertzen ari diren euskal testu zaharren artean, oraintxe eman berria du Iñaki Segurolak arretaz irakurri dudan hau: «Etxeberri Luzaideko bikarioaren dotrina argitaragabea»¹. Nere interesa, bai egilearen nahiz izkribuaren aldetik sortua da.

Zilegi bezait haste-hastetik, *Echeverri*, egileak berak idatzi ohi zuen eran idaztea, ba-baitira Luzaiden *Etcheverri* eta *Etcheverrytarrak* ere elkarrekin zerikusirik ez dutenak, *Echeverria-z* bestalde. Nahasmendu haundia sor lezake grafia gaurkotuaz denak zaku berean sartzeak.

Luzaideko bikario hau, Echeverri bazterretxeko semea zen, herriko hamalau etxerik zaharrenetako, noski². Pekotxeta auzoan, Andikoberri eta Arnegizahar bazterretxe bien erdian ezagutu nuen nik, duela hogei bat urte bidea zabaltzeko bota zuten etxea. Sahetsean zituen alor eta pentzeak, ibairako lasterbide baliagariarekin. Aurrez-aurre, berriz, bere oihan estua gaztain eta aritez hornitua.

Abizen hau oso ezaguna eta ugaria da Luzaideko paper zaharretan. XVIII.mendean, adibidez, Echeverri bazterretxearen auzo-

1. ASJU, XIX-1 (1985) 130-197.or.

2. «Acta de Juicio de Conciliacion. En la Villa de Valcarlos á tres de febrero de 1846, el Sr. D. Beltran Echeverria Al(calde) Constitucional de esta Villa celebro el juicio de Conciliación sigte».

Comparecio D.^a Joaquina Aguirre acompañada de D. Martin Barcelona su hombre bueno y dijo Juan Perez de Zestau, su hijo y nuera por escritura en forma otorgada en 11 de Marzo de 1590, vendieron por una insignificante cantidad á los Amos de 14 casas de esta Villa entre las cuales se encuentra la de Echeverri la mitad del Molino de Zestau que hoy posee la demandante, pero con la obligacion de que ellos en su tiempo y sus sucesores en el suyo eran obligados de acudir á moler sus granos al indicado Molino segun se hace constar pr. la copia q.e. en devida forma presenta, Que Pedro Echeverri dueño de la indicada casa no cumple con esta obligacion, y pide se le condene á que lo verifique». (Arch. J.M.S. doc. «Marimaite», 8 bis).

ko Yacquesenean Echeverritar bat zen nagusia, izengoitziz «Sancho» esaten ziotena³. Mende horren hasieran bada bataio-agirietan Sancho de Echeverri izeneko bat⁴, eta behar bada, hortik dator Sanchotarren lotura.

Iruñeko agintarien zerga-zerrenda zibiletan ere aipu da etxe hau. 1644eko zergalariek Frantziako mugatik hasi zuten beren lana eta Echeverri bigarren etxea da lerrokadan. Kasu honetan, *Echeberria* deitzen diote hiriko jaunek⁵. Berrehun urte lehenago, 1428an, Ibañetatik behera joan ziren erret-kontulariak izenak hartzen eta, hala dagokionez, azken aurrekoa da Micheto Echeverri, baina etxearen izena «Alegria» zela ipiniz⁶.

Luzaiden bikario

Echeverri apaizak Luzaideko bataio liburuetaan izenpetutako lehen agiria, 1824eko maiatzaren 6ko da. Azkenekoa, bestalde, 1858ko ekainaren 3an egin zuen, hil zen urte berean. Hogeita hamalau urtez, beraz, bere herriko bikario izan zen. Horrek ez du esan nahi, noski, ofizialki bikario izan aurretik apaizlagun bertan egon ez zatekeenik. Luzaiden nengoelarik ez zitzaidan bururatu bere jaiot-agiria jasotzerik.

3. «Miguel de Echeverri... hijo legitimo de Juan de Echeverri Sancho». Sahetseko oharrean dionez, «nacido en casa Yacques» (Arch. Par. Valcarlos. Lib. 2.^o Baut., n.^o 2, 1778) *Sancho* eta *Juan* elkarrekin parekatzen ziren une honetan Luzaiden. Pertsona bera bi eratan ikus daiteke: «En veinte y tres de abril del año mil setecientos y treinta Baptice a Gracian de Cajen hijo legitimo de Juan Cajen y Maria de Vidart, los aguelos paternos JUAN de Cajen y Juana de Ainziburu» (Arch. Par. Valcarlos, Lib. I. de Baut. f. 241, n.^o 3, 1730).

Beste anaia baten bataio-agirian, hitzez-hitz, honela dator: «En cuatro de Abril del año mil setecientos treinta y cuatro Baptice Juana de Cajen hija legitima de Juan de Cajen y María de Vidart; aguelos paternos SANCHO de Cajen y Juana de Anciburu» (Ibid. Lib. I Baut., f. 258, n.^o 4, 1734).

4. «Sancho de Echeverri, hijo legítimo de Pedro de Echeverri y Catalina Hualde. (Arch. Par. Valcarlos. Lib. I. Baut., fol. 222, n.^o 3, 1725).

5. Zerrenda honela hasten da: «Pedro de Egues, llamada Arraneguiçar. Pedro de Echeberria, llamada Echeberria...» (Arch. Gen. de Navarra. Fuegos, 1644).

6. Herriko etxeen amaieran, esaten da: «... Johan Doinati, Androqui (actual Andikoberri), Johan Coixe, Androqui el Viejo (actual Andikozahar), Micheto Echeverri, casa Alegria; Domingo Arranegui (actual Arneguizahar)». Arch. Gen. de Navarra. Fuegos 1428).

Ikus: J. M. SATRUSTEGUI, *La Puerta de España en el Camino de Santiago* (Iruña, 1962), 63 orrialde.

Urte txarrak gertatu zitzaitzkon eta muga-arazo nahasiak izan zituen denbora guzian. Frantziako adarka gogorraren atzetik, Espainiako ostikoa. Gertaera hauen berri jakiteko bi iturri nagusi erabili ditut: neuk Orreagan jaso nituen bere eskuizkribuak, eta Luzaideko eliz-liburueta utzi zituen ohar baliagariak.

Frantziako arazoak. Bikario zeneko bigarren urtean, Baionako apezpiakuak bere elizbarrutiko kristauak mugaz beste aldeko apaizekin aitortzako sakramentua egitera joatea debekatu zuen. Hori dela eta, istilu larriak sortu ziren konzientzietan eta harreman luzeak izan zituen Echeverrik bere nagusiekin. Gutun horien guzien kopiak egin zituen nik dudan bilduma batean.

Frantziako bigarren eztabaidea, Ondarrolaren legezko egoeratik zetorkion. Baionako apezpikuaren aginduz, Arnegiko Fagalde erretoreak Ondarrola beregana nahi izan zuen 1826an. Agindu bera jaso zuen geroago Iriart apaizak.

Gotzaiarekin batera, aginte militarra eta Frantziako herri-agintariak elkartu ziren indarkeriaz erasotzeko Luzaideko apaiza.

Eliz-gizonen bidea Sakramentuena izan zen, eta Arnegiko apaizak Ondarrolako bi bikote bere elizan ezkontzea lortu zuen. Eskomunione zigorra eman zien lauei Iruñeko gotzaiak⁷.

Baionako apezpiakuak, bestalde, sendotzako sakramendua eman zien, Donibane Garazin, Ondarrolako bi haurtxori, lehen esandakoena umeak izanki⁸.

7. «El Gobernador de la Mitra paso un mandato al Vicario de Valcarlos en 19 de mayo de 1842, para que los mal casados se separasen y se subsanase el defecto cometido, pero como se resistieron a ello se publicó de misa popular la indignidad de ellos para recibir los Santos Sacramentos y, a causa de su obstinación se fulmino excomunión Maior el 14 de agosto del mismo año contra los cuatro casados, declarando que sus padres no entrasen en la Iglesia durante sus hijos permaneciesen en aquel estado de concubinaje por haber cooperado, que sus hijos contrajesen semejantes matrimonios nulos. Y que lo propio sucediera con los acompañantes, siempre que estos no cooperasen de su parte a que se separasen de este enlace incestuoso».

8. «El Sr. Obispo de Bayona no paró en las dos dispensas indicadas, si no que también confirmó a dos de Ondarrola en San Juan Pie de Puerto en 27 de junio de 1842 y son los mismos de los dispensados, pues ninguno de los demás se le presentó».

Nahaste-borraste hauen ondoren, Juan Echeverri eta Catalina Minondo, Ashi bazterretxeko nagusi gazteak, 1843ko ekainaren 7an itzuli ziren Luzai-deko elizara. Hauen aurretik ezkondutako Juan Bonetpels eta María Echeverrik gehiago luzatu zuten eta ez ziren 1845eko apirilaren 3 arte beren eliza-ra itzuli (*I.c.*)

Arnegiko apaizak denbora bérean, Ondarrolako bost haur batiaiatu zituen bere parrokian.

Militarren parte hartza ez zen hitz-jario eta izkribu dotoretan gelditu. Harizpe, ospe haundiko agintariarengana jo zuten eliztarrek eta, horrela, Bernateneko etxekoandereari elizakoak ematera deitua izan zen batez, mugako baimen eta agiri guziak legez egon arren, preso hartu zuten guardiek. Frantziako mugarik inola ere ez igarotzen uzteko agindua hartu zuela, jakinerazi zion gudalburuak. Baino, bihamonean bertan kendu zituen apaizarenatzat eragozpen guziak eta sakramentuekin Ondarrolara joan behar izan zuenean, Frantziako bi guardia lagun zituela ibili zen baserrietan, aurreko gertakizuna zuritu nahiez⁹.

Auzi honetan parte hartu zuen hirugarren indarra, Arnegiko herriagintariena, denetan ausartena gertatu zen. Besteak beste, Txaparreko etxekoandrea hil zenean, familiaren erabakiz Luzaideko Gurutzea ekarri zuten etxera, eta beren hilarrira eramateko bildurik zeudelarik ahaide eta auzoko jendeak, Pevet, Arnegiko alkatea joan zitzaien beste gizon batzurekin gorpua kentzera. Kutxa berekin hartu eta familiako inoren laguntzarik gabe eraman zuten Arnegira eta han ehortzi.

Bitartean, hildakoaren senarra, aita eta anaiak, beste herritarrekin batera Luzaidera joan ziren gurutzearen atzetik, isil-isila, gorpua berekin eraman balute bezala¹⁰.

9. «Desde el 14 de agosto de 1842, tuvo efecto la orden del General Harizpe hasta el 19 de Noviembre siguiente, porque habiendo sido llamado á administrar los santos Sacramentos á la dueña de Bernatenia de Ondarroa, el 18 de Noviembre fui detenido por la guardia y conducido al Gefe Militar, quien me dixo tenia orden de no dexarme pasar á Ondarroa como funcionario, y aun como particular, y me hizo pasar a España, teniendo mi pasaporte para el extranjero, sin auxiliar a la enferma, amenazandome si volvia seria arrestado y conducido al interior de Francia, y como urgia el estado de la enferma el cura intruso le confeso y le administro la Extrema unción.

Esta Orden del General Harizpe que tanto alarmaba a los habitantes de Ondarroa tuvo efecto hasta el otro día de esta escena (...) pues se revocó y se mando al Gefe de Ondarroa el 19 de Noviembre no se me impusiese estorvo alguno para exercer mi ministerio, y á su consecuencia el 10 de Marzo de 1843 fui a dar el Santo Viatico á María Beretervide dueña de la casa Descansu, escoltado por dos soldados de la guardia francesa, reparando por este acto generoso el agravio causado la vez anterior». (Arch. Par. de Valcarlos. Indice I. 1688tik, 5.or.).

10. Echeverriren hitzetan: «... conduxo el cadáver á Arnegui sin mas acompañamiento y enterró el cura en su iglesia (...) pero el marido de la difunta, su Padre, hermanos, interesados y demás vecinos tomando la Cruz vinieron con la mayor devoción y como si trajesen el cadáver á la Yglesia de Valcarlos y se hicieron las exequias como cuerpo presente» (Ibid.).

Ondarrolako biztanleek haserre bizian, agintari goienetara eraman zuten auzia, eta Pabeko Prefetak bere ordezkarien bidez agindu zion Arnegiko auzapezari, Ondarrolako egoera bideratzen ez zen bitartean uzteko bertakoei Luzaideko elizara joaten eta ez sartzeko arazo horietan¹¹.

Espainiako istilua. Sahetsetik zetorzkion Echeverriiri uhain berriaren zipristinak. Madrilen sortutako auzia Frantziatik itzulian iritsi zen Luzaidera. Isabel II.aren Jauregian ekaitza sortu zuen Borbondarren alaba kutuna, Cubako legegizon eta olerkari gazte ez-ezagun batekin ezkontzeak. Erret-jatorriko pertsonen ohiturak hala zapaltzen zituen neska hezikaitza, Frantzisko de Paula eta Luisa Karlota Borbondarren alaba zen, eta amodio desbideratu honen lege zigorrez, maitaleari zegozkion ohore, begiramendu, izen on eta goimailako aipamen guzietaz biluzi zuten agintariekin. Hori aski ez zela, beren lurraldean bizitzea eragotzi eta Frantziara jo behar izan zuten senar-emazte gazteek. Ikusia dut gertakizun hau gaitzat duen eleberria *Le roman d'une Infante*, Frantziako Akademikak saritua.

Horrela sortu zen printzesena atzerriratuaren bihotzean, haurdunaren erdiminekin batera herriminaren eragin kilikaria, eta berre haurra Espainiako estatuaren lurraldean izatea nahi zuen.

Luzaideko Agirretarren itzala haundia zen une horretan. Juan Pedro, Kortleetan diputatu izana, «Isabel la Católica» Erret-Elkarre Amerikakoaren komendatore, eta «San Fernandoren» lehen mailako zaldun zen, besteak beste.

Luzaideko Agirretarrek bazituzten Bentetan bi etxe: Arnegi aldeko zubi muturrean bat, eta zubiaren Luzaide aldetik jauregi nagusia. Zubia uztartzen ditu, noski, ibaitxoaren gainetik, Frantzia eta Espainiako lurraldeak.

Borbondarren Josefa Fernanda andere gazteak Arnegiko etxe horretan izan zuen erdi aurretik ostattu, Frantziako lurrean, legez zegokionez; baina Luzaideko Jauregian lagundu zuen emaginak

11. Carta del Subprefecto sobre la decisión de Ondarroa. (...) «Este acto de Autoridad de parte de V. es contrario á las ordenes formales del Sr. Prefecto, quien ha prescrito a V. por mi conducto no se mezcle en la cuestión ni menos impida por ahora al Cura de Valcarlos exercer su ministerio en Ondarroa». (Arch. Par. de Valcarlos. Indice I, 1688 tik hasita, 5.fol.).

Ikus: J. M. SATRUSTEGUI, «Documentos para la historia religiosa de la frontera de Navarra». *Príncipe de Viana*, 104-105, 1967.

eta egin zizkioten eremainak, bihotzaren arabera Spainiako erre-suman aurki zezan semeak lehen ohea.

Egun berean bataiatu zuen Luzaideko elizan Echeverri bikarioak. Ez du esaten buruz ikasi zituen ala paperetik irakurri bataio agirian dauden *zortzi* izenak.

Mugaren bi aldetako pertsona ospetsuak eterri ziren eta haundizki egin zuten festa. Herriko «Bolantak» dantzatu ziren plazan eta bazkari eder batekin amaitutzat emango zen gertakizunaren kondakizuna, legez kanpo egina izan ez balitz.

Madrilen jakin zuten berehala denen berri eta apaizarekin sartu ziren zuzenean. Aginte zibilak gotzaiari idatzitako gutunaren edukia jakinerazi zioten Iruñetik Echeverriiri, bataio agiri berri bat egiteko aginduz.

Bi akats nagusi leporatzen zizkion bikarioari: emakumearen jatorrizko aipamena egiten zuela, eta senarraren aurretik ezarri zuela bataio agirian emaztearen izena¹².

Gaur badakigu era berean egina zela udaleko agiri zibila ere¹³, baina herriko agintariei ez zietan kargurik egin. Echeverri apaizak

12. «El Señor Jefe político de esta Provincia me copia la R. Orden de ocho de los corrientes en la que se reprobaban todos los documentos y aun el acta de nacimiento y bautizo que se hayan estendido tributando a la Señora Dña. Josefa Fernanda de Borbón los honores y títulos de Alteza Real de que está privada por el decreto de veinte y ocho de Junio del año último, así como todos los títulos que la pertenecían como Infanta de España».

«Me acompaña asimismo una copia exacta de la partida de bautismo estendida por V. con motivo de su alumbramiento en esa Villa para que se borre y anule del modo que está estendida; manifiesta también que debiendo V. saber las Reales Ordenes vigentes no debió estenderla en aquella forma».

«Por tanto, prevengo a V. que en adelante por lo que pueda ocurrir tenga estos presentes, que inutilice V. la partida estendida, que estienda otra arreglada en un todo al formulario del Excmo. Señor Urriz mi digno Predecesor sin anteponer la Esposa al Esposo, que espresé al margen del libro por nota adonde corresponda el número en que aura aquella se hallará, y que añada lo ejecuta en virtud de este mandato, y de todo me dará V. cuenta cuando esté verificado para poder yo contestar al Señor Jefe político».

Dios gue. a V. muchos años. Pamplona veinte de Junio de mil ocho cien-tos cuarenta y nueve. Severo Obispo de Pamplona. Señor Vicario de la Pa-rroquia de Valcarlos».

Firmado: Dr. Franco. Echeverri Vic.^o»

13. Ikus: J. M. SATRUSTEGUI, «Dos autógrafos ilustres en la historia de Valcarlos», BAP, XII-3 (1956), 355-359.or.

bere egunean egindako bataio agiria kendu gabe, jarraian ezarri zituen gotzaiaaren gutuna eta bigarren agiria.

Kristau ikasbideak

Oso ezaguna da duela denbora gutxi arte Euskal Herri osoan hain zabaldurik egon den Gaspar Astete aitaren dotrina. Orain ezagutzen den gaztelaniazko argitalpenik zaharrena 1607.urtekoa da, nahiz 1599an argitaratu zelako susmoren bat badagoen¹⁴. Gerotzik, iturri agortezinaren antzera joan da behin eta berriz kaleratzen.

Euskaraz egindako lehen itzulpena noizkoa den ez dakigu. Eskuz idatzitako ugari bada bazterretan eta, ia beti, lekuaren lekuko erara aldatuak¹⁵.

Bilketa sakona eta zabala egin behar litzateke, beraz, ikasgai honek izan duen arrakasta ongi neurtzeko.

Luzaideri dagokionez, Iruñeko elizbarrutirako egin izan diren euskal doctrinek ez dute han harrerarik izan. Guk erabiltzen genuena (1955-1964) Baionako Diharce bikario jeneralak 1911an moldatu zuen *Catichima ttipia* zen. Galde-erantzunetan burutzen da, baina ez da Astete-ren itzulpen zehatza. «Beharrac oro eta beharrak bakharric dire hortan», zioen lehen baimenak¹⁶.

Baionakoaren aurretik, itxura denez, Jose Oliver Hurtado, Iruñeko gotzai zenak 1880an argitaratu zuena erabili ohi zen Luzaiden¹⁷. Asteteren testua oinarritzat harturik beste ikasgai batzurekin gehitzen du, eraskinak gurutzearekin edo izartxoarekin markatuz. «Icasico da ongui —dio oharretan— Aita Asteten jaquinbideari dagoquiona eta (gurutzea)quin seña laturic dauden erasquínac; izarchoarequin seña laturic daudenac izanen dira obequi era-baquitzeo Aita Astetearena (sic), eta jaquin videaren gañeracoan aitcinatuagoric direnendaco».

14. P. A. PEREZ GOYENA, *Ensayo de bibliografía navarra* (Burgos, 1949), II, 42.or.

15. J. M. SATRUSTEGUI, «Hemeretzigarren mendeko kate ximak. I. Neuritzak». *Egan* I-6, 1966, 67.or.

16. *Catichima Ttipia. Baionako Diosesaco* (Tours, 1935), Maison Mame. 140×90 mm., 58.or.

17. *Cristauaren Icasbidea. Aita Gaspar Astete eguna, cein centzatua eta berretua, aguertzen da euscarara birtua, Dre. D. José Oliver eta Hurtado, Iruñeco Obispo Choy Arguiaren aguindez, bere menecoen oitzaraco. Iruñan: J. Lordaren moldizteguian. 1880.* (125×87 mm.) 68 orrialde.

Itzultzaiaren izenik ez du ematen. Zaharragoko beste dotrina bat ere ba omen zen. Oso zaila gertatu zitzaidan zehaztasunak lortzea, eta azkenean eskuratu nuen ale bakarra larruzko azalekin eskuz josirik zegoen. Zoritxarrez, lehen orriak kenduak ditu eta ezin jakin, beraz, nork egin zuen, ez non argitaratu zen. Horrela egon da orain arte nere gordailuan beste liburuska eta paper zaharrekin batera.

Echeverriren doctrina

Iñaki Segurolaren lana ikusi bezain laster, susmo baten eraginez neure bilduma ikusten hasi nintzen. Hantxe zegoen larru gorri-oriska eta zimurtuen barruan argitaragabekotzat emandako eskuizkribuaren antzeko liburuska. Oso gauza xumea, noski, eta eskutan ibiliaren poderioz higaturik dago. Sakelako argitalpen txiki honek 100 x 70 mm. besterik ez du, eta Ama Birjinaren latinezko letaniekin mozten da 92. orrialdean testua. Lehenago esan bezala, sarrerako zortzi orrialde falta ditu nere ale honek eta egilearen izenik ez du inun ematen.

Eusko Legebiltzarreko Liburutegian omen dagoen eskuizkribuaren lan bera da, Luzaideko Echeverrirena alegia. Aurkipen interesgarria da paper hauena, izengabeko beste Kristau Ikasbide baten egilea azaltzen bait dute, alde batetik, eta aldaketa ugari izan duelako, bestetik. Hainbat ikutu, gehitze eta zuzenketa jakin-garri ikusita esan dezakegu Iparraldean edo Iparraldeko irakurleei buruz egin zela argitalpena. Iruñean aurkeztu eta Goicoa bikario jeneralaren eskuetan gelditutako eskuizkribua argitaragabea dela esatea zilegi da, beraz, beste nonbait argitaratuko zela pensatzuz.

Bi testuen konparaketak hobeki adieraziko du esandakoa.

I. Grafia aldaketak

Era askotako aldaketak daude liburuskan. Hizki edo letraren baten idazkera desberdina aipa daiteke lehenik.

1. Eskuizkribuak i ezartzen duen tokian, y inprimatu zuten: *ïautsi/yautsi*, *ieiqui/yeiqui*, *iaun/yaun*, *iabe/yabe*, eta abar. Normalean, beraz, *yuyamendu*, *yanhari*, *bathayoa*, *confesio yenerala*,

yustoa eta antzekoak aurkituko ditugu dotrina honen argitalpenan. Etsaïic dioenean (26,16), *etsayic* ezarri zuten noski.

Joera orokorra denez, askotan gertatzen da aldaketa hau eta ez naiz husketa osoa egiten ahalegindu. Salbuespenak, aldiz, ez dira hainbeste eta azpimarra daitezke. Emango diren adibideen testuak aurkitu ahal izateko, Segurolak emandako zenbakia eta lerro-kadak baliatuko ditut.

Esan bezala, gure *j*-ren ordez gehienetan *y* erabiltzen du liburuskak, baina ez beti. Adibidez, *j* agertzen da *juramentu* hitzean, eskuizkribuko hiru idazkeria hauen ordez: Juramentu (18, 13), iuramentu (18,14), eta yuramentu (18,15). Echeverrik bere esku z idatzitako «*Yateco*» (25,24) hitzaren ordez *Jateco* inprimatu zuten; era berean, «*yaquintasuna*» beharrean, *Jaquintasuna* agertzen da (27,22).

Bestelako eredurik ere badago, noski, bi testuen artean. Esate baterako, etsaïec (8,55), *etsaïec* bilakatzen da *y* orokorra baztertuz. Eskuzkoak «*Misterioric*» dioelaric *i* normalarekin, *Misterioric* dakar liburuak.

Erakusle eta izenordeetan badira Echeverrik orijinalean idatzi ez zituen formak, hala nola, hetaz (21,25)/*heyetaz*; hetan (18,19)/*heyetan*; horien (25,29)/*hoyen*; eta grafia arruntera itzuliz, heiei (22,11)/*heyei*.

Azenturen bat edo beste agertzen da, bestalde, testu inprimatuak eta *i* letrarekin ia beti. Adibidez, *Haraguía* (26,10), *luxuriaric* (5,24), *dítuzu enac* (10,25), *noíz* (13,23; 25,8), *lehenbícicoa* (27,11), *Yzpiritu Sáinduaren* (29,2), *ízanic* (35,4). Kasu hauetaz landa, «*próximo*» hitzak ere bietan behintzat (25,9; 41,19) azentua badu.

Eta orain artekoekin ikustekorik ez izan arren, *i* letraren istilu puntual batzu aipatuko ditut. Dirudienez, eskuzko paperetan zalantzan dagoen «*primu*», oinordeko (21,29), *premu* da zehazki inprimategiko alean. Ebakera herrikoiaaren kutsuz edo, *azquenian* dakar liburuak, egileak «*azquenean*» zioelarik (16,15). Moldiztegi-ko akatsa izan daiteke edo gaizki ulerturen baten lana, lehen esku-ko *iautsi* hitza (13,10), *hautsi* bihurtzea.

Eta *i* letrari dagokion azken oharra: Echeverrik «*Creatzailea*» dioen pasarteetan (5,2; 6,23; 11,27; 18,20), argitalpenaren arduradunek *Creatzalea* ezarri zuten. Berdin gertatzen da *Salbatzailea/Salbatzalea* (6,24; 11,29; 12,17; 38,30) eta *Lorificatzailea/Lorificatzalea* hitzakin (6,25; 11,31).

2. *Hitz bukaerako o/u.* «Articulu» hitzarekin aldaketa atipiko samarra gertatzen da. Echeverrik *articulu* idatzi zuen, noski. Moldiztegiko testuan aldiz, galderik *articulo* diote eta erantzunak *articulu*:

- G. *Cer gauza dira zuc, eta hare¹⁸ dautzcatzuenac eta sinhesten ditutzuenac?*¹⁹
- I. Articulu fedezcoac principalqui, credoan dauden bezala (10,2; 10,26).
- G. *Cer gauza dira Articulo fedezcoac?*
- I. Dira fedearren Mysterioric principaleñac.
- G. *Certaco dira Articulo fedezcoac?* (10,29).

«Fedezko Actan» Articulu/Arti(cu)lu diote biek (41,8).

3. Luzaideko bikarioak «Soberbioa» eta «Abarizioa» hitzak sartzen dituen tokian liburuskak *Soberbia* eta *Abaricia* dakartzan:

- G. *Cer da Soberbioa?* (25,14) / *Soberbia*.
- G. *Cer da Abaricioa?* (25,16) / *Abaricia*.
- Soberbioaren contra, Umiltasuna (25,30) / Soberbiaren...*
- Abiricioaren contra, Largotasuna (25,31) / Abariciaren.*

4. *Gakotxa.* Luzaideko bikarioaren izkribuetan «Credo» eta «Salve», izen biak, gakotxarekin daude mugaturiko forma gramatikaletan: *Credo'a* (3,19; 9,22; 10,3; 10,26) eta *Salve'a* (4,5; 16,19; 16,23; 16,27). Argitalpenean, alderantziz, gakotxik gabe zabalduz ziren.

5. *Leherkari hasperenduna.* Dotrina honetako grafia-orrazketa nabariena /kh/ leherkari hasperendunarena da. Echeverrik ez zuen kontuan eduki eta izen multzo bati dagokio zuzenketa. *Bekhatu* bezalako hitzek, bestalde, kristau ikasbidean duten maiatasunarekin ikutuen kopurua asko ugaltzen da. Harrigarri iduritzen zaio Segurolari Luzaideko bikarioak fonema hau inoiz ez markatzea, eta idazleen tradiziora jotzen du hori azaltzeko: «Pentsa daiteke literatur tradizio faltaz, bestetan egiten zenaren berri ez jakinez, ez zutela kezka haundiegirik gauzak behar bezala eta era batera markatzeko». Une honetako ikuspegia hori da, noski; batasuna,

18. *harc*, eskuizkribuan. Idatz-akatsa dateke.

19. Orijinalean azenturik gabe.

hizkuntz arauak eta euskararen normalizapena lortzea. Echeverriren garaian ere joera batzu nabarmentzen ziren eta, gero ikusiko den bezala, garbizale kutsua nabari du, lexiko aldetik behintzat. Baino, nere kezka zera da, tradizio literario hutsean aurki behar ote da idazkeraren azken arrazoia? Euskal idazleen berri gutxi duten luzaidarren ehundaka gutun badut nik neure gordailuan eta harriturik gelditu izan naiz askotan *h* hasperendunak zein zehatz ezartzen dituzten ikustean. Kontutan hartzekoa da pertsona hauek ez zutela inoiz euskara idazteko araurik ikasi, eta zenbat idazle klasiko irakurriko zuten baserriko aitzur, goldenabar eta ardienguruan? *Herria* astekaria, batzutan, eta egutegia ilargiaren berherapena kontuan edukitzeko, izango zen irakurketa nagusia. Luzaiden, bestalde, haurtzaroko eskolak ere Espainiako maisu erdaldunengandik izan dituzte. Nondik datorkie, beraz, hain txukun eta hain zehatz hasperenak markatzeko erreztasuna? Nere ustez, eguneroko mintzairan dute eredua eta berek ahozkatzen duten moduan idazten dute. Bederatzi urtez egon nintzen Luzaiden, bertako hizkuntza mintzo nuen eta egile bakoitzaren mintzaira sumatzen da gutunetan. Hau horrela balitz, Echeverri luzaidarrak agertzen duen idazkeran leherkariaren hasperena ordurako galduxea zela bere sorterrian, esango nuke. Besterik ez, behar bada. Bi dokumentu hauen konparaketa egitean beste ondore bat ere atera daiteke gainera: luzaidarrak Iparraldeko kutsuarekin sumatzen ez duen fonemaz konturatuko ote ziren Hegoaldean? Horrexegatik uste dut Iruñean ez baino Iparraldean argitaratua izan zela liburuska hau.

Argitaratzean egindako zuzenketak hauek dira:

Akhabantza. (11,5). Munduaren akhabantzan (13,24).

Bakhar. Haren seme bakhar (3,22); Jainko bat bakharra (6,19).

Bakharric. (18,3).

Barkha. Barkha zagutzu (3,9); Barkhatcen (3,10); Barkhatceco (22,30); *barkhatcecoz* (23,13); barkhatuac izaiteco (34,3); barkha bitzaut (38,24); bekhatuen barkhamenduan (4,3).

Bekhatu. Hitz hau askotan errepikatzen da. Gure bekhatutic (12,19); guhauren bekhatuac (15,24); bekhatuez (31,31); bekhatutric (32,31).

Bekhataria. (7,5).

Ekharry. Berriionac ekharri (40,23); ekhartcen (16,4).

Erakhuts. (4,12); *Erakhuts nola?* (8,10); eta hunec erakhusten guri (10,19). Ez daquienari erakhustea (20,15).

Oharra: izenburu batean *h* gabe dator: *ceintan eracusten batira.* (Eskuizkribuan, *eracusten*), (10,1).

Ikhusi. (9,13); *Ikhusi cinduen zuc Jesu-Cristo sortcen?* (10,11); *Ikhustearequin* (17,4); *Ikhus dezagun orain* (21,9).

Khanbiatu. Khanbiatcen (33,19).

Kharsu. Izpiritua garbi eta kharsu berarequin (39,21).

Khausitu. «Ceruco Lorian khausiaraz gaitzazu» (40,10); Cer ocasianetan khausitu den (32,13); nahiz indigno khausitzen naicen (39,13).

Khurutce (3,1); Hitz honen grafia aldakorra da Luzaideko apaizaren izkribuan: Curutze (8,7; 8,11; 8,20) eta curutceac (9,4); Curutcearen (8,26); Curutcean (9,7; 9,9). Argitalpenak salbuespenik gabe bateratzen du desberdintasun hori, baina beste aldaketa bat sortzen du denbora berean: *Khurutce* (8,7; 8,11; 8,20) ia beti dakarena, eta *kurutcearen* (8,26) behin edo beste ikus daitekeena. Christo *Khurutceficatuaren* itchura ceintan eroi baiguintuen (7,31).

Lekhu. (14,28). Lekhu huntan (4,8), lekhu eta gauza gucietan (31,16).

Lekhucotasun. Testiguantza. Jainkoaren Legeko zortzigarren agindua honela emana da Frantziako gisan²⁰:

*Lekhucotasunic ez duzu
Ez hitz erranen falsuqui* (6,19; 19,16).

Likhitsqui. Lohikeriaz, lizunkeriaz. Hamar Aginduen zerrenda berean, seigarrena:

*Paillardiza egunen ez duzu,
Obraz ez gogoz likhitsqui*²¹ (6,9; 19,6).

Lokhartu. Gurutzearen seinalea noiz egin behar den esatean, hitz hauekin amaitzen du liburuskak erantzuna. «...Elizan sartcean,

20. Izenburu osoa honela da: «Manamendu berac franciaco guisa(z)» Eskuizkribuak, bestalde, honela zioen: «Manamendu berac bertce guisaz». Azken hitzak bukaerako z tatxa beltzez ezeztatua du.

21. Eskuizkribuan, *liquisqui*.

yatean eta *lokhartceacoan* (8,30). Hasperen gabeko leherkari asko agertzen da doctrina honetan. Adibidez: *urricaltasuna* (25,5); *urriquimendu* (32,22), *Jaquintasuna* (27,21), *hunquitcea* (27,6), *bakotchean* (33,18), *baquea* (28,3), *hamecagarrena* (28,12) eta abar. Era berean, gazteleratik sartutako maileguek ez daramate *h*-rik: *Caritatea* (26,22), *cardinalac* (26,23), *conseilu* (27,24), *ocasione* (32,13), *continentcia* (28,7) eta *contcientcia* (32,5). Baino, *Khambiatcen* (33,19).

6. *Horzkari hasperenduna*. Echeverrik ongi erabili zuen /th/bere izkribuan eta ez dago aldaketa haundirik inprimatutako lanean.

Zalantzaren bat edo beste bakarrik. «*Gathiboac erreescatatcea*» (20,27) zuzentzeko eskatu zion egileak inprimatzaileari eta, horren arabera, /th/dakar plazaratutako kateximak. Eta ohar horien zerrandan ez agertu arren, *borthitz* hitza ere zuzendu zuten argitaraztaileek: «Da confirmatceco, eta *borthizteco* bathayoan errecibitu guinduen fedean» (22,28). Hirugarren zuzenketa, *athera* hitzarena: «mihia peco ezpainaren gainerat erdi *atheratua*» (38,1). Hitzen aldaketari dagokio, lehen zirriborroan ez zegoen beste /th/hizkiren bat edo beste aurkitzea: «Gure obra onen medioz», zioen luzaidarrak eta «gure obra onen *bitharte*» (22,8) gelditu zen azkenean, berak parentesi artean eta ezeztaturik utzi bazuen ere. Aditz formaren aldaketak sortzen du oraiko adibidea: «sortzez ecartzen dugun becatu bat» dioenean egileak, «sortcez dator *khigun* behatu bat» (22,17), ipini zuten moldiztegian.

«Acabantza» delako azken oharren atalean, arduraz ahalegindu zen egilea, *deithcen* aditza hasperenduna zela azpimarratzen. Pare bat aldiz, hala ere, ez zen ohartu edo ez zuen behintzat zuengaitan sartu, eta eskuizkribuko hutsunea liburuskak bideratzen du: «deithcen baita Abrahanen senoa» (13,9); eta beste hau: «mortalak deithcea» (25,7).

Maite/maitha ongi bereizten ditu gehienean. Biak sartzen dira «Amodiozco Acta» delako otoiitzean: «Ene Jaincoa, maite zaitut bihotz guciaz (...) zarelacotz guciz ona, eta osoqui maithagarria» (41,17). Salbuespen gisa bada ere, aldiz. Hamar Manamenduetan «*Jaincoa maitatcea*» (5,19) esaten du liburuskak. Alderantziz, berthuten (29,2) dator izkribuan, eta *bertutene* liburuan.

7. *Ezpainless hasperendunak*. Arazo asko sortzen dizkio Luzaideko apaizari. Argitaratutako dotrinan zuzenketa ugari dago,

eta denak jasotzeko asmorik gabe, aldatutako hitzen aipamena egingo dut.

Aphaldu. Beheratu. «Belhaunicaturic, eta beguiac *aphalduac*» (37,31).

Aphezpicua. Egileak berak azken oharretan zuzentzeko agindua emana zuen eta /ph/ dator liburuan. *Aphezpicua* (23,31).

Gorphutz. Eskuzkribuak ez du *h*-rik markatzen eta asko dira argitalpeneko zuzenketak. «Gorphutz bat» (12,29), «Barurtuz eta gorphutzta mortificatuz» (26,16). «Gorphutceco eta arimaco erreberentciaric handienaz» (18,3), «gorphutzari zaizconac» (20,14).

Phartea. «Doctrinaren lehenbicico phartea» (10,1) Kristau Ikasbidearen lau zatiako izenburuetan era berean errepikatzen da hitz hau.

Phentsamendu (8,14), «hitcez, obraz, eta phentsamenduz» (19,9). «Ofritcen darozquitzutene phentsamendu, hitz, eta obra guciac» (41,27).

8. *Frikaria.* Euskarazko *x*-en soinua adierazteko joera desberdina sumatzen da egilearen eta argitaratzailearen artean. Eskuzko lanean *s* agertu ohi da batzutan, eta *ch* bihurtzen liburuan: *gais-toei* (7,14)/*gaichtoei*, *gaistoetaric* (8,14)/*gaichtoetaric*, tentacione *gaistoetan* (16,5)/*gaichtoetan*. *c* eta *z* frikariet ere *ch* forma hartzen dute argitalpenean: *zucenqui* (20,8)/*chuchenqui*, *bereci* (36,26)/*berechi*. Gaztelaniatik hartutako maileguetan jatorrizko idazkeria gordetzen du: *proximoa* (6,2), *examinatu* (37,11). Azkeneko hau liburuaren gehigarria da. Mailegu zaharragoetan bi joera daude: *Mesprechuz* (21,14) forma tradizionala eskuzko lanean, eta erdal kutsuko *Menosprecioz*, plazaratutakoan.

9. *Afrikatua.* Eskuzkribuaren egileak zalantzak ditu afrikatuengen idazkeran. Batzutan *ch* erabiltzen du, kontsonante ondoan batez ere, eta bokalen artean *tch*. Bere lana imprimatzean iritzi hauetako bateratu egiten dira ia beti *tch* ipiniz, hala nola, *bacochean* (33,17)/*bakotchean*, *mancha* (24,17)/*mantcha*, *bereczten* (36,24)/*beretch-zten*. Lehen eskuko zenbait hitz kendu eta ordezko sartu ohi du, batzutan, argitaratzaileak. Horietako batean afrikatua aurki daiteke: «Bertcerena ebatsico ez duzu, ez guardatuco inüustoqui» (19,11) dioen zortzigarren manamenduan, beste hau dio liburusakak: «Bertcerena ebatsico ez duzu, ez *atchiquico* inyustoqui». Esaera hori

bera liburuaren hasieran honela dator: «ez *tchiquico*» (6,10). Moldiztegiko hutsunea, noski, «ez *atchiquico*»-ren ordez.

10. *Xixtukaria*. Atal honetako aldaketa multzo bat grafiari huts-hutsean dagokiona da. Izkribuak c dakarren tokian, z sartzen dute inprimategian: *utci* (2,25), *utzi*; *hitcez*; *hiltcea* (5,23), *hiltza*; *ezagutceco* (10,30), *ezagutzeco*. Aldatu gabe errepi-katzen da khurutce hitza. Huts egunik edo, *curutze* (3,1) dio behin Gasteizko izkribuak. Othoitcez, eta humilitatez (26,14), *othoitcac eta humiltasunaz*. Othoitcaz, esan behar luke.

Xixtukari afrikatua idazteko zalantzak oso nabarmenak dira aditzetan. Egileak, adibidez, ehortea (21,1) idazten duenean, *ehorza* aldatzen du liburuak. Era berean, uzten (21,14), *utzten* inprimatu zen.

Gogortasuna azpimarratzeko xedeak honako aditz forma hauek sortzen ditu liburuan: *dauzkanak* (10,22), *dautzcanac*: *dauzcatzunac* (10,20), *dautzcatzunac*; *dauzcatzuenac* (10,24), *dautzcatzuenac*; *dituzuenac* (10,25), *ditutzuenac*.

Beste batzutan duda-muda Luzaideko paperetan datza, hala nola Echeverrik etzarcen (29,21) dioelarik, eta argitaratzaleek *ezartcen*.

Orohar, esan daiteke I. Segurolak sumatu bezala, afrikariaren joera dela nagusi. Hala, salbuespen gisa eskuizkribuak *zorci* (28,32) frikaria ematen badu ere, liburuak *zortzi* jasotzen du, hala nola *zortzigarrena* (5,25; 19,15; 24,4; 28,9). Era berean afrikari bihurtu zituzten inprimategian, *ethortce* (7,7), *esperantzazco* (41,11), *concientzia* (32,7; 32,11). Hitz amaiera, honako hauetan gogortzen da: *delacotz* (17,5; 28,29; 29,22), *duelacotz* (22,4), *cituelacotz* (9,7).

Oso gutxi dira, alderantziz, frikari bihurtzen diren afrikatuak. Adibidez, Pontcio (3,24) eskuzkoetan, eta *Poncio* inprimaturiko orriean. Konparaketa egiteko modurik gabe, *Francia* dio bi aldiz liburuskak, aurrelanak «bertze guisaz» dioen izenburu hauetan: «Manamendu berac franciaco guisa(z)» (6,3; 20,4). *Lizate*; *Litzate-que* (23,14) dio egileak.

Kontsonante hasperenduen artean *arhinqui* (19,18) dakar moldiztegiko testuak, eskuzkoak *h* gabe emana. Baino, adibide bakkarra denez, ez dakigu joera zabalago baten eredutzat har daitekeen kasu honetan.

Era berean, ez dut uste adierazgarri izan daitekeenik behin edo beste *gug* hutsean uztea: *egiazkoaren* (6,17), *aingeru* (17,18), joera zabalduna bestea delarik aztertutako bi dokumentuetan. Moldiztegiko hutsunetzat har nitzake.

Zuzenketa jatortzat daukat, aldiz, egileak deboqui (18,25; 20,4) dioelarik, *debotqui* ipintzea liburuan.

Idatz-akatsik ere bada, bestalde, liburuan: guehiago/guchia-go (13,22). Letra honen aldaketak esanahi osoa trukatzen du: «Jainko bezala Aitac bezambat loria duela, eta Guizon bezala bertce guciec baino *guchiago*». Doctrinaren/ *doctrinarfn* (21,6); *da/ba* (23,4). «Zergatic *ba* mortal?». Hogoi eta bortcean/bortcoan (31,22). Izan bedi/*iza nqed* (39,7). Erredemtorea (11,1). Yzpiritu Soindua (12,8).

II. *Hiztegia*

Letra soil baten aldaketa baino gehiago esan nahi duen zuzenketarik ere badago aztergai dugun argitalpen honetan. Hitz mailegatuuen idazkera desberdina ikusten da batzutan, izena bera trukatzen da beste batzutan izen dotore eta herrikoaren arteko eztabaida zaharrean.

Hitzen ordena eta joskera gramatikala ere ukitzen dira behin edo beste. Euskara landu eta txukundu nahian egindako ahalegina azaltzen da dokumentu bien konparaketan. Adibidez:

Amorecatic (27,20). *Amorea gatic* dio liburuak.

Benedicioneaz (40,7). *Benedicacioneaz*.

Comunioneoco (36,30). *Comuniatceco* disposicionez.

Hartacotz (4,22). *Hortacotz*. «Por eso ruego...».

Ofensatuaz (5,5). *Ofendituaz*.

Paulo (4,19). *Pablo*.

Umiltasun (37,17). *Humilitate*.

Urriquitasuna (28,5). *Urricaltasuna*.

Hitzen aldaketa ugari aurkitzen dugu Luzaideko bi izkribuen artean:

Aguincen (41,29). *Hitzemaiten* dauzut.

Amen (40,2). *Halabiz*.

Artheraino (33,8). *Ondoraino*. «Confesatu ondoraino».

Ave Maria (40,6). *Agur Maria.*

bainan beguira (16,7). *baicic libra.*

bere (37,14). *beren buruen.* «Bere condenacioneco», zioen luzaiderak eta «*beren buruen condenacioneco*» esaten da liburuaren.

Birgina (31,14). *Andredena María Saindua.*

Borondate (5,10). *Ontasun.* «Konfidatcen dut zure ontasun eta misericordia finic gabecoa».

Confesionean (25,29). *Cofesioan.*

Declaratu. Erran (33,29) dio eskuizkribuak eta *declaratu* aldatzen du liburuak: «Cofesioan declaratu behar du». Declaratceco (33,23) lehenik eta *cofesatceco*, gero: «...uzten bada bekhatu mortal bat cofesatceco». Declaratcea (33,28), *declaratceco*: «ahazten bazaco declaratceco».

Desira (19,25). *Guticia.*

ecic (18,1). *ecen.* «ecen Jaincoa ofentsatu».

Eguiazqui (33,32). *Segurqui.*

Erran (33,29). *declaratu.*

Errecibitzen (36,29). *Eguiten.* «Hostia osoa eguiten duenac».

eta (33,8). *baina.* «... baina atracioneac ez».

Etsecutatcen (9,11). *Perseguitcen.* «Gure etsayec atacatcen eta perseguitcen baiguituzte».

Galdeguiteco (16,26). *Escatceco.*

Garbitasuna (26,1). *Castitatea.* «Luxuriaren contra Castitatea».

Guardatuco (19,11). *Atchiquico.* Bigarren esaera batean lehen bokala falta duela agertzen da: guardatuco (6,10), (a)chiquico.

Hetaz (21,25) *Heyetaz.*

izaiteaz (37,9). *egoiteaz.* «Graziazco estatuan egoiteaz».

medioz (22,8). *bithartez.* «Eta gure obra onen bithartez».

Mesprechatuz (26,12). *Despreciatuz.*

Mesprechuz (21,14). *Menosprecioz.*

Milagroqui (12,26). *Miraculuzqui.* Milagrozco (12,27). *Miraculuzco.* «Nola izan cen obra milagrozco hura?».

Naturazgoragoaqui (12,26). *Sobrenaturalqui.*

Ofensatu (18,1). *Ofentsatu.* Echeverrik gehienetan frikaria egiteko ohitura du eta kasu honetan afrikatu bihurtu zuten argitaratzaileek.

Pater Noster (40,5). *Aita gurea.*

Peil (16,9). *Peligro*. «arimaco eta gorputceco peil, eta gaitz gucieta-ric» (16,9); «*arimaco eta gorputceco peligro, eta gaitz gucie-taric*». Peilian (8,28), *peligroan*, «tentamendu eta peligroan».

Penitencia (34,13). *Penitentciaren*. Berez ez da hitzaren aldaketa-rik gertatzen hemen, genitibo formarena baizik: «Cer behatu izanen da penitentciaren ez complitcea?».

Sacrilegio icigarri bat (37,15). *Sacrilegiozko behatu icigarri bat*. Umiltasun (37,17). *Humilitate*.

III. Gramatika

Echeverriren dotrina argitaratuak baditu aditzaren erabilke-ra, gramatika forma eta joskerari dagozkion zuzenketak.

Aditza. Diferentzia xumeak dira batzutan, hala nola, dire (11, 14)/dirá; baitire (28,18)/baitira. Eskuizkribuak «on litzateque» (23,14), eta liburuak zuen ala oker, *lizate* aldatzen du. Bataioko hitzetan. «Nic bathäiatcen haut» (22,24), itzuli zuen «yo te bautizo» esaera, eta «*nic bathayatcen zaitut*» dio liburuak gure artean beti erabili izan den moduan.

Aitagurean ere badaude ikuturen batzu: «Ceruetan zarena (16, 11) dio Echeverrik Luzaideko tradizioan geuk ezagututako forman. Liburuak Hegoaldeko bidea hartzen du, *Ceruetan zaudena alegia*²². Liturgiaren azken berritzean nolabait bateratu nahia nagusitu da, Gipuzkoako *zeruetan zerana* onartzean. Garrantzi gutxiko aldaketa da honako hau ere: «hartcen duenean» (16,11), *hartcen duelaric*.

Aditz trinkoaren maiatasuna urria da zuzenketa hauetan, eta aditz sustraia bera aldatzen da behin: «ecartcen dugun» (22,17), *dathorquigun* bilakatzen da argitaratutakoan: «sortcez dathorqui-gun behatu bat».

Aditzaren nahiz aditz izenen forma laburrak borobildu ohi dituzte, batzutan, zuzentzaileek: «obligatua da» (33,25), *obligatua guelditcen da*; «Comuniatcean» (37,30), *comuniatceco mementoan*.

Perpausa elkartuetan ulerterrazak diren aditzak falta direla-rik, liburuaren arduradunek sartu egiten dituzte. Aitortzako Sa-kramentuan penitentzia noiz bete behar den mugatzean, honela

22. J. M. SATRUSTEGUI, «Euskaraz zenbat Aita-Gure?» *Jaunaren Deia*, 15 (1966), 282-291.or.

zioen Luzaideko bikarioak: «Seinalatcen bada dembora, dembora harten berean; *bertcela* ahal bezain laster» (34,11). Bigarren atalari dagokio liburuaren osaketa. «*seinalatcen ez* bada ahal bezain laster», dioelarik.

Ergatiboa hiruzpalau aldiz gehitzen du moldiztegiko aleak. «Orenac emaitean» (40,11)/*orenec emaitean*. Pertsona izena du arazoa Echeverrik, «Cer erran nahi du Jesus?» (12,16) galdetzean. Argitaratzaila mugatu nahirik, *Cer esan nahi du Jesusec?*, ipintzen dute. Benetazko zehaztapena beranduagoko Kristau dotri-netan egiten da, «zer esan nahi du Jesus izenak?» galderarekin. Azken orrazketak sortzen du «duenak» (37,12) *dutene*c bereizketa ere: «Becatu mortaleco estatuan comuniatcen duenac, erreccibitzen du Jesu-Christo?» (37,12), zioen eskuizkribuak. Azken testuan beste era honetan dator: *Bekhatu mortaleco estatuan comuniatcen dutene*c, *erreccibitzen* dute Jesu-Christo?

Hitzen ordenari dagokionez, zuzenketaren bat edo beste aipatuko dut. Eskuizkribuak: «Yaquitea cer erreccibitu behar duen» (36,34). Liburusak: *Yaquitea cer behar duen erreccibitu*. Esk.: «Ceren guizona harten aisa erortzen baita » (23,23) Lib.: *Ceren harten guizona aisa erortzen baita*. Esk.: «Dira seinale agueri diren batzu Jesu-Christo gure Jaunac establituac hetaz guri emaiteco bere gracia eta berthuteac» (21,25). Lib.: *Dira seinale agueri batzuec Jesu-Christo gure Jaunac establituac, heyetaz emaiteco guri bere gracia, eta berthuteac*. «Jaunaren Aingueruac eman dio Mariari berri on bat» (40,15). *Jaunaren Aingueruac berri on bat eman dio Mariari*.

IV. Gehigarriak

Hitz solteak sartzen ditu han-hemenka Echeverriren eskuizkribuan moldiztegiko zuzentzaileak. Azpimarraturik emango dugu eraskina.

- Norc maithatcen du Jaincoa *osoqui?* (17,29).
- Nahiago *izaitea* gauza guciac galdu... (18,1).
- Berthute Cardinalac *edo Moralac* dira laur (24,27).
- Maithatceco *Jaincoa* gauza gucien gainetic (27,19).
- Bat bederac hartu behar du *aurquitcen den* circonstantcien arabera (32,18).
- Behar du cofesatu bekhatu bera *segur guisa* (34,1).
- Eta absolucionea *baldin* conbeni bazaut (35,10).

Izen buruak falta dira bizpahiru ataletan:

Guiristino-Doctrina (7,16). (Maiuskulakin).
Amodiozco Acta (41,17).

Liburuak dakartzan zenbait galdera luzeagoak dira eskuz idatzitakoak baino. Gehiketak hobeki ikusteko bi lerrotan parekatuko ditugu testuak.

Eskuizkribuan:

G. Cofesio ona izanen da bere nahiric gabe ahazten bazaco declaratcea becatu mortal bat?

I. Bai, Jauna; bainan hurran cofesionean erran behar du aitcineoan nola ahatci citzaion (33,25)

G. Nola behar da cofesatu?

I. Cofesorraren oinetara baino lehen belhaunicaturic egunen du curutcearen seinalea, eta ahuspezcurtic erranen «Ni becataria, P. 4» hau finitu ondoan presentaturen da Cofesorraren oinetan eta erranen du «Laudatua izan bedi Aldareco Sacramendu Saindua» (34,24)

Liburuan:

G. Cofesio ona izanen da, bere nahiric gabe ahazten bazaco declaratcea bekhahu mortal bat?

I. Bai, Jauna, bainan orhoitzen delaric lehen cofesioan declaratu behar du nola aitcinean ahatciriuc utci zuen bekhahu hura (71.or.)

G. Nola behar da cofesatu?

I. Cofesorraren oinetara baino lehen belhaunicaturic eginen da khrutcearen seinalea, eta ahuspez yarriric erranen «Ni bekhataria», hau finitu ondoan yeiqui eta heltzen delaric Cofesorraren oinetara, erraiten da «Laudatua eta benedicatua izan bedi Aldareco Sacramendu Saindua, edo, Aita benedica nezazu ceren egun baitut bekhahu (73.or.)

Berez Kristau ikasbidea ez izan arren, Sakramentuen inguruaren esan ohi ziren otoitz batzu ekartzen dituzte garai honetako doctrinek. Bi dokumentu hauen artean desberdintasunak badirenez, oso-osorik emango ditugu biak:

Cofesioneo eta Comunioneco othoitzac. Cofesio aitcineco othoitzza.

Jesu Cristo ene Jauna, salbamenduaren esperantza bacarra, othoitzten zaitut, zure Pasionea eta Heriotcea

Cofesatceco eta Comunitatceco othoitzac. Cofesio aitcineco othoitzza.

Jesu-Christo ene Jauna, ene salbamenduaren esperantza bakarra, othoitzten zaitut zure Pasionea eta

gatic eman ditzadazun contricionea eta suspiroac nigar eguiteco neure becatuez, Salbatzaile Dibinoa, zure Ama eta bertce Saindu gucien merecimenduen gatic, soizu,ene miserabletasunari, eta emadazu neure falten ezagutceco arguia hel nadin zure gracia Saindura. Damu dut, Jauna, Zu ofensatuaz zarelacoz gucziz ona, eta maithagarria; damu dut neire bici pasatuan eguin becatuez, eta damu dut ez guehiago damu izanaz. Aguintcen dauzut, Jauna, osoqui Zu ganat bihurtcea, eta ihesguitea becatuco bide guciataric; beraz hala othoitzen zaitut eman dezadazun gracia confesio huntaric aitcina, bici nadin zure borondatearequin ez eguiñez, ez erranez, ez pentsatzuz zure Loriaco, eta ene zorioneco denic baicen. Amen. (38,4)

Heriotzea gatic eman ditzadazun contricionea, eta auhenac neure bekatuez nigar eguiteco. Munduaren Salbatzailea, soizu bekhatari miserable huni, zure Ama Sainduaren eta bertce Saindu gucien merecimenduen gatic,igor dezadazun, Jauna, zure arguia erakhuts ditzadan ene falta guciac, eta lagunezan zure cerbitzu Saindura heltzen. Damu dut, Jauna, zu ofendituaz ceren zaren guziz ona, eta osoqui maithagarria; damu dut hoin disposizione guti izanaz neure falten cofesatceco; damu dut neire bici pasatuan eguin bekhatuez, eta damu dut ez damu guehiago izanaz. Hitzemaiten dauzut, Jauna, osoqui zu gana bihurtzeaz; eta ihes eguitateaz bekhatuco ocasione guciataric; bada hala othoitzen zaitut eman dezadazun gracia, Cofesio huntaric aitcina, bici nadin zure borondate Sainduarequin ez eguiñez, ez erranez, ez eta phentsatzuz zure Loriaco, eta ene zorioneco denic baicen. Amen. (80.or.)

Aitorta ondoko otoitza (38,20) bere tokitik kanpo ezarri zuen Echeverrik orijinalean huts eginkik, Jauna hartzeari dagokionaren atzetik. Liburuan bideraturik dago akatsa.

Cofesio ondoco othoitza.

Jauna, zure Ama Sainduaren, eta bertce Saindu gucien merecimenduen gatic izan bequizu agradable ene cofesio hau, eta barca bitzaut zure pietateac huntaco huts guciac, eta urrical zaite ene iduquitceaz hemen bezala Ceruan absolutua, eta bortitztua ene promesa onen guardatceco bizi zarena, eta erreinatzen duzuna Aitarequin, eta Izpiritu Sainduarequin. Amen. (38,20)

Cofesio ondoco othoitza.

Jauna, zure Ama Sainduaren, eta bertce Saindu gucien merecimenduen gatic izan bequizu agradable ene Cofesio hau, eta faltatu izan zaizquidau gauza guciac barkha bitzaut zure pietateac, eta haren arabera urrical zaite Ceruan ene iduquitceaz absolutua, eta borthizteaz ene chede onen guardatceco bici zarena, eta erreinatzen duzuna Aitarequin, eta Izpiritu-Sainduarequin. Amen. (81.or.)

Comunione aitcineco othoitzta.

O Aita guciz botheretsua, ene Jainco eta Creatzaile Saindua, errespetu eta umiltasunic handienarequin hurbilten naiz Aldare Saindu hortara, nahiz indigno causitzen naicen, zure Maiestate adoragarriaren errecibitceco. Ene bihotceco hotzetasuna da Jaun soberanoa, indigno eguiten nauena behar den amodioarequin Zu gana hurbiltceco, bainan zure hitz eztia dira fidantciarequin hurbiltarazten nautenac parthalier izaitera Aingueruen ianhari saindu hortan. Zure borodatea denaz gueroz, Jesus eztia, desiratcen dut zure Gorputz Sainduaren errecibitcea Birgina zure Ama Sainduac, eta bertce Sainduec errecibitu cintuzten fede bici, izpirtu garbi, eta carsu berarequin. Amen. (39,10)

Comunione ondoco othoitzta.

Esquerrac darozquitutz, ene Salbatzaile maitea, Zuc eni eman (38,29) gracia guciez, eta bereciqui ceren nahi izan duzun zure egoitza eguien ene baithan Comunione Saindu hunen berthutez. Emaiten nitzauzu, Jauna, naicen gucia, Zu niri osoqui eman zaren bezala. Othoitzten baitut Comunione Saindu hau izan dadin enetzat becatu gucien barcamendua, fedearren defentsa, ene bicio gucien heriotcea, amodio desordenatuen desterrua, eta berthute gucien hazgarria: izan bedi ene izpirtuaren sosegua, etsai gucien azotea, eta bakarric zurequilaco unionea, eguiazco Jauna eta Jaincoa. Amen. (39,1)

Comunione aitcineco othoitzta.

O Aita guciz botheretsua, ene Jaincoa eta Creatzaile Saindua, errespetu eta humiltasunic handienarequin hurbiltzen naiz Aldare Saindu hortara, nahiz indigno khausitzen nai-zen, zure Mayestate adoragarriaren errecibitceco. Ene bihotceco, hotzetasuna da, Jaun Soberanoa, indigno eguiten nauena behar den amodioarequin Zu gana hurbiltceco, bainan zure hitz eztia dira fidantciarequin hurbiltarazten nautenac Aingueruen yanhari Saindu hartan partalier izaitera. Zure borodatea denaz gueroz, Jesus eztia, desiratcen dut zure Gorputz dibinoaren errecibitcea Birgina zure Ama Sainduac, eta bertce Ceruco Sainduec errecibitu cintuzten fede bici, izpirtu garbi eta kharsu berarequin. Amen. (82.or.)

Comunione ondoco othoitzta.

Esquerrac darozquitutz, ene Salbatzaile maitea, zuc eni eman gracia guciez, eta bereciqui certaco nahi izan duzun zure egoitza eguien ene baithan Comunione Saindu huntaz. Emaiten nitzauzu naicen gucia, zu niri osoqui eman zaren bezala. Othoitzten zaitut, Jesus ona, Comunione Saindu hau izan dadin enetzat bekhatuen barkhamendua, fedearren defentsa, ene bicio gucien heriotcea, amodio desordenatuen desterrua, eta berthute gucien hazgarria: iza ngedi²³ ene izpirtuaren sosegua, etsai gucien azotea, eta bakarric zurequilaco unionea, ene eguiazco Jauna eta Jaincoa. Amen. (83.or.)

23. *Izan bedi.* Moldiztegiko akatsa da bestea.

Izartxo batekin emandako galde-erantzunak Astete-ren gehigariak izango direla uste dut. Hauetako pare bat ez dator Echeverriren eskuizkribuan:

- G. *Norc bekhatu eguiten du Fedearen contra?*
- I. *Gure Erligioneerco eguin guciac sinhesten ez dituenac, edo dudatcen dituenac; edo bere faltaz ikhasten ez dituenac (22,5).*
- G. *Norc bekhatu eguiten du Esperantzaren contra?*
- I. *Jaincoaren baithan esperantza galtzen duenac; Ceruaren irabazteria entseatzen ez denac; eta Jaincoa misericordiosa delacotz bekhatu eguiten duenac.*

Echeverriren eskuizkribuak ez dakarren beste testu bat badago liburuan. Honela dio:

Contricionezco acta franciaco guisan.

Ene Jainco maitea, barkhamendu esque nagozu humilqui, ene bekhatu guciez, damu dut eta urriqui zure amoreoa gatic ceren guciz ona zarelaric ofentsatu zaitudan, eta hartzen dut borondate fermu bat ez guehiago bekhaturic eguiteco, zure graciarequin batetan; halaber hartzen dut borondate neure bekhatu guciez oso qui cofesatceco, eta emanen zautan penitentziaren complitceco. Amen. (13.or.).

VI. *Laburpenak*

Hasieran esan bezala, neregana iritsitako aleak bere lehen sei orrialdeak falta ditu, atal-aurrea eta sarrera hitzak barne direla. Sarrerako bertsoen lehenengo letrak bakarrik gorde dira eta, otoitzetan, Aita Gurea, Agur Maria eta Kredoak lerroren batzu falta dituzte.

Aurrerago, 31-32 egiten duen orria falta zaio, eskuizkribuaren 14garrena; hala nola 63garrenetik 66-ra, eskuzkoaren 29-tik 31-ra.

Horretaz landa, hitzen bat edo beste baztertu zuten argitaratzaleek. Eskuizkribuko esaera hartuko dut laburpena azpimarratuz:

- Cergatic Jaincoac *hala errebelatu baitu...* (10,18).
- Izpiritua Saindua eguin *cen guizon?* (12,8).
- Gularen contra, *Temperantzia*, edo *Templantza* (26,3).

- Cer becatu eguin duen Manamendu bacochean, eta estatuco obligacionetan *hitcez, obraz, eta pentsamenduz* (32,15).
- Eguinen du sacrilegio *icaragarri* bat (33,25).
- ...sorthu cela *Maria* Birgina ganic (41,1).

Pare bat aldiz edo, eskuizkribuko testuak erdiratuz murriztuk argitaratu ziren.

G. Jesu-Christo cein egunez izan da concebitua Ama Birginaren sabelean?

I. Marchoaren hogoi eta bortcean izan cen concebitua sorthua Abendoaren ogoi eta bortcean; hila Ortcilare Saindusz; phiztua Bazco egunean; igarana Ceruetara Salbatore egunean; etaigorria Izpiritu Saindua Apostoluei Mendecoste egunean. (31,21).

I. Umiltasun eta errespeturequin entzun ondoan Cofesorraren abisuac, erreccibituren du penitencia, eta erranen ahuspez iarrirac bulharrac ioz «Contrizioneco acta». P.5. edo guisa huntan :«Ene Jainco maitea, barcamendu esque nagotzu umilqui, ene becatu guciez damu dut eta urriqui, zure amorecatic, eta ceren guciz ona zarelariac ofensatu zaitudan. Hartcen dut borondate fermu bat ez guehiago becaturic eguiteco, zure gracia sainduarequin batean; halaber hartcen dut borondate nere becatuen osoqui cofesatceco, eta emanen zaitan penitentciaren complitceco. Halabiz» (35,17)

G. Cein egunez concebitua izan da Jesu-Christo Ama Birginaren Sabelean?

I. Marchoaren hogoi eta bortcean: hil cen Ortcilare Saindusz: phiztu cen Bazco egunean: etaigorri zuen Izpiritu-Saindua Apostoluei Mendecoste egunean. (67.or.)

I. Humiltasun eta errespeturequin entzun ondoan Cofesorraren abisuac, eta erreccibitu penitencia, erraiten da ahuspezcaturic bulharrac ioyz «Contritionezco acta». (75.or.).

Ikuspegi orokorra

Xehetasun ugari aurkeztu ondoren zer argibide atera ote dezakegu lan bi hauen konparaketatik? Besteak beste, Gasteizko Legebiltzarreko izkribua, eta liburuska, egile batenak direla ukatzerik

- 42 -

- I. Ez arhinqui proximo lagunaz gatz-
qui yuyatza, ez erraitea, ez ola ere-
adilcea haren saltac.
- G. Noro behatze eguztien du Moranares.
- du. Iunen contra?
1. Arrazoinic gabe juyamendu gaich-
tua, eguztien dituenach, fauna queal-
cen, segretua aguertea, eta guear-
ra erraitean.
- G. Cen debocen du bederaketa eta ha-
nazarren Maianwendu?
1. Haragiztoz placer eta bertzenan da-
tasunen gutxia gaichioa.

behar badu.

Hirurgarrena: Bazoz garizumacoetan

comunitacea.

Laurgarrena: Eliza Ama Saindiac ma-

nacen dueñean harurrieda.

Bortzgarrena: Dechimiac eta Primitiac

Jaucoaren: Elizari pagatzen,

Manamendu berac Franchaco guian.

Manamendu berac Franchaco guian.

1. Meza Saindiua elizun-irrazu,

Besta Igandetan debotziur.

2. Bekhauac cofesa zatzu,

Urtean behin oszqui.

3. Gorputz Saindiua errazili sazu,

Bazoz bederen humiliku.

4. Garibak bigiliaz barut zatzu,

Garizuna ero poqui.

5. Dechimiac eta Primitiac Ma-

Aizto,

Elizari chuchemiqui

Etxeberriko Mena Manwendu herri

Urtzenaren Legueren hobetsua herri

ditzenac.

G. *Cer da Esperantza?*

I. Reparacea Cetako Loria Jaincoaren
graciaren, eta gure obra onen biltzar-
tez.

G. *More teknikoa egutien du Zephe-
runtzaren contra?*

I. Jaincoaren baitan esperantzaz gal-
gen duenac. Cehuaren irabazteria ent-
sesten ez denac; eta Jaincoa miseri-
bordosoa delacotz, betetatu egutien
duenac.

G. *Cer de Garritas?*

I. Jaincoaren matxatza gauza guzien
franheit, eta lagun proixioa gure
turua bezala; hazi ergunez, heo
gauzi egutien nahi gaitu guena.

G. *Certazo de Balibayozu Sacramentos?*

I. Behatzu originalaren queukaeoak
baserrekoak, behatzu auxipak, en
dihuen batua jatean jenerari baitan.

G. *Cer de Ikeriaz orginale?*

I. Da gure Alia Adau, eta Ama Elizari
gran sortzez dathorqigun behatu.

Bal.
G. *Normalie batzoya dizeaque behar
ardian?*

I. Bal. Jauna.

G. *Cer egoia behar da onta batzogat-
eago?*

I. Ur naturala ichuri behar du batba-
yaua izan behar duenaten buetaren
gainera eraiten, gelarie dembere
bercan. Nic BATZAYA XORN ZARERUT
AITAREN, ETA SPARKAREN, ETAKI UNI-
BILU-SAINDUAREN ICENIAN. HALLA-
BUR.

G. *Certazo de Coordinaciona Super-
tzioa?*

I. Tx confirmateko, gela horitzeko
batzayaon serreuibilo guindulen fe-
dean.

G. *Certazo da Presidenteza Sacraque-*

I. Batzayauz gueroz segun behi batune
bekatzeoak.

G. *Cer de Ikeriaz dire kostea?*

I. Mire mortauc, eta berrieder.

ez dago. Alde horretatik Asteteren itzultzale ezezagunarekin aberasten da zerrenda.

Baina, hainbeste zuzenketarekin nolabaiteko ilundura, kontraesan eta ulerkaitz gertatzen diren zalantzak sortzen dira denbora berean. Neuk ez dut argi ikusten nondik-norako bideak ibili zituen lanak eskuizkribuaren testutik argitalpenaren azken itxura hartu arte. Errazago da Echeverriren eskulana dagoen-dagoenean, bere zalantza eta guzti aztertzea kaleratutako emaitza baino. Nere eritzi apala agertzean eremu arriskugarrian sartzen naizela badakit eta, horrexegatik, susmo hutsaren pare eman nahi dut.

Luzaide Euskal Herriaren bihotzean egon arren, bi erresumaren muga da eta, hizkuntzari dagokionez Nafarroa beherekoa bada ere, legez Nafarroa garaikoa. Eguneroko harreman nagusiak betidanik Arnegi eta Donibane Garazirekin izan ditu eta, dudarik gabe, Hegoaldearekilako arazoetan Ibañeta mendateko eragozpena aski haundia izan da iragan denboretan. Orain bertan, Iruñea lotura haundiagoa izan arren, urte askoz egon da Luzaide Nafarroako hiri burura heltzeko garraiorik gabe. Hegoaldera joan nahi zuenak bere buruz abiatu behar zuen inongo autobusari itxaro gabe. Alde horretatik, beraz, iduri luke Garazi aldeko mintzairak kutsugabea aurki behar genukeela Manezaundiren herritarren ahoan.

Baina gauzak ez dira beti hain zehatzak gertatzen eta, kasu honetan, geografia eta euskalki loturaz bestalde, legezko bizibidea Iruñean duenez, Hegoaldeko funtzionari, udal-idazkari, irakasle, sendagile eta mugazain izan ohi ditu karrikan. Era berean, Hegoaldeko elizbarrutiko parroquia da eta Ibañetaz beste aldeko apaizak joaten zaizkie edo joaten gatzaizkie, eta ez beti bertakoen hizkuntzaren berri jakinez. Neuk, esate baterako, ez nekien bazenik ere.

Aspaldidanik Iparraldeko elizgizonen eta Hegoaldekoen harremanak gogorrak izanak ziren sinestearekiko ikuspegi desberdinak zirela eta dotrina honen denboran aginte bihurturik agertzen bazaizkigu ere. Echeverriren gutunetan ikusten da nolako eragozpenak zitzuten mugaz handiko kristauek elizaz Luzaiden beren egin-kizunak betetzeko. Bada bertako elizgordailuan Iparraldeko bataiatuen liburu bat ere.

Dotrina bera luzaidar baten itzulpena da, noski, eta bertako mintzairaren lekuko jatorra. Berez, Iruñeko gotzaiaren baimena behar zuen eta Goicoa bikario orokorraren bulegora iritsitako izkribua da I. Segurolak argitaratu duena.

Iruñean argitaragabe gelditu zatekeelako susmoa agertu dut lehenago, bertako seme batek galdua edo ñabartua zuen /kh/ leherkari hasperendunaren grafia ez baitzen ezagunago gertatuko Nafarroa garaiko hiri buruan. Zuzenketa honek Nafarroa behereko tradizioa ekartzen digu gogora. Hiztegi aldaketek ere Ipar aldera isurtzen dute zuzentzailearen eskua, neurri haundi batean. Zortzigarren aginduan, adibidez, eskuizkribuko «ez guardatuko iniustoqui» (19, 11), mugaz handiko joera jatorrez dator liburuan: *ez atchiquico inyustoqui*. Hori bera esan daiteke honako aldaketa hauetaz Amen (40,2), *Halabiz*. Birgina Maria (31,14), *Andredena Maria*. Desira (19,25), *guticia*. Eguiazqui (33,32), *segurqui*²⁴.

Baina, bestelakorik ere badago zuzenketa horietan; Hegaoaldeko marka daramaten ikutuak alegia: cofesionean (25,29), *cofesioan*. «Faboreak galdeguiteco» (16,26), *escatceco*. Hitzen aldaketa baino adierazgarriago gerta daiteke esaera honena: «hurran cofesionean erran behar du» (33,29), zioen Luzaideko bikarioak bertako mintzaira garbian, eta hiru hitz aldatu zizkion plazaratutako liburuak: *orhoitcen delaric lehen cofesioan declaratu behar du*²⁵.

Nolabaiteko kontraesana dago idazki bien arteko zuzenketen artean. Beste argitasunik gabe bidea egitea zaila da horrelako oihanean, baina ahaleginduko gara irteera aurkitzen. Dotrinen itzultzzaileek eskua sartzerik ez duten arlo batzu badira liburuska horietan: ikasiak diren otoitzak, alegia. Aita Gurea, Agur Maria, Kredo, Salbe eta antzerako otoitz oso erabiliak ez dute ikutu haundirik izaten gehienetan. Bigarren mailako otoitz bildumarik ere bada, noski, hala nola konfesio eta komunioko otoitzak, fedezko, esperantzazko eta maitasunezko aitorpen ereduak, eta horietan bada aldakortasun gehiago. Diharce bikario jeneralak Baionako elizbarriturako egin zuen katestima erakusten genuen guk Luzaiden, eta esan dezaket Agur Maria, Kredo eta Salbea Echeverriren argitalpeneko berak zirela. Fedezko eta esperantzazko aitormenak ez dira berdinak, baina amodiozko aktak ez du aldaketa haundirik.

24. Ez dira horrelako aldaketa bakarrak. *Contricionezco acta franciaco guisan* gehitu beharrik ere ez zegoen Iruñean argitaratua izan balitz. (13.or.) Eskuizkribuan ez dator.

25. Hegaoaldeko kutsua nabari da ikutu hauetan: izkribuan, peil (16,9); eta liburuan, *peligro*; *peilian* (8,28) / *peligroan*. Iparraldeko 'mesprechuz' (21,14) / *menosprecioz*; *mesprechatuz* (26,12) / *despreciatuz*. Era berean, ofensatuaz (5,5) / *ofendituaz*.

Aitagureak dituen zuzenketak esanguratsuak dira. «Ceruetan zarena» (3,6) idatzi zuen bertako ohitura Echeverrik, eta *Ceruetan zaudena* zuzendu zioten liburuaren arduradunek. Era berean, Iparraldeko «bainan begira gaitzazu gaitcetic» (16,7), Hegoaldeko usadiora *baicic libra gaitcazu gaitcetic* dakar argitaratutako testuak. Nik esango nuke Frantzia aldeko argitalpena dela, herri batendako bakarrik liburua egitea oso garesti eta baliapen gutxiko nekea izango baitzen. Echeverrik dioen bezala, «Herri hutan, eta bertce hainicetan guehienic minzatcea costumatcen den escuararat» itzuli zuen dotrina eta euskalki bereko jendeentzat plazaratuko zuten. Luzaiden erakusteko baimena, aldiz, Baionatik ez baino Iruñetik jaso behar zuen eta hor ikusten dut Hegoaldeko ikutuen zergatia.

Zer eragin izan zukeen horrelako aldaketa batek Luzaideko ohituretan? Gutxi edo, behar bada, ezer ez. Echeverrik jasotako otoitzak herriak erabiltzen zituenak dira eta, liburuan aldatu arren, berdin jarrai zuketen. Apaizek berek ez zioten garrantzi haundirik emango. Adibidez, 1880.eko Oliver eta Hurtadoren *Cristauaren Icasbidea* sartu zelarik Luzaiden, Hegoaldeko Aitagurea bakarrik aurkituko zuten haurrek; baina euren aitamen otoitzarekin jarraitu zuten denek. Guk erabiltzen genituen testuak Baionakoak ziren eta, hitzez-hitz, Echeverriren eskuizkribuak dakkaren bezala esaten genuen «Gure Aita», hitz bi hauen ordena bakarrik aldatuz. Gure denboran sartu zen «egin bedi zure nahia», borondatea esan beharrean. Herriek ez dituzte errotuak diren esaerak goizetik gauera aldatzen. Elizzgizonetan datza horrelakoen arrazoi bakarra eta Luzaideko bikarioaren kasuan, Garesko apaiz zaharraren sermoia bezala, bi muturretatik loturik zegoen bere lana. Garesko errortariak, «geroztik tripota duk!» erantzun bazion bere erretoreari, antzeko zerbait esan zezaketen luzaidarrek dotrina honen hegosketa nahasia ikusita.

Baina, denbora berean, badu beste ikuspegi bat oso aipagarria lantxo honek. Ezin ukatua da elizgaien eragina herri hizkuntzaren finkapenean eta herrikoitasunaren eredu zehatzegia ez bada ere, lurzorua eragina izan ohi zuen elizgizonen kezka agertzen du. Bi euskalkien nolabaiteko orekak sortutako arazoez bestalde, Luzaideko bikarioa bera gizon ikasia agertzen zaigu eta nolabaiteko garbizale kutsua sumatzen zaio²⁶. Berak aitortzen due-

26. Adibidez, «Naturazgoragoaqui eta milagroqui» (12,26) zioelarik izkribuan, *Sobrenaturalqui* eta *mirakuluzqui* utzi zuzentzaileek.

naz landa, Larramendiren joera nabari du han-hemenka. Alde horretatik, bi dokumentu hauen moduko izkribu asko behar genituzke hizkuntzaren historia zehazten joateko.

Hitzei dagokienez, zahar itxurako zenbait gorde izan da eliz-hizkuntz eta otoitzetan. Dotrina honetan hiru aldiz apaitzen da *ararteko* hitza eta arrunta zatekeen orduan. Duen gaunkotasun era-karriagatik, bere esanahia aipatuko dut. Salbe izeneko goratzarrrean, «*eia, ergo, advocata nostra*», honela esaten zen Luzaiden: *Hea bada, Andrea, gure arartekoa* (4,10). Bigarren esaera Echeverrik galde-erantzunetan sartzen du: «—Eguin behar dugu othoitz Aingueruei eta Sainduei? —*Bai, Jauna, gure arartekoei bezala*» (17,8). Erdaraz «—Sí, como a nuestros medianeros». Azkenekoz, «*Esperantzazco acta*» delako otoitzean, honela dio: «*Zure Seme Jesusen merezimenduac, eta heriotcea ararteko ditualaric*» (41,13).

Beste ondorerik ere atera daiteke, noski, testu hauen konparaketatik.

XVI. MENDEKO BIZKAIERAZKO ERREFRAUEZ:

I. GARIBAIREN BILDUMAK

JOSEBA A. LAKARRA

1. AINTZINEKOAK *

1.1. Garai beretsuko lapurterarenaren tamainara iristen ez bada ere, corpus aski zabala aurkezten digu bizkaiera zaharrak¹; aldameneko euskalkiak baino naroago delarik, alde honetatik, testuek damaiguten informazioa haietatikoa baino jori eta ñabarrago ere bada sail gehiagotatik ilkia izanik².

* XVI. mendeko errefrau bildumen gaia zegokion Donostian E.H.U.aren 1985eko Udako Ikastaroan (irailaren 7an) bizkaiera zaharra irakurri behar nuen txostenaren 2. zatiari. Bertan biz. zah.ak filologiaren aldetik dituen arazoetarik bat erakutsi nahi nuen, adibide praktiko gisa, txostenaren 1.koan hizkuntzaz mintzatzu ondoren. Zati hau uste baino gehigo luzaturik, ez nuen filologiaz hitzgiterik izan eta, pentsaturik —agian oker— norbaitek zerbaits interesgarririk eriden zezakeela arazo zahar hauetan, zehaztasun batzu erantsirik argitara ematera deliberatu nintzen errefrautegi zaharrei buruzkoa. «Zehaztasun» horiek, ordea, nik uste baino bide eta bidexka gehiagotan barrena eraman naute eta oraingoz ez dut ematerik gai honi buruzko ikerketa zabalago baten lehen hasiskinak baizik.

«Bizkaiera zaharra gainerako euskalkien artean» izenarekin ilkiko da aurki aipatu txostenaren 1.ko zatia eta han idoro daiteke nahi ezkero bibliografia aski xehea hizkera horretaz eta baita segidan aipatuko ditudan testuez ere.

1. Hots, lehendabiziko testuetan hasi eta Larramendirekin amaitzen den biz.aren historiaren garaiak. Aurreko oharrean iragarri laneko 1.ko atalean laburtu ditut Larramendi mugarritzat hartzeko arrazoiak.

2. Araberaren materialeetarako ik. bedi N. Landuchio. *Dictionarium Linguae Cantabricae* (1562)ren M. Agud eta K. Mitxelenaren argitalpena (Donostia 1958), Gamizen poesiak —azken argitalpena J. Goikoetxea Maiza zeren Juan Bautista Gamiz Ruiz de Oteo. *Un poeta bilingüe alavés del siglo XVIII*, Gasteiz 1984— eta, agian, TAVen ematen diren 1610eko bertsioak; beren azterketarako ik. K. Mitxelenak Landucciri egin sarrera, bere «Sobre la lengua vasca en Alava» (in *Vitoria en la Edad Media*, Gasteiz 1982, 298-306) eta E. Knörren «Gamizen hizkeraz zertxobait», *Euskera XIX* (1974) 218-230.or. Gipuzkera zah.ari buruz ez dazagut lan orokorrik; testu garrantzitsuenen erreferentziak aurki daitezke ASJU XIX-1 (1985) 235 eta hur. or. Gainerakoetarako ik. TAV eta I. Sarasolaren «Contribución...»; prestatzen ari naiz guztiak argitalpena.

Prosan, halabeharrez, dotrinak eta antzeakoak dira nagusi, abondo bait ditugu (nahiz eta, beharbada, ekoiztuak oro ez ezagutu)³. Betolazaren 1596koan hasita⁴: Kapanaga mañariarraren 1656koa, XVII. mendekoa baina fetxagabea dugun *Viva Jesus* dei-tu ohi dena, 1678ko Amiletaren Antzuola aldekoa, 1691ko Zubia durangarrarena. Hau 1700 artekoari dagokionaz; XVIII. mendearen, eta mugatzat hartuko dudan Larramendi heldu arte, beste bi durangarrrenak: Arzadunen 1731koa eta Urkizuren 1737koa. Guzti honez gainera baditugu XVI. mendearen hasierako San Frantziskoren ordenako erregelek formula bat eta XVII. mendearen bukaerako bulda labur batzu ere.

Prosa ez-erlijiozkoan, Frai Juan de Zumarraga durangarrak bere arrebari 1537an egindako gutun bat, Ibarguen-Cachopin kronikan datozen Andramendiko apokrifioak, Mikoletaren *Modo breve de aprender la lengua vizcaína* (1653) itzuli elkarrizketa atseginauk, eta Mendietaren kuadruko zati laburra gordetzen ditugu.

Bertsotan era askotako poesia dugu: 1) Ahozko tradiziok Gari-baik eta bestek bildu herri kantak (Olaso eta Milia Lasturkoarena bezalako eresiak, Arrasate, Sandilia eta Beotibar legezko baladak), 2) poesia liriko landua (Oihenart eta Mikoletaren bitartez ezagutua, adibidez) eta 3) poesia historikoa («Egiaren gorazarrea», «Bertso bizkaitarrak» eta Iturberen laukoak, guztiak XVII. mendekoak). Bertsotan idatzia da Pedro Ignacio Barrutiaren *Acto para la Nochebuena* antzerkia ere.

Corpusaren aurkezpen honen amaierarako utzi ditut beren hizkuntza eta egituragatik aurreko bi sailen tarteko dugun erre-frauena. Haatik, beren garrantzia berebizikoa da oso hizkuntz eredu zaharkituak bait dituzte, XVI. mendearen bukaerako bildumak izan arren aurreragoko denboretako ezaugarriak gordeaz. Hori, bidenabar, herri kantekin batera duten tasuna da, biek mantentzen bait dituzte —edota hortan saiatzen bait dira bederen— hitzez hitz etorkizko testuaren perpausak⁵. Aurrerago aipamen zabala goa

3. Cf. J. Urkixo «Cosas de antaño. Las Sinodales de Calahorra», *RIEV* 14 (1923) 335-52.or., batez ere 335-9.or., eta K. Mitxelenaren *Historia de la literatura vasca* (Minotauro, Madrid 1960) 60-62.or. bibliografiarekin.

4. Honi buruzko azken berriak E. Knörrek aurki aterako duen ohar batean *ASJU*n berton.

5. Cf. «Bizkaiera zaharra gainerako euskalkien artean» lanaren 2. atalean, non erakutsi nahi izan bait dut egungo zenbait herri kantatan aintzina-goko hizkuntzaren ezaugarriak gordetzen direla.

egiteko asmoa dudanez gero, bego oraingoz beren erreferentzi soila: 1592 baino lehenagoko edo, eta 1592ko Garibairen 63 eta 64 errefraunako bi sorta, eta 1596an Iruñean argitaratutako egile izengabea; dakigunez, azken hau da handiena, dagoenekoz 560 errefrau ezagutzen bait dizkiogu eta oraindik beste asko ere bazituen, seguru asko⁶.

1.2. Orain arte ikusi dugunaren arabera iturri ezberdinak eta aski ugariak ditugu bizkaiera zaharra ezagutzeko; haatik, ezin esan daiteke ezagunegi denik, eta ezta ere, gehituko nuke, honen ondorio gaiztoak saileko ikerlari urrien eremu txikian pairatzen direla soilik. Benetako dokumentuak miatu gabe beren burutik bizkaiera (eta orobat gainerako euskalkiak) zer den eta zer izan den asmatzen eta erabakitzentzai direnak albo batera utziaz⁷, ez dirudi bizkaieraren historia (ez eta gainerako euskalkien ere seguru enik) aski ikertu denik, nahiz eta agian hortarako materialek gehien aurkeztu⁸.

Materialek, ordea, ez dira dena: bildu, landu, txukundu eta behar bezala argitara beharra dago. Hots, filologiazko aurrelan hori premiazkoa da gero hizkuntzalariak (eta halaber literatur ikerlariak) arrisku gutxiagorekin baliatuko badira beren azterketetan. Lehenago ere aipatu izan dut inoiz Meilleten hurrengo pasarte hau baina ez deritzot gehiegi berriz hemen emateari, ongi bait zekien hark zertan ari zen:

Pour les langues anciennes, le linguiste doit recourir à une philologie de précision: on s'est parfois imaginé que le linguiste peut se contenter d'à peu près philologiques; il a besoin tout au contraire de tout ce que les méthodes philologiques les plus exactes permettent de précision et de rigueur⁹.

6. Eta gogora bedi, bestalde, Urkixok (*Los refranes de Garibay, RIEV* 27, 508.or. oharrean) galduzat eman zituen *Algunos Refranes castellanos con su correspondencia en vascuence*.

7. «Bizkaiera zaharra...» lanaren atal batean mintzatu naiz —K. Mitxelenaren bidetik— «hiperbizkaiera»z (eta baita «hiper-» edo «semi-» gipuzkeraz ere). Laster izango dugu hiperb.ri. buruzko I. Lakaren azterketa sakanera ere.

8. Ohar interesgarriak dira Azkueren *Morfología* eta «Evolución de la lengua vasca»n eta I.koari Altubek jarri zizkion eraskinetan; Lafon eta, batez ere, Mitxelenaren lanak ere aurrerapen handiak dira baina oraindik monografia zein sintesi falta nabarmena da.

9. A. Meillet, *La méthode comparative en linguistique historique* (Paris 1970, 1.ko argitalpena Oslo 1925) 110.or.

1.3. Corpusa bezain aberats eta zabal bide da filologi arazoen sailkapena ere¹⁰: testu batzu zatika baino ez ditugu ezagutzen (Betzolazaren eta Zubiaaren dotrinak, Garibaik bildutako kantak, *Refranes y Sentencias*, Egiaren gorazarrea); beste batzu beranduago-ko idazleen aipamenez edota kopia edo edizio berriagoetan (RSen zati batzu, Zumarragaren gutuna, Garibairen errefrau bilduma bata, *Viva Jesus*, Zubia eta Arzadunen dotrinak, «Bertso bizkaitarrak», Foruko Marijesi bilduma); behin baino gehiagotan ez dugu beren datarik ezagutzen (aipatu *Viva Jesus*, Barrutiaren *Actoa*), usu testuak ez daude oraindik ongi ezarririk edota azalpen-zai ditugu; badira, azkenik, gure eskuetara iritsi ere ez direnak (XVIII. mendeko antzerki bat esate baterako)¹¹ edota oraindik —hala nahi genuke, behintzat— eriden ez ditugunak¹²... Badute, beraz, aski lan filologoek nahiz eta garrantzizko urratsak dagoenekoz emanak izan^{12 bis.}

Hizkuntzaren historiaz arduratzent direnak ere testuotaz artatuko bide dira zeren eta, Mitxelenak esan izan duen bezala, historia horrek (orok legez) dokumentuetan oinarritu behar bait du:

La idea de que la historia propiamente dicha de una lengua, de la vasca como de cualquier otra, sólo puede edificarse sólidamente sobre documentos fechados y localizados con la mayor precisión posible, no ofrece ninguna novedad. A lo sumo, acaso no esté difundida entre nosotros cuanto fuera necesario... lo demás —gehitu du— no es más que extrapolación, que sólo vale si tiene el firme punto de apoyo de datos seguros y sirve para explicarlos diacrónicamente¹³.

Beharrezko ditugu, beraz, bizkaiera zaharreko testuak euskalki horren historia egin ahal izateko, bere eboluzioaz jabetzeko, aldatuz joan bait da hizkuntza eta hizkera guztiak bezala. Gainera, ahalik eta testurik zaharrenak ditugu beharrezko, soilik haien eraman bait gaitzakete urrutienik denboraren katean barrena. Baka-rrik testuak ongi miatu ondoren murgil gaitezke ur sakonagoetan,

10. Hemen zerrendatu baino ezin baditut ere, tesirako prestatzen ari naizen biz. zaharen edizioaren hitzaurrean aztertu gogo ditut xeheki.

11. Cf. Azpiazu'tar J. «Euskera zarraren apurtxoak» in *Bigarren Euskarlegunetako itzaldia Donezteben*, Bermeo 1926.

12. Hau inprimategian zela I. Mozosek biz.ko XVII.mendeko labur baten berrieman du; ik. *Ihauteria euskal literaturan* (=Hizkuntza eta Literatura 7, Eusko Ikaskuntza) Zarautz 1986.

12 bis. Bereziki TAV eta «Contribución...» ditut gogoan.

13. Ik. «Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos», *FLV* 8 (1971) 149.or.

haietan ikasiaren arabera aitzinagoko garaietan zer zitekeen iker-tzen (asmatzen) saiatuaz:

Para dedicarnos con tranquilidad a la prehistoria, habremos pues de esforzarnos en adquirir el conocimiento más exhaustivo posible de los datos disponibles, sin dejar ninguno de lado y sin ahorrarnos molestias en buscarlos y comprobarlos¹⁴.

1.4. Mitxelenaren azken kontseilu honi jarraiki nahi natzaio lan honetan XVI. mendeko bizkaierazko bi errefrau bildumaren egile eta etorkiaz aritzean. Baliteke irakurleak erabat berririk edota ezkutuegirik ez eridetea; ez bide da segurki beste munduko gauza ondorio gisa «Garibairen errefrau bildumak Garibairenak dira» eta «ez dakigu 1596ko bilduma izengabearen egilearen izena» esanaz amaitzea. Alabaina, itxadoten dut zertxobait aurreratzea, alde batetik ez bait dute guztiek beti hori onartu eta, bide batez, betterik ere ikusiko delakoan bait nago; orobat, begibistakoa dirudienaz mesfidatzean datzala deritzot segurtasunen bat lortzeko lehen baldintza, nahiz eta ikertu ondoren aitzinekora bihurtu. Orduan ere ez zait alferra iruditzen: oinarriak sendoagoak dirateke, behintzat, eta hori ez da gutxi.

1.5. Bidenabar, ia lan osoan zehar Urkixoren kontrakarrean arituaren eta haren ondorioetarik beste erabat ezberdinetara iritsi, adierazi nahi dut nire harenganako ezagutza, horrenbeste eta gehiago ere merezi bait du bere RSen edizioaren 75 urte betetzen direnean; inoiz, orain bezala, harengandik hurruntzen garenean ere, berak bildutako eta guztien eskutan jarritako testu, lanabes eta berriez baliaturik hurren bait gaitezke: Urkixo izan zen zenbait (aski gutxi) *amateur* eta *dilettante* (gehienbat aberatsen) jolas izatetik euskal filologia plazara eraman zuena¹⁵.

14. Ik. *Lenguas y protolenguas* (Salamanca, 1963) 14-15.or.

15. Ik. K. Mitxelenaren «Urquijo y la Sociedad de Estudios Vascos», *ASJU* V (1971) 47-66, batez ere 56 eta 65-66.or.

2. SARRERA GARIBAIREN ERREFRAUEZ

Esteban de Garibai erregearen kronista famatuak bere oroitzapenetan¹⁶ dioskunez bi errefrau sorta osatu zituen Juan de Idiaquez Felipe II.aren kortisauaren eskariz:

El señor don Juan de Idiaquez, del Consejo de Estado de su Magestad, deseó otros refranes en su lengua vascongada sobre los que le dí antes en un quaderno, y en 18 de julio de este año de [15]92 le envié otro dellos á Valladolid con su interpretación interlinear, palabra por palabra, y en el sentido de ellos para su mejor declaración. Recibióslos en Valladolid, yendo en compañía de su Magestad al viaje que se dirá abajo en suma y respondíome con mucho gusto de su recibo¹⁷.

Urkixok erakutsi duen bezala, bi bilduma horiek ez dira guganaino eskuizkribaturik heldu, baina bai, aldiz, XVII.mendeko *Refranes en Bascuence compuestos por Esteban de Garibay y Camalloa* bat, Madrilgo Biblioteca Nacionalean G 139 zenbakia daramana¹⁸; bestalde, Benito Maestrek Francisque Michelí XVI. mendeko kuadernotxo bat erregalatu zion euskal errefrauekin eta hilen eta egunen izenekin eta zenbait aditzekin Michel Madrilen zenean 1846an, eta kuaderno horretaz baliatu zen hau bere Oihenarti buruzko liburuan errefrauak eraskin gisa emateko:

Pag. iv de l'introduction, nous avons parlé d'un recueil de proverbes basques conservé parmi les manuscrits de la Bibliothèque nationale, à Madrid: quelque diligence que nous ayons faite, nous n'avons pu réussir à retrouver le volume qu'on nous avait signalé comme contenant ces témoignages de la sagesse euskrienne; mais un savant espagnol, Don Benito Maestre, dans la compagnie duquel nous avons passé quelques moments agréables pendant notre séjour à Madrid en septembre 1846, nous a fait don d'un cahier in-folio, qui pourrait bien être le recueil tant cherché. C'est un manuscrit sur papier, d'une écriture du XVI^e

16. *Memorias de Garibay in Memorial histórico español VII*, RAH, Madrida 1854, apud Julio Urkixo *El refranero vasco I: los refranes de Garibay*² 497 eta hur.; ikusi dut Garibairen liburua ere baina orain axola zaigun guztia badator Urkixoren lanetan eta handik aipatuko dut behar dudanean.

17. Apud Urkixo, op. cit., 505.or.

18. Id. 505-9.or.

siècle contenant, outre *algunos refranes de la lengua bascongada*, 1.^o *Nombres de los meses en la misma lengua*; 2.^o *Los de los días de la semana en ella*; 3.^o *Algunos verbos masculinos y femeninos en la misma*. Il se compose de quatorze feuillets, et sur le premier il porte pour n.^o d'ordre Cc. 79. Nous n'avons pas de meilleure occasion pour donner les proverbes qu'il renferme¹⁹.

Urkixok jakin zuenez²⁰ Cc. 79 zen, hain zuzen, Madrilgo BNtik aspaldi falta ziren *Refranes del Vascuence* batzuen zenbakia, eta, nahiz eta hontaz ez dioen ezer F. Michelek —agian ez komeni— handik ilkiak errefrauak.

Dakidanez, orain arte gai hau ukitu duten guztiak ados daude bigarren bilduma Garibairena dela esatean²¹, XVI. mendeko beste biltzailerentzat, izenik ez ezagutzeaz at, Garibaik bere bigarrenaz zioenari ongi bait dagokio. Alabaina, eta lehendabizikoa, hori ere Garibairena ote?

3. URKIXOREN HIPOTESIA

3.0. Julio Urkixo evezkoetan zegoen. Bi sortak —hemendik aurrera Zubiaur eta Arzamendirekin A eta B deituko ditugunak²²— gonbaratu ondoren 37 errefrau errepikaturik aurkitzen dira bietan²³:

19. Saiatu banaiz ere, ez dut Michelen liburua ikusterik izan eta Urkixoren lanetik (*op. cit.*, 507, oharrean) aipatzen dut. *Postscriptum*. Lortu ahal izan dut azkenik ere liburu horieta baiezta dezaket Urkixok ez zuela ez errata ez aldaketarik egin.

20. *Op. cit.*, 508.or.

21. Cf. adibidez Mitxelena eta Villasanteren literatur historiak eta Lafonen liburua.

22. Nahiz eta, gero ikusiko ditugun arrazoiengatik, hobe zukeen justu alderantziz deitzea, nahiago izan dugu aurrekoenean mantentzea nahaspilarik ez sortzeko: Beraz, Cc 79=B. G 139=A.

23. *Op. cit.*, 509.or.

A	B	A	B	A	B
1	29	28	5	55	Ø
2	1	29	Ø	56	10
3	7	30	44	57	34
4	17	31	Ø	58	9
5	2	32	56	59	Ø
6	51	33	58	60	Ø
7	41	34	57	61	Ø
8	Ø	35	22	62	53
9	33	36	30	63	Ø
10	21	37	45		
11	Ø	38	Ø		
12	18	39	Ø		
13	32	40	Ø		
14	46	41	40		
15	Ø	42	Ø		
16	52	43	Ø		
17	50	44	47		
18	Ø	45	29		
19	8	46	11		
20	39	47	Ø		
21	28	48	27		
22	Ø	49	Ø		
23	Ø	50	Ø		
24	25	51	Ø		
25	6	52	Ø		
26	Ø	53	31		
27	Ø	54	Ø		

Hara Urkixoren iruzkina:

Hay, por lo tanto, en las dos colecciones un fondo común de 37 refranes: y, si como es probable, la del siglo XVI, es decir la Cc. 79, es la de Garibay, no parece poder admitirse que la G. 139 sea copia exacta de ninguna de las dos enviadas por Garibay a Idiáquez, y mucho menos copia y compilación de las dos. A mi juicio la colección G. 139 podría ser de algún vascófilo muy posterior, el ms. es del siglo XVII, que la compuso teniendo a la vista la de Garibay, pues no parece probable que este enviara a Idiáquez por segunda vez 26 refranes [sic, 37en ordez], que ya le había enviado antes.

Esta razón y las que expuse en mi *Preámbulo a Los Refranes Vascos de Sauguis*, me indujeron a proponer, aunque con gran desconfianza, la hipótesis, de que una de las colecciones de Garibay fuera la anónima de 1596, hipótesis acerca de la cual no me extiendo aquí, pues es más natural vuelva a tratar de ella en mi introducción al comentario del *Unicum* de Darmstadt²⁴.

24. *Op. cit.*, 510.or.

3.1. Damurik ez zuen inoiz atera, RSen ondoren eman nahi zuen «sarrera» hori; bilduma horren argitalpena RIEVen 1933ko alean bukatu zen eta Urkixo lana prestatzen ari bazen ere ez zuen argitaratzerik izan —ez segurki gogo eta datu faltaz—.

Lan horren peitu, hara zer zioen RSen egileaz Zalgizeren erre-frauen argitalpenari jarri zion hitzaurrean:

No se tiene la más remota idea de quien fuera el autor o coleccionador de *Refranes y Sentencias*, ni me consta que nadie haya mostrado vehemente deseo de averiguarlo. La fecha de la impresión, juntamente con algunas otras coincidencias, ha despertado en mi la sospecha, (observe bien el lector que no digo el *convencimiento*), de que tal vez no fueran ajenos a dicha publicación D. Esteban de Garibay y Camalloa o su amigo Don Juan de Idiáquez²⁵.

Uste honen atzetik goian ikusi Urkixoren Garibairen erre-frau bildumei buruzko teoria dago, hots, Garibairen bi bildumetarik soilik bat ezagutzen dugula (B), bere izenean dabilen bestea (A) ez bait litzateke berea baina norbaitek haren materialez baliaturik osatua. Beraz, 1596koa izan daiteke —Urkixok oso zuhurki gaztigatzen du ez duela azken hitza esan nahi— faltatuko litzaiguken Garibairen bigarrena:

Conocidos son, por haberlos publicado la Real Academia de la Historia, según se ha indicado antes, los *Refranes Vascongados recogidos y ordenados por Esteban de Garibay y Camalloa, Cronista de S.M.* Claro es que estos son distintos de los contenidos en *Refranes y Sentencias*: pero ¿no envió anteriormente Garibay a Idiaquez otros refranes vascongados, cuyo paradero se ignora? Y si esto es cierto, ¿no serían estos los publicados en 1596?

Confieso ingenuamente que carezco de datos suficientes para contestar afirmativamente a semejante pregunta; mas previa esta aclaración, no creo haya inconveniente en exponer algunas consideraciones que la lectura de *Refranes y Sentencias* y de las *Memorias* de Garibay me ha sugerido; tanto más, cuanto que quizás con esto se anime alguno de mis lectores a poner en claro este asunto²⁶.

25. «Los refranes vascos de Sauguis», RIEV 2 (1908) 682.or.

26. *Op. cit.*, 683.or.

3.2. Bost arrazoi ematen ditu RS Garibaik egindakotzat edukitzearen alde²⁷:

- 1) Garibaik 1592an eta urte horren aurretik edo bidali zizkion bere errefrau sortak Idiaquezi eta 1596an argitaratu zen RS; ez da ezinik, beraz, alde honetatik.
- 2) 1596ko bilduman Bizkaiko eta Gipuzkoako handi-mandieie buruzko errefrauak dira eta ez zen garai hartan Garibai baino genealogista hoberik horrelakoak ezagutzeko; bere beste lanetan ere ezarri zuen, gainera, haiei buruzko zenbait bertso eta esaera.
- 3) Delako handi-mandiok (Butroe, Muxika, Ibarguen, Olaso) Idiaquezen familiakoak ziren eta baita, agian, Garibairenak ere; ez litzateke harritzekoa horiekiko esaerak bai Garibaik eta baita Idiaquezek ere ezagutzea eta are biltzea.
- 4) Idiaquez, dakigunez bederen, ez zen Iruñean bizi; bai, ostera, haren semea eta honek hiru liburuxka argitaratu ere zituen.
- 5) Azken arrazoia RSen hizkerari dagokio. Aurreko ikerlarien iritziak batzen ditu Urkixok berea eman baino lehen: Van Eysek bere 1896ko argitalpenaren hitzaurrean bilduma gipuzkeraz dela dio nahiz eta bizkaieraren eragin nimiñoa ere izan; Vinsonentzat errefrau gehienak gipuzkeraz dira baina badira bizkaierazko hainbat eta baita hegoaldeko eta iparreko goinafarrerazko batzu ere. Larramendirentzat RSetako hizkera gipuzkeraz eta bizkaieraren nahaste bat litzateke, baina bigarrena nagusi delarik eta Azkuek, azkenik, bizkaiera hutsean direla dio, nahiz eta egun zenbait hitz Bizkaian ez erabili eta bai Lapurdin. Urkixoren aburuz RS Arrasaten XVI. mendean hitzegiten zen legez idatziak izan daitezke:

Ahora bien; dada esta mezcla de ambos [bizk. eta gip., Larramendik esan bezala] dialectos en el texto en cuestión y teniendo en cuenta que aun cuando el pueblo en que nació Garibay forma parte de Guipúzcoa, pertenece por su habla al dialecto vizcaíno, ¿sería temerario suponer que los *Refranes y Sentencias* estuvieron redactados en su mayoría en el vascuence que se hablaba en Mondragón en el siglo XVI? Suposición es ésta que a mi entender no debe ser echada en olvido²⁸.

27. *Op. cit.*, 684-6.ór.

28. *Ibidem*.

Eta, berak hori ezin segurtaturik, honela amaitzen zuen:

Nadie está quizás en mejor situación para averiguar lo que en ella pueda haber de cierto, que el genealogista mondragonés y colaborador de esta REVISTA sr. de Guerra²⁹.

3.3. Guerrak *RIEV*en hurrengo alean argitaratu zuen gutun batez ihardetsi zion Urkixori, haren hipotesi guztiak goitik behera onartuaz. *RSetako errefrauak irakurri ondoren gehienak Oñati, Arrasate, Aramaio, Otxandio, Legutio eta Arratiako inguruetan bilduak lirateke bere ustez, bere bulegora zetozen baserritarren hizkeraren antza bait zuten:*

Considero muy plausibles las suposiciones de V. al atribuir a Garibay la colección de *Refranes y Sentencias* impresa en Pamplona en 1596 [...] he formado el juicio de que fueron en su mayor parte recogidos en Oñate, Mondragón, Aramayona, Ochandiano y sus comarcas limítrofes de Arratia y Villarreal, sobre todo en estas dos últimas. El lenguaje no difiere en su general sabor, del que oigo todos los días en mi bufete a los caseros de las comarcas apuntadas³⁰.

Halaber, Guerraren ustez, Idiaquezen eskariari hobeki erantzuteko Garibaik alde hartako herkideei eskatuko omen, eta haien bidali datuez osatuko omen zuen bere sorta (*RS*):

V. que conoce las *Memorias* de nuestro insigne cronista, sabe las muchas relaciones de amistad y parentesco que el buen D. Esteban contaba en esta región, y la continua correspondencia que con ellas mantenía, como su solícito y eficaz agente en Corte cerca del gobierno de Felipe II. Comprenderá, por lo tanto, que lo sucedido, en cuanto a este particular, fué, sin duda alguna, que D. Juan de Idiaquez pidió los refranes a Garibay, quien a su vez, para complacerle mejor, los solicitó a sus paisanos, y con los datos que estos le remitieron, ordenó su colección; en la que es de notar, que apenas hay dos que se repitan de los *Refranes Vascongados* insertos por la Real Academia en el tomo VII del *Memorial Histórico*. Si las dos colecciones no fuesen de un solo autor, las repeticiones abundarían seguramente³¹.


29. *Ibidem.*

30. Ik. Urkixoren «Los refranes vascos de Sauguis (apéndice)», *RIEV* 3 (1909) 144-5.or.

31. *Op. cit.*, 145.or.

Azkue ere ez zegoen RS Garibairi leporatzearen aurka Urkixori beste gutun batean ziotsonez³²; alabaina, honentzat, geroago Mitxelenarentzat³³ bezala, Arrasateko hizkeraren baino Orozkokoarenaren antz handiagoa zuen RSetakoak; dena den, Urkixok dioenez, zaitasun hori gainditzen omen da alde hartako laguntzaileak erabili zituela suposatuaz³⁴. Bestalde, RSetan ba omen da Orozkon ez baina Leintz aldean bai erabiltzen den formaren bat, 517.eko *beranquetan* edo *emaiten* bezala³⁵.

3.4. Aurreko gogoeta guztion arabera honako hau genuke, Urkixoren ustez, RS, A eta B bildumak lotzen dituen *stemma*³⁶:



32. *Ibidem*.

33. Cf. «Euskal iztegileak XVII-XVIII. mendeetan» *Euskeria* VI (1961) 21.or.

34. Cf. *RIEV* 3 (1909) 145.or.

35. *Ibidem*.

36. Neuk eraikia; uler bedi bai Ω eta bai Φ Garibairenak direlarik. A. Blecua jarraikiz (*Manual de crítica textual*, Madrid: Castalia 1983, 61-2 eta 70.or.) letra greziarrek orijinal idealak adierazten dituzte / —— → / ikurrak kutsadura. Ω eta 1596ko bildumaren artean eta Ψ eta Aren artean testu bat edo gehiago izan zitekeen guk ezagutu ez arren; Φ eta B-ren artean, al-diz, ez dirudi horrelakorik gerta zitekeenik B Garibairen eskutikoa izanik.

4. HIPOTESI BERRI BAT

4.0. Lehendabiziko buruan (§ 4.1. - 4.6.) A —zehazkiago, W, honen orijinala—, eta B Garibairenak direla frogatzen saiatuko naiz. Sei arlotan banatuko ditut ene arrazoibideak: bildumen tamaina (§ 4.1.), A-ko kopiagilearen egileazko lekukotasuna (§ 4.2.), A eta B-ko errefrauen ordena (§ 4.3.), hizkuntza (§ 4.4.), A osatzeko B ez den beste orijinal baten beharra (§ 4.5.) eta A eta B-ren grafiazko lotura (§ 4.6.).

Bigarren buruan (§ 4.7. - 4.9.) RS ez dela Garibairena baina egile ezezagun bat(zur)ena erakutsi gogo dut. Honetarako bi era-tako argudioak erabiliko ditut, grafiazkoak (§ 4.8.) eta hizkuntzazkoak (§ 4.9.), aurretiaz Urkixok RSei buruz eraikitako teorianen ahuleziak agertu ondoren (§ 4.7.). Esan gabe doa, RSek bere aldetik ere frango buruhauste eta galdera sortzen dutela testukritikari dagokionez; haatik, beste lan baterako utziaz RSen azterketa monografikoa, oraingoan soilik Garibairen sorteze egin dezakeen argiagatik dakart hona bilduma hori.

Bi atalak dira elkarren osagarri, bateko gogoeta eta ondorioek bestekoak laguntzen eta indartzen dituztelarik; ene ustez bata zein bestea aski litzateke Urkixoren teoria deuseztatzeko. Alabaina biak ukitu nahi izan ditut —irakurlea areago nekatzeko arriskua pairatuaz— haren ordezko baten oinarriak sendotzeko.

Segidan azaltzen ditut ene arrazoiaik

4.1. «Cuaderno» hitzak ez du egin esanahi bakarra, edota hobetik, «orri bilduma ez handiegitzat» ulertu ohi bada ere beti, bilduma horren tamaina eta baita orriena ere aski ezberdina izan ohi da batetik bestera. Garibaik osatu zituenak, aldiz, tamaina berekoak edo beretsukoak bide ziren «un quaderno» eta «otro dellos» bidali zituela esateko, bigarren sorta handiagoa edo txikiagoa zen markatu gabe, lerroz-lerroko itzulpena eman zuela markatzen duen bezala. Ez bide zuen horrelako zehaztasunik egiteko beharrik ordea, hitzak berak aski bait zioen garai hartan tamainaz; hots, orain baino askozaz tamaina mugatuagoa zedukan kuaderno batetik; hara nola azaltzen duen *Diccionario de Autoridades* XVIII. mendearen erdialdean:

Quaderno. sim. El conjunto ó agregado de algunos pliegos de papel doblados y cosidos en forma de libro... Llaman también el libro pequeño, ó conjunto de papel, en que se lleva la cuenta

y razón, o en que se escriben algunas noticias, ordenanzas ó instrucciones: como el Quaderno de Millones, de la Mesta, &c... Llaman en la Imprenta al compuesto de quatro pliegos metidos uno dentro del otro.

Ez dirudi bigarren adiera dagokionik Garibairen erabilerari, ez dagozkion bezala hemen kopiatu ez ditugun «karta sorta» eta «ikasle zigor»; lehendabizikoaren eta hirugarrenaren arabera «cuaderno» deitzeko bilduma batek lau orri beharko zituzkeen izan, edota ez askoz gehiago (*algunos*) behintzat. Cobarruvias bere 1611ko *Tesoroan* —soilik 20 bat urte beranduago Garibairen hitzetatik— laburragoa da: «se dixo, porque ordinariamente es de quattro pliegos; y assí se llaman quaterniones cerca de los impressores»³⁷.

4.1.1. Bada, hamabi orrialde ditu A-k³⁸ eta hogeitazortzi B-k Michelek zioenez³⁹, baina gogora bedi bigarren honetan euskarazko hilen eta egunen izenak eta zenbait aditz ere bazela⁴⁰; batak 64 errefrau ditu eta 63 besteak, biek dituztelarik gaztelerazko lerroz-lerrozko itzulpenak eta oharrak hitzen eta errefrauen erabileraz, bidenabar, RSetan behin ere agertzen ez direnak.

Bestalde, RSen orijinala Darmstadt-eko alea baino luzeago ez balitz ere —eta dagoenekoz badakigu ba zela—⁴¹, 64 orrialde ditu, 16 pliego beraz; tamaina differentzi handiegia A eta B-rekin ezer esangabe uzteko eta sorta handiegia «otro quaderno» soilarekin aski izateko.

4.2. Ez zait alferrikakoa iruditzen A-ren izenburua gogoratzea: *Refranes en Bascuence compuestos por Esteuan de Garibay y Camalloa*. Zergatik jar zezakeen izenburu hau inork baldin eta Garibairena ez balitz? Urkixok nahi bezala Garibairen bilduma bataz

37. S.u. Ik., ostera, Larramendiren erabilera aurreraxeago baina gogora bedi jada XVIII.mendearen erdialdekoa dela.

38. Ik. Zubiaur eta Arzamendik beren lanaren eraskinean ematen duten facsimilea.

39. Ik. gorago § 2.

40. Gainera B-ko errefrauen gaztelerazko azalpenak luzeago izan ohi dira.

41. Cf. K. Mitxelenaren *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue* eta gainerako lanak: «RSen zenbait arazo»n arituko naiz hontaz luzeago.

(B-z) baliaturik egina balitz ere ez zukeen horrelakorik jarriko eta bai «urliaren bilduma» edota, zintzoagoa izanik delako urlia hori, «Urliak Garibairi erantsitako errefrauak», «Garibairenetarik atera eta Urliak erantsitako errefrauak» edo antzeko zerbait; zeren eta zer zentzu du Garibairen izenean jartzeak harenak ez diren hainbat, ia sortaren erdia inguru?

4.3. Gainera ez dirudi A osatzeko B erabili zenik, bien gonbaraketarik arinena ere horren kontra mintzatzen bait da bortizki. Ikusi ditugu gorago A eta B-k batera eta bakoitzak bere aldetik dituzten errefrauak. Alabaina, gonbaraketa horrek ezer erakutsiko badu ez da A/B ordenan egin behar, goian Urkixori jarraikiz egin bezala, baizik eta B/A alderantzizkoan, soilik horrela ikus bait daitake Urkixok arrazoirik izan dezakeen A bilduma B eta beste zenbait materialez baliaturik beranduagoko euskaltzaleren batek egina dela esatean. Hara bada egokitasunen zerrenda:

B	A	B	A	B	A
—	—	—	—	—	—
1	2	23	Ø	45	37
2	5	24	Ø	46	14
3	Ø	25	Ø	47	44
4	Ø	26	Ø	48	Ø
5	28	27	48	49	Ø
6	25	28	21	50	Ø
7	3	29	1	51	6
8	19	30	36	52	16
9	58	31	53	53	62
10	56	32	13	54	Ø
11	46	33	9	55	Ø
12	Ø	34	57	56	32
13	Ø	35	24	57	34
14	Ø	36	Ø	58	33
15	Ø	37	Ø	59	Ø
16	Ø	38	Ø	60	17
17	4	39	20	61	Ø
18	12	40	41	62	Ø
19	45	41	7	63	Ø
20	Ø	42	Ø	64	Ø
21	10	43	Ø		
22	35	44	30		

4.3.1. Datu hauen arabera, A-ren egileak B erabili zuela suposatuaz oso gertaera bitxia agitzen da, zeharo azalduezina hipotesi

horren barruan: A-ren egileak 37 errefrau hartuko lituzke B-tik baina *behin ere bi segituan hartu gabe* nahiz eta inoiz sorta harta-tiko bederatzi bata bestearen atzetik eman eta usu hiruzpalau. Jauziak gainera handiak dira B-tik hartuak omen ziratekeen artean: 2-5, 28-25-3-19-58-56-46, 4-12-45...

4.3.2. Soilik B-ko 56-57-58 zenbakiei dagozkien 32-34-33ek dirudite salbuespen lehen soan; hurbilagotik begiraturik, ordea, erabat ezberdinak dira ondorioak. Ikus ditzagun errefrauok:

- B 56: «Porque Bilbao siendo uno de los mejores pueblos de la tierra bascongada, tampoco faltan en él trabajos á los malos, como donde quiere, dizan: *Bilbao, Allí también malo el maldición, Bilbao, An vere donege-ac virao*».
- A 32: «Porque los malos donde quiera hallan por la mayor parte la acogida deuda á sus obras, dizan: *Bilbao, an vere, dongueac virao*, Bilbao, también alla allí el malo maldición».
- B 57: «Porque en Bergara, uno de los buenos pueblos de la tierra bascongada, sucede entre los vecinos aver de ordinario muchos pleitos, dizan: *Bergara, Santiguate y pasa, Bergara, Ceñatu eta ygara*. *Ygara* se dice por *ygaro*, por el consonante, porque también la arte poética tiene en esta lengua sus licencias».
- A 34: «Por las gentes de algunos pueblos que, naturalmente por disposición de sus astros, son inquietos y bulliciosos, dizan: *Bergara, ceñatu, eta aygara*, Bergara, santiguate, y pasa».
- B 58: «Porque la villa de Villa real de Urrechua, que quiere decir «villa real del avellano», tuvo en un tiempo muchos debates y pleitos con las tierras sus circunvezinas, dixieron, por los que nunca saven salir de contiendas y pleitos: *Villa real del avellano, Siempre guerra sigue vos, Villa real de Urrechu, Veti guerreia darraiçu*,».
- A 33: «Por los pueblos que andan en diferencias y contiendas con sus vecinos, dizan: *Villareal de Vrrechu, veti guerreia darraiçu*, Villareal de Vrrechu, siempre os sigue la guerra. Es la de Guipuzcoa, y á diferencia de la de Alaua de la Casa de Abendaño se llama esta de Vrrechu».

4.3.3. Begibistakoa da guztien arteko lotura: hirurak dira hiru euskal herriri dagozkionak, eta /b-/z hasten diren herriei buruzkoak gainera; beste datu guztiei bildurik honako honek ez du

batere laguntzen Urkixoren hipotesia eta bai, aldiz, kontrakoa. Hots, A zein B Garibairenak balira eta suposatuko bagenu bietan —bigarrenean, bederen— gogoratuahala paperean jarriak direla bertako errefrauak, orduan askozaz errazago litzateke azaltzea nola bi sorten artean ugari diren errepikatzen direnak baina ez ordena berean; 3 errefrauok ez lirateke horren salbuespen baina indargarri, beren egitura berdintsuak eragingo bait luke bat gogortzean beste biak erakartzea.

4.4. Errefrauon hizkuntzak ere Garibairen egiletasunaren alde jokatzen du. A-ren kopiagilea (egilea Urkixorentzat) jadanik Urkixok markatu legez⁴², giputza zen zenbait xehetasunetan ikus daitzeenez:

	B		A
17,30,34	<i>noc</i>	4,9,57	<i>norc</i>
2	<i>errabarria</i>	5	<i>erreverria</i>
9	<i>barriac</i>	58	<i>verriac</i>
11	<i>elexara</i>	46	<i>eliçara</i>
27	<i>axeriac</i>	48	<i>ayceriac</i>
7	<i>gox</i>	3	<i>goiz</i>
45	<i>eçtau</i>	63	<i>du</i>
31	<i>miia</i>	53	<i>miña</i>
60	<i>arraynac</i>	17	<i>arraiac</i>
2,4	<i>Esa galçay garria</i>	5	<i>echagalçaigarria</i>
33	<i>esa guinen</i>	9	<i>echaguinean</i>

Era honetako formak gonbaratu eta gero zera ateratzen du Urkixok ondriotzat:

Esta conformidad de formas, de los refranes regalados por Maestre a Francisque Michel, con las que en la actualidad se usan en Mondragón, y la discrepancia de estas últimas con las de los proverbios del *Memorial Histórico Español*, parecen confirmar mi presunción, fundada en otras consideraciones, de que el Códice Cc. 79 [B] era del propio Garibay, y que, en cambio, los refranes del Códice G. 139 [A] constituyen otra colección, distinta de la primera, aunque basada en ella⁴³.

42. Zerrenda honetarako Urkixok (*Los refranes de Garibay*², 531.or.) emandakoaz baliatu naiz baina zenbait eransketa eta zuzenketa eginaz.

43. *Op. cit.*, 531-2.or.

4.4.1. Sorta bateko eta besteko errefrauen ordena gonbaratzean ene ustez aski argi ikusi ahal da A ez dela B-tik aterea. Hemen ere berdintsu gertatzen da, Urkixok besterik uste izan arren, zeren eta datu hauek oztopo gehiago suposatzen bait dute haren teoriarako, bera konturatu ez bazen ere. Nahiz ota onartu A-ko kopagileak zenbait aldaketa egin zituela hizkuntzaren aldetik, aski da aldaketa horiek aurrean zedukan Garibairen bilduma orain galdu batean (lehen W deitu dugunean) egin zituela proposatzea, eta proposamen honek bere alde lituzke aurreko buruetan (§ 4.1., § 4.2., § 4.3.) egin gogoetak.

4.4.2. Gainera Urkixoren hipotesiak ez du azaltzen A-k B-rekin batera (Urkixorentzat B-tik hartuak) ez dituen errefrauak zeratik ez dauden gipuzkeraz, giputza izanik A-ren egilea, edota guxienez, B-rekin batera dituenetan baino gipuzkerazko hitz eta forma gehiago ez den azaltzen:

- A 22 *Vestec eç leguez Pieruc surra.*
- A 23 *Garean, gareana leguez.*
- A 8 *Adin onari aquio.*
- A 27 *Ez vr, eta ez ardaô.*
- A 43 *Vrte barri, isuac vere iguerri.*
- A 49 *Bardin Burgos eta Marquina.*
- A 52 *Hora il daguien mendian Guiçona idoro ez didila.*
- A 59 *Ez eugua ot orde.*

Ez dirudi *leguez, surra, garean, gareana, adinonari, ardaô, bari, vere (=ere), bardin eta idoro* formak agertuko liratekeenik (A 49 osoa ere seguru asko agertuko ez litzatekeen bezala) giputz baten bilduman, egilea (eta ez soilik kopagilea) bera izan ezkero. Egia da 51 *det* eta 61 *geçurra* ere ematen direla B-n kiderik ez duten errefrauetan, baina bakarrak dira eta eredu bizkaitarren aldatatzat ere azal daitezke (cf. § 4.4.).

4.5. Guzti honen aurrean aterabide bakar bat dela deritzot Urkixoren hipotesiaren barnean: A osatzeko egile gipuzkoar horek B eta beste bizkaierazko iturriren bat erabili zuen eta hortik atera zituen B-n ez direnak. Iturri hori idatzizkoa bide zen, ez bait dirudi daitekeena denik giputz batek Bizkaian edota bizkaitarrei biltzea errefrauok eta gero hauek ere Garibairen izenean ematea,

berea ezkutuan utziaz. Gainera bada uste horren aldeko frogaren bat ere; hara zer irakurtzen den A 46.aren gaztelerazko zatian:

Por los que de pusilamines no se atreuen a emprender cosas buenas, y quando alguna vez las ayan *comprendido* son desgraciados en ellas dicen...

A 46.ak badu bere kidea B-n baina ezin esan huts hori handik hartu zuenik edo hura gaizki irakurtzean sortu zenik oraingoan B-n ematen den gaztelerazko azalpena ezberdina bait da:

B 11: «Por los que tarde, y con desgracias, comienzan las cosas, dizen: ...».

Ez delarik B hor iturritzat darabilena, ez ote W aurrean duena?

4.6. Urkixoren hipotesiaren aurka erabiliko dudan azken arrazoi moeta grafiazkoa da. Izañ ere *Refranero Vascon* ukitu zuen Urkixok grafien arazoa baina, bildumei buruzko bere usteak beharturik edo, ez zen konturatu⁴⁴ A-n eta B-n badirela zenbait xehetasun beren egilea (ez kopiagilea) bat eta bera dela frogatzeko adinako direnak.

4.6.1. Ezaguna da, aski ikertua ez bada ere, /c/-ren (oraingo <ts>aren) idatzizko isladapenak buruhauste larriak sortzen zituela garai batean. Pedro de Madariagak 1565ean <ss> zerabilen egiteko horretarako:

La S muchas veces se pronuncia apretando bien la lengua al paladar de arriba en medio de dicción como *essea* «casa», *ossoa* «lobo», *assoa* «mujer vieja»; y por eso se pone doblada para denotar aquella espesura de la pronunciación⁴⁵.

Betolazak XVI. mendearen bukaeren bakunaren bitartez emanen zuen afrikaria ere: *deusat*, *deusuguz*, *jasi*, *hiracasi* (eta bede-

44. Aski izan bedi gogoratzea «discrepancias ortográficas» deitu ziola hitzaurreko azterketari.

45. *Apud* Julio Urkixo «Notas de bibliografía vasca. XIII. Pedro de Madariaga Vizcayno, vascófilo», *RIEV* 13 (1922) 248-51.or.; aipamena 250-1.or.

*razi, eriozea, gorpuzecoac, viziza), etab., eta berdintsu egin zuten Larramendi aurreko beste bizkaitar gehienek ere*⁴⁶:

Viva Jesus: 2 *cer*, 2 *esan*, 2 *situcen*, 2 *vicia*, 2 *gustia*, 2 *çan*, 2 *errazoa*, 2 *Eriozacoa*, 2 *Passiñoecoa*, 3 *Curze*, 3 *ceinzuc*, 3 *ga-guicenzat*, 3 *ezquerrecorean*, 3 *deucegule*, 3 *ezerean*, 4 *ussu erra-coacora*, 4 *Guizonari*, 4 *deuzut*, etab.; Kapanaga: iv *deusas*, v *gauçagati*, v *fauoreciduco*, v *egoci*, v *ceinen bicicea*, 3 *eriocea*, 3 *zeñazen*, 3 *gagiçan*, 3 *Essaten*, 6 *iassarriric*, 11 *iasizala*, 13 *gor-pucecoac*, 13 *iracassi*, 16 *vssain*, 19 *misericordiossoac*, 19 *asseco dira*, 19 *icussico*, 20 *deusat*, 22 *iracasi*, 29 *deusut*, etab.⁴⁷; Mikoleta⁴⁸: 8 *esan*, 11 *estabilas*, 12 *diñosu*, 73 *bissar*, 102 *ossasunen-daco*, 103 *osasun*, 103 *enessat*, 150 *enesat*, 227 *ysi*, 231 *urgazi*, 240 *basuac besteacayti*, 242 *mayordomusat*, etab.⁴⁹; Zubia-Lezamiz⁵⁰: 1 *diraz*, *çazpirac*, 1 *pertenecietan*, 6 *poderosoagan*, 10 *gorpuçagaz*, 11 *gorpucic*, 42 *essan*, 96 *aussi*, 101 *passinoa*, 103 *eriozea*, 153 *jassa-rriric*, 201 *eusaçala*, etab.⁵¹.

Nahiz eta bietan <s> hutsa ere erabili egun <ts>ren bitartez isladatzen dugun soinua idazteko, A-n B-n baino <sh> gehiago agertzen da: A3 *osha*, B7 *osa*, A10 *ush*, B21 *us* (baina azalpenean *usha*), A26 *Ausbo* (oker, *ausho*), A35 *ush*, B22 *us* (eta azalpenean *usa*), A20 *usean*, B39 *usean*, A43 *isuac*, B3 *Esagalçaygarria*, B13 *Esean*, B20 *vildos*, B37 *losavagueac*, B43 *Arras*, B50 *Arras*. Alabaina

46. Ik. §. 4.8.1. RSi buruz puntu honetan.

47. Bada salbuespenik (iv *ecsean*, iv *ecsagunçaac*) baina soilik hitzaurrean, dirudienez, eta hor ere badira *esagunceian* (iv) eta beste.

48. Zenbakiak eskuizkribuaren lerroenak dira I. Sarasolaren («Contribución...», 187-212.or.) argitalpenaren arabera aipatuak.

49. Cf. «Las fricativas se representan por *s* y, excepcionalmente por *ss*[...]c, ç y z son muy poco frecuentes y aparecen casi siempre en préstamos claros, como *mecede*, aunque tampoco falta *mesede*. Las africadas se representan por *ss* o *s*[...]. Parece que nada sistemático puede establecerse respecto a la grafía de Micoleta en este punto. Excepcionalmente encontramos z p. ej. en 25 *axechu ozbat* «Un çerçeganillo» y *ts* en 20 *ytsuric*» (I. Sarasola *op. cit.*, 210.or.).

50. *Apud* I. Sarasola *op. cit.* 146-155; orain ere zenbakiak orijinalaren lerroenak dira, Sarasolaren argitalpenaren arabera aipatuak.

51. XVIII. mendearen lehen zatiko testuei dagokienez ik. «Literaturgi-puzkerantz. Larramendiren Azkoitiko sermoia (1737)», ASJU XIX-1 (1985) 244.or.; cf. «En la mayor parte del ms. [Landuccirenean] se emplea la grafía *sç* (alguna vez *sz*) para las africadas *ts* y *tz*, sin distinguir una de otra, mientras que las fricativas aparecen representadas por *ss* (o *s*) y *ç*[...]. Más adelante, Baltasar de Echave en 1607 distingue por medio de digramas (*t + c* o *z* y *s*), aunque no siempre, las africadas vascas» (K. Mitxelena, A. Alonsoren *De la pronunciación medieval a la moderna en español*en lehen liburukiaren azterketa, ASJU I [1.ko aroa] (1954) 119-126.or.; aipatua 124.or.).

digrama hori ere Garibairen (eta ez A-ren kopiagilearen) asmakizuna izan bide zen oraindio eman ez dugun B-ko azken exenpluan agertzen den gaztiguaren arabera:

- 13: «Porque cada uno haze mejor sus negocios por sí que no por terceras personas, dizen que el lobo tiene a su cabeza por el mejor mensajero:

Lobo el su cabeza mensajero mejor
Osho-ac vere bürüa mandataric onaena.

En este lugar, y en otros muchos de esta lengua, se ha de herir mucho la S; y porque ayude algo, se pone aquí la haspiración, sin otra necesidad».

4.6.2. W eta B-ren etorkiak areago lotzen dituen bigarren grafiazko xehetasun bat aipatuko dut. Koldo Mitxelenak argiro erakutsi duen bezala⁵², bizkaiera zaharrak bokale sudurkariak zituen, oraindik geroago zubererak eta erronkarierak legez. Inoiz, RSetan esate baterako, sudurkaritasun hori idazkeran isladatu ez bazen ere —zeinu zehatz baten peitu izanik—⁵³ lekukotasunak argiak dira. Jadanik aipatua dugun Pedro de Madariagak zioenez «La N algunas veces se pronuncia en las narices, como en *oracioa*, *Ardaoa*, y para denotar aquella n se dueve sobreponer una cifra de esta manera a modo de nariz ^».

Hara zer dioen, bada, B31n:

Por los hombres cuidadosos en sus propios negocios dizen:

Diente en el dolor tiene el que lengua allá.
Aguine an min daben-ac miña ara.

«Aguina» llaman al diente, y «lataaguina» á la muela. Aquella dición «miña», que significa «lengua», se ha de pronunciar algo con las narizes, supliendo la «n» de la tilde con ellas, cosa muy usada en esta lengua en muchas dicciones, porque si se escribiese con la «n» diría «mina», que es «dolor y amargura».

52. Ik. *FHV*², 48-9.or.

53. Cf. «Como el ms. G. 139 de Garibay escribe *miiia* y *arraiac*, en vizc. mod. *miña* y *arra(i)ñak*, es seguro que los autores de esta época, a falta de un signo inequívoco para indicar las vocales nasales, pudieron renunciar a señalar la nasalización. Este es sin duda el caso de otros textos, sobre todo RS, donde la comparación con el vizcaíno actual y con textos posteriores permite inferir la existencia de vocales y diptongos nasales a pesar de la ausencia de toda notación (*FHV*², 49.or.).

Beste errefrau batean ere dotrina bera errepikatzen du:

B60: «Por los que deven, y quanto más se le acercan los plazos de las pagas, están más temerosas dellas, o recelan algún otro mal que se les acerca, dizen:

Redes las quanto más cerca, pescados los apretados más.
Sara-ac urrago, Arrayn-ac estu-agó.

Quiere decir: Quanto más se acercan las redes, tanto más se afligen los peces. «Arrayna» se ha de pronunciar con las nari-
zes sonando la «n» de la tilde, porque «arrania» no quiere decir
nada, y «arrayna» significa pescado en general, y a los peces
pequeños llaman «eçcaluac» en plural, y «eçcalua» en singular»⁵⁴.

Bada bi bildumetan ezagutzen dudan (^) markaren erabilera-
ren exenplu bakarra A27an ematen dena dugu:

Por los hombres muy tibios, que no son para bien ni tampoco
para mal, dizen:

Ez ur, eta ez ardaô
Ni agua ni vino.

4.7. Nakion orain Urkixoren hipotesiaren bigarren zatiari. Gorago ikusi dugunez, B bai baina A Garibairena ez zela pentsatuaz RS zuen haren bigarren bildumatzat eta hori frogatzeko bost arrazoi ere ematen zituen.

Alabaina, aurrerago (ik. § 3.2.) aurkeztu arrazoiok oso ahulak iruditzen zaizkit: lehenean urteen aldetik ezinik ez dela baino ez da baieztatzen, ez, ordea, Garibairen aldeko ezer erakusten; bigarrena eta hirugarrena oso oinarri eskasen gainean eraikiak ditugu RSetan ez bait dira 10etara ere iristen handikiei eta herriei buruzkoak⁵⁵: arrunt gutxi, beraz, 560 ezagunen artean egile genealogis-

54. Garibairen azalpen hau ulertzeko gogora bedi, Dogsonek egin Kapanagaren edizioaz ari dela, Mixxelenak *FHV*² 49.or. oharrean dioen bezala kopiagileei leporatu behar zaiela usu (^) hori mantendu beharrean *n* ezartzea.

55. Cf. 167 *Erioac ereçan Butroeco alabea Plencian*, 270 *Muxica arerioacaz aguica*, 273 *Gacean, gaçean, ta ez Ybarguengorean*, 404 *Butroeco meniac gayti ez ysquilosay echí*, 92 *Celangoada Butroe oroc daquie*, 284 *Aramayo da-benac ezlemayo*, 334 *Daygu Goliz auzi ta garea vaquéz bizi*, 378 *Albia deunga dustien abia*.

ta baten behar berezirik izateko; Idiaquezen semeak liburu edo liburuxkarik Iruñean argitaratzean ere ez da Garibairen egiletasunaren aldeko (kontrakorik ere ezjakina) argudio sendoegirik⁵⁶, eta, hortaz, hizkuntzari dagokion Urkixoren azken arrazoia baino ez zaigu gelditzen.

Ene ustez, Urkixoren susmoek, Guerraren laguntza gora behera⁵⁷, ez dute oinarririk alde honetatik ere.

4.7.1. Hasteko, Garibairen testuan ez dugu ezertxo ere aurkitzen Guerrak eta Urkixok suposatu nahi izan dituzten Orozkoko ez besteko berriemaileei buruz, eta isiltasun hau esanguratsua da testuinguru hartan, laguntzaileen aipamenaz bere lanaren balioa areago bait zezakeen Idiaquez zein besteren aurrean.

4.7.2. Bestalde, ez Urkixok ez bestek ez du egin RSen egiletasuna Garibairen alde erabakitzeko beharreko zen bilduma horren eta Garibairen testuetako hizkeraren arteko gonbaraketa zehatzik, ez bait da aski gaur egungo hango edo hemengo hizkeraren nolabaiteko antza duela esatea⁵⁸. RSi buruz aurki burutu nahi nukeen lan bereizi baterako utziaz bilduma hortako hizkera nongoa zatekeen aztertzea, XVI. mendeko Arrasaten egiten zena dela frogatzeko Urkixok darabiltzan arrazoibide bitxien ahulezia erakusteko lot nadin berak besteri jarraikiz aipatu *emaitenen* kasura, ez bait dugu exenplu gehiagoren beharrak diodanaren lekuko.

Irakurlea gogoratuko bide denez (ik. § 3.3.) Urkixoren ustez RSetan agertzen diren *beranquetan* eta *emaiten* egun Orozkon ez

56. Antonio Pérez Goyena, S. J.ren *Ensayo de bibliografía navarraren* arabera (Dip. For. de Nav.-C.S.I.C. 1949, II 83-84, 117, 148.or. eta 278, 305, 326. zb.ak) Alonso Ydiaquez y Muxicak 3 liburu atera zituen —1612, 15 eta 17an, bestalde, 1596tik aski urrutti— edota, hobe, *zizkieten Assiayen* etxearen. Hiru kasuetan bere karguari («visorey») loturiko eginkizunen fede emateko atera liburuxkak ditugu: bi lege kuaderno eta erregearen alabari egin behar zitzzion harrerari buruzko paper bat. Hau ikusirik, ez dakit nola aldarrika dezakeen Urkixok bere hipotesiaren euskarritzat.

57. Ez zait beharreko iruditzen ematea hemen Guerraren filologiazko trebetasun ezaren (eta hizkuntzalaritzazko ausardiaren) frogak lukeegirik, cf. Urkixoren beraren *Los cantares antiguos del euskeraren* kritikak, RIEV 15 (1924) 380.or. eta *Euskalerriaren Alde XI* (1921) 379 eta hur [eta orain ale honetako 294-5.or.].

58. RSei eskeiniko diedan lanean zuzenean bere lanaz aritu gogo du dan arren ez dut esan gabe utzi nahi aurreko oharrean Guerraz nioena zeharo eta zuzenago egokitzten zaiola B. Kapanagaren «Testu zahar baten [RS] bitxitasunak»i; ik. *Euskeria XXVIII-2* (1983) 159-168.or. (!!).

baina Leintz aldean bai erabiltzea bilduma horren etorkiari buruz berak zuen hipotesiaren alde etor daiteke. Alabaina, hori bezalako frogak ez dira sendoegiak, seguru bait gaude XVI. mendean (eta are lehenago eta beranduago) Orozkon ere *emaiten* zela, eta ez beste, *emon -te-* erastetik ateratzen zen forma arrunta, ez bait dago bizkaiera zaharreko testuak zertxobait ezagutzea baizik XVIII. mendera arte *emon* baina *emaiten*, *emaiteko*, *emaitea*, etab. agertzen dela jakiteko, jadanik Azkuek *Evolución de la lengua vasca* erakutsi zuen bezala⁵⁹.

Dialektologia zaharrari buruzko ikerketak nahi bezanbat aurreratuak ez izan arren, eta nahiz eta oso zaila den erabakitzet duela 400 urtetako izkribu baten euskara zein herritakoa zatekeen⁶⁰, —batez ere RSak bezala batetan baino gehiagotan bilduriko materialez osatua izan daitekenean—, ez deritzot ezinezkoa RSen hizkuntzaz baliaturik beren etorkiaz zertxobait jakiteari; oraingoz zehaztasun gehiagotan sartu gabe, mendebaleko bizkaieraz daude funtsean eta horrelatsu pentsatzen zuten Azkuek eta Mitxelenak ere Orozko aldeko euskararen zantza hartzean.

Nolanahi ere, askozaz errazago da RSetako errefrauok garai hartako Arrasate aldeko euskaran *ez* daudela frogatzea hor bait ditugu gonbaraketarako zorionez Garibai beraren testuak: bai gorago aipatu errefrauak eta baita haren obretan zehar eman zituen kanta eta kanta zatiak ere.

4.8. Baina hizkuntzara igaro baino lehen dakusagun, konpli den bezala, grafia bera. Ezaguna da hegoaldeko euskalkiek —eta beraien artean bizkaierak— ez dutela gorde, nahiz eta zalantzak gabe noizbait izan, beste euskalkiek mantendu duten aspirazioa; badakigu halaber galera hau historiaurreko dela, jadanik lehendabiziko testuetan isladatzen den hizkeran emana bait zen.

Hala ere, <h> letra aurki daiteke hegoaldeko testuetan, batez ere erdaratiko zenbait mailebutan, baina baita noizik behin euskal ondare zaharrekotzat ditugunetarikoren bat (*hume*, esate

59. Cf. *Euskera* 16 (1935) 74.or. 1745 baino lehen soilik *Ce modutan emoten deuscu aumentnori* (Kapanaga 61), *Selan guey emoten deustasu onetan urgasteco* (Mikoleta 288) eta *Vissita emoten joanic* (Urkizu 79) dira lege horri aukitzeten dizkiordan salbuespenak, *emaiten*, *emaitea*, *emaiteko*, *emaitean*, etab. gutxienez horiek bider hogeい direla. Olaetxeak (1763) eta *Peru Abarkak* dagoenekoz soilik *emote*.

60. Cf. orain ale honen 295.or. Mitxelenaren iritzi beretsua.

baterako) isladatzeko, sistimatikotasunik gabe bada ere; honela erakutsi izan du Mitxelenak —eta *RSetan* oinarriturik, hain zuzen— Azkueren saio zaharrago baina ez hain sakon baten ondoren^{60 bis.}

Hatik, lan interesgarri hauek ez zaizkigu hemen axola orduko fonologiarekiko ondorioengatik, *RSen* biltzaileak zituen grafiazko ohiturez diotenarenagatik baizik. Mitxelenak frogatu dueñe⁶¹, *<h>*ak *RSetan* bokale arteko hiatoak markatzeko balio du: *hahoaz* (372), *parrahua* (220), *q[ue]ric* (53), *quehea* (360), *queheac* (364) etab., Kapanagaren dotrinan, *VJen* eta bestetan inoiz jazo legez. Markatzekoa da, ordea, Garibairen errefrauuetan ez dudala horrelakorik behin ere eriden: *asiac* (B 64), *axeriac* (B 27), *axeriari* (B 73), *bear* (B 45), *gueiaenean* (B 4), etab.

Baina gonbaraketa hitz hasierako bokale aurrean da esanguratsuena: *h-* asko dira *RSetan*, 84 Mitxelenaren kontuen arabera: *hurrutirean* (147), *huri* (148), *hurte* (150), *hurrieteac* (249), *hurdinetan* (166), *hiñarchi* (112), *hiz* (284), *haoa* (87), *hendoreaa* (73), etab. Horietarik 44 dira *hu-*, 19 *ho-* eta 21 *ha-*, *he-* eta *hi-*⁶².

Mitxelenak dioenez *h-* horien sailkapena ez da halabeharrezkoa, zeren eta berariazko joerarik ez balitz bokale bakoitzari age-rraldi kopuru berdintsua tokatuko bait litzaioke; zehazkiago, bokale bakoitzari bere euskal testu eta hiztegietako agerraldi frekuentziaren arabera: A-ri gehien, E-ri gutxieago, I-ri gutxiago, eta oso gutxi O- eta U-ri. Ikerlari berak azaldu bezala *hu-* ugari horiek badute zergatirik: betebeharra ez da *u-* bokalea eta kontsonantea (*hueuo* eta *ueuoren* gisan) bereiztea baino, oraindik finkatu gabe bait zegoen gaztelerez, eta gaztelera zen eredua, *<v>* eta *<u>*ren grafiazko bereizkuntza⁶³.

RSei buruzko Mitxelenaren datu hauek Garibairen bildumarekin (B-ra mugatuko bait naiz Urkixoren irizpideekin^{63 bis} jokatzeko) erkatzean oso besterik aurkitu dut: *h-aren* exenplu solte eta bakar bat (B 52 *hora*), alegia. Esan gabe doa *RS* berea izateko *h-* haboro

60 bis. Ik. «La letra *h* en los *Refranes y Sentencias* de 1596 (Miscelánea Filológica Vasca III)», *FLV* 32 (1979) 213-220.or., batez ere 213-5.ak; Azkuek bere «Evolución de la lengua vasca», *Euskera* 16 (1935) 115.or.

61. *Op. cit.*, 215-6.or.

62. *Op. cit.*, 216-7.or.

63. *Op. cit.*, 217.or.

63 bis. Gogora § 3.0. eta § 3.4.ean esanak.

behar lukela erabili B-n edota, alderantziz, askozaz gutxiago RSetan. Are gehiago, RSetako 44 *hū-* kasu horiek eman zitezkeen 96ren artean gertatzen dira (ia %50a, beraz), 96 bait dira, oker ez banago, bilduma horretan *u* hasieran duten hitzak; B-n, aldiz, 16 bider ematen da /u-/ behin ere *h*-rik ez daramalarik.

4.8.1. Grafiatik atera gabe, RSetan ez dut gure oraingo <ts> irudikatzeko Garibaik asmatu eta usu erabili zuen <sh>ren exemplu bakarra (338 *oshoa*) baino aurkitzen: *aberas* (2), *aberassoc* (2), *esea* (6), *esaguicea* (58), *losauagueac* (66), *sorosi* (78), *aus* (79), *asoia* (79), *ossoac* (226), *hussic* (332), *ussa* (426) errenkadak era-kusten duenez <s(s)> bait da nagusi egiteko horretan, nahiz eta <xs> (*Iauxsten*, 211), <csh> (*ocsho*, 133), <cshsz> (*vicshsz*, 455), <ts> (*lotsaga* 263, *etsecoandrea* 259) eta <shs> (*oshsoac* 74, 480, *oshso* 471, *eshse* 442, *eshsean* 434, *eshseraco* 537, *eshseco* 473, 525, *ushsa* 442) —Garibaik inoiz erabiltzen ez dituenak— ere ageri.

4.8.2. Ez partikulari dagokionez bada halaber zer esanik. Garibairen bi errefrau bildumak gonbara bagenitza, laster konturatuko ginateke A-ren kopiagileak *ez* bihurtu dituela bere orijinalean *ec* zirenak, bat edo beste pasatu bazaio ere; B-n, aldiz, *ec* da duguna⁶⁴. RSetan, ostera, ukaeraren 54 agerraldietatik *ez* agertzen zaigu 53tan eta solik behin *es* bat.

Ene ustez, grafiazko ezberdintasun hauek berak aski lirateke baieztaztzeko Garibai *ez* zela izan RSen egilea.

4.9. Hizkuntzan ere nahiko dukegu zenbait xehetasunekin ondorio berdinera iristeko azterketa zabalagorik *ez* den bitartean, bederen, xehetasun horiek ongi hautatu ezkerro gai bait dira auzia erabakitzeko.

4.9.1. Mitxelena konturatu da zuhurki Garibairen errefrauatan beti *eta* juntagailua erabiltzen dela eta RSetan *ta* dela askore-

64. Cf. A 12 *ez...ez*, 13 *ez...ez*, 22 *ec*, 27 *ez...ez*, 30 *cetoa*, 35 *ez euguaia*, 36 *ectaroa*, 37, 55, 56 *ez* eta B 18, 32 *ec...ec*, 44 *eztoa*, 22 *ec euguaia*, 30 *ectaroa*, 45 *ectau*, 9 *egeac*, 10, 15, 25, 29, 63 *ec*.

kin aldaera nagusia⁶⁵. Kopuruek ez dute zalantza izpirik uztenene kontuen arabera 4 etaren alboan 135 *ta* bait ditugu RSetan⁶⁶, Garibairen errefrauetan 18tatik 18ek *eta* dutelarik⁶⁷; halaber, *eta* baino ez da agertzen Garibairen bitartez ezagutzen ditugun testu laburretan ere⁶⁸. Mitxelenak berak esan bezala «hori kontutan eduki behar zuten bilduma hau [RS] eta oraingo gureak [A eta B] esku beretsutik datozena uste izan dutenek»⁶⁹.

4.9.2. Kontutan izan behar zuketen, halaber, *Valizco oleac burniaric eguiñ eçtaroa* dakartela bai A 36 eta bai B 30.ak eta *Balizco oleac burdiaric ez RS 15.ak, euguia dutela A 35, A 39 eta B 22ak eta euquierren RS 164ak, gogaeta dela «pensamiento» A 57 eta B 34ean eta gogaiera, aldiz, RS 395ean, *jabea* dagoela A 45 eta B 19an eta *jaube RS 54, 286an, jaubea RS 551ean, urrik* «marzo» esan nahi duela B 46 eta B 47an eta «octubre» *urrieteak RS 149an* eta orobat soilik *done* ematen dela RSetan eta bai hori eta baita *san* eta *santi* ere askozaz txikiagoak diren A eta B bildumetan: *RS 318 Done Vicen, 320 Done Meterij Celedon, 545 Otu doneari, 254, 280 Doneaneoco euria, baina A 16 San Simon eta Juda, A 6 Jaun Santi Laurenti, B 52 Sanct Simon eta Juda, B 57 Jaun done Laurenti, B 63 Jaun done Martinen.* Erabat kontrako esanahia duen hitzean A 32, B 56 *dongueac* dugu RS 222, 387, 440 *deunga, 207 deungen, 96 deungueaeneanen* kontra eta baita A 60 *izen* baina RS 414 *hucen* eta 461 *huzena* ere.*

4.9.3. Hitzetatik atera gabe bada oraindik RS eta beste bi bildumen etorkiak bereizten dituen xehetasunik. Ez luke zer aipatu, jakina, RSetan Garibairen bildumetan agertzen ez diren hitzak agertzeak, hura handiagoa izateaz at, gaiak ere ez bait dira beti errepiti-

65. Cf. «Esaera zahar baten bigarren agerraldia» in *Aingeru Irigarayri omenaldia* (=Hizkuntza eta literatura 4, Eusko Ikaskuntza, Zarautz 1985) 214.or.

66. 4 eta 123 datoz M. J. Soto-Michelenaren «El lexicón de *Refranes y Sentencias de 1596*» en *ASJU XII-XIII, 1978-79* 15 eta hur. s.u. Hiztegi hau lehendabiziko hurbilketa bezala erabil daiteke soilik, analisi eta metodozko akats larriak bait ditu aurki erakutsi gogo dudan legez; artean ikus bedi, adibidez *egon* sarrera.

67. Ez zait salbuespena dela iruditzen A 25 *Mila urte igarota ura vere videan*.

68. Cf. *sagar erreña, eta ardao gorria* (TAV 75), *jauna eta andrea* (TAV 76).

69. «Esaera zahar...» 214.or.

katzen hitz berdinak eman daitezen. Alabaina, markatzekoa deritzot Garibairen bildumetan esaterako hapaxik (ia «hitz arrarorik» ere esango nuke) ez agertzea; *urri*=«marzo» (B 46, B 47), *diago*=«hieren/dice» (A 20, B 39), *eben*=«aquí» (B 44) eta *manturio*=«azeariak arrapatzeko tranpa» (A 48, B 27) bait dira aipagarri iruditzen zaizkidan berba bakarrak.

RSelan, ordea, ugari dira; ikus, adibidez, A eta B letretan ematen direnak:

- | | |
|---|---|
| 1 <i>aberasgarri</i> «aparejo para enriquecer» 11 | 15 <i>asto</i> «fiador» 249 |
| 2 <i>agika</i> «a dentelladas» 270 | 16 <i>auzkin</i> «pleitista» 75 |
| 3 <i>alauin</i> «majada» 152 | 17 <i>azarkuntza</i> «atrevimiento» 165 |
| 4 <i>alberdau</i> «regozijado» 482 | 18 <i>azarri</i> «atrevido» 383 |
| 5 <i>alogadu</i> «alquilar» 388 | 19 <i>baist</i> (baiten aldaera) 35 |
| 6 <i>altamia</i> «taza» 543 | 20 <i>baratxexe</i> «despacito» 173 |
| 7 <i>andera</i> «señora» 290 | 21 <i>basoi</i> «montañero» 522 |
| 8 <i>andizuren</i> «honor, principal» 392, 507 | 22 <i>bats</i> «orujo» 99 |
| 9 <i>amker</i> «cruel» 12 | 23 <i>belorit</i> «rollo, horca» 196, 197 |
| 10 * <i>apizadu</i> (<i>apizetan</i>) «robar» 509 | 24 <i>beralan</i> «de la misma manera» 333 |
| 11 <i>aretx</i> «bellota» 37, 109 | 25 <i>berandu</i> (<i>beranketan</i>) «hacerse tarde» 521 |
| 12 <i>arritu</i> «refir» 52, 386 | 26 <i>behse</i> «abarca» 24 |
| 13 <i>asakatu</i> «acabar» 171 | 27 <i>betesegi</i> «vaca con cría» 411 |
| 14 <i>aspertu</i> «vengarse» 10(2), 362 | 28 <i>bizikide</i> «manera de vivir» 133 |
| | 29 <i>burrustu</i> «acometer» 424 |

Hitz guztiok ez dute, jakina, pisu bera. Baliteke zenbait zerrendatik kendu beharra ere, nik ezagutzen ez ditudan bizkaierazko beste testuetan agertzeagatik; bestalde, batzu solik forma edo esanahi horrekin dira hapax edo ia ezezagun. Nolanahi ere, gutxitu beharrezkoak gutxiturik, kopuru hau RSen hiztegi osora heda begeneza, 145 bat (adizkiak kanpo) genituzke bilduma horretan agertuko litzaizkigukeen gainerako testuetan kiderik ez duten hitzok. Kontutan harturik Garibairen 3ak⁷⁰ 90 errefrautan ematen direla RSeko 145 hauek 560tan ematen diren bitartean, erraz ikus daiteke bilduma honetan agertzen diren hitz ezezagunen proportzioa ere askozaz handiagoa dela; zehazkiago, RS Garibairena izateko bil-

70. Ez dut *diago* kontatzen adizkia izaki, lehen RSkoekin egin bezala.

duma horretan soilik 18 hapax eman beharko lirateke edota, aldeantziz, Garibairen bildumetan 23 bat eriden.

4.9.4. Izen eta aditz morfologian ez da gehiegi Garibairen errefrauak eskeintzen dutena, bildumak txikiak izateaz gainera aditza ezabatzeko joera atzeman bait daiteke, Urkixo ohartu bezala⁷¹. R Sekiko gonbaraketa arlo honetan zaila bilakatu arren hor-taz, bada hemen ere etorki ezberdinaren alde argiro mintzatzen den xehetasunik: ezaguna denez bizkaieraren azpieuskalki batzutan -n>-Ø ematen da lehenaldian, ez ordea gehienetan; zehazkiago, fenomeno hori mendebaleko itsasaldean, Bilbo alboko herriean ematen (izan?) da Azkuek eta lehenago Zabalak markatu bezala:

Por 3.^r defecto cuenta la supresión de la *n* final de los artículos, practicado en los pueblos de la costa del mar cercanos a Bilbao, v.g. *yan eguiā* por *eguiān*, ó *evan*, él lo comió: *etorri cidi* ó *za* por *cidin* ó *zan* se vino: *yoan ekio* por *ekion* ó *yacon*, se le fué⁷².

Hara zer irakur daitekeen Mikoletaren *Modo brevean* (1653): 10 *nic vostac containinçean*, 142 *sillac etorsan Salamancaric* baina 126 *Flandesic etorri sirea*, 141 *Non eguin sidi?*, poesietan *on oyne-rechu*, id *mudadu nindia*, id *vior equida*, id *emon senguida*, id *astu senguia*⁷³.

R Setan ere badira -Ø dun formak, eta are nagusi dira, gutxigatik bada ere: 52 *citean*, 75 *nenguiâ*, 263 *nindin*, 294 *cizan*, 364 *eban* (eta 345 *ezeuan*, 228 *ezeban*), 419 *neuen*, 513 *neban*, 513 *neçan* (eta 513 *nezan*), 526 *jacazâ*, 557 *zan*, baina 244 *neuca*, 244 *eusta*, 294, 486 *cidi* (eta 359 *cidi*), 332 *nentorre*, 332 *necarre*, 344 *ezequida*, 388 *citea*, 438 *nencarre*, 535 *eguia*, 535 *nenza*, 555 *neguia*; Garibairen errefrauuetan, aldiz, ez da -n gabekoren agerraldirik: A 2-B 1 *cidin*, A 11 *çiteçen*, A 19-B 8 *engarren*.

71. Cf. «En bastantes de los refranes de las dos colecciones que comparamos [A eta B] se suprime por completo el verbo: por ejemplo *Andiac andiro* (XI): *Noc vere gogoeta moeta*, etc.». *Los refranes de Garibay*² 539.or. eta «Bien que beaucoup de proverbes de Garibay soient des phrases sans verbe...» (R. Lafon, *Le système...* I, 67.or.).

72. Ik. *El verbo regular bascongado*, Donostia 1858, 57.or. eta cf. «Bizkaiera zaharra gainerako euskalkien artean».

73. R Sei buruzko lanean dateke haboro arazo honetaz.

4.9.5. Garibairen errefrau eta testuetan *edunen orainaldiko eta lehenaldiko anitzeko 3. pertsonaren formarik ez eman arren daue, euen edo oso antzeko zerbait ziratekeela suposa daiteke horrelakorik erabili izan balu; hori dioskute ez bakarrik gaur egungo dialektologiak⁷⁴ baina baita XVIII. mendearen hasieran han bizi zen Barrutiak ere: 85 *chacurrac eurac eguiten dave*, 349 *goizean bein emaiten dabe*, 33 *profeta sagraduac escrividu eben*. RSetan, ostera, daude, *euden aurkitzen dugu, -d-rekin, berri ere mende-balagoko hizkerek ohi nola: 3 *Aberassoc jaya daude*, 3 *auçooc vere yguy daude*, 54 *Iaube bat daude asco / baraçeac eta emazteac*, 85 *Iaunuc asco daude, / gueyago beardaude*, 316 *Andra guztioc erçeti / erabilico aude veti*, 441 *Gaxtoac daude huçen gueyago*, 440 *aldia gauzac daude*.

4.9.6. Ez naiz gehiago luzatuko hizkuntzazko gonbaraketa honetan, ene ustez orain arte emandako frogak aski bait dira RS bilduma Garibairen eskutik ez zela atera erakusteko. Guztiz ezi nezkoa ez den, baina itxadoten ez dudan, berri ezezagun bezain pozgarriren batez bere egilea nor izan zen jagoitik jakingabe jarratzea atseginegi ez den arren, ez dirudi beste aukerarik dugunik oraingoz⁷⁵.

5. LABURBILDUAZ

Orain arteko gogoeten arabera W (A-ren orijinale galdua) eta B —ez RS— dira Garibaik egin zituen bi errefrau bildumak; Urkixok zeukan kontrako iritziaren arrazoi nagusia —bietan 37 errefrau errepikatzen direla— aski ahula iruditzen zait kontrakoa mantentzeko. Izan ere, edozeinek dakiena da norbera ere asko errepiatu ohi dela errefrauak, ipuiak, kantak zein txistea buruz emanez, eta areago kopuru batera iritsiz gero, baldin eta memoria oporoko kasu bereziren batekin topo egiten ez badagu, bederen; ez da

74. Cf. *Erizkizundi Irukoitza* (=Iker 3, A. M. Etxaideren argitalpena, Bilbo 1984) 228.or., I. Gaminde *Aditza bizkaieraz*, Iruñea 1984, I 302.or. (auen).

75. Halere, saiatuko naiz «robot-argazki» bat egiten 73. oharrean eta bestetan iragarri lanean.

harritzekoa gauza bera gertatzea Garibairi ere, batez ere bilduma bata bidali zuenetik Idiaquezen eskariz bigarrena paperean jarri arte aldi luze edo luzexkarik izan balitz.

A bilduma, G 139 zenbakirekin Madrilgo Biblioteca Nacionalean gordetzen dena, gipuzkoar kopiagile batek egina da; W-ren kopiagile hau aski zintzoa izan bide zen ez bait zuen seguru asko aldaketarik egin, grafia eta hizkuntzazko txiki eta gutxi batzuk at⁷⁶, ez eta W-z landako beste materialerik erabili A osatzeko.

Hau dela deritzot Urkixok erabili eta hark kontutan ez izandako beste datu batzuren azterketak damaigun ondorioa.

76. Cf. *supra* §4.4.

6. ERASKINA A ETA B-REN EKOIZPEN ORDENAZ

6.1. Urrats bat aurrerago emanaz galde daiteke zein izan ote daitekeen Garibaik Idiaquezi bidalitako lehena eta zein bigarrena W eta B-ren artean. B da, ene aburuz, lehendabizi bidalia, eta W bigarrena.

Ohar bedi hasteko B-k hilen eta egunen izenak ere bazituela, nahiz eta F. Michelek ez argitaratu^{76 bis}. Gogora bedi Garibaik dioenez Idiaquezek *errefrauak* eskatu zizkiola lehendabiziko sorta bat hartu ondoren: «El señor don Juan de Idiaquez, del Consejo de Estado de su Magestad, deseó otros *refranes* en su lengua vascongada sobre los que le dí antes en un quaderno, y en 18 de julio de este año de [15]92 le envió otro dellos á Valladolid con su interpretación interlinear, palabra por palabra, y en el sentido de ellos para su mejor declaración». Ez dio lehendabizikoan errefrauuez kanko beste zerbait ere bidali zion Idiaquezi, mementu horretan ez bait zittaion horrelakorik axola, baina ia segurua iruditzen zait bigarrenean soilik errefrauak bidali zizkiola; W sorta, beraz.

6.2. Bada beste arrazoi moeta bat ere lehendabizi osatutako eta bidalitako sorta B dela suposatzearen alde. Gorago ikusi dugunez A-n B-n baino <sh> gehiago agertzen da /č/ (egungo <ts>) isladatzeko. Zehatzago, 6 kasutatik⁷⁷ 4tan <sh> dakar A-k; B-k, aldiz, 11tak behin bakarrik⁷⁸. Garrantzitsua da, ordea, exemplu bakar hori, bere azalpenean proposatzen bait da espreski <sh> hautatzea soinu hori adierazteko. Burura datorkidan azalpen modu bat honako hau izan daiteke: demagun B dela lehendabizi osatutako sorta eta hori paperean jartzen ari zela pentsatu zuela digrama hortaz baliatzea, gazteleraren ortografiak ez bait zion eskeintzen hoberik. Alabaina soilik beranduago erabaki bide zuen sistimati-koki, edota ia sistimatifilik bederen, (A-ko <s>ak oro ez badira


76 bis. Cf. *supra* § 2.

77. Kanpo uztentitut *echa-*, etab. A-ko kopiagilearen aldaketak izaki ez bait dugu erabakitzetik W-n <s> ala <sh> ziren; alderantziz *ausbok* (26) W-n <sh> eskatzen du zalantzarik gabe.

78. B-13 *osh-o-ac*; B 21-aren azalpenean halabar *usha*, (*errefrauak us*).

kopiagilearen aldaketak), erabiltzea letra hori eta ez besterik. No-lanahi ere, zailago iruditzen zait alderantzizkoa onartzea, hau da, W litzatekeela 1.ko bilduma eta hor ia erabat <sh> erabili ondoren hurrengo bilduman ezagutzen ez dugun arrazoiren bategatik ahalik eta gutxien erabili zuela; § 6.1.ekoa ere kontra luke.

6.3. Hau litzateke, bada, testuon arteko loturak isladatzen dituen *stemma*:



7. BIBLIGRAFIA

- AZKUE, Resurrección M.^a, «Evolución de la lengua vasca», *Euskera* 16 (1935), 57-120.
- _____, *Gipuzkera osatua*, *Euskera* 14 (1933) [orri zenbaketa berezia].
- _____, *Diccionario vasco-español-francés*, Tours 1905-6 (2. arg. Bilbo 1969).
- BLECUA, Alberto, *Manual de crítica textual*, Castalia, Madrid 1983.
- CARO BAROJA, Julio, *Los vascos y la historia a través de Garibay*², Txertoa, Donostia 1972.
- GOROSTIAGA, Juan, *Vocabulario del Refranero Vizcaíno de 1596*, Acta Salmanticensia, 1953.
- LAFON, René, *Le système du verbe basque au XVI^e siècle*², Elkar, Donostia 1980.
- LAKARRA, Joseba Andoni, «Bizkaiera zaharra gainerako euskalkien artean», 1985eko Donostiako E.H.U.aren Udako Ikastaroetan irakurri lan argitaragabea.
- _____, «RSen zenbait arazo», prestatzen ari naizen lana.
- _____, *Euskar Thesauruserako Gaiak: Hegoaldeko Testuak 1700-1745*, E.H.U.ko tesina argitaragabea, 1984.
- _____, & URGELL, Blanka, «XVI. mendeko bizkaierazko errefrau bildumen hiztegia», lan argitaragabea.
- MITXELENA, Koldo, *Fonética Histórica Vasca*², Donostia 1977.
- _____, *Textos Arcaicos Vascos*, Minotauro, Madrid 1964.
- _____, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Auñamendi, Donostia 1964.
- _____, *Historia de la literatura vasca*, Minotauro, Madrid 1960.
- _____, *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*, Bilbo 1971.
- _____, «Nota sobre algunos pasajes de *Refranes y sentencias*», ASJU I (1954) [1.ko aroa] 25-34.or.
- _____, «Para la historia de la ortografía vasca (Miscelánea Filológica Vasca II)», *FLV* 30 (1978) 393-7.or.
- _____, «La letra *h* en los *Refranes y Sentencias* de 1596 (Miscelánea Filológica Vasca III)», *FLV* 32 (1979) 213-20.or.
- _____, «Algo más sobre grafías de *Refranes y Sentencias* (Miscelánea Filológica Vasca III)», *FLV* 32 (1979) 220-5.or.
- _____, «Euskal Iztegigileak XVII-XVIIIgarren mendeetan», *Euskera* VI (1961) 7-22.or.
- _____, «Introducción» in L. Michelena, M. Agud, *Nicolao Landucci. Dictionarium Linguae Cantabricae* (1562), Donostia 1958.

- , «Esaera zahar baten bigarren agerraldia», *Aingeru Irigarairi omenaldia* (=Hizkuntza eta Literatura 4, Eusko Ikaskuntza, Zarautz 1985), 209-17.or.
- , «Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos», *FLV* 8 (1971) 149-69.
- , «Los refranes del cuaderno de Oihenart», *ASJU* I (1967) 11-44.
- , A. Alonsoren *De la pronunciación medieval a la moderna en español* I-en kritika, *ASJU* I (1954) [1.ko aroa] 119-126.or.
- SARASOLA, Ibon, *Materiales para un thesaurus de la lengua vasca*, tesi argitaragabea, Barcelona 1980.
- , «Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos», *ASJU* XVII (1983) 69-212.or.
- SOTO-MICHELENA, M.^a Jesús, «El lexicón de *Refranes y Sentencias de 1596*», *ASJU* XII-XIII (1978-79) 15-86.or.
- URQUIJO, Julio, *El refranero vasco: I. Los refranes de Garibay*, Donostia 1919, 2. argit. *RIEV* 27. alean, Bilbo 1976.
- , «Los refranes y sentencias de 1596. Estudio comparativo», *RIEV* 1911-1933. urteetako zb.etan.
- , «De paremiología vasca. ¿Conoció Oihenart los *Refranes y Sentencias de 1596?*», *ASJU* I (1967) 3-10.or.
- , «Los refranes vascos de Sauguis», *RIEV* 2 (1908) 677-724 eta 3 (1909) 144-157.or.
- VILLASANTE, Luis, *Historia de la literatura vasca*², Arantzazu 1979.
- ZUBIAUR, José Ramón, & ARZAMENDI, Jesús, «El léxico vasco de los refranes de Garibay», *ASJU* X (1976) 47-144.or.; errefrauak ere ematen dituzte eta baita A-ren facsímila ere.

FROM AUTOMATIC ASSIMILATION TO SOUND SYMBOLISM

A case study of Basque Palatalization

MIREN LOURDES OÑEDERRA

Indieuropear eta Euskal Filologi Saila
Euskal Herriko Unibertsitatea
Gasteiz

Lan hau *Societas Linguistica Europaea*-k Toledoon izan zuen bere XVIII. Biltzarrerako prestatu zen. Bertan aurkeztu zen 1985eko irailaren 5-ean.

Donostia eta Donostiatik hurren dauden herri batzuetako ebakerak dira lanaren oinarri¹. Hain zuen ere, hirikoen eta herrikoen artean aurki daitzekeen bustidurarekiko bereizkuntzak aztertzen dira. Pentsa genezake, eta lan honek hala dio, bustidura-asimilazioa esanahiaren arloan sartzen ari dela herrikoen hizkera formalak hiriko euskararen antza hartzen ari den neurrian. Hau omen da bilakabide fonologiko semantiko eta automatikoen bidagurutzean espero daitekeena eta beste zenbait hizkuntzez egin diren analisiekin bat letorke erabat.

1. This paper is based on the data obtained by the author (who can speak the two varieties described) from four informants:

— Josefa Arbelaitz Makuso.

From Oihartzun, she has been living in Astigarraga for the last 53 years. She is 76.

— Antonia Lekuona Etxepelekua.

From Errerenteria, she has been living in Astigarraga for the last 20 years. She is 42.

— José Mendiluze Etxeberria.

He has been living in Astigarraga since he was born 83 years ago, except for a few months in San Sebastián for his military service.

— Petra Mendiluze Etxeberria from Astigarraga, she has been living in San Sebastián for the last 52 years, although she very often goes to her village. She is 77.

I am very grateful to all of them for their help.

ABSTRACT

This paper deals with a pragmatic aspect of Basque palatalization. Palatalization of dental and alveolar segments can take place either under phonetic or morphosemantic conditions. The phonetically induced palatalization consists of a progressive assimilation caused by a high palatal vowel or glide. But substituting palatals for their alveolar and dental counterparts can also result in semantic change. The palatal-containing forms express affection or diminution in contrast with the basic neutral forms.

Our starting point will be the comparison between two Basque speaking areas one of which applies a restricted version of the assimilatory palatalization rule. We will refer to this area, in which only sonorants are palatalized, as *A-area*. It corresponds to the prestige speech of the capital of the province. What we will call *B-area* consists of some villages situated at a short distance to the East and South of the city.

In the speech of *B* both sonorants and obstruents undergo assimilatory palatalization. But it more and more seems to be the case that the pattern of the prestige community *A* is spreading. Therefore, palatal sounds that are primarily the result of a morphophonemic process acquire a stylistic status within the values that morphosemantic palatalization establishes. The assimilation rule is still working fully at home and among friends, while only its restricted version applies informal speech. The result is that some sounds palatalize only at home. This fits the distribution of the morphosemantic palatalization: palatals always imply diminution, affection, or scorn.

This paper deals with a pragmatic aspect of Basque palatalization. It is a rather specific discussion, but (as I will try to show) deeply related to the very nature of the palatalization system in Basque phonology².

For those of you who are not familiar with the Basque language or at least with this part of its phonology, I will briefly summarize the main characteristics of palatalization in that language. As a matter of fact, we should be talking of palatalizations or of palatalization phenomena (using the Greek plural marker, as Claudia Corum did in her paper about Basque palatalization: Corum, 1972)³. There is indeed a distinction to be made

2. Being related to pronunciation, palatalization is still an open question in the process of standardization of the language. Norms given up to now are all relevant to the written language.

3. Claudia CORUM. 1972. «Palatalization phenomena in Basque». *ASJU*, VI, 29-34.

between a morphophonemic palatalization, and a morphosemantic palatalization. The morphophonemic palatalization is a clear case of consonantal sound symbolism.

Both these processes apply to dental and alveolar segments (cf. inventory in number 1 of the hand-out). Among the sonorants, *n* and *l* can undergo the change (apart from the vowels, there are only two more sonorants in the language: the trill *t'* and the flap *r*). Among the obstruents, the dental stops *t* and *d*, the apicoalveolar fricative *s̪* and affricate *t̪s̪*, and the lamino-alveolar (dorsoalveolar on the hand-out) fricative *s* and affricate *ts*.

The assimilation rule can be induced by a preceding *i* sound (it is a progressive assimilation), both as a syllabic element or as the non-syllabic element of a decreasing diphthong. Examples of this can be seen in number 2 of the hand-out⁴.

As I said before, semantic palatalization is a clear case of sound symbolism. It consists of substituting palatal or alveopalatal segments for their «plain» alveolar or dental counterparts in order to convey an idea of affection, diminution, scorn, etc. It is commonly said that this type of palatalization turns the words into diminutives, where «diminutive» is obviously a cover term. And this is usual whenever sound symbolism is at issue. The examples in number 3 (see hand-out) should make the point clearer. Forms on the left hand side are the shifted version of the «plain» neutral ones, which are listed on the right.

This is an over-simplified view of the whole process, but it should be enough for a general background. Nevertheless, there is something which should be mentioned before we go into the next point. There is a great deal of variation in the palatalization system from one dialect to the other. The two processes that we have been talking about change very much depending on the linguistic variety under discussion. Differences can be found in productivity, linguistic

4. It is difficult to obtain parallel unambiguous examples of alternation in the assimilatory type of palatalization where sibilants are involved within a single dialect. Context limitation work in a different way for sibilants. For that reason, only forms which can be compared with the basic Spanish source are shown. It must be taken into account that the only sibilant sound in the phonemic inventory of Spanish (Castilian Spanish is the Spanish that Basque bilinguals speak) is the apicoalveolar fricative.

Palatalization of the voiced dental stop is of a more complex type. Its explanation is beyond the scope of this paper.

and extralinguistic conditioning, phonological environment, the set of sounds which undergo the change, etc.

But we are going to focus on the Basque spoken in a small part of the province of Gipuzkoa. I must say that the subject of this short paper was brought to my attention by Prof. Michelena. He comes from a village not far from my hometown, Donostia-San Sebastián, the capital of the province. The phenomenon he observed in his own dialect can also be found in some other nearby villages. Informants from three villages provided the data on which this paper is based¹. We will use the term *B-area* to group all these villages and differentiate them from the capital, which will be considered to be the *A-area*.

Palatalization is very much the same in these two areas, but there is an important difference that we will examine here. Basically, we can say that the two kinds of palatalization are productive in the province of Gipuzkoa, where these two areas belong geographically and linguistically⁵.

In the *A-area*, the assimilatory palatalization applies most productively to the sonorants (*n* and *l*). In the *B-area*, on the other hand, also the voiceless dental stop *t* undergoes regular palatalizing assimilation: this segment is changed into a voiceless palatal stop when it follows a high palatal vowel or glide. The rule is optional when the segment is right before a pause. Otherwise, and abstraction made of a few conditions which are not important now, the rule is obligatory.

However, and this is crucial, the rule only holds within the *B-area*. Things are not the same when a speaker of the *B-area* is in formal situation: it would be enough some years ago to be shopping in the city (50 years ago?); a public lecture, an interview in the radio, or (in our case) when informants are required to translate words one by one⁶, function nowadays as «formal».

5. Semantic palatalization is becoming obsolete for some classes (mainly sonorants), though. When it happens, it most often is due to borrowing or to palatalization of old basic forms already disappeared (so that the palatal does not add any meaning or connotation; it is a vestigial state). On the other hand, assimilatory palatalization of sibilants is more limited than that of sonorants. It does not exist for *d* and we will be discussing the conditions on the palatalization of the *t*.

6. The «familiar» situation was almost easier to obtain. As I had relatives in the village, they soon accepted me as one of them, and I could record normal everyday conversations in their kitchen.

situations. They will say *aita* with no palatalization, as they do in the *A-area* (see number 4 for more examples). So, here the non-palatalization of the *A-area* (prestige dialect) is an element that the speakers of the *B-area* are introducing in their formal register. This kind of phenomenon is a well known fact of standard and non-standard dialect contact.

On the other hand, forms with a non-palatalized *t* segment following an *i* sound within a word would be considered too elegant among *B*-speakers in their area⁷. They are undoubtedly identifying themselves as part of their group when they do palatalize. It has become voluntary and conscious. It is not automatic anymore.

We can deduce that the speakers of the *B-area* tend to make their pronunciation more similar to that of the speakers of the *A-area*. In fact, as it was said before, the Basque spoken in the *A-area*, constitutes the prestige dialect (not only, but especially in part of the province of Gipuzkoa). As far as palatalization is concerned, we saw that in the *A-area* only sonorants are palatalized regularly by the assimilation rule.

It is easy to see that the assimilatory type of palatalization of the *t* is acquiring a symbolic value for the speakers of the *B-area*. I can see two reasons for this. First, they know, because they are close enough, that the speakers of the city do not use it. The speakers of the city are, of course, considered to be more elegant and speakers of a better variety of Basque. Second, there is the pattern that the semantic palatalization establishes: both dental and palatal voiceless stops (two different *t*'s for the speaker) can appear in the same phonological environment, but the palatal has the connotation of familiarity. It is the palatal that is used at home, with children, to make fun of somebody, etc.

I would add that this confirms Johanna Nichols (1971)' prediction⁸ when she says that «If a symbolic alternation is

7. Whether they palatalize it or not at the end of a word, depends on the speed they are speaking at.

8. From now on the situation might change: there are now more people who can read and write in Basque; the city is not anymore the (only) prestige dialect holder, the new standard dialect is beginning to share the kingdom; the new TV and radio start spreading their pattern. The tendency seems to be to palatalize all over, though a distinction should be made between the professional speakers and people who take part in programs through interviews or otherwise. The latter usually reflect the pronunciation patterns of their own area.

duplicated by an ordinary morphophonemic change, either the symbolism will lose its meaning or the phonetically conditioned alternation will be perceived as meaningful». What is going on with the palatalization of the voiceless dental stop in the *B-area* communities is an example of the latter possibility mentioned by J. Nichols⁹.

The rule is productive (number 4) but it only belongs to the informal register of the *B-area* speakers. As a result of this, the palatal voiceles stops resulting from either type of palatalization share features like familiarity, informality, «homeliness».

9. Johanna NICHOLS. 1971. «Diminutive consonant symbolism in Western North America». *Language* 47.4, 826-848.

HAND-OUT I.

1.	<i>dental</i>	<i>dorsoalveolar</i>	<i>apicoalveolar</i>
	t d	n l	
	s ts	š tš	

2.	<i>awtomobil'a</i>	<i>automobila</i>	'automobile' (from Spanish <i>automóvil</i>)
	<i>sajl'en</i>	<i>zebilen</i>	'(s)he was walking'
	<i>sajltsen</i>	<i>zebiltzan</i>	'they were walking'
	<i>in'un</i>	<i>inon</i>	'nowhere'
	<i>nun</i>	<i>non</i>	'where'
	<i>sejn'ena</i>	<i>zeinenā</i>	'of/from whom'
	<i>sejntsan</i>	<i>zein zen</i>	'who was it'
	<i>pisu</i>	<i>pisu</i>	'flat» (from Spanish <i>piso</i>)
	<i>pajšano</i>	<i>paisano</i>	'in plain clothes' (from Sp. <i>paisano</i>)
	<i>ewkit'u</i>	<i>edukitu</i>	'to have'
	<i>aleqratu</i>	<i>alegratu</i>	'to rejoice'
	<i>ejt'en</i>	<i>egiten</i>	'doing'
	<i>eoten</i>	<i>egoten</i>	'staying'

— The underlined forms are written following the orthographic conventions of the standard dialect.

HAND-OUT II.

3. a. l'o	<i>llo</i>	lo	<i>lo</i>
b. on'a	<i>oña</i>	ona	<i>ona</i>
c. neška	<i>nexka</i>	neška	<i>neska</i>
d. šešen	<i>xexen</i>	sesen	<i>zezen</i>
e. atšo	<i>atxo</i>	atšo	<i>atso</i>
f. t'ont'a	<i>ttonpta</i>	tonta	<i>tonta</i>

4. a(j)t'a	<i>aita</i>	'father'
a(j)t'u	<i>aditu</i>	'to hear'
ejt'eko	<i>egiteko</i>	'for doing'
mujt'u	<i>mogitu</i>	'to move'
o(j)t'uak	<i>ohituak</i>	'accustomed, used to (plural)'
noaba(j)t'ea	<i>norabaitera</i>	'to somewhere'
šejt'un	<i>segituan</i>	'soon, immediately'
polit'a	<i>politaa</i>	'nice, pretty'
asit'u	<i>hazitu</i>	'to grow'
ewkit'u	<i>edukitu</i>	'to have'
segit'un	<i>segituan</i>	'soon, immediately'
gajskit'u	<i>gaizkitu</i>	'to get worse'
er'esibit'u	<i>erreuibitu</i>	'to receive'
dit'u	<i>ditu</i>	'(s)he has them'
sekit'ek	<i>zekitek</i>	'they know it (familiar masc. conj)'
gorit'i	<i>Gorriti</i>	'Gorriti (family name)'
kit'o	<i>kito</i>	coll. expression, 'finished' (not registered in the formal setting)

— The forms on the right are written following the orthographic conventions of the standard dialect.

EGIAREN KANTAZ: I. TESTUA ETA IRUZKINAK

BLANKA URGELL

1. *Sarrera* *

Gorde zaigun bertso paper honen ale bakarra Markinako karmeldarren komentuan zetzan¹ larruzko esku liburu batean azal-ondokotzat ezarririk², Joseba Zubikarai bertako liburuzainak aurkitu arte. Berak dioskunez:

* Lan honen zaitasunak gainditzen lagundu didaten, lau pertsonei eskerrik beroenak eman behar dizkiet: Koldo Mitxelenari, bere ohar ezin interesgarriagoen gatik; Joseba Andoni Lakarrari, nirekin behin eta berriro testuaren pundurik istilutsuenak eztabaideatu bait ditu: ikusiko denez, eztabaidea hauetatik atera dira lerro ilun askoren interpretapenak; eta, beraziki, Mikel Mariezkurrena Eusko Legebiltzarreko liburuzainari: berari esker hor gordetzen diren bitxiak eta, are gehiago, testu orijinalaren fotokopiak aurkitu eta erabili ahal izan ditut; eta egunean egunean hilabete luze batean Egiari buruz nire beste edo gehiago kezkatu da. Hiruron laguntzarik gabe nekez burutuko zen lan hau, inprentan jadanik zegoelarik, Jesús Antonio Cid adiskidearen biziki eskertzen dizkiodian hainbat ohar eta gehigarri iritsi zaizkit, nahiz eta zorigaitzez nagusienak baino sartzerik ez izan.

1. Esan bezala, lan honetarako Mikel Mariezkurrenak eskuratu zidan fotokopiaz baliatu naiz. Bere bilakuntza lanei esker jakin ahal izan dudanez, liburua ez zen jadanik Markinan baina Labayru Ikastegikoen eskuetan, horko zenbait prestatzen ari diren lan baten lagungarri. Beraiengana joan ondoren ez dut erabiltzerik izan: sistema bereizi eta garestien bitartez Euskalerritik kanpo liburua tratatuaz hamar bat lerro berri osatu edo aurkiturik, beraiek eman nahi bait dute testuaren edizio berri bat. Hori dela eta, soilik Mariezkurrenari Agustin Zubikaraik bidali —eta zinetan eskertzen dizkiogun— testuaren (aipatu tratamendu hori baino lehenagoko) fotokopiak erabili ditut. Fotokopia hauek edo holatsukoak bide ziren A. Arejitarak bere arrestiko argitalpenean erabiliak, haren edizioarekin gonbaratuez gero ez bait dut —huts edo errataren bat zuzendu badut ere— hor zatika baino ematen ez diren lehroak osatu ahal izan, nahiz eta han hemen (ik. oharrak) letraren bat edo beste gehiago irakurri (eta inoiz horien bitartez haboro asmatu edo asmatu uste).

2. Adolfo Arejitarak honela deskribatzen du orrialdeen banaketa: «mañual horren aurre-atzekaldeetan erantsitako sei orri dira: (...) Azalaren contra, barruko partetik, orri bat; eta beste orri bat, alde bikoa, bere ondoan, azalaren urrengo ipinita. Atzeko aldean beste orrenbeste» («Domingo Egi-koり gorazarre kantua» *Euskeraren Iker Atalak* 2 (1983), Labayru Ikastegia, Bilbo, 139.or.).

...liburu zar askoren estalia narruzkoa da, baiña ez zarrenen artean ain zuzen be. Asierakoak estali sendoz ornidua dator kiguz. XVII eta XVIII mendekoak geienbat bai, narruzko azalkiak dabez. Narruzko azalok barruz dotoreago edo erakusteko, beste nombaiteko paperak erabiltzen ziran bear orretarako. Ni neu olako narru-estalietan ea zerbait jakingarri aurkitu leikan billa ibilten nabil. Eta egun baten benetan interesgarri izan zein-kezan paper batzukaz topo egin neban³.

Honelako aurkikuntza harrigarri eta kasik mirarizkoak ez dira ezezagunak edozein hizkuntzatako literaturan; baina are mese-degarriago dira, zalantzak gabe, historia laburreko eta lekukotasun urriko hizkuntzetan, non testu zahar bakar batek argibide kopuru altu bat eman bait dezake. Zorionez, badira horrela uste-kabeko lekuren batean gordeta bada ere, salbatu diren euskal testuak, eta beren artean honako hauek behintzat aipa daitezke: «Ene veguiacaz vioçeen artean»⁴ eta «Catigatu ninduçun...»⁵ amodiozko bertsoak, S. Franziskoren hirugarren ordeako erregelaren profesio formula⁶, *Juan de Amenduxen eresia*⁷, goi-nafarrerazko katetxima baten zatiak⁸ eta ia kontaezinak diren auzi-paperen artean, erdal literatur obretan eta histori lanetan aurkitutako testu labur eta are perpaus txikiak.

Egiaren kantaren berri lehendabizikoz Agustin Zubikaraik eman zuen 1982ko udako DEIA egunkariaren ale batean⁹ eta hu-rengos urtean aurkitzaileak berak argitara eman zuen *Zer* aldizka-

3. «XVII. mendeko bertso zarrak» *Zer* LXIV (Apirila, 1983), 6.or.

4. «...los versos aparecen manuscritos debajo de la palabra FINIS en el último folio de *Praxis ecclesiastica & secularis* 1609», K. Mitxelena, *Textos Arcaicos Vascos*, 122-123.or.

5. «...escrita a mano sobre la última página de un diccionario latino», I. Sarasola, «Contribución...», 87.or.

6. «Se halla manuscrita en un ejemplar de la obra *Monumenta Ordinis Minorum compilata per mandatum R. P. Fr. Francisci de Ledesma*, propiedad del monasterio de clarisas de Durango», K. Mitxelena, aip. lib., 142.or. eta hur.

7. «en un cuaderno que contiene apuntes y cuentas de su padre, conservado entre los papeles del proceso 14.852 del Archivo General de Navarra», K. Mitxelena, aip. lib., 107.or. eta hur.

8. «fragmentos impresos de un catecismo en romance y vascuence que se encontraban adheridos a la pasta de un volumen editado en 1614», I. Sarasola, aip. art., 117.or.

9. Ezin izan dut Arejitak emandako erreferentzi hau zehatzagotu.

rian¹⁰; geroxeago Adolfo Arejitak berriz argitaratu zuen, hizkuntzazko oharrauk erantsiaz¹¹.

2. *Testua*

Argitaratzaileek ohartu legez, testua ez da osorik guregana iritsi: tamalez, gure poema hau nolabait salbatu duen esku liburuari egokitzean testua dakarten orriak —dudarik gabe tamaina handiagokoak izanik— moztu izan dira, eta horrela zituen 211 lerroetatik 9 oso osorik eta beste 24ren erdia baino gehiago galdu bide ditugu¹². Markatzeko da inprimatuaren ale bat baino gehiago —argitaratzaileek ez dute zehaztu zenbat— ageri dela; guztiak, ordea, ebakirik:

...orri orijinala bakar horretako testu inprimatu osoa zein dan ikusteko, orri ebagi guztiak erabili behar izan ditugu. Baina, halandabe, ezin osotu izan dogu kantu osoa. Bada testu-ataltxo bat, orri ebagiotako baten ere agiri ez dana¹³.

Bestalde, poema hau ez da bakarrik agertu, lehendabiziko orrian beste bi —gazteleraikoak biak— bait ditugu: Domingo Egiari leporatzen zaion hamalauduna¹⁴ (ABBA ABBA CDE CDE hamaika silabadunak, pundu kontsonantea) eta *Egiaren kantaren* egileak berak —«El Licenciado Juan Bautista Açola [edo Alçola]

10. «XVII. mendeko bertso zarrak», *Zer* LXIV (Apirla, 1983), 6-8.or. Grafia gaurkotua eta osorik ez dauden zatiak sartu gabe. Era berean, ez ditu erdal testuak argitara. Tamalez, argitalpena errataz josita dago.

11. «Domingo Egikori gorazarre kantua» *Euskeraren Iker Atalak* 2 (1983), 139-181.or.

12. Arejitaren kalkuluen arabera; nahiz eta lerro parekatuak izan, 181. lerroak ez du aurreko biak baino beste pundukiderik. Esan bezala, Labayru Ikastegikoek beste hamar bat lerro salbatzea lortu dute.

13. A. Arejita, aip. art. 140.or.

14. «Leporatzen» diot, zeren ez bait dirudi beharrezko berak egina dela benetan suposatzeak. Halarik ere, hamalauduna Egiarena balitz, ez litzateke izango bere «poeta» izaeraren erakusgarri bakarra: hara hor hesialdiaren ondoren bere emazteari egin omen zion gutuna: «Amiga: Como no sabes de guerra, sólo te diré que el ejército enemigo se dividió en cuatro partes: una huyó, otra matamos, otra prendimos y otra se ahogó. Quédate con Dios, que yo me voy a cenar a Fuenterrabía», Miguel Rodríguez Ferrer, *Los vascongados* (Madrid, 1873), apud Llobregat 154.or., oharrean.

y Muncharaz» durangarrak¹⁵, alegia —Hondarribiko heroiariz zuentzen dion laukoa; honen lehenengo lerroari, antza denez, pare bat silaba falta zaio, J. A. Cidek esaten didanez «redondilla en consonantes» baitzen, izan.

Hauen ondoren —eta halaber gaztelera— sarrera zabal bat egiten zaio *Egiaren kantari*; honetan ere galdu ditugu lerro bukaerak, nahiz eta gehienetan berreraiketa nahiko erraza izan.

Hauetaz gain, beste hamalaudun bat ere badator azkenengo orrialdean; honen berri bakarrik Zubikaraien bitartez jakin ahal izan dugu: berak ez dakar bere edizioan (gaztelerazkorik ez bait du sartu eta, bestalde, irakurri ere ez bait zen irakurtzen); Arejitzak ez du aipatzen. Azken hamaladun hau «Licenciado Julián de Gortazar y Billelaren» izanean omen dator¹⁶ eta Labayrutarrek (ik. 1.oh.) lortu omen dute orain irakurtzea.

3. Noizkoa

Konposaketa datarik izan ez arren¹⁷, ez dirudi poemaren sarreran agertu eta 196-198. lerroetan errepikatzen den gertaerenetik —hots, 1638ko irailaren zazpitik— oso urrun legokenik. Honen alde dator aipatu lerroen hurrengoan *aurten agertzea*¹⁸: *Mila eta seireun da ogueta amaçorci / garrenean çan da, viciac vici, / Vrrien çazpigarren egun gustia / Hespañençat aurten çan cidia...*

Garaikidetasun hau ez da, inolaz ere, harritzeko Hondarribiko hesialdiak jaso zuen ospea kontutan hartuez gero; hain zuen ere, 1638. urtean bertan gutxienez zortzi izan ziren jazoera honen berri eman zuten gaztelerazkoko pleguak¹⁹ eta beste horrenbeste edo

15. Alzolari buruzko xehetasun gehiagorako ik. Arejita, aip. art., 141-143.or. eta berton *Egiaren kantaren hitzaurreari* egin oharrak.

16. Cf. Zubikarai, aip. art., 7.or.

17. Behintzat nik dakidalarik: ez digute esan agerriki moldiztegiko oinik edo holakorik dakarren.

18. Arejitzak jadanik markatu bezala: ik. aip. art., 143.or.

19. Cf. García de Enterría, *Sociedad y poesía de cordel en el Barroco* (Taurus, Madrid 1973), 291.or.

gehiago hitz-lauzko erlazioak²⁰; 1639an jadanik liburu oso bat —Palafox y Mendozaren *Sitio y socorro de Fvente-rabia y sucesos del año de mil y seiscientos y treinta y ocho*— argitaratzen da, eta handik aurrera honi buruzko histori liburuak edota aipamenak nahi adina aurki daitezke²¹.

Baliteke, dena den, gertaeretara nolabaiteko hurbiltze poetikoa izatea; honela balitz ere, 1650. urtea baino lehenagokoa izan behar du, zeren eta²² bakarrik urte horretara arte bait dugu egilea —poemaren sarreran aipatzen den bezala— Arteako benefiziadu. Beraz, beste xehetasunik agertzen ez den bitartean²³, 1638-1650 tartean —eta 1638tik hurbilago, ez bada, nik uste dudan bezala, 1638an bertan edo gehien iota hurrengo urtearen hasieran— koka-tu behar dugu poemaren sorrrera.

4. *Garrantzia*

Ordura arteko Bizkaiko —eta are hegoaldeko— testuen urria ezaguturik, hizkuntzaren aldetik begibistakoa da *Egiaren kantaren garrantzia*: bere tamainan ez du kiderik XVI. mendeko *Refranes y Sentencias* (1596), Garibairen errefrau bildumak eta Betolazaren dotrina (1596) baizik, eta soilik geroxeago agertuko dira Mikoletaren *Modo breve para aprender la lengua vizcayna* (1653) eta Kapanagaren dotrina (1656). Hemendik datorkio²⁴ bizkaiera zaharra-ren hainbat eta hainbat ezaugarri aurkeztea: subjuntibozko aditz

20. Ik. zehaztasun gehiagotarako 6.1. Hor esaten denez, erlazio gehie-nak garaipenari buruzkoak izanik ere, bada bat bederen (*Socorros que han acudido y entrado en la Villa...*) hesialdiaren denboran egin eta kaleratuko zena.

21. Ik. 6 eta 8. §§. Hondarribiko hesialdiaren aipuak lekurik esperoezi-nezkoenetan ager daitezle Ik., adibidez, Alzieu *et alii*, *Poesía erótica del Siglo de Oro* (Crítica, Barcelona 1984), 250-251.or. eta oharra.

22. Arejitarak esan bezala: aip. art., 143.or.

23. Hau da, inprintaren berirrik, behintzat. Honek xehetasun tekniko-en bidez posible izan ohi da datatze hurbilak lortzea. Dena den, beste zenbait arlo interesgarri bezala, nahiko jorratu gabea dugu hau ere.

24. Jakina, lekukotasunaren kalitatea ez doa derrigorrez orrien kopuruaren arabera; gogora Alzolaren testuko hitz kopuru beretsua duen Betolazaren kasua, esaterako: ordezkatzen duen azpieuskalkiak ez zuen Alzola edo Kapanagarenak beste arkaismu gordetzen (Betolaza eta Kapanagaren hizkeren gonbaraketarako ik. K. Mitxelena, «La Doctrina cristiana de Betolaza» *BAP* XI (1955), 89-90.or.).

formak aoristozko esanahiarekin oso ugariak dira (*eldu equiçun* 55, *sartu citeanean* 115, *sar cidin* 120, *ecussi eguianean* 121, *yçan citean* 124, *cematu cenguiçanean* 176, *yfini eguiçan* 180 etab.), ablatibo zaharra (*cofrerean* 161) eta pleonasmodun formaren lehendabiziko agerraldia²⁵ (*cumareanic* 17), -zu anitezko adieran oraindik (*parcatu leïçula gustioi viciçac* 178, *Assoac, albiste neur indaçu / cegaiti deusudan...* 203-204, *Gasteac, eguiçu dança...* 206; ik. halaber 53-60. l. eta dagokien oharrean esana) eta dokeren azken agerraldia (*nola corretaric vrten doquean* 148)²⁶. Ez gara hemen, ordea, honetaz arituko: irazkinen bat peitu duen arren, Arejitarren lana aski bait da oraingoz *Egiaren kantaren* hizkuntzazko hurbilketatzat.

Azkenik, bereiziki aipatzeko da gaiak berak hein handi batean ematen dion hiztegi aberastasuna: sarri mailebuak badira ere²⁷, lehendabiziko agerraldien artean ditugu armamenduzko hitzak (*arcabuz*²⁸ 106, *mosquete*²⁹ 111, *munizio* 106, *pistola* 106, *tiro* «cañón» 103), jantzi izenak (*capusay granazcoac* 109), gizarte graduak (*handissuen* 62, *gomendadore* 135, *infanzonadu* 11, *castillau* 38, 131, *perladu*³⁰ 89, *çaldun*³¹ 138, *cola* 83), guda arazoak (*escubetu* 2, *cematu*³² 176, *guiçaleguean* 14, 187, *yorra* «traicionar, romper» 74, *placea* «lugar fortificado» 22, *chil* 79, *victor* 83) eta beste

25. Ik. honi buruz J. A. Lakarra, «Bizkaiera zaharreko ablatiboaz», *ASJU XVIII* (1984)-1.

26. Cf. Azkue, *Morfología Vasca II*, 528.or.

27. Esaerak barne: cf. *jupoac aforraduric* 78, *chacurren oguia* 53 eta *chacurren amessagaz* 57 (ik. dagokien oharrok).

28. 1600eko hiztegian (cf. «Contribución...» 161.or.) «arcabus, alcabuça; *Bertso biztaitarretan*: «disparaetan daquinan da / arcabuz ta mosquete» 11 (ik. 36. oharrean aipatutako lana).

29. Aip. 1600eko hiztegian «mosq(ue)te, musquetea» (ibid.). *Bertso biztaitarretan*, aurreko oharrean aipatutakoaz gain, «ain laster mosquetera» 30.l.

30. Jadanik *preladu* Kapanagaren 125; *perladu* Beriainen *Tratado de como se ha de oyr missan* (1621), 75v. Bigarren honetan I. Sarasolak (*Materiales para un Thesaurus de la Lengua Vasca*, s.v.) dudazko marka bat dakar: *Egiaren kantaren* lekukotasun berri honekin ez dirudi beharrezko; are gutxiago gazteleraz ere arrunta zela kontutan hartzen baldin badugu; cf. *Dicc.Aut. s.v. Perlado*: «Lo mismo que Prelado, que es como ahora se dice» edo s.v. *Prelado*: «En lo antiguo se decía Perládo».

31. Martin Ibañez de Labieroren hilarriko idatzian *çalduna* (ik. *TAV* 74.or.).

32. Soilik *cemaia* aurkitu dugu: Kapanaga 49.

(*bagera* 107, *ducat*³³, *farfullete* 49, *foruac «lege»*³⁴ 171, 64, *onça* 29), zenbait bitxi baliotsu (*susperroa* 55 eta *ilibianda* 28 hapax ulergaitzak, *cheldor* 49, *coronica garri* 52, *dulabre* 102, *albiste* 203 eta *sugateraco* 205) ere aurki daitezkeelarik.

5. Lanaren xedea

Beraz, erabat premiazkoa genuen, ene eritzian, *Egiaren kantaren hiztegia* landu, argitu —ahal den neurrian— eta ezagutzen ematea. Azken urteotan, gainera, ahalegin handi eta bikainak egin dira hegoaldeko euskal testu zaharren lexikoia osatzeko: hor ditugu Ibon Sarasolaren *Materiales para un Thesaurus de la Lengua Vasca* —Bartzelonan aurkeztutako tesi argitaragabea (1980)— eta Joseba Andoni Lakarraren *Euskal Thesauruserako gaiak: Hegoaldeko testuak 1700-1745* —EHUKo tesina argitaragabea³⁵ (1984)—; gutxi dira bion lanetatik at geratu diren testuak, hauetarik gehienek beren hiztegia jada argitara emana dutelarik³⁶. Honexegatik, gelditzen diren apurrik —*Egiaren kanta kasurako*— besteen antzera ikerlarien eskuetan jarri beharrean gaude, noizbait *corpus osoa* bateratuko bada.

Hau izan da, hain zuzen, lan honen lehendabiziko xedea. Laster agertu zen, ordea, beste premia bat: alde batetik, hitz ilun xamar bat baino gehiago zegoen; bestetik, historiarengorabeherak ez baldin badira ezagutzen, testua berez ulergaitz gertatzen da usu; eta, azkenik, hutsuneak eta lerro motzak betetzen —edo gutxienez eduki galdua zein izan zitekeen asmatzen— saiatu beharra genuen. Hemendik etorri zen zenbait ohar prestatzeko asmoa bai arazo ho-

33. Mikoleta 3.or.

34. Malleatarren ezkutuan *Malleagas forua gaitic (apud TAV 170.or.)*; Mendietaren irudiaren idatzian (1609) jadanik oraingo zentzu zehatzagoa dauka: *bizcaitarrai confirmadu eguiñezan euren foruac (apud I. Sarasola, «Contribución...» 114-116.or.)*.

35. Edozein filologi lanetarako baliotsuak diren lexikoi hauek argitaratzeko prestakuntza lanak hasi omen dira.

36. Adibidez, J. R. Zubiaur eta J. A. Arzamendi, «El léxico vasco de los refranes de Garibay» *ASJU X* (1976), 47-131.or.; J. A. Lakarra, «Bertsobizkaitarrak (1688)» *ASJU XVIII* (1984)-2, 89-185.or. eta M. J. Soto Michelena, «El Lexicón de Refranes y Sentencias de 1596» *ASJU XII-XIII* (1978-1979) 15-86.or. Azken hau, halaz ere, arretaz erabili behar da zeren eta —ikusi ahal izan dudanez— behin baino gehiagotan hutsak baitu.

riei nolabait erantzuna emateko eta, azken finean, baita testua bera ulerterrazago egiteko ere.

Ikusiko denez, lana aurrera zihoa neurrian histori oharra —hiztegizkoei beren lekua kendu gabe, jakina— garrantzi berezi bat hartzen joan ziren, beren luzean baino ez bada ere: ez bedi ahaztu *Egiaren Kanta* —berri baladen gisara— ospeko gertaera baten ondoren egina dela; histori oharrok, testuari ulerbidea emateaz gain, bere historikotasuna ere neurtzen dute Hondarribiko hesimaldiaz aritu diren historialarien xehetasunekin gonbaratuaz.

Hasierako xedea honela aldaturik, testua ere ematea erabaki nuen, ez bakarrik berez hala merezi duelako³⁷, baizik eta are oharra ulertzeko beharrezkotzat ere jotzen bait dut. Bada, hauetaz gain, beste arrazoi bat ere bederen: hobekuntzaren bat proposatzen da bere irakurketan eta, batez ere, puntuazioa aldatzen zaio —testu kritikan ohi den gisara— esanahiaren alde³⁸.

Alabaina, Joseba Lakarraren bitartez arestian jakin ahal izan dut Arejitak ere *Egiaren kantaren* hiztegia argitaratzeko asmoa duela eta, jakingarriago dena, lehen argitaratu zuen testuari hamar bat lerro gehiago aurkitu eta erantsiko dizkiola. Buruturik neukan hiztegia jaiotzez osagabea izango zelakoan, berehala ez argitaratzea erabaki nuen, Arejitarena apur bat berandutzen bada ere, osatuagoa izango bait dugu segurueneik. Halaz guztiz, hiztegiko oharra zeuden zeudenean utzi izan dira: hiztegiaren osagarri baino testuarena bait dira, askotan honen zati baten esanahia mugatzeko histori argudioetatik ezinbereizizkoak gertatzen zaizkigu. Era berean, eta Arejitaren lerro berrien zai behin behinekoa bada ere, testua mantendu da³⁹.

37. Bestalde, argitaratu zuten aldizkariek ez dute oso zabalkunde handirik.

38. Oker ez baldin banago, orijinaleko koma gehienek hemistikioen er-dialdeko etena markatzen dute. Testuari begirada bat ematea nahiko da ikusteko metrikak azterketa sakon bat merezi duela. Beheraxeago aipatzen dudan ene artikulukizun hartan honi atal berezi bat eskeini nahiko nioke.

39. Arriskutsuago dirudi, nolanahi ere, berton egiten diren proposamenak kalerautza; haatik, susmo hutsetan baino historialarien esanetan *oinarriturik* daudenez gero eta, bestalde, lerro berriak zein zatitakoak diren oraindik ez dakigunez, mantentzea erabaki dut. Har bedi, gonbaraketa zilegi bazait, K. Mitxelenaren «Ad experendum» (ASJU XVIII-1, 219-239.or.) saio ikusgarriaren antzerakotzat: berak erdietsiko emaitzak (ik. J. A. Lakarra «Bertso bizkaitarrak (1688)» 99.or.) lortu nahiko lituzke oraingo honek, behintzat.

Azkenez, hiztegia eta historikotasuna —eta oro har Arejitarak bere lanean azterturiko hizkuntz arazoak—, ostera, ez dira, zalantzak gabe, *Egiaren kantaren* interes bakarrak: literaturaren aldetik ere badu balio estimaezina. Hasteko, *Egiaren kanta* da hegoaldean ezagutzen dugun lehendabiziko poema luzea⁴⁰: mende erdi itxadon behar da antzerako zerbait —*Bertso bizkaitarrak* (1688)— aurkitzeko eta hurrengo mendeko hasiera arte⁴¹ ez da *Acto para la Nochebuena* idazten.

Baina are gehiago oraindik: hitzaurre honen sarreran aipatu ditugun aurkikuntza «mirarizko» horiek testu zaharren kopurua handitzeaz gain, zenbait kasutan itxadoten ez ziren ondorioetara eraman gaituzte. Horrela, amodiozko bertso haiet —Mikoletarenekin batera— Bizkaian nolabaiteko tradizio zabal bat adierazten dute⁴², hala nola hor hemen agertutako balada zatiek tradizio epiko baten aztarnak ekarri dizkiguten. Neurri berean, *Egiaren kanta* jadanik geroko bertso-berriekin zein garaiko erdal pleguekin⁴³ lotu izan da. Hau ez da inola ere mezprezatzeko arazoa, jakina; aski izan bedi orain arte eraikitako euskal bertso-paperaren historia-rekiko suposatzen dituen (puntuzko eta erabateko) aldaketak gororatzea. Oraingoz esan dezadan soilikene ustez *EK* ezagutzen du gun lehenengo euskal bertso-papera dela eta gorago aipatutakoentz antzera hau ere aberatsago bide zen tradizio baten lekuko bakarretarik dugula. Hori dela eta, nahiko aurreraturik daukadan lan bat eskeini nahiko nioke ahalik eta lasterren; oraingo honen luzea kontutan harturik eta tratamendu zabal bezain sakon bat merezi duelakoan, hurrengo batean eman gogo dut.

Azkenik, ilunpetan dagoen euskal metrikarako ere oso lagun-garri izan daitekela deritzot testu hau, beste inon nekez aurkitzen ditugun zenbait baliabide erabiltzen bait ditu: hitz-ordena aldaketak, pundiaren eta neurriaren araberako forma morfologikoak, mugatzailearen ezabaketa⁴⁴, zangalatrauak etab. Zalantzak gabe,

40. Lehenago soilik zenbait balada zati eta poesia batzu (beren artean *Bretaña kantorea*) agertu bait dira: cf. TAV eta «Contribución...» *passim*.

41. Ik. J. A. Lakarraren *Euskal Thesauruserako gaiak...* tesinako hitzau-rean Barrutiaren obraren dataz egiten den saio interesgarria (xxi-xxiv.or.).

42. Cf. Sarasola, aip. art. 87-88.or.

43. Lehendabizikorako ik. Zubikarai, aip. art. 6.or. eta bigarrenerako Arejita, aip. art. 140.or.

44. Ik. J. A. Lakarra, «Bertso bizkaitarrak (1688)» 153.or.

azken urteotan ezagutu ahal izan ditugun hitz-neurtuzko testuak⁴⁵ (*EK* barne delarik, jakina) aski eta sobera dira orain arte izan zitekeen aitzakia eta arrazoia albo batera utzirik gai honi hel diezaiogun gogotik, argiren bat erdietsiko badugu noizbait, uste eta eritzia ez bait dira oinarri⁴⁶.

6. *Testua*

SONETO

Solicito, contento y cuidadoso
 esconde el Labrador con franca mano
 en las entrañas de la tierra el grano
 sin temor del Invierno riguroso.

Ya salga el año esteril, ya abundoso,
 à Dios ofrece, liberal y hufano,
 de los fructos que coge en el Verano
 los diezmos y primicias, que es forçoso.

Vos, Alçola, sembrastes en el Cielo,
 que es tierra que semilla no desecha
 y dà ciento por vno de contado;

45. *Bertso bizkaitarrak*, amodiozko bertsoak, *Misererea* (L. Akesolo, «Amaseigarren Mendeko euskerazko Miserere bat» *Olerdi* 1982), *Bretainako kantorea* (A. Otazu *FLV XIX* (1975) 43-70.or.), bertso iraingarriak (J. M. Satrústegui «Versos satíricos vascos del año 1619» *PV XXI* (1960) 137-144.or. eta «Lasarteko bertso paper zahar bat (1716)» *Iker* 2, Bilbao 1983, 571-581.or.), *Gamizen bertsoak* (I. Goikoetxea, *Juan Bautista Gámiz Ruiz de Oteo. Poeta bilingüe alavés del siglo XVIII*, Gasteiz 1983) etab.

46. Orain arteko euskal metrikari buruzko eritzien bilketa eta iruzkin kritiko baterako (eta baita Etxepare eta besterenaren azterketarako) ik. bei di Patxi Altunaren *Versificación de Dechepare* (Mensajero, Bilbao 1979), bibliografiarekin; bestelako ikuspuntu baterako, ik. bitez Jon Juaristiren «El Cantar de Beotibar: un romance noticiero vasco» (*III Coloquio International sobre el Romancero y otras formas poéticas tradicionales* (Madrid, 1982) aurkeztutako txostena (inprimatzeko)) eta aurki argitaratuko den bere euskal literaturaren historia.

Y, puesto que los fructos goza el suelo,
à Vizcaya, de do sale la cosecha,
pagays el diezmo de lo bien ganado.

FIN.

DOMINGO LOPEZ DE HEGVIA
al Auctor.

Alço la fama y dio
à quien es digno en el hecho,
y yo solo me aprouecho
en dar gracias por Domingo.

El Licenciado Iuan Bautista de Açola
y Muncharaz.

CANCIO[N VIZ]

CAYNA EN ME[T]RO Y [...]

HECHA EN ALABANZA D[E LOS HECHOS]

heroycos de D. Domingo de Heguia, natu[ral de la]
noble Villa de Vilbao, Cauallero de la Ord[en y Co]
mendador, Maesse de Campo General por [...]

del Castillo de Fuenterabia, y su Gouerna[dor y]
sucessor del de Pamplona, dirigida à Dom[ingo...]
señor de la casa de su apellido, y D. Francis[co...]

Generales deste muy noble y leal Señorio d[e Vizcaya, por el Licen-]
ciado Iuan Baptista de Alçola y Muncharaz, [Beneficiado de]
Castillo, Merindad de Arratia, natural de la [Villa de Tabira de]
Durango, Predicador en todo el Obispado d[e Calahorra y la Calza-]
da, por su Señoria Ilustrissima del señor D. [Gonzalo Chacon, Obis-]
po benemerito, su hijo y menor Capellan [...]
do el sucesso feliz que tuuo España en el [Sitio de]
Fuenterabia à 7. de Septiembre de 1638.

- 1 Phelipe Hespañaco, done andia:
 escubetu doçu mundu gustia.
 Alegradu vidi Christiau erria
 libradu dalaco ondar ybaya:
- 5 Oguei mila guiçon Francia errico
 egoçan aldi baten su emaiteco;
 araco Vizcaitar Domingo Heguico
 yçan da bacarric yrabazteco.
 Iaun doneperi Deustuko batçadua:
- 10 onrradu yçan doçu çeure lecua;
 Esse infançonaduco Seme jayoa,
 Vizcaico onetaric, animossoa:
 Mundu gustia dago asseguiñ onean
 egin doçulaco guiça leguean
- 15 Iaunari alabançac, processinoac;
 Vizcayac eguiñ dituz gorde pazcoac.
 Beste Moysen bat, cumareanic
 guiçonau egon da señaladuric,
 Iaunen escurean gobernaduric:
- 20 Aenbeste eguiñ dau Hespañagaitic!
 Cegaiti eugui daben humildadea
 merecidu ez eiteco ango placea.
 Obedenciagaz aceptaduric,
 lealtadeagaz ondo jagonic.
- 25 Traça andia[...
 executadu d[...
 Loric eguiñ [bagaric...
 ilibianda gu[...
 Sei onça viz[...
 30 edateco [...
 Cegai[ti...
 ondatu lurra[...
 Paciencia andia[...
 vrian ondo dau[...
 35 Iauna orain glo[ria...
 besteay bereda[...
 Yracassi Deust[e...
 Castillau yçaite[n...
 Onec eguiñ D[...

- 40 amurr[u...
 France[s...
 Vigarr[en...
 Julio C[esar...
 errepu[blica...
 45 Capitu[l...
 liburu b[at...
 France[s...
 atera b[...]
- 50 Cheldor bagaric miñac farfullateco,
 ez Domingo eguicori ichadeiteco.
 Domingo, pazcoen icen andia,
 coronica garri ceure egua;
 chacurren ogua emongo deussu
 Domingo Heguicoc, baçaguiz artu.
 55 Martiçen susperroa eldu equiçun
 Pheliperi eguiteco gustioc oñean mun;
 chacurren amessagaz paluac asco
 eroango doçuz Franciaraco.
 Gastelaco Almiranten misericordia
 60 bear içan doçu, neure egua,
 cegaiti dalaco Christiau andia,
 erregue andissuen ispillo argua.
 Bederaci garren Capituluan
 S. Matheoc diño, Iaunen foruan:
 65 «Eztot nic bilatuco sacrificioac
 esca badaquidaz misericordiac».
 Santuonen essanaz accordaduric,
 Christiau cireanac arnassa esturic;
 belaunez lurrean Francia gustia:
 70 «Almirante jauna, misericordia!»
 A leguez yçan baniz, Iai[n]coen Fedea,
 eracussico neusten gañibitea,
 cegaiti eztaquien Verba ossoric
 jagoten ynox bere Yçorra bagaric.
 75 On liçate baquea, legueric baliz,
 aussi ezpaleguie Verbea barriz;
 ostera eta laster, alcar arturic,
 jupoac bear dituez aforraduric,
 deraguiegun artean chil erasso,
 80 armaen indarragaz Christiau osso.

- Il celeguieçan Hespañacoac
 negarrez egoçan, nola esquecoac.
 «Victor Hespaña ta Cola Francia»
 gueadar minacaz, gente andia.
- 85 Confiança arregaz, viciarren gu,
 larretan diñoe «si non bule bu,
 sibule bu e non bule bu».
 Francesay bear jate ausi buru.
 Arçobispo Burdeosco, Perladu guejoa:
 90 estuan daroaçu ceure colcoa

- 100 erraz ciratean beste amarmilla.
 Berrogueta amarguino dira heriduac,
 dulabre euqueçalaco euren escuac;
 ogueta amalau tiro, bronce onezcoac,
 an echi cituen Franciacoac;
- 105 berrogueta sei bandera peleacoac,
 arcabuz da pistola municipioac,
 Arçobispoen oea, Príncipen bagera
 gureac ecardeçan lepoaz essera;
 capusay granazcoac, erropa asco
- 110 mutil picaroac janci eiteco;
 mosquete eta lança contubagaric,
 lareun da gueyago çaldiac ilic,
 eunda larogueimila ducat vrrezco
 Francesay paguea eguin eiteco.
- 115 Sartu citeanean ondar ybayan
 Franciaric ecardeçan eurac aldean
 Viciçac, osassunac, esperança andiac
 an galdu cituen Frances gustiac.
 Gastelaco Almirante Generosoaa
- 120 sar cidin orduan, animosoa;
 ecussi eguianean Domingo Heguico
 cassi lurrean echugui jaco,
 essaten eusala modu onean
 —verba onec aen artean yçan citean—:
- 125 «D. Domingo Heguico, valerosoa,
 beusso erreguegaiti laztan ossoa,
 Vigarrena Hespaña gustiagaiti,
 yrugarrena, barriz, neuc ceugaiti.
 Erreguen Magestaden vioz ossoagaz

- 130 Maesse de Campo çara bastoe onegaz;
 Castillau gobernadore ondar ybaico
 eguiten çaituz çeu secula betico;
 Pamplonaco Gastelu achinacoa
 çeure escuetan echuten doa;
- 135 Gomendadore çara, jaun done acubeco,
 curuce gorriagaz bular[r]etaraco:
 çu leguez Curuceau mereciduric
 Hespañan eztago çaldun biciric;
 Asco eta gueyago merecidu oçu,
- 140 dabelaco Hespañac asseguin artu.
 Ecin guichiago eguiin cenduquean
 parcatu Vizcayari lealtadean:
 Faltadu ecin ley verba erreálac,
 ez çugan bere yñox amessac onac.
- 145 Escribietan deusun carta gustian
 yfinten çaituz çeu çoor andian;
 ecussico doçu laster batean
 nola çorretaric vrten doquean.
 Erreguen Magestaden carten andia!
- 150 Çugan iminten dau vioz gustia.

- Conde Duquearen yçar arguia
 çu yçango çara, Domingo Heguia.
 Çuti dagoan artean ene burua,
 Almirantea leguez eussi escua,
- 155 yçango noçula, adisquide andi
 naxan artean muduan vici.
 Laguna, anagea, adisquidea
 yçango nachaçu, ene feda.
 Ecin guichiago essan neuquean.
- 160 Parcatu Vizcayari lealtadean.
 Betoz alcandorac ene cofrerean!
 Çachut bertati Domingo oean! »
 Cegaiti ecussen Almiranteac
 ycerdiz balcituric, vcaturic oeac,
- 165 onrra emaiterren Almirantea
 eguiten aguinetañau dañu çureçat oea.
 Bera çure mayan, çu aen aldean,
 ce ondo cirudian ac essatean:
 «Animadu vitez Vizcaycoac
- 170 yrudi eiteco achinacoac!

- Vizcayco legueac, andi foruac
 erreguen Magestadeac confirmaduac
 Achinaric dituz mereciduac,
 cegaiti ditueçan garbi escuac.
- 175 Principe de Condec trompeteagaz
 cematu cenguiçanean erioceagaz
 emon cenguiçoala Gasteluen Gilçac
 parcatu leïcula gustioi viciçac,
 ceu ez da besteoc lecu gustian
 180 yfini eguiçan bildur andian;
 baya çuc, Vizcaytarren legue onean:
 «Eguntño Vizcaicoac orrelangoric
 eztago eguin dabela esribiduric.
 Vizcaytarrac guilçac Francesay emon!
- 185 ez eta balira gustioc Sanson! »
 Onrreagaz jayo, ónre[a]gaz il,
 guiçona guiçaleguen, ez beti mutil.
 Lurrean Victoria, ceruan gloria
 yrabaci doçu, Domingo Heguia;
- 190 baçaquioz virtuteari beti jarraitu
 santuçat Iaungoicoa ecussi daiçu.
 Virginearen bespera, egun gustia,
 secula gorde eiqueçu, ondar ybaya;
 Domingo Vizcaycoari çorra deussaçú:
- 195 ezpa ya cinean gustioc Gabaçhu!
 Mila eta seireun da ogueta amaçorci
 garrenean ycanda, viciac vici,
 Vrrien çazpigarren, egun gustia
 Hespañençat aurten yçan cidia
- 200 ain egun alegrea acordetaco,
 papera gueyago balcietaco.
 Daguigun gustioc asseguin artu!
 Assoac, albiste neuri yndaçú,
 cegaiti deusudan negu gustico
- 205 cer essan yfini sugateraco.
 Gasteac, eguiçu dança eta saltu:
 Paris bear dogu vrtera artu.
 Eztauqueçanac pocic gogoac
 içan daguieçala pascoa guestoac.
- 210 Alan dauqueçala Olandacoac,
 cegaiti direan chacur ossoac.

7. *Lanaren iturriez*

Iturriez mintzatuko dela esaten denean, berehala ikertutako testuaren iturriez arituko dela ulertu ohi da gehienetan; ez da hori, ordea, gure oraingo zeregina.

Egia esan, ezin dugu behin betikoz baiezttatu *Egiaren kantak* ez duela iturririk izan: oharretan nabarmentzen saiatu garen bezala, ikaragarria da Alzolak aurkezten duen gertatutakoen eza-guera^{46 bis}. Halaz ere, ez dugu —oraingoz behintzat— bere iturri zuzena izan daitekeen testurik aurkitu⁴⁷, batez ere 1638. urte har- tan atera zen gaztelerazko plegu piloa eta bilduko zituzten agiriak eta bestelako paper ofizialen multzo ederra —gure datatzea ona bada EKren iturri izan daitezkeen bakarrak— ikusteko aukerarik ez bait dut gehienetan izan.

Hemen, beraz, erabili ditugun lanabesen deskribaketa labur bat ematea da gure xedea, alde batetik; bestetik, saiatuko gara ikusi gabe gelditu zaizkigun plegu etabarren kontu ematen⁴⁸, zeren eta erreferentziak orain arte nahiko sakabanaturik egonik, ze- rrenda ahalik eta osoen bat nahiko lagungarri gerta bait daiteke honetaz noizbait ikerketaren bat egin nahiko duenarentzat⁴⁹.

Lehendabiziko xedeari dagokionez, bibliografia huts batek eman ohi ez dituen xehetasun eta argibide batzuez hornituta, gero oharretan hainbeste bider —eta hain luze— aipaturik⁵⁰ ikusiko diren liburuak apur bat ezagutzera eman nahiko nituzke, gehienak —honetaz aritu ez direnen artean bederen— aski ezezagunak bide direnez gero.

Ez ditut hemen aipatuko —salbuespenak salbuespen— atera diren artikuluak: askok ez du zerikusi zuzenik *Egiaren kantan* kontatzen denarekin eta, nolanahi ere, arrunt eskuraerrazak dira

46 bis. Ikusiko denez, aldiz, xehetasun askotan EK ez doa zuzenean historialariekin; dena den, historialariak ere ez dato bat sarri.

47. Alabaina, ik. 181-185. Ierroen oharra.

48. Ez da hau, halaz ere, lehendabiziko saioa: ik. Ducere, «Essai de bibliographie du siège de Fontarabie».

49. Pleguak izenaren arabera (gutunak, erlazioak, erromantzeak eta beste) sailkatu ditugu: nabari denez, pleguak ezagutu arte behin behinekoa baino ez da gure sailkapen hau.

50. Eta aurkezpen honetaz baliaturik, oharretan gehien bat egilearen izenarekin adieraziko da liburua, beste xehetasunik gabe.

bila abiatzen denarentzat. Hauen erreferentziak, besterik gabe, bibliografian emango dira, ohi bezala.

Baldintza horren arabera, atal honetan XVII. mendean irten-dakoez arituko gara bereziki, Hondarribikoaz sutsuki jardun zuen XIXko O'Reilly eta beste historiariren bat ere aipatu arren⁵¹.

Esan gabe doa oso komenigarri izan daitekela jakitea zein liburu moetaz baliatzen garen EKko lerro zein hitzen baten argi-garri, zertarako egina den, ze sustrai, aurreritzi eta asmorekin: hauek bultzaturik tajutu ohi bait ditu bakoitzak bere iruzkinak eta xehetasunak.

Bestalde, erabili ditugun testuok ordezkatzen duten histori moeta —hau da, ospeko jazoerak kontatzen zituena («tradicionala» edo)— ahaztuxea dugun arren, ahaztuegia nonbait, komeniko litzateke gogoratzea, agian, ipui eta istorio bilduma gisa izan arren bere hasieran, iritsi zela inoiz (Moret, kasurako) delako gertaera horien arrazoi eta etorkiak ematera ere; gonbaraketa zilegi bazait, azterketa estatistiko (norbaitek «patata kiloen zenbaketa» deitu omen duena) eta azalpen mekanizistik adina interes bederen badute hauetariko askok. Areago, nabari daiteke halako bihurtze bat honelako azterketek zuten hoberenera Duby, Le Goff eta besteren lanetan.

Baina ez gaitezen desbidera: ni ez naiz historialaria eta, azken finean, ez dut inondik ere Hondarribiko hesialdiaren azterketa historiko bat egin nahi izan. Aitzitik, historia filologiaren lagungarri izan ohi denez, eskuratu ahal izan ditudan histori xehetasun guztia bildu ditut testuaren esanahia mugatzeko eta, nolabait, baita bere historikotasuna neurteko ere. Jakina,ene lana askozaz erosagoa izan zitekeen historialariek gure historiaren zati horri buruzko datuak sistimaturik eukiko balitzte baina aspalditik ez da gehiegi aurreratu alde honetatik, gure egitekoei dagokien neurrian behintzat: dakidalarik, azken historietan aurrekoren batek esandakoaren laburpentxo bat baino ez da ematen, usu aintzinako idazle haien erabili omen zituzten dokumentuak etab. berrikusi ere gabe.

Gogotan izan bitez, beraz, aitzin ohar hauek atal honen helburuak zuzen ulertzeko.

51. Ez dut Iztuetaren *Gipuzkoako Kondaira* hemen aipatuko: bere iturri zuzena —aitortu ere legez— Palafox da. Zati askotan, bederen, honen liburuaren itzulpena dirudi. Honela den edo ez azterketa berezi bat merezi du, zalantzak gabe.

7.1. *Pleguak*

Gorago esan bezala, Hondarribiko hesialdiaren ospea plegu aldra batean isladatu zen: eguneroko zein gertakari berezi bat buruzko erlazioak, erromantzeak, gutunak, ospaketa eta sarien kontu ematen dutenak... plegu-gai aberats eta emankor bilakatu zen 1638ko frantsesen kontrako garaipen aditu hura. María Cruz García de Enterriari jarraituaz⁵², esan dezakegu plegu loratze honek —aldi hartako beste guduei buruzkoek legez, baina kasu honetan are gehiago— bi alderdi, gutxienez, erakusten dizkigula: alde batetik, pleguak garai hartzan —eta beranduxeago ere— egunkari moduan ibiltzen zirela, lekurik baztertuenetara jazoeren berri era manaz. Eta, honen ondorioz, pleguak estatuarri zabaltzea komeni zitzaison pentsaeraren hedabide zirela: gogora bedi Felipe IV.aren Espainiaren indarren azken arrastoak xahutzen direla mundu guztian zehar mantentzen dituen gerletan; Espainiako herriak adikatze honen ondorio guztiak (pobreza, despopulatza, etab.) paitatzentzu ditu. Honek zekarkeen giro txarrari aurre egiteko edo, gudu pleguen gaiak beti garaipenak eta soilik garaipenak izango dira edo, gehien jota, azken finean garaipen gisan aurkezten ziren erdi-purdiko bake sonatuak, zeinen bidez Espainia apurka apurka bere lehengo boterea galtzen joan bait zen. Helburu honetarako gatzkarik niminoez baliatu baziren ere, zenbat gehiago ez zen erabiliko, bada, Espainia bera arriskuan jartzen zuen frantsesen in-basioaren deuseztatzea:

Quando por las Ciudades de España se divulgó la noticia de la improvista invasión de los Franceses, púsosele el semblante no de otra suerte que á uno que, estando profundamente dormido, despierta de pronto al estallido de un grande trueno: Aquella tan envejecida paz había enagorado de la guerra en tanto grado los animos de todos, que reputaban a manera de prodigo el que la hubiese dentro de su tierra, porque desde el Emperador Carlos Quinto no se había visto en España Exercito considerable de Enemigos. Bien se hablaba de guerra; pero era fuera de peligro, de alla lejos en la Italia y en Flandes: de suerte que se peleaba, sí; pero mas era por la honra que por la vida ó por las haciendas⁵³.

52. aip. lib. 290-292.or.

53. Moret, 38.or.

Kasik bi hilabetetako hestualdiaren ondoren, Espainiak berriro arnasa hartuaz bai Hondarribiko defendatzaleen iraupen ausarta eta baita nekez eta azkengabeko oztopoen ostean laguntzera ozta ozta iritsi zen bere harmadaren lorpen azkar bezain harrigarria goraipatu zuen herriaren aurrean behin eta berriro, honi galtzear zeukan adorea berpizteko. Agintarien asmoetara ondo baino hobeto zetorren, beraz; baina ezin da ahaztu zeinen gogoz irakurriko zituen herriak berez Espainiako gudari prestuen balentrien istorioak. García de Enterriák dioskunez:

...los autores de pliegos de cordel sí pudieron encontrar héroes que todavía, en aquel siglo progresivamente nefasto para las armas españolas, merecían alabanzas sinceras por su valor en las guerras continuas⁵⁴.

Gure oraingo zereginari dagokionez, aitortu behar da bibliografi erroldetan ematen diren xehetasunei ezer gutxi erants diezaiegukeela: ikusi eta erabili ahal izan ditugun hiru pleguak zehaziago deskribatzen saiatuko gara, baina besteei buruz Palauren *Manual del librero hispanoamericano* (Librería Palau, Barcelona 1948-1977), Ducerén «Essai de bibliographie du siège de Fontarabie (1638)» (*Bulletin de la Société des Sciences, Lettres, Arts et d'Etudes Régionales de Bayonne XIX* (1898) 217-227.or.) eta Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographiako* (Auñamendi, Donostia 1970 eta hur.) erreferentziak ez dira aski jakiteko, adibidez, hitz-lauzkoak ala bertsozkoak diren; gehienetan, gainera, ezingo dugu zehaztu delako plegu bat egun non aurki daitekeen: tamalez, bibliografoek ez dute, eskertzeko izango litzatekeen arren, ale bitxiak non ikusi dituzten —non gordetzen diren— esateko ohitura hartu, horrela ikerlariari hamaika itzulinguru, buruhauste eta arazo arinduko baliokere.

Hara hor, bada, Hondarribiko hesialdiaz irten ziren pleguen zerrrenda. Gorago aipatu bibliografieta datuak ez dato beti bat: horregatik sistimatzen eta dauden arazoak aztertzen saiatu naiz ahal den heinean. Espero dut *«Egiaren kanta eta bertso-paperak» aurki aterako den agindu lan horretarako hauetarik batzu (eta agian beste zenbait) behintzat eskuratuko edo hobeki ezagutu ahalko ditudala.

54. aip. lib. 293.or.

7.1.1. Gutunak

Carta escrita desde Navarra y Puerto de San Sebastián a Çaragoça, dando aviso de lo que ha sucedido de nuevo acerca del Exercito frances que esta en Fuenterrabia. Barcelona, Seb. y Jayme Matevad⁵⁵, 1638, in-4.^o

Carta nueva, y copia de muchas, de la verdad de lo sucedido, en la Batalla que tuvo nuestro exercito con el de Francia, escritas de Fuente Rabia y Madrid, a muchas personas desta ciudad. Valladolid, F. Ruyz de Valdivielso, 1638, fol. 4.or.⁵⁶.

Copia de una carta que Mari-Velez escribio a un hijo suyo desde Fuenterribia. Tradijola Felipe de Medina de Porres, que la dedicó a Juan Pio Marin, Caballero de la serenissima Republica de Genova [1638?] Sorrarainek hurrengo iruzkin interesgarria egiten dio:

Es un romance en cincuenta y ocho coplas, escrito, según el Sr. Gallardo, con mucho donaire y gran soltura, y á imitación, según pretende el autor, del modo como suelen hablar los naturales que vienen de aquella tierra. Principia así:

Como le quieres tu madre,
Martinicos de mi alma,
De adentro Fuente-Rabia
Escribas con Juancho el cartas.

y concluye:

Que ya le harás traducir
Cuando le remitan cartas,
Deziocho de Setiembre;
Tu madre, á Dios que le valgas. (56.or.)

Carta del Padre Christobal Escudero de 13 de Septiembre... en que da más cumplidamente cuenta de la feliz vitoria... en Fuenterrabia. [l.g., 1638].

Carta del Padre Cristobal Escudero de veinte y quatro de Setiembre... En que (como testigo de vista) dá... cuenta de la feliz vitoria... en Fuenterrabia. Dase también noticia de un baxel de Damiselas que salieron de Bayona, y de cinco baxeles mas que han cogido. Barcelona, 1638.

55. Materat dio Ducerek.

56. Berbera dirudi Ducerek eta J. Bilbaok dakarten Relación y carta nueva y copia de muchas, de la verdad de lo sucedido en la batalla que tuvo nuestro exercito con el de Francia escritas de Fuenterrabia y Madrid á muchas personas desta ciudad, contiene todo lo que paso desde el principio hasta el fin, de una y otra parte de entrumbos ejercitos. Valladolid, Gregorio Bedoya, 1638, 2 or. in-f.^o

Carta de Fuenterrabia á Guipuzco, pidiendo... Duceren oharak honela dio: «Ms. de Vargas Ponce, v. 22, en la Real Académia de la Historia» (220.or.).

Carta que el general D. Luis de Villar y Manuel, caballero de la orden de San Juan, comendador de Vadillo, escribió á D. Luis Ponce de Leon, su hermano mayor, caballero de la orden de Calatrava y regidor perpetuo de esta ciudad, en que remite las dos cartas que el principe de Condé escribia á Fuenterrabia, y sus respuestas como testigo de vista que ha sido el dicho general, y tanta parte en esta gran victoria: en la batalla naval fué el que con su navio hizo rostro al enemigo, peleando tan valerosamente que murio toda su gente, quedando solo en el su persona y otros cinco; uno de ellos su sobrino, Don Pedro de Aguilar y Cayas, de edad de quinze años, y luego se agregaren al ejercito del almirante de Castilla, donde pelearen valerosamente los dichos general y su sobrino, por cujo valor luego que S.M. (Dios le guarde), tuvo nuevas de la victoria, le hizo merced de un habitó de la orden militar que eligiere. Ecija, Luis Estupiñan, 1838, in-4.^o

7.1.2. Erlazioak

Relación... de... la destrucción y combate de 14 galeones de España y tres fragatas y diversos bajeles dentro del puerto de Guetaria, por la armada... de Francia... Burdeos, Bartolome Balchet, 1638.

Relación y segundo suceso sacado del original impreso en Madrid en que da razon de todas las cosas que han sucedido desde el principio de la venida de los Franceses en Fuenterrabia y sus villas. Barcelona, 1638, in-4.^o 2 or.

Relación verdadera del estado de las cosas de Vizcaya y Fuente Rabia; con los buenos sucessos que han tenido, y numero de gente, y baxeles que se ha juntado. Assi mismo se dá cuenta de como los Saboyanos mataron cinco mil Franceses en sus Estados. Y de como los Venecianos tomaron una gran pressa a los Turcos. Impressa en Sevilla, por Nicolas Rodriguez, en calle de Genova, en este año de mil y seyscientos y treynta y ocho, in-4.^o, 2 or.

Relación verdadera de la feliz victoria obtenida por el Gobernador de Tanger, contra veinticinco baxeles de turcos que iban en socorro de Fuenterrabia por mandato del Rey de Francia. Año de 1638. Sevilla, Guan Gómez de Blas (1638).

Relación verdadera de la grandiosa victoria que las armas de España an tenido contra las de Francia, sobre el cerco de Fuente-Rabia. Dase cuenta del número de muertos, presos y ahogados, quedando el campo, y todos los despojos por los nuestros. Sucedio esto víspera de Nuestra Señora á 7 de Setiembre deste presente año de 1638. Con licencia, en Sevilla, por Juan Gómez de Blas, 1638, in-4.^o, 2 or.

Relación verdadera de la insigne y feliz victoria que los invictos Españoles han tenido contra los Exércitos del Rey de Francia, y su general el Príncipe de Condé, sobre el porfiado y bien defendido sitio de la inexpugnable villa y ciudad de Fuente Rabia, en la Provincia de Guipuzcoa. En Granada⁵⁷ por Andrés de Santiago Palomino, Impressor de libros. Véndese en

57. J. Bilbaok «[s.l.]» dakar; baina Palauren erreferentzia Ducerek baiezatzen du (ik. 222.or.).

la Imp. Real, en la calle de los libreros, 1638, in-4.^o, 2 or. Palauk «se atribuye al P. Cristóbal Escudero» dio.

Relacion en que se declara lo que la ciudad de Fuenterrabia aviso á S.M. del prodigo y milagro que ha sucedido con la devotissima imagen de Nuestra Señora de Guadalupe, cuya ermita esta en una montañuela, frontero á la ciudad, donde los Franceses tenian puesto el sitio y donde Monseñor de la Force leia su mala secta a los demas. Barcelona, Jaime Romeu, 1639, in-4.^o 2 or. Idem Madrid, Juan Sanchez, 1639, in-4.^o, 4 or.

Relación verdadera de los regozijos y fiestas que en la villa de Madrid se han hecho por los felices sucesos de Fuente Rabia. Assimismo se da cuenta de la gran mortandad que el Marqués de Torrecusa hizo en los Franceses, que por salvar la vida huyeron del sitio de la dicha plaza, hazia el Reyno de Navarra. Con las grandes mercedes que el Rey nuestro Señor ha hecho a los de Fuente Rabia. En este año de 1638. Con licencia del señor alcalde D. Francisco de Alarcón, en Sevilla por Juan Gómez, 1638, in-4.^o, 2 or.

Verdadera relación del gusto y demostración que hizo la Ciudad de Sevilla. El Domingo diez y nueve de Setiembre de mil y seiscientos y treinta y ocho. Por la nueva vitoria que el Señor Almirante de Castilla tuvo en Fuente Rabia contra el exercito frances... Impresso en Sevilla, por Juan Gomes de Blas junto a San Acacio. Año de mil seiscientos y treinta y ocho. Fol. 2 or.

Relación verdadera de las grandes mercedes que la Católica Magestad de Felipe Quarto el Grande ha hecho al Governor y á los demás caballeros y hijosdalgos, y á toda la demás gente de Fuente Rabia. Y assimismo se da cuenta de las grandes fiestas que en la villa de Madrid se han hecho, por la grandiosa victoria alcanzada contra el Francés y desagravios de la Virgen Santísima, en este año de mil y seyscientos y treynta y ocho. Ezija, Malpartida 1638. in-4.^o, 2 or.

Relación verdadera de la insigne victoria que han alcanzado los Excmos. señores, el Marques de los Velez, Virrey de Aragón y Navarra y el Almirante de Castilla... contra la armada y exercito que los franceses tenian en la provincia de Guipuzcoa y cerco de Fuenterrabia a 7 de Setiembre dese año 1638. Aclamaciones inmortales al libertador de Fuenterrabia. l.g. 1638, fol. 4 or.

Relación diaria del memorable cerco, y feliz vitoria de la muy noble y muy leal ciudad de Fuenterrabia. Al Excelentissimo señor Don Gaspar de Guzmán, Conde de Olivares, Duque de Sanlúcar, Cavallerizo mayor del Rey nuestro señor, y de su Consejo de Estado, Guerra e Indias, gran Canciller y Registrador dellas. Capitán general de las guardas y cavallería de España y Alcaide perpetuo de Fuenterrabia. Con licencia, impresso en Burgos por Juan Martíns. Año 1639, in-4.^o, 43 or.

Relación segunda de catorce de setiembre dese presente año, escrita por el Padre Christoval Escudero, de la Compañía de Jesús, al señor Arzobispo de Burgos. En que se da cuenta de la feliz vitoria que Nuestro Señor ha sido servido dar al Señor Almirante de Castilla General del exercito de España contra el Rey de Francia, en la villa de Fuente Rabia. Es obra hecha de la mano de Dios, milagro grande que obró con nosotros. Madrid, por la viuda de Alonso Martín, 1638, fol.

Relation véritable des choses les plus mémorable passées en la Basse-Guienne depuis le siège de Fontarabie, qui fut en l'an 1638 et particulièrement des désordres et troubles arrivés aux sièges de Saint-Sever, Tartas, Ax ou Dax depuis ledit jour. Apud P. Cauna Armorial des Landes 1829, III, 453-573. or.⁵⁸

Relación verdadera de la entrada que hizo la Armada del Francés en compañía de la del Olandés en la embocadura del puerto del Real Presidio y Ciudad de la Coruña, el jueves 21 de Junio de 1639, y lo sucedido al tiempo que estuvo en él. Y el socorro que quitaron los vecinos de Fuenterrabia al Francés, que llevaba de socorro a Bayona de bastimentos, municiones y otras cosas. Barcelona, 1639. Egilea J. Santana Tapia dugu.

Relación y carta que escribió del Exercito el P. Tarazona. Madrid, 1638.

Relación verdadera del socorro que á Fuenterrabia dieron los Excelentísimos Almirante de Castilla y el marqués de los Velez, Virey de Navarra, generales de ambas coronas en esta facción, víspera de Nuestra Señora de setiembre dese año de 1638. Escribiola Alonso Martínez de Aguilar que se hallo en el escuadrón volante gobernado por el marqués de Torrecusa, maestre de campo, general de los tercios de Navarra. Logroño, Matias Mares, 1638, in-4.⁵⁹

Relacion verdadera de la grandiosa batalla que las coronas de España han tenido contra las de Francia sobre el cercó de Fuenterrabia. Dase cuenta del numero de los muertos, presos y ahogados, quedando el campo y todo los despoyos por los nuestros. Sucedio esto víspera de Nuestra Señora á 7 de setiembre de este presente año de 1638. Sevilla, Juan Gomez de Blas, 1638, in-4.⁶⁰

Relación diaria de la memorable victoria de la noble ciudad de Fuenterrabia. Barcelona, Jaime Romeu, 1638, in-4.⁶¹ Egilea, Ducerek dioenez (226.or.) V. de San Raymundo da.

Relación (segunda) de la gran pressa que les tomaron á los Franceses de Fuente Rabia y numero de muertos que huvo. En este año de 1638. Saca cada dí una carta que embio el Padre Christoval Escudero, de la Compañía de Jesús. Sevilla, Nicolás Rodríguez, 1638, in-4.⁶²

Relación de la memorable victoria que las armas del rey D. Phelipe el Grande, nuestro señor, han alcanzado de los Franceses, haciendo general de Castilla la Vieja y de la provincia de Guipuzcoa, D. Juan Alonso Enríquez de Cabrera, gran almirante de Castilla, por D. Francisco de Vargas, I. eta u.g.

Relación verdadera del feliz suceso que Dios ha dado al señor Almirante de Castilla y demás señores de España, en el socorro y defensa de Fuente-Rabia; y de la salida que hizo su Magestad á nuestra señora de Atocha, en agradecimiento de la feliz nueva. Con un romance, alabando el valor de

58. J. Bilbaok ez du xehetasun gehiago ematen: plegu frantsesa ala gaztelarazko baten itzulpena ote?

59. Errataz josita dogoen arren, erlazio bera Ducerek aipatzen du eta honako hau erantsi ere: «Arch. de Salazar, I. 126» (220.or.).

las vizcaynas. Por Francisco de Soto, Criado de S. M. Con licencia. Madrid 1638, Duplaste.

Sésgunda relacion del estado de las cosas de Vizcaya, en los buenos sucessos y victorias que han alcanzado contra el exercito Francés, sobre el cerco de Fuente Rabia. Sevilla, 1638.

7.1.3. Erromantzeak eta beste

Romance, a la vitoria quel exercito de España (siendo sus generales los Exceletissimos señores Almirante de Castilla y Marques de los Velez) tuvo en el sitio que tenia puesto el exercito Frances en Fuenterrabia. Con licencia, en Barcelona, en la Imprenta de Jayme Romeu, delante Santiago. Año 1638. Vendese en la misma Emprenta (1638), in-4.^o, 4 or. grabatu bat.

Cerco de Fuente Rabia, invasión del Exercito y Armada Francesa, Especiecion del Egercito Español, quema de nuestra Armada, Convate de la plaza, Vitoria de los nuestros, y ricos despojos que dejaron los enemigos... Compuesto en seis romances, por Juan Perez de Valderas natural de Zaragoza soldado de nuestro exercito. Burgos, Huidobro, u.g.

Victorias y prodigios, precedidos en la estrella del Príncipe Cardenal y del señor Almirante de Castilla en la plaza de Fuente Rabia y tierras del Rey de España, á quien Dios guarde largos y felices años, y prospere con victorias de enemigos y espada cortante de los Franceses. Barcelona, Jayme Romeu, delante de la fuente de Santiago, 1638, in-4.^o, 2 or. Palauk Madri-leko Biblioteca Nacionalean dagoela dio.

Triunfo de Navarra y vitoria de Fuenterrabia. Que se dedica á la Natividad de la Virgen Santissima, Madre de Dios y Señora nuestra: Por Diego Felipe Svarez, Beneficiado de Falces. Non in multitudine exercitus victoria belli sed de coelo fortitudo. Machab. I. Pamplona, Labayen, 1638, in-4.^o, 8 or., 2 zut. Sorrarainek hurrengo deskribaketa eskeintzen digu: «Romance en verso, termina con seis décimas laudatorias de diversos autores» (55.or.).

Triunfo de España y hazimiento de gracias por la gran victoria que con divinos socorros consiguió el Exercito... en Fuente Rabia. Burgos, 1639. J. Bilbaok F. Riojano delako bat dakar egiletzat.

Triunfos de Fuenterrabia, trofeos de Cantabria contra Francia, por el valor de las armas de España. I. eta u.g.

Segundo suceso sacado del original impresso en Madrid en que da razón de todas las cosas que han sucedido desde el principio de la venida de los franceses en Fuenterrabia y sus villas, y el desastroso fin de ellos. Barcelona, 1638.

Las Grandiosas fiestas que ha hecho la fidelissima ciudad de Barcelona, el Cabildo y Diputación a la buena nueua de la victoria... que ha tenido el Rey nuestro Señor de Fuenterrabia y sus lugares. Barcelona, 1638.

7.1.4. *Ikusitakoak*

7.1.4.1. *Relación y traslado bien y fielmente sacado de una carta embiada en esta Corte; y tiene por argumento: La Sombra de Mos de la Forza se aparece a Gustavo Horn, preso en Viena, y le cuenta el lastimoso suceso que tuvieron las armas de Francia en Fuente Rabia, Madrid, Diego Díaz de la Carrera, 1638, 4 or.* Théodoric Legrandek berrargitaratu zuen (*Euskal-Erria* LII (1905) 393-398 eta 449-452.or.) eta horko bertsioa erabili dut. Ba omen du beste argitalpen bat: *De resultas de haber los Franceses publicado en Paris un folleto, cuyo argumento es la sombra del conde D. Juan de Cerbellon que se aparece á Juan de Weerdl, prisionero en el castillo real de Vincennes, y le cuenta el desgraciado suceso de Leucata; se ideo por alguno de los nuestros un diálogo entre el mariscal La Force y Gustavo de Horn, en que se lamentan del desgraciado suceso de Fuenterrabia.* Zaragoza, en el hospital Real de Nuestra Señora de Gracia, 1638, in-4.^o

Plegu honek edukiaren aldetik bi ezaugarri berezi ditu: lehendabizikoa, frantses baten ikuspuntuaren arabera bezala jartza gertatutakoa; bigarren —lehendabizikoari lotua— erabat satirikoa izatea: frantsesak barregarri erabiltzen dira alde guztietatik. Txantxetako obra da, oso gogorra halere.

7.1.4.2. «Breve y ajustada relación...» bezala, F. Díaz-Plaja-ren *La Historia de España en sus documentos. El siglo XVII* (Instituto de Estudios Políticos, Madrid 1957) delakoan beste erlazio bat —bibliografi erroldetan behin ere (izen honekin bederen) agertzen ez dena— dugu; erreferentziaren urriak honen ezaugarririk zehatzatzeko saio guztiak eragotzi ditu. Transkribatu zaigun zatia ez dago osorik seguruenik, *in media res* (ohizko hiru pundiuen bidez) hasten bait da. Hemen kontatzen dena beste iturri handiagoe tarik genekiaren laburpen antzerako bat baino ez da; halaz ere (ik. 129-136.lerroei egin oharra) bukaeran Egiaren sariei buruzko xehetasun interesgarri batzu eskeintzen ditu.

7.1.4.3. *Socorros que an acudido y entrado en la Villa de Fuente Rabia, assi de Vizcaya, como de Castilla, Portugal, y Ar mada de D. Antonio de Oquendo y Vitoria que el Principe Tomas tuvo de diez mil Franceses que estavan prevenidos para socorro del Olandes que intento cercar a Amberes.* Con licencia, en Sevilla

por Francisco de Leyra, año 1638, in-4.^o 2 or. Plegu honen ale bat Eusko Legebiltzarreko Liburutegian datza eta horixe erabili dut. Izenburuak dioskunez, bi gai ezberdin dira plegu honetan: lehenengo bi orrialdeetan Hondarribikoaren azken berria —bidalitako laguntzena— ematen da; beste bietan frantsesen kontrako mundu guztiko gerla haren beste gertaldi bat —oraingoa Amberes aldean— kontatzen zaigu. Bi jazoera hauen garaikidetasunak nolabait elkarrekin agertzea azaltzen badu ere, pentsa daiteke zeharo okertu gabe seguruuenik, Hondarribiaren egoera oraindik larriaren deskribaketaren ondoren alaigarri bat beharrezkoa zela: benetako garaipen bat. Hortara garamatzate idazleak erabilitako bien arteko lotura-hitzek, zeren eta itxaropen asko eman ostean, honela bait dio: «...se tiene por assegurada aquella plaça [Hondaribia, jaka], y que al Frances le sera fuerça (dexado empressa que le a de rendir tâ poco provecho) acudir al daño de mas de siete mil hombres que de nuevo le degolló el Principe Tomas junto a Caléz de Francia, en esta manera».

7.2. *Liburuak*

7.2.1. Juan de Palafox y Mendoza, *Sitio y socorro de Fuenterrabia, y svcessos del año de mil y seiscientos y treinta y ocho. Escritos de orden de su Magestad*. En Madrid con licencia en la Imprenta de Cat^a del barrio Ano [sic] 1639.

Egilearen izenik gabe dator; aldiz, lehendabiziko orrialdean eskuizkribaturik honako hau irakur daiteke: «Per Dn. Juan de Palafox y Mendoza Suppresso tamen nomine: dice en su Biblioteca Dn [Antonio Agustin ezabaturik] Nicolas Antonio». 450 or. Oso edizio txukun eta zaindua, Erregearen aginduz ateratako argitalpen batean espero zitekeen bezala. Erabili dugun alea Eusko Legebiltzarreko Liburutegian gordetzen da.

Bertan, izenburuak adierazten duenez, ez da soilik Hondarribiko jazoeraren berri ematen: aitzitik, urte istilutsu hartan itsasoan zein lehorrean, Ameriketan zein Europaren Espainiako harmandak pairatu zituen gorabeherak —eta batez ere lortu garaipenak⁶⁰— azaltzen dira xehetasun askorekin:

60. Gogora bedi honetaz lehenago esana.

...porque las dependencias que tienen de vnas a otras prouincias las Armas de su Magestad y las fuerças de la mar con las de tierra, son tales, que no puede bié manifestarse lo que se obra en España sin saber el estado de la guerra de Italia, Flâdes y otras partes (...) me ha parecido proponer primero en esta relacion en qué constitucion se hallauan las armas del Rey y los enemigos de su Corona dêtre de Europa y fuera della en esta Primauera de treinta y ocho... (5-6.or.).

Palafoxek bere liburuari egiten dion aurkezpeneko ezaugarririk garrantzitsuena egiaren alde agertzea da: egia da bere historialari lana justifikatzen duen bakarra:

...ni el amor deuido a la patria, ni el odio natural al enemigo; y, lo que mas es, la fuerça de la razô que assiste a España, ha podido mouer un instrumento tan leue como la pluma a passar, no solo desde la verdad al encarecimiento, pero ni desde el suceso a la ponderacion, teniendo por conueniente no desviarme de aquella rectitud y entereza con que deuen referirse al mundo los publicos acaecimientos, en los quales ha de preuenir el que escriue, que hallara juezes de la relación a los que han sido testigos del suceso» («Al lector»).

Bere justifikabidea gertatutakoentz hurbiltasuna da⁶¹: leku-koak oraindik bizirik daudela, beraiek dira egilearen zintzotasuna hobekien frogatzen dutenak: hitz bat esatea nahiko lukete guztia gezurtatzeko. Badu, ostera, beste sostengu bat bere zuhurtasuna adierazteko:

Afiança el credito de la verdad y ajustamiento desta relacion el escriuirse de orden de su Magestad, pues las noticias que en ella se contienê son las mismas que hâ dado los Generales, los Cabos y las que resultan de las Consultas y papeles de los oficios por donde ha corrido esta materia (2.or.).

61. Bi mendek ekarritako ikuspuntu aldaketa gora behera, Palafoxen hitzak Piralarenak dakarzkigu gogora: «No por ser contemporánea será menos completa, pues hay la ventaja de poder consultar a los mismos actores de los sucesos, con quienes muere generalmente la explicación de importantes acontecimientos. Tal y tan grande beneficio concilia los inconvenientes que suelen tener las historias coetaneas. Los documentos dirán lo demás. No pretendemos por esto la infalibilidad histórica, pero provocaremos quizá explicaciones y controversias, y pondremos, sin duda, la base de un nuevo edificio, que levantarán más hábiles inteligencias» *Historia de la Guerra Civil y de los partidos liberal y carlista I* (1853); orain Turner/*Historia 16*, Madrid 1984.

Bere iturriak, beraz, zuen zuzenak ditu. Haatik, iturrien arazo baino, gure ikuspuntutik askozaz interesgarriago dirudi Erregearekiko loturarenak. Genaro de Sorrarainek bere *Catálogo de Obras Euskarasen* (Barcelona 1848)⁶² iruzkin jakingarri hauek eskeintzen dizkigu:

El rey Felipe IV mandó escribir esta Relación al Venerable D. Juan de Palafox y Mendoza, que era, á la sazón, Consejero del Supremo de Indias. Esta primera edición salió sin nombre de autor, en atención a salir el escrito en nombre de la Corona. (53.or.).

Hauetatik —eta Sorrarainek ematen dituen beste zenbaiteatik⁶³— ezin argiago nabamentzen da zein izango den liburuaren joera: alde batetik, Erregeak agindua eta zuzendua irten zen; egilearen izenik gabe ateratzean, txosten ofizialtzat aurkezten da, hau da, Espainiako estatuaren bertsioa izan behar du goitik behera. Bestetik, enkarguzko lana izaki, ez zaio edonori eskatzen, ez bada gortean ondo ikusi eta kargu garrantzitsuekin saritutako bati. Merezimendu hauek beharko zituen paper guztietara iristeko. Ateak erraz baino errazago zabalduko bazizkioten ere —eta alde honeitatik kalitatezko berriak ditugu, berak aipatzen dituen lekuko horiengandik erdietsiak—, bere egoera ofizialak ikuspuntu berezi bat (estatu interesena, alegia) ezartzen dio: beti egia kontatuko duela aldarrikatzen duen arren, kasik segurua da horren arabera gezurrik esan ez baina egiaren bat estali duela, Moreti sinisten badiogu bederen: Palafoxek ez du Moretek adina iskanbila aipatzen, ez eta agertzen honen mihi zorrotza Espainiako bizioak salatzeko⁶⁴.

62. Faksimila Bizkaiko Aurrezki Kutxak argitaratua, 1984.

63. «D. Juan de Palafox y Mendoza nació en 1600 en el reino de Aragón. Hizo sus estudios en Salamanca y poco después de concluidos fue nombrado Consejero de Indias. Abrazó luego el estado eclesiástico y Felipe IV que le profesaba estimación particular le concedió el obispado de Angelopolis en Méjico. A consecuencia de serias desavenencias con los Jesuitas, regresó a España y en 1659 fué nombrado para la silla de Osma y murió en dicho punto el año 1665», 54.or.

64. Ik. adibidez, Egia eta Egearen arteko istiluaz (21-24. lerroei buruzko oharrean) eta Olivaresen portaerari buruzko kritikez (151-152. lerroena).

7.2.2. Joseph Moret y Aleson, *Empeños del valor y bizarros desempeños, o Sitio de Fuenterrabia*⁶⁵, que escribió en latín el Rmo. P. Joseph Moret de la Compañía de Jesus, natural de la Ciudad de Pamplona. SUCEDIDO el Año de 1638. ESCRITO en tres libros Año de 1654. TRADUCIDO AL CASTELLANO Año de 1763. Con algunas Adiciones y Notas POR DON MANUEL SILVESTRE DE ARLEGUI, NATURAL también de la Ciudad de Pamplona, MAESTRO DE GRAMMATICA EN LA DE sanguessa. EN LA OFICINA de Joseph Miguel de Ezquerro, Impressor de los Reales Tribunales de Navarra.

LGEVko faksimila (Bilbo, 1971) erabili dut, in *Annales del Reyno de Navarra* VIII. 240.or. + «Dedicatoria» eta itzultzalearen eraskin askorekin.

Moreten liburu honetan Hondarribiko hesialdia eta honek Espainian eragin zituen mugimenduak eta gainerakoak astiro komentatzen dira. Oso estilo berezia du: Palafoxek ez bezala, xehetasunak ez ditu sekula hutsean ematen; bere iruzkinak —sarri txarrerako— tartekatzen ditu beti, kontaera soila baino honek dakartzan giza-portaerak axola gehiago zaizkiola.

Honetan ezeze abiapuntu gehienetan ere bereizten da Moret bere aitzindariarengandik: hasteko, ez da inondik ahaztu behar hamasei urte igaro direla Hondarribia askatu zenetik; besterik ez bada ere, 1643an Konde-Dukeak bere boterea galdu zuen, eta hori nabarmentzen da Erregearen ordezko-ohiaz mintzatzeko lasaitasunean (ik. 151-152. lerroei büruzko oharra), nahiz eta hori ez den bere —eta inoiz besteren— kritiken norabide bakarra:

Y como en realidad no puede darse edad mas viciada ni menos amante del pundonor que la nuestra; por esto mismo deben los buenos hacer los mayores esfuerzos para llenar con sus virtudes la memoria de los venideros, sin dar lugar en ella a los infortunios y vicios de los otros (l.or.).

Alabaina, Moreten kritikak usu herriaren zurrumurru eta usteen atzean izkutatu ohi dira, kritika-gaiak min —eta hori baino gehiago nonbait— eman dezakeenean batipat: «Pero no se escapó

65. Jatorrizko izenburua: *De obsidione Fontirabie*, Lyon 1654. Itzulpenekoaz Galbetek (aip. art. 470.or.) honela dio: «...vertida luego al castellano por don Manuel Silvestre de Arlegui, con el rebuscado nombre de...».

de la murmuración de algunos...» (237.or.). Ez da hala gertatzen, ostera, bere garaikideen oker orokorrak (hala nola administral-goaren lasaitasuna eta antolamendu eza, koldarkeria, traizioa...) salatu behar dituenean. Beraz, Moretengen ikuspuntu kritikoago bat badakusagu ere, ez dut uste idazten duen garaian jadanik topiko izan behar zuten gaietatik gehiegi urruntzen denik.

Asmoen artean aipagarriena, zalantzarak gabe, honako hau da:

Mueveme tambien á escribir el rezelo de que los sucessos de este Reyno queden sepultados en silencio por la acostumbrada desidia de sus Naturales a escribirlos, que consiste, ó en que es vicio nativo de la nacion, ó en que los engaña la errada opinion con que piensan que por tradicion de unos a otros llegará más pura a los venideros la narración de los sucessos: pero en realidad no hay noticia que pueda asegurar su permanencia, si no se afianza en la duración de los escritos, porque al modo que aunque faltan presto las lenguas de los hombres, sus escritos duran; assi tambien, las noticias que se afianzan en aquellas perecen, pero las que en ellos, subsisten: y llega muy tarde el remedio de una investigación, quando yá el tiempo oscureció lo mas de los sucesos con una como niebla que los infortunios y vicios de los otros (1.or.).

Bestalde, Moreten iturriez ez dakigu ezer zehazki, berak ez bait ditu azaldu. Arleguik, dena den, baten aztarna izan daitekeena ematen digu bere «Appendix»ean: «...un Diario del Cerco que, por la semejanza de los contextos juzgo Yo ser el que instruyó á Moret en su narración de las operaciones del sitio». Ez digu, tamalez, xehetasun gehiegi ematen: zein izan daiteke *Diario* delako hori? Besterik ez ote zuen erabili?

Azkenik, O'Reillyk jesuitaren egoeraren deskribapen poetiko bat egiten badigu ere:

...la suma modestia que le dominaba le hacía dudar que otros hombres irían precisamente a buscar en su recóndita celda la explicación de los heroicos hechos... (10.or.).

eta geroxeago:

...me fuí a buscar en el silencio del claustro abandonado la relación del monge, perpetuo historiador y coronista de las glorias de España (*ibid.*).

egia esan, Moreten lana oso ezaguna izan zen (gogora bedi Lyonen eta latinez argitaratu zela), Vicente Galbetek dioenez:

En ella se recoge cuanto de aprovechable hay en los trabajos precedentes, se corrigen errores y se suministran nuevos datos, sirviendo a su vez de inspiración a todas las posteriores publicaciones («¿Fué desinteresado don Diego de Butrón?» 470.or.).

7.2.3. Antonio Bernal de O'Reilly, *Bizarria guipuzcoana y sitio de Fuenterrabía. Apuntaciones históricas*. Donostia, Juan Osés, 1872. 304 or. Moreten liburua erabili duela aitortzen badu ere, datu gehienak, pasadizuak, estiloa eta inoiz hitzak ere errepikatzen dituela esan beharra dago: oro har, Moreten liburuaren laburpen bat dugu hau. Alabaina, geroago argitaratu zuen «Fuenterrabía. 1638» (*Euskal Erria XIX* (1888)) artikuluan bere liburuaren nor-tasuna defendatu zuen zenbait historialari frantsesen kontra:

...la verdadera relación que tuve la honra de publicar en 1872, (y no un «roman écrit par Moret et augmenté par Mr. O'Reilly» [M. Ducerek idatzia, «Recherches Historiques sur le siège de Fontarabie en 1638» *Bulletin de la Société des Sciences et Arts de Bayonne* 1880] (193.or.).

Nahiz eta ezin dudan baiezttatu, badirudi eztabaidea honetan kopuruak handitzen dituela, zeren eta harrigarri bait deritzot frantsesek ez baina berak ezagutzeari Richelieuren paperak (ik. honetaz gehiago 5. lerroari egin zaion oharra).

7.2.4. Conde de Llobregat, *Fuenterrabía. Noticias históricas*, Madrid 1930. 193 or. Atal oso bat (134-157.or.) eskeintzen zaio Hondarribiko hesialdiari. Xehetasun berriren bat gora behera, aurreragokoek esandakoaren laburpen interesgarri eta zabal bat, Galbeten eritzia gogorragoa bada ere: «...respecto a la obra, más se trata de un trabajo de divulgación que no dice nada nuevo» (aip. art. 470.or.). Oharretan ikusiko den bezala, gutxienez zenbait kopurutan be-reizten da besteengandik.

7.2.5. Labayru, *Historia general del Señorío de Bizcaya*, Bilbo 1895-1903 (6 lib.). LGEVko faksimila (8 lib. 1967 eta hur.) erabili dut hemen. Bakarrik Egiari dagokionez («Por tratarse de un hijo

de Bizcaya....», 275.or.), bere obraren 5. liburukian ataltxo bat (273-276.or.) eskeintzen dio Hondarribikoari: gertaeren laburpen baten ondoren, honela dio:

No es de nuestra incumbencia relatar pormenores de este *feliz* suceso de armas ni de las recompensas y gracias concedidas por D. Felipe á esta villa, (...) habiendo sobre este particular libros *ex professo* dedicados á su narración (274.or.).

Honen arabera, soilik inbasioa zela eta Bizkaian egin ziren prestakuntzez eta Egiak jasotako Erregearen eta Konde-Dukearen gutunez mintzo da, xehetasun interesarriekin.

8. *Iruzkina*

8.1. *Erdal sarrera*

1: Honen gisako izenburuak ugari agertzen dira garai harta-ko gazteleraiko inprimatuetaan: *Isidro, Poema Castellano* (Madrid, 1599), *Poema castellano que contiene la vida del Bienauenturado San Fructos* (Madrid, 1623), *La Farsalia, poema español* (Madrid, 1684) (Guztiak *apud* Pierce, *La poesía épica del Siglo de Oro*, Gredos, Madrid 1968). Honelakoetan «castellano» zein «español» —eta gurean «vizcayna»— hizkuntzari eta ez aberriari dagokiola esango nuke, hots euskaraz dela adierazten duela, eta ez Bizkaian egina edo bizkaitarrez ari denik.

2: Dagoen dagoenean irakurri behar dela proposatzen badugu, ez da batere erraz suposatzen *merok* zer esanahi duen: gazteleraiz ohi dituen bi zentzuetarik bata —«arraín moeta», alegia— ez da egokia, zalantzarak gabe. Besteak —hau da, «soil» adjetiboak— aproposago dirudien arren, Corominasek dioenez bere era-bilera ez da zabaltzen XVII. mendeko hasiera arte nahiz eta «se habla en cambio de *mero* y *mixto imperio*, en términos jurídicos, en muchas obras medievales». Beraz, alde batetik Erdiaroko formula hori gure testuari ez badagokio, ene eritzian, bestetik honelako plegu arrunt batean hain kulto —«En general *mero* se ha mantenido en todas partes dentro de la esfera culta» (ibid.)— den

hitz bat agertzea gutxienez zalantzazkoa da. Horregatik, beste bide bat hartzen saiatuko gara: sarritan poemaren sarreran metrikako xehetasunak ematen zirela (cf. *Defensa de damas... en octava rima, dividida en seis cantos...* (Lima, 1602), *Epílogo en octava rima de la vida de...* (Milán, 1665), *Los doce libros de la Eneida. Traduzida en octava rima y verso Castellano* (Toledo, 1555) eta, batez ere, *La Guerra de Granada que hicieron los Reyes Católicos, en metro castellano* (l. eta u. g.) eta ...*el segundo libro de las Eneydas del virgilio. Trobado en metro mayor...* (Burgos, 1528) Pierce, aip. lib.) kontutan hartzen badugu, ME[T]RO —«vale cerca de nosotros tanto como lo que está compuesto en verso por tener su medida; opónese a prosa» Covarrubias, s.v.— irakur daitekelakoan nago. Honela balitz, Yren ostean *RIMA* —hots, *METRO Y RIMA*— etortzea daitekeena da: «Rima significa 'verso' o 'composición poética' en la Edad Media y sigue significando 'verso' en el Siglo de Oro, sea en el sentido de 'línea de texto versificado' o en el de 'estructura de lenguaje versificada', en oposición a la prosa» (Corominas, s.v.). Proposatzen dugun bikoteak nahiko arrunt dirudi: cf. Santillana: «...prerrogativa de los rimos e metro...», «fiço rimos e cantó en metro» (*apud Corominas*).

3: Suposaketarik errazena eta egokiena deritzot: cf. *Los famosos y Eroycos hechos del invencible y esforçado Cid...* (Anveres, 1568), *Los famosos hechos del príncipe...* (Toledo, 1585) Frank Pierceren aip. lib.an aurki daitezkeen adibideak aipatu arren. Zerrenda ziur aski nahi adina luza zitekeen.

4: Arejitaren eransketa. Ez dirudi azalpenik behar duenik. Ik., dena den, 9. lerroaren oharrean esana.

5: Arejitak osatua. Ik. 135-138. lerroak eta dagozkien oharra.

6: *designación real* edo? Ik. 7-8. lerroei egin oharra. Landazurik bere *Historia de Guipúzcoako* (Imprenta Vicente Rico, Madrid 1921) «Gobierno militar de Guipúzcoa. Origen y nombramiento de su coronel» kapituluan honelaxe egiten zela egiaztatzen du: «En estas plazas [Donostian eta Hondarribian] hay también, en la de Fuenterrabía su gobernador, puesto por el Rey [nik azpimarratua], y también lo hay en San Sebastián...» (345.or.).

7: Arejitaren eransketa. Ik. 129-136. l. egin oharra.

8-9: Ezin izan dut Bizkaiko bi jeneral hauen nortasuna argitu. Irufiekoaz, cf. 133-134. l. eta dagozkien oharra.

10-12: Arejitak osatua; berak dioskunez «...azterketa sakanagorik egin ez dadin bitartean, hauxe da dakiguna: Juan Bautista Alzola Muntxaraz hori Durangoko seme dogula, abadea, eta Arratiako Castillo-n (Artean) egoala parroku, Egia gudalburuari gorazarre kantu hau ondu eutsanean». (aip. art. 143.or.). Gogora, bestalde, laukoaren azpian Alzolak berak «El Licenciado...» izenpetzen duela.

13: Gogora 1862 arte ez dela Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba barne zituen Gazteizko eleiz-barrutia sortzen. Bilbokoa —Donostia-koarekin batera— 1949 inguruan soilik eratuko da.

14: Garai hartako apezpikuaren izena ez da zail izan eskuratzen: Landazuriaren *Historia civil, eclesiástica, política y legislativa de la M.N. y M.L. ciudad de Vitoria sus privilegios, esenciones, franquezas* delakoan «Catálogo de los Obispos de Calahorra Conforme á las Actas Conciliares» bat aurkitzen da. Testuari erantsi diogun Gonzalo Chacon y Velasco (ez dut *Velasco* sartu ez duelako ematen lerroa horren luzea zenik) 1632-1642 tartean egon zen.

15: Tartean zerbait gehiago agertzen bazen jakin gabe, hurrengo lerroko *doren* arabera *rememorando* bezalako aditz bat beharko genuke.

16: Eraiketa argia iruditzen zait.

8.2. Egiaren kanta

1-2: Felipe IV Austriakoa, alegia; ez da Errege hau euskal poesian aipatzen den aldi bakarra: cf. 1666ko *Gure Erregue Philippe Andiaren heriotzean euscarazco coplac.* Bertan oraingo bertso hauen oihartzuna aurki daiteke: «Ilumbetan dago emen / Orai mundu gustia, / Cegatic ilundu den / Haren iguzqui andia» (21-24.l. TAV 136-137.or.). Gonbara bedi *La Araucanako honako bertso hauekin:* «vendrá toda la tierra en mi presencia / a dar al Rey Felipe la obediencia» (XXXIV, 14,7-8). Antzeko aurkezpen formula baterako cf. 1658ko *Quartetac gyre Principe Iavneanren* (sic) D.

Phelipe Prospero gaioste dichosoan: «Andia vide cera / trosetan sarturiq / vada Mundu guztia / daucaçu sorturiq» (5-8. «Contribución...» 91.or.), «Gomez andia an canarren» (*Arrasateko erreketa, TAV 3.1.7,6*) eta, batez ere, «Mosiur Chanfarron jaun andia» (*Mr. Txanfarronen kanta, TAV 3.1.16*). Erregeei —eta, bereziki Felipe IV.ari— *andia* epitetoa ezartzeko ohitura zabalaren erakusgarri on bat dugu (*a contrario*) Quevedori leporatutako plegu baten hurrengo bertsootan: «Grande soys Felipe a manera de hoyo, / ved si lo que digo en razón apoyo, / quien mas del oyo quita, más grande le haze, / mirad quien lo ordena, vereys a quien place...» (*Proclamación o aclamación a la Magestad de Felipe quarto de Castilla* (1641), *apud* García de Enterría, 278.or.); beste bat —oraingoan zor zitzaison begirune guztiarekin— Hondarribiko hesialdiari buruzko erlazio baten izenburuan: *Relación verdadera de las grandes mercedes que la Católica Magestad de Felipe Quarto el Grande ha hecho al Gobernador...* (Eziza, 1638) (*Apud* Palau).

3: Oso normala bide den apostrofe honetarako, cf. «Alegraos gente Christiana / que esta noche passadera / Ha nacido en carne humana / el que todo el mundo espera» (*apud* Marco I, 234.or.).

4: Ez da hau, jakina denez, Ondarribiak pairatu zuen lehen-dabiziko hesialdia: «La primera acometida de los franceses que entraban en España, solía ser siempre contra esta plaza. Los sitios más memorables de que se tiene noticia, son el que sufrió en 1476 y 1477, sostenido por las tropas de Mr. Aman, señor de Labrit, que no pudo conseguir su intento de tomar la plaza, y el de 1521 por el almirante Bonivet, que se apoderó de la población, teniéndola en su poder desde este año hasta el de 1524» (S. Múgica, *Provincia de Guipúzcoa* 752.or.), ez eta azkena ere: «También fue asediada y tomada esta plaza por el Duque de Berwick en Junio de 1719, y más tarde, en 1794» (*Ibid.*). Gogora *Bertso Bizkaitarretako «Francesac Ondarriua / beti oy dauca cuticia»* (25. ahapaldia; J. A. Lakarra «*Bertso Bizkaitarrak (1688)*» 120.or.).

5: Beste iturriak, oro har, nahiko hurbil daude kopuru hone-tatik: 1639-ko Palafoxen liburuan: «...juzgádose q̄ vno y otro lle-garia a diez y seis mil infantes y dos mil cauallos...» (14.or.); Moretek —1654ean— hasiera batean (40.or.) frantsesek hogeita hamar mila oinezko eta sei mila zaldizko zetozela zabaldzu zutela idazten du (gauza bera Palafoxengan, 134.or.); alabaina, hesialdiaz jadanik aritzen denean, frantsesen kopurua honela mugatzen du: «En lo

que toca al número de tropas, ya se cuentan en los Reales Franceses diez y ocho mil Infantes y dos mil Caballos, fuera de la gran-
de Armada...» (156.or.); antzerako berria eman zen 1638. urtean
bertan zabaldutako *Breve y ajustada relación...* delakoan: «Para
esto juntó un numeroso ejército de diez y ocho mil infantes y tres
mil caballos, y una poderosa armada por mar» (*apud* Díaz-Plaja,
La Historia de España en sus documentos 192.or.). Urte bereko *Re-
lación y traslado* satirikoan: «...nuestras fortificaciones [frantsesen-
ak], defendidas por mar y tierra de veinte y dos mil infantes, y
dos mil cauallos» (451.or.). 1872an Bernal O'Reillyk —Moreten gi-
sara— bi kopuru ezberdin ematen ditu; lehendabizikoan (43.or.)
ohi duenez Moreten datuez baliatzen den arren, bigarrenean (83.or.)
zehatzago hau dakar: «el campo del de Condé se componía de
veinticinco regimientos de infantería, algunos de mil plazas, los
más de novecientas; aguadores, lefieros y artilleros; y ocho corne-
tas de buena caballería, esperándose de un momento a otro la
llegada de fuerzas más numerosas». Honek jarraipena aurkituko
du, handixeagoturik, Conde de Llobregatengan (1930): «Compo-
ñían este ejército 25 regimientos de Infantería de más de mil pla-
zas cada uno, 8 cornetas de Caballería y poderosa artillería» (135.or.). Halarik ere, gudu honen osperik handienerako edota, se-
guruenik, Frantziako historialariei aurre egiteko (oso adierazga-
riak dira segidan aipatuko dugun artikuluaren hasierako orri ez-
tabaidatsuak; ik. honetaz 6.§), O'Reillyren emaitza ez da hartan
geldituko: «Fuenterrabía» artikuluan (195-196.or.) kopurua neurri-
gabe puztuko du, dioenez, Burdeosko Arzobispoaren eta Richelieu
kardinalaren paperak erabiliaz: «el ejército sitiador se componía
de 18.000 hombres de infantería, artillería e ingenieros, y 2.000 ca-
ballos: y con los socorros que la ciudad de Bayona no cesaba de
enviar, cediendo á las instancias apremiantes del Príncipe de Con-
dè, se puede estimar en veintiocho á treinta mil hombres, forman-
do cinco cuerpos de tropas aguerridas». Frantsesen harmada nola
edo hala gehitzeko saio honek, ordea, ez dirudi oihartzunik erdietsi
duenik; oraingo historia batean —1971eko Claveriaren *Historia
del Reino de Navarra*—, adibidez, urak bere bidean ditugu: «El
príncipe de Condè, al frente de veinte mil infantes y dos mil ca-
ballos se presentó delante de la plaza de Fuenterrabía...» (378.or.).

6: Eta ia lortu ere zuten Iztuetak —Palafoxen hitzak itzu-
liaiz (406-407.or.)— dioskunez: «Egun negargarri oetan Plaza bo-
ta izan cituen etsaiac amaica milla cañonazo ta gueiago, eta lau-
reun bomba; airatu cituen sei mina, eta zazpigarrena ere presta-

tu ceban su ematea beste eguinquizunic etzebala» (361.or.). Era berean, Moretek honela deskribatzen du hiri askatu berria: «no se veía por todas partes sino la mayor desolación, que daba lástima; derribados todos los edificios; las calles, pues, intransitables en muchas partes con las ruinas de las casas; de modo que casi no hallaban a Fuente-rabía dentro de Fuente-rabía» (232.or.). Historialaren hitzak birlaboratuaz, Otaegi bere *Ondarribiko cherkoan EKko hitzetara honela hurbiltzen da*: «Sutunpa luze izugarrriak / Zuzen paratzen dituzte: / Iskanbill eta oju aundiaz / Gogor su egiten dute; / Oñaztariren chinpart gorriak / Dabiltzala dirudite / Erri guzia erre nairikan...» (57-63. l.).

7-8: Domingo Egia ez zen inoiz izan Hondarribiko gobernadore Erregearen aginduz —behar zen bezala (ik. hitzaurreko 6. lerrroari egin oharra) hesildia igaro arte, bederen (ik. honi buruz 129-136. lerroei buruzko oharra). Izan ere, Maese de Campo Christobal Mexia Bocanegraren faltan, Egia ordekotzat zegoen, hesildiaren lehendabiziko egunetan erantzun-beharra bere eskuetan ero riaz (Cf. Moret 35.or.); alabaina, gertaeren berri Gortera iritsi bezain laster, Erregeak Maese de Campo Miguel Perez de Egea —«...soldado de tanto valor y opinión y tâ entendido y platico en materia de fortificaciones, y auia obrado hasta lo posible con grande esfuerço y acierto en las Islas de Santa Margarita y San Honrato...» (Palafox 137.or.; ik. Moret 42.or. eta Llobregat 140.or. ere)— berehala Hondarribira joan zedila agindu zuen «...para defenderla como Gouernador de la plaça, sino huuiesse ya entrado en ella el Maesce de Campo don Christobal Mexia Bocanegra» (Palafox 137.or.; cf. Moret 42.or.). Horrela, uztailaren hamairuan (cf. Palafox 150.or. eta Moret 55.or.), Irlandako soldadu batzu eta zenbait ofizial eta hondarribitarrekin batera, itsasotik plazan sartu zen, frantsesen goardiak txuliatuaz. Ez zuen, ordea, luzaro bere karguan irau: izan ere, abuztuaren zortzian, frantsesen kontrako ateraldi batean zihoazen soldaduei murrailetatik adore ematen ari zitzaielarik (cf. Moret 95.or.), alkabuz tiro bat jaso eta hamabi orduren buruan hil zen. Honako hitz hauekin ixten du Palafoxek Egeari Hondarribiko hesildian zegokion kapitulua: «Era don Miguel Perez de Egea natural de Cerdeña, Cauallero de valor y experiencia y en el arte militar muy versado, platico en materia de fortificaciones, animoso y ardiente, y de quien se dice que defendio la plaça con su vida y la aseguró con su muerte, porque las fortificaciones que dexó dispuestas y la forma que dio a la defensa fue el reparo mayor deste sitio...» (191.or.). Moretek, bere alde-

tik, Palafoxen antzerako laudorio hitzei hurrengo komentario gogorrera eransten die: «Culpáronle algunos de temerario, otros lo calificaban de valiente, ordinario error de los que tanta alabanza dan a los viciosos extremos de la virtud, como a ella misma» (97.or.). Beraz, berriro dugu Egia Hondarribiko gobernadore, oraingoan hesialdiak iraun zuen arte.

Era berean, Egiaren adiskide eta laguntzaile garrantzitsu izan zen Butron alkatea ere erabat ezabatuta dago *EKn* (Honi buruz ik. 179-180. lerroei egin oharra). Gorazarre kantua izaki, Egiaren balioa nolabait txiki edo estal dezaketen guztien izenak albora uzten dira, horrela heroi bizkaitarra historiaren aurrean *bakarrik* utziaz. Dena den, *Bertso Bizkaitarretan* salatzen denez: «A! Aztu yaçu Guipuzcoa, / Domingo de Eguia» (25.1.): Egia kasik desager-tuko da geroagoko kontaketetan (ik., adibidez, S. Múgica *Provincia de Guipúzcoa* 752.or.); berak lortutako sariak —*Breve y ajustada relación*ko «...al Gobernador...» (ik. 129-136. lerroei buruzko oharra) inpertsonalaz gain— bakarrik Labayuren liburuan («Por tratarse de un hijo de Bizcaya...» 275-276.or.) aipatzen dira eta ez dago —dakidalarik— hesialdiaren ondoko aipamenik, ez bada Teófilo Guiard Larrauriaren *Historia de Bilbaoko txikia* (ik. 129-136. le-roen oharrean).

9: Cf. Labayru: «el bravo bilbaíno Domingo de Eguia» (273.or.), «A este bilbaíno...» (276.or.); Palafox: «...el Capitán Domingo de Eguia, natural de Bilbao» (125.or.) eta, zehatzago, Moret: «...el Capitán Domingo de Eguia, natural del Lugar de Déustua en la Vizcaya» (35.or. ik. O'Reilly 74.or. ere).

Cf., bestalde, *CPV* 777: «Madrilen dago bataiatua / doai aun-dikin yantzia / ta San Andresko parrokian du / zeruetako eren-tzia». (*San Isidroren bizitza*. Bidenabar, balada arrunt honetan ere —beste xede batekin, halaz ere— Moises aipatzen da: «Isidro orrek Moisesen gisa / jo du akulluz arria...»).

11: *Eesse* orijinalean, errataz (cf. *essera* 108. l.). Errata bera, oraingoan eskuizkribu batean, Añibarroren *Geroko Geron: Eeiztarriac* (316.or.).

Ezin izan dut honi buruzko datu zuzenik aurkitu; haatik, La-bayruk aipatutako «el diputado general D. Domingo Lopez de Eguia» (273.or.; erreferentzia 1638ko abuztuaren hiruan datatua da) delakoarekin zerikusiren bat izan zezakeen; gogora bedi gure bertso paperekoi hamalaudunaren sinaduran —beste inon ez bezala—

Domingo Lopez de Hegvia dela. Bestalde, badugu Durangoko Egia-tar militar ezagunen leinua, zeinaren semerik ospetsuena 1830. urtean Conde de Casa-Eguía izendatua izan bait zen (cf. C. Villavaso, *Historia de Durango*, Biblioteca Vascongada Villar, Bilbo 1968, 138-141.or.).

Formularako cf. «En Cordoba, Ciudad Noble, / nació de familia hidalga...» (*Don Francisco de León y Mesa, apud Caro Baroja, Romances de ciego* 128.or.) eta «En la ciudad de Valencia / nació de muy nobles padres...» (*Doña Josefa Ramírez, apud Caro Baroja*, op. cit., 134.or.).

13-15: Cf. Moret: «En medio de la disposición de las armas dieron la primera atención a la Religión: estando ya el enemigo cerca, desde una proxima ermita que llaman de Guadalupe trasladaron a toda prisa a dentro del Lugar la Imagen de nuestra Señora y en presencia de gran concurso delante del Altar hizo la Ciudad voto de que si saliesen con victoria, guardarían siempre fiesta aquel día y lo consagrarian al Culto de Nuestra Señora; y que la víspera se establecería ayuno; y que apenas cesasse el embarazo por razón del enemigo, la volverían a su Ermita con solemne procesión: ni les salió en vano el implorar el patrocinio de los Santos: y quan hermanado con la devoción lo acreditó el haber vencido al Enemigo con grande estrago víspera de la Natividad de Nuestra Señora» (36.or.) eta «Al otro día [hesaldiaren 64.ean] imploróse al Cielo el socorro, porque sin él nada valen los designios de los hombres; y así se publicó Procesión de Rogativa con la Imagen de Nuestra Señora, a quien asistió el concurso que pudo permitir la consternación en que el enemigo los tenía» (169.or.; ik. 203.or. eta Llobregat 138.or. ere).

16: *gorde pazcoac*: Orijinalean batera agertzen da; ez da, ordea, sasi-hitz honen alerik agertzen arakatu ditudan gaztelerazketa euskal hiztegietan; beraz, *gorde* aditza dela pentsatzeari zuzena deritzot.

19: Cf. Palafox: «...el Capitan Domingo de Eguia, a quien Dios tenía reservada su defensa...» (192.or.); era beretsuan O'Reilly: «Dios le destinaba para alcanzar la gloria de defender Fuenterribia» (119.or.); itxura klasikoagoan, Moret: «...aquel mismo para quien tenía la fortuna reservada la gloria de la defensa de Fuente-rabía» (73.or.). Formularako, cf. «parece en tus mañas que

el criador te guía» (*Libro de Aleixandre* 235d), eta hurbilago orain-dik «¿Y quién resistirá vuestras espadas, / por la divina mano gobernadas?» (*La Araucana* XXIV, 16,7-8).

21-24: Gorago esan bezala, uztailaren hamairuan Perez de Egea gobernadore berria Hondarribian zen. Honen etorrera hesituen artean gogo onez hartua izan bazen ere, Egiarekin istiluak sortu omen ziren, Moretek dioenez: «sólo fue desapacible para Eguia, a quien le parecía que se usurpaba la gloria de defender el Sitio. Ni alcanzó Perez a suavizarlo, siendo así, que de intento se anticipó a decirle que venía como un compañero para su consejo, y no como Superior; contemplando Eguía que esto era no sólo haberlo pospuesto en la elección, sino despojarlo de la posesión. Y sin embargo de ser un hombre nada doblado y de una bizarría militar, nada hecho a disimular y ocultar en su ánimo las ofensas, enseñó no obstante en el semblante el sentimiento, mientras vivió Perez, huyendo quanto le fue posible de su presencia» (55.or.). Palafoxek ez du honen berririk ematen; esanguratsua izan daiteke, alabaina, bi historialoriok bat etortzea Egiaren portadera goraipatzean: «...todo el tiépo que viuio el Maesse de Campo don Miguel Perez de Egea acudio Eguia a seruir el puesto de Capitan con la pütualidad que antes auia seruido el de Gouernador, mostrando quâ igualmente sabia obedecer y mandar» (Palafox, 151.or.), «Pero es laudable la templanza de este hombre en su resentimiento, porque sin la menor réplica se apartó del Gobierno y ni por envidia ni por competencia habló jamás palabra en detrimento del honor de su competidor (...). De allí en adelante, abrazando los consejos más sanos y haciéndose cargo que tanta alabanza merece el que obedece con modestia como el que manda con acierto (...) estubo muy lejos Eguía de aquella peste de competencias que en nuestro tiempo han atrasado más de una vez los progresos de España, habiendo sido en verdad, si no por el entero disimulo de su sentimiento, a lo menos por su templanza, merecedor de que recayesse al cabo en él la gloria de que Fuente-rabia se defendiesse» (Moret, 55-56.or.). Esanguratsua izan daitekela diot zeren eta Palafoxek —Erregearen aginduz idazten duenez gero— ezin bait zen honelako liskarrez gehiegi mintzatu (ik. Palafoxen jarrerari buruz 7.2.1.8). Bestalde, O'Reillyk ere —Moreten liburua iturri izanik— ematen du istilu honen kontu; aski leunduta, ordea, Egaren adiskidetzeko saioak aipatu ondoren, honela bait dio: «Eguia, sin embargo de reconocer agradecido tanta caballerosidad y tal nobleza, conservó siempre un profundo sentimiento; y evitando en-

contrarse con Egea, no desplegó los lábios para discutir ninguna de sus disposiciones, obedeciendo ciegamente y con modestia en cuanto se le comunicaba la menor de sus órdenes» (98.or.). Azken buruan, historialari guztiotan bi gobernadoreak errurik gabe —heroi garbien gisara— aurkezteko gogoa nabarmena da.

25-26: Alzolak erabilitako hitzak asmatzea gehienetan ezinezkoa iruditu arren, segidan doazen oharretan testuaren edukirantz hurbil gaitzaketen zenbait hipotesi botako dira datu historikoetan oinarriturik. Nire aburuz, moztu izan diren 25-48. lerroak hiru zatitan bana daitezke: lehendabizikoan (25-34. 1. edo) hesituen egoera deskribatuko litzateke; bigarrenean (35-41) hesituen portaerari buruzko Alzolareneko iruzkinak eta frantsesen haserrea adieraziko lirateke; azkenik, hirugarrenean, aipamen klasiko luze bat erantsiko litzateke (42-46). Azken bi lerroak (47-48) albo batera uzten ditut zeren eta, ziur aski, aurrekoekin baino atzokoekin lotuago bait daude.

Lehendabiziko bi lerro hauek (25-26) ilun xamar gertatzen dira; haistik, hurrengo lerroen gaia kontutan hartuaz (ik. oharra), hesituek burututako (*executadu*) ekintzaren bati buruz onduak direla pentsa daiteke: defentsaren prestaera, frantsesen kontrako ateraldiak, ... Testuinguru honetan *traça* «el modo, apariencia, ó figura de alguna cosa» (*Dicc. Aut. s.v. traza*) genuke.

27: *Bagaric* ia zalantzarik gabekoa iruditzen zait testuinguruaren aldetik; hipotesi honi are indar gehiago ematen dio EKn horren erregularra den metrikari egokitzeak: *bagaricek* hemistikioa betetzeko behar ziren hiru silabak eskeintzen ditu eta, bestalde, forma hori da, hain zuzen, *gabek* testu honetan duen aldaera bakarra (ik. 49, 74 eta 111. 1.).

Edukiaz, cf. Moret: «de todos estos sólo habían quedado quattrocientos, *mal-parados por los desvelos* [nik azpimarratua], flaqueza é inaguantable trabajo de sesenta y nueve días» (195.or.), «Aquella noche pasaron los sitiados pendientes sus ánimos entre el miedo y la esperanza, aguardando tanto como el día...» (177.or.) eta O'Reilly: «...solo eran ya cuatrocientos, malparados en sus arneses, flacos y extenuados de tanto desvelo y tan misera comida, y aunque levemente heridos la mayor parte, luchando sin cesar durante sesenta y nueve días continuos» (250.or.).

28: *ilibianda*: hapax ulertzinezkoa, irakurketa mantendu behar baldin bada, bederen; bururatzen zaidan aterabide bakarra

lectio facilior (ibili an da) da. Halere, ez diot lerroari esanahirik antzematen.

29: *Onça*: «Peso y medida (...). En castellano repartimos la libra en dieziseis onças, aunque los antiguos la repartían en doce, y oy día es la libra de más y menos onças» (Covarrubias, s.v.).

Beraz, neurri bat izanik, lerroak bi irakurketa zilegi dituela deritzot: *sei onça viz[iteco...]*, janariaz ari bada; *sei onça viz[tuteco...]*, polboraz balitz. Gertaerei dagokienez, biek egiantza dute: «Llevaban gastados novecientos barriles de pólvora, que cada uno coge cien libras: no quedaban ya más que quarenta y cinco, habiéndose en cada asalto de los días antecedentes gastado treinta; lo que hacía ver que los cuarenta y cinco no bastarían si nuevamente se intentase el asalto por varias partes» (Moret, 195.or.) eta geroxeago: «Desde que empezó el Sitio, en atención a la escasez se había ido dando la comida con tanta parsimonia que al instante se quejaron los Irlandeses» (*ibid.*). Bi proposamenak berdin egokitzen zaizkio metrikari; dena den, janariaren hipotesia hobetzera makurtuko nintzateke hurrengo lerroan edariaz mintzatzen bait da.

30: cf. Moret: «Habíalos afligido también la sed tanto, que se vieron precisados a cerrar los pozos, aunque ya se remedió este trabajo por las últimas aguas» (195.or.; ik. 146.or. ere) eta Palafox: «...llegó a faltar el agua demanera, que beuían assí como comenzó a llouer de la que hallauan en los hoyos que hizieron en la plaça las bombas del enemigo, y con la que estos días cayó se llenaron las cisternas, y se refrescó y alentó mucho la gente» (353.or.).

31: *Cegai[ti]*: cf. *cegaiti* 21, 61, 73, 163, 174, 204 eta 211. I. Markatzeko da agerraldi guzietan kausala —eta ez galderezkoa— dela.

32: cf. 6. lerroari egin oharra; honi erants dakizkioke hurrengo pasarte hauek: «Trajo el francés gran cantidad de bombas de fuego, nueva y diabólica invención, que arrojó a los cercados por seis días continuos, derribándoles muchas casas, y obligándoles a vivir en algunas cuevas que hicieron en la tierra» (*Breve y ajustada relación* 192-193.or.) eta «Bien notorio era que Fuente-rabía había sido azotada de más de diez y seis mil balas de artillería, de modo que en algunos pasages ya no estaba más alta la muralla, que lo que tenía de profundidad el foso. Habíanse tirado á dentro del Lugar quattrocientas sesenta y tres bombas, que ape-

nas dejarían intacta alguna casa, y las más absolutamente quedaban arruinadas. El muy fuerte baluarte de la Reyna estaba desbaratado al rigor de una mina, de modo que á pie llano podía meterse por él el enemigo. El de Leyva se sabía que habían de volarlo luego» (Moret, 195-196.or.). Bai bonbei eta baita minei legokieke, beraz.

33-34: Aurreko lerroetan hesituen egoera larria aurkeztuez gero, bi hauetan gaitzen aurrean erakutsi duten sendotasuna eta pairamendua goraipatuaz testu honen bigarren zatiari hasiera ematen zaio. Cf. Moret —era berean sofritu gaitzen deskribapena bukatzean—: «pero por eso con mucha serenidad aguardaban al enemigo, que disponía un asalto general, y con él la última ruina» (196.or.) eta Palafox: «...quedaron los de la Plaça amenazados, con el mismo valor y resolución que se pudieran hallar socorridos».

35: cf. 188. l.: «Lurrean Victoria, ceruan gloria / yrabaci doçu...».

36-38: *besteay bereda*: Orijinalak *besteay beroda* dio.

Lerro hauek loturik egoteari daitekeena deritzot: gonbara bitez Palafoxen hurrengo irazkinarekin: «...dando exemplo vtilissimo a la disciplina militar destos tiépos, que no cumplen los Gouernadores de semejantes puestos con hazer lo bastante, si no llegâ a hazer lo possible. Pues si el Gouernador Domingo de Eguia la huuiera rendido a quinze ó veinte dias antes, pareciera al mundo que auia cumplido bastantíssimamente y le juzgaran por digno de premio, y por no auerse contentado sino con hazer el vltimo esfuerço, se reduxo a términos la facción que llegó el dia en que vencido el enemigo con tan gloriosa vitoria, fue socorrida la Plaça» (407.or.).

Castillau: cf. *Dicc.Aut.* s.v. *castellano*: «Alcaide ó Gobernador que manda algun castillo». Erabilera honen gaztelerazk adibide bat Palafoxek berak ematen digu: «...don Felipe de Silua, Castellano y Gouernador de Amberes...» (91.or.).

39-41: cf. Moret: «Veían que con el estrago hecho en los Franceses en los dos días [murrailen barnean borrokatu zutenekoeitan] no tanto habían quedado sus ánimos amortiguados, quanto encendidos: que cerrada ya la puerta á una honrosa capitulación, lo menos sería pensar del pillaje, y todo en arrasar y pasar á cuchillo, sacrificándolos á ellos víctimas de tanto Francés difun-

to (...). Notábase que, furiosos con la cólera iban, quando unos, quando otros, como remangándose a la venganza; y por todas las tiendas y quarteles traslucíase no tanto de consternación, quanto de enojo, que se concebía de resulta de comunicarse los respectivos pasajes de sus desgraciadas funciones. Y no pienses que esta alteración de los ánimos era solamente en el común de los Soldados (...): se dexaba conocer que corría lo mismo en los Principales...» (192.or.). Moreten aipamen luze honen laburpen gisa, hara hemen Otaegiren bi lerro: «Amorratuak dute gudatzen / Murrua eziñ arturik» (15-16. 1.).

France[s]: Ikusi ahal izan dudan orijinalaren fotokopian *France* —Arejitak *Franc* dakar soilik— aski ondo irakurtzen da. Beraz *France[s...]* derrigor behar dugu, nahiz eta deklinabide atzizkia ez ezagutu.

42-46: Moretek ere —behin bederen— Julio Cesar aipatzen du: «que por semejante ignorancia quasi fue desbaratado el Cesar como todas sus tropas en Durazo, quando atacó los Reales de Pompeyo, siendo assí que lo hizo de día» (199.or.). Haatik, Moreten aipua Almirantearen Kontseilu Nagusian daukaten eztabaidaren iruzkina da, eta ez dirudi inolaz ere EKKo pasarte honi dagokionik; beste zerbait izan behar du, beraz. Poeman bertan aztarna txiki bat aurki daiteke: 63-66. lerroetako aipu biblikoan, hain zuzen: «Bederaci garren Capituluan» agertzen bait da, eskuartean dugun honetan ere liburuaren erreferentzia ematen zaigula suposa dezakegu. Alde honetatik, salbatu diren hitz guztiak nola edo hala batuaz, *Julio Cesaren liburu baten bigarren kapituluari* dagokiola pentsa daiteke; gehiegi suposatzea izan daitekeen arren, hauxe da oraingoz behintzat jarraitu dudan bidea: jakina denez, *De Bello Gallico*ko bigarren liburua hesialdiz beterik agertzen zaigu (Bibracte (VI-VII), Novo (XII), etab.), baina ez dugu, ordea, gure testuarekin zerikusi handirik duenik aurkitu. *De Bello Civilin*, aldiz, bigarren liburua ia osorik Marsiliako hesialdiari dagokio; honetan badira Hondarribikoaren antza daukaten zenbait xehetasun (hi-riaren egoera: «Massilia enim fere ex tribus oppidi partibus mari alluitur; reliqua quarta est, quae aditum habeat ab terra» (I); hesituen ateraldiak: «Crebrae etiam per Albicos eruptiones fiebant ex oppido ignesque aggeri et turribus inferebantur» (II); itsasotik (II), zein lurretik hesitua (III)...), baina hau balitz ere EKn isladatua, ez dakigu zehazki zertara ekarria den.

Badago, ordea, beste posibilitate bat: 42-44. lerroak aipu klasikoa izanik, 45-48.ek beste zati bat irekiko lukete. Honela, *capi-*

*tu... hau *capitulacino zein *capituladu genuke* (hontaz ik. 175-178. lerroei egin oharra) eta lerrook 49-50.ekin loturik egongo lirateke.

47-48: *Liburu b[at...]*: Arejitak soilik *liburu*. Orijinalaren fotokopian *b* argi ikusten da; eraiketa ez da segurua (*b[arri...]* izan daiteke, adibidez) baina egiantza handikoa.

France[s...]: Arejitak *Franc* dakar; haatik —41.lerroan beza-la— ikusi ahal izan dudan orijinalaren fotokopian hurrengo letra-ren zatitxo bat ere (oraingoan handixeago) ikusten da; testuinguru honetan soilik bi posibilitate —*Francia-* ala *Frances-*, alegia— daudela, *Frances[...]* irakurri behar dela uste dut, zeren eta dela-ko zatitxo horrek borobil antza bait du.

Bi lerroon esanahirik ezin izan dut antzeman; alabaina, jos-kerak hurrengo biekin (49-50) komunztadura eskatzen du.

49: *Cheldorf*: Arejitak Azkueren hiztegiko «*txeldor*, orzuelo» badakar ere (aip. art. 160.or.) gure esaldiari hobeto datorkio, J. A. Lakarrak esaten didanez, Larramendiren eranskinean agertzen den «carga, *seldorra*». Dakidalarik, hau dugu ezagunago den *señor* (ik. I. Sarasola, «Contribución...» 156-158.or.) hitzaren aldaera ho-nen agerraldi bakarra testu-hitz bezala. Cf. Azkue s.v. *seldor*.

Farfullete: cf. *Dicc.Aut.* s.v. *farfullar*: «Hablar muy deprisa y atropelladamente. Por analogía, vale hacer alguna cosa con tropelía y confusión», eta, batez ere, Larramendiren *Diccionario Tri-lingüístico* «Neciar, decir ncedades, *barbullatu*, *barbullac* esan».

Aurreko bi lerroen edukia ezagutu ezean, ez da erraz antzematen hau eta hurrengoa zertara datozen. Halaz ere, lerro hone-tarako, cf. Moret: «De aquí pasaron a decirse de ambas partes (como dicen) las Pasquas y gritarse las faltas y tachas de cada nación. Llamaban los Franceses a los nuestros *Locos*, neciamente obstinados, inflados de una vana esperanza y, en suma, que pre-sto perecerían. Los nuestros les gritaban *cobardes* y *Topos* y que no hacían cosa alguna que no fuese a lo ratero, que este era el lance de verse su valor, que bien patentes estaban las brechas; que las asaltassen, cumpliendo con la obligación de buenos Soldados» (109.or.; ik. 146-147.or. ere).

50: *eguicori*, eta ez, beste guztietañ bezala, *Hegui-*; cf. 7, 54, 121, 125, 152, 189. Behar bada 52. lerroko etimologi jokoa nabar-menago egiteko.

51: Etimologi jokoez gehiago mintzatuko gara *EK* eta bertso-paperez argitaratzeko asmoa daukadan artikuluan. Dena dela, gonbaratu gure testu hau eta Hondarribikoari buruzko gazteleraako plegu honetakoa: «El príncipe de Condé /.../ se vino a Fuente-Rabía / a quien se le volvió rabia / un Domingo de Pasción / para nosotros de Pascua» (1638ko plegua; *apud* García de Enterriá, 175.or.). Bestalde, honelakoak ez dira ezezagunak euskaraz ere: gogora *Bertso bizkaitarretako* 8. bertsoa: «Ydiacaizco semea, / Ynsaustico jabea, / zeure pausoac estitues / estimadu sobrean: / insaurrac dacusela / tratamentu deunguea / emon oy dau frutea».

52: *coronica garri*: Ez dut hitz honen beste agerraldirik aurkitu. Bokale epentetikoa duen formaren erabilera oso arrunta zen garai hartako gazteleraez: cf. *Dicc Aut* s.v. *Chronica*: «...y aunque muchos escriben Corónica, es error conocido» eta s.v. *Chronista*: «Comunmente se dice Coronista, pero es corrupción».

53: *chacurren oguia*: cf. *Dicc Aut* s.v. *Pan de perro*: «Metáforicamente vale daño ú castigo que se hace ú dá á alguno. Es tomada la alusión de que en el pan suelen darles á los perros lo que llaman zarazas, para matarlos».

Nahiz eta Arejitak ez markatu, 53-60. **lerroetako aditzak zu** pluralekoak direla (cf. 56.eko *gustioc*) argi dago. Ik. testu honetako adibide gehiagotarako 4. §.

55: Anitz arazo ekartzen dizkigu lerro honek; handiena —eta beste guztien iturria— *susperroa* hapax ulergaitzean datzana. Arejitak honela dio: «'susperroa' dala-ta, ez dakit izen ala izen lagun dan. Azkuek «suspar» (AN-b) 'fogoso, ardiente, vivo' itzultzen dau, baina nafar hitz horrek ez dauka gure hitzagaz zerikusirik» (aip. art. 161.or.). -o horren jatorria azaldu ezin badugu ere, egokiago dirudi, zalantzak gabe, Larramendik dakarren «Fiero, *super*, *susperren* aldaera disimilatua.

Martitzen: *susperroren* esanahia gutxi gorabehera mugatuez gero, konpli da *Martitzen* honena azal dezadan. Arejitak honako bi proposamen hauek egiten ditu: “Badirudi «martitz» hitzak ‘guadaroste’ edo ‘harmada’ esangurea dauala. Baina izan daike ‘astearte’ esanahia ere” (aip. art. 161.or.). Ez du lehendabizikoaren lekukorik ematen; asmaketa hutsa ez bada, *martizdiz* (cf. Aizkibel, MARTITZ, soldado; MARTITZ-DIA, ejército, gran copia de gente de guerra con los pertrechos correspondientes”) ari dela pentsa daiteke. Bigarre-

nak, aldiz, nahiko egokia dirudi. Baliteke, dena den, beste hirugaren bat egotea, hots «Marte, gerlaren Jainko»; honela balitz, «la fiera de Marte» (-en genitivo singularra, cf. testuan bertan *Almiranten misericordia* 59, *Iai[n]coen Fedea* 71, *Erregen Magestaden* 129, 149, *Vrrien çazpigarren* 198, etab.) genuke. Honen alde dator delako esaera honen formulatasuna Espainiako epika guztian, bederen; lekukotzat hartu dugun *La Araucana* (hiru zatitan —1569, 1578 eta 1589— agertua) poema epikoan kontaezinak dira esaeraen agerraldiak: «Cese el furor del fiero Marte airado» (XV, 56,1), «Mas si el furor de Marte y la braveza» (XVIII, 64,1), «la pluma entregaré al furor de Marte» (I, 5,6) eta baliokidea den *izen + adjetivo* egiturarenak: «que la temeridad del fiero Marte» (XI, 73,8), «que andaba más sangriento el fiero Marte» (XV, 32,8), «y a despecho y pesar del fiero Marte» (XVIII, 14,5), «allá en su quinto trono al fiero Marte» (XX, 7,6), «El bravo ginovés, que al fiero Marte / pensara desmembrar...» (XXV, 56,1). Antzerako emaitzak aurkituko genitzke, seguru aski, garai hartako poema epiko guztia arakatuez gero (adibidez, *Bernardoko* (1624) lehendabiziko liburuan jadanik «del furor de Marte» (I, 7,1) eta «de un feroz Marte el voraz fuego» (I, 12,4) agertzen dira). Haatik, badira bi arrazoi behintzat azalpen hau gutxienez zalantzan jartzeko: lehendabizikoa da —Mitxelenak ohartu zidanez— *Martitz* jainko izen bezala ez dugula askoza beranduago arte aurkitzen. Bidenabar, honek ere arazo interesgarri bat aurkezten du: gorago aipatu hitzetan Aizkibelek Astarloaren *Urteco Domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuacen* bigarren liburukiko (1818) erreferentzia ematen du; han (III. or.). «*Martitzdi* edo *Egercitungabetaco*»ri egiten dion oharrean bere anaiaren *Apología de la Lengua Vascongada* iturritzat jotzen du. Alabaina, azken hetan (254.or.) «*Marti* significa guerrero, ó mejor desafiador o probocativo. Querrán que esta venga de *Marte* Dios de la gentilidad, y no lo extrañaré, porque ningún Bascongado ha consultado su lengua hasta ahora debidamente, y menos las costumbres con esta voz» esaten den arren, ez da inondik ere *Martitzdi* eta *Martitz* horien iturburua izan behar duen *martitzten* bizkaierazko hitz ezaguna agertzen; are gehiago, dakidalarik, Pablo Pedro Astarloaren lanetan ez da bi hitzon asmaketaren berririk ematen. Suposa dezakegu, beraz, *Urteco domecaren* egilea —apologistaren hitzak aurrerago eramanaz— izan dela *Martitzdi* eta *Martitzten* asmatzailea eta, azken finean, *martitzenetik Martitz* —hau da, «Marte»— atera zuen lehendabizikoa?

Dagokigun gaira bihurtuaz, bigarren arrazoia Palafoxek eskeintzen digu: bere *Sitio y socorro*, Hondarribiko gertaerekin batera,

1638. urte hartan Espainiako armek izandako beste istiluen berri ematen digu; eta Flandesko gerlari buruz aritzen denean —iturri zehatzagorik izanik edo— beti ematen dituen fetxei asteko eguna eransten die: «Salieron de Berceli en conformidad destos capítulos, Martes seis de Julio...» (229.or.), «partio su Alteza Viernes veinte de Agosto» (288.or.), «Miercoles veinte y cinco passó su Alteza...» (290.or.), etab. Guk behar dugunetik horren hurbil dauden data hauek hartu eta kalkulu txiki bat eginaz, irailaren zazpi hori *asteartea* izan zela egiaztatu dut. Beraz, beste berririk ezagutzen ez den bitartean, *Martígen susperroa* «astearte izugarria» edo antzerrako zerbaite dela proposatu behar dut. Dena den, etimologi jokoak egiteko Alzolarene iaiotasuna kontutan harturik, hemen ere (cf. 51-52. 1.) bi esanahiez —«astearte» eta «Marte», alegia— baliatu dela esateari ez deritzot erabat oker.

57: *chacurren amessagaz*: cf. Arejita: «Gaur berton ere *txakur-amesak* esaten da, beteko ez diran edo bete-ezineko diran asmoak adierazteko» (161.or.). Badirudi, dena den, esaera hau nonbait gazteleratik mailebatua dugula: cf. *Dicc Aut s.v. sueño*: «Tornarse o volverse el *sueño* del perro. Phrase con que se da á entender haberse descompuesto el logro de alguna pretensión ó utilidad, el que se tenía yá consentido, según los medios estaban puestos». Bertan are adierazgarriago den Covarrubiasen *soñar* sarrerara bidaltzen gaituzte: «Tornósele el sueño del perro; soñava un perro que estaba comiendo un pedazo de carne, y dava muchas dentelladas y algunos aullidos sordos de contento; el amo, viéndole desta manera, tomó el palo y dióle *muchos palos* [cf. testuan *paluac asco*], hasta que despertó y se halló en blanco y apaleado». Espainiako Urrezko Mendean usu agertzen dira tradizionko ipuen era honetako erreferentziak; Chevalierrek dioenez: «Los relatos folklóricos que conseguimos reunir espigando en los textos son casi todos de carácter familiar y jocoso. Pertenecen a la categoría de los *Schwänke*, no a la de los *Märchen*. Dadas estas circunstancias, no hemos de extrañar el que muchos de ellos hayan llegado hasta nosotros bajo formas de puros esquemas, y en ocasiones en la forma residual de unas frases alusivas cuyo sentido hemos de descifrar» (*Folklore y literatura*, 30.or.). Aipamen arin —eta batzuetan ilun— hauek literatur lanetan ezeze, errefrau eta esaera bildumetan ere aurkitzen dira. Azken hauetan, esaldia atera eta «atsotitztua» izan zen ipuia azalpen gisa eman ohi da, gure kasuan bezala, nahiz eta —folkloristen txarrerako— beti ez izan honela: «El que apuntaba la frase conocía su significación, y no siempre

se le ocurrió que alguien lo pudiera ignorar» (Ibid.). Ez dirudi beharrezko, ordea, esaerakin batera honen iturria eta zentzu emai-lea den ipuia ere euskaraz ezaguna izan dela suposatzea.

59-62: *Gastelaco Almiranten*: Arej. —errataz, dudarik gabe— *Almirenten*: orijinaleko *-a-* argia da. Almiranteaz, cf. Moret: «Don Juan Alfonso Enrico de Cabrera, General de Marina en el Reyno de Castilla (intitúlase Almirante; y esto no tanto es un empleo como un título honorífico, el cual hacía mucho tiempo que sin intermisión alguna lo mantenía esta familia, por gratitud de los Reyes a los grandes servicios que había hecho a los anteriores) fue años antes nombrado Capitán General de Castilla la Vieja y por eso le pertenecía la Guipúzcoa; porque, aunque ésta se solía sujetar a los Virreyes de Navarra, pero esto era siempre que no hubiese Capitán General de Castilla» (41.or.). Palafoxek honako goraipamen hauek eskeintzen dizkio: «Boluieron a darse nuevas ordenes al Almirante de Castilla q̄ partiesse a socorrer la plaça, y echar al enemigo del Reino, pues su valor, sangre, estado, y séquito, y la fineza y amor al seruicio del Rey, eran circunstancias tâ relevantes para assegurar la felicidad del suceso» (139.or.).

andissuen: Hitz honen esanahia aski garbia bada ere, ezin dut, ordea, betetzen duen funtzioa zein den baieztago: alde batetik, *erregueren* adjetiboa izan daiteke, zeren eta Arejitak esan bezala: «Testu honetan behin eta berriro dakusgu *-en* genitibo mugatu singularrean» (159.or.). Honen alde dator, gainera, Lhandek s.v. *handitsu* dakarren «assez grand». Bestalde, baliteke —euskal hitz elkarketaren ohizko sistemaren arabera— *seme alaben* edo *neba arreben* taiuko egitura bat izatea. Hain zuzen ere, baditugu Nafarroako Erdiaroko dokumentuetan *abarpa andizuren* deritzaien handikiak, zeintzuei buruz Campionek honela bait dio: «Sin duda, los andi zurenas, que también otros documentos nombran, eran alguna clase o categoría especial de los infanzones de abarca, o acaso nombre basko de los *infanzones de abarca*» (*Euskaria-na* V 69.or.; 1279ko dok.). Hau honela balitz, *handitsu* «infanzón» edo, gutxienez, «handiki moeta bat» —testuinguru honetan «noble» oro har, seguruenik— genuke. Bidenabar, *Refranes y Sentenciaseko andizurenene* (507: «*Dollorrac pere andizuren ospea...* Aû el mas ruyn fama de principal...» batez ere, zeren ez dihoakion honen ondo —esanahiaren aldetik bederen— 392.eko «*Emaytea andizuren / arçaytea mingarri*. El dar es honor, / y el tomar causa dolor»; halere, aldaketa semantiko erraz baten bidez azal daiteke) zerikusi zuzena daukala pentsatzeari oso bidezko deritzot.

Goraipamen formuletarako, cf. «ilustre caudillo, / príncipe de nombradía, / la honra del rey Felipe, / y de España norte y guía» (*La Gran Victoria que tuvo Don Juan de Austria..., apud Caro Barroja, Romances de ciego*, 193.or.) eta «Duque de Alva generoso [gogora 119. lerroko *Gastelaco Almirante Generoso*], / Columna de aquestos Reynos, / espejo de la verdad, / y de la lealtad exemplo» (*Testamento del señor don Juan de Austria, apud Caro Barroja, aip. lib. 215.or.*).

63-66: *Iaunen foruan*: hemen *foruk «lege»ren zentzu zabala* dauka (cf. *Bertso Bizkaitarretako «alan dino foruac»*, 13g); horrela, «Jaungoikoaren legearen arabera» esaera ezagunaren kidetzat jo dezakegu.

S. Mateoren hitzen erreferentzia zuzena da; gonbaratu, adibidez, Duvoisinen itzulpenarekin: «Urrikalpena nahi dut eta ez sakrifizioak» (S. Mateo IX, 13).

Beherago ikuusiko den bezala (ik. 91-99. lerroei buruzko oharra), hilen, zaurituen, gatibatuen eta ihes egin zutenen kontu zehatza eman arren, erabili iturriak ez dira barkamen eskaera honi buruz, ez eta Almirantearen amore emateari buruz mintzatzen. Alabaina, zeharka bada ere, Almiranteak frantses askoren bizitza salbatzen du garaipena hain azkarra izan zitekeela ez konturatuz: cf. Palafox: «La otra parte del exercito Frances se retiró por los Diques al calor de los quartales q̄ tenian en Mendelo y Irún, y la misma noche a Francia por el passo de Beovia (...). Tienesse por cierto, q̄ si don Pedro Giron cō la gente que tenia azia los quartales de Irún, tuuiera orden de cortar a los enemigos, huiiera sido terrible la matançā, y de mucha sangre la vitoria» (403-404.or.; ik. Moret 218-219.or. ere). Iturrien arazoa oraingoz argitu gabe utziaz, badirudi EKko pasartea Almirantea goraipatzeko eta frantsesak gutxiesteko xedearekin sartua izan dela.

68: *Christiā cireanac*: Arejitak «atributo mugatu barik dabil; atributo horrek, izatasuna barik, kategoria, egoera edo antzeko zeozer markatzen dauanean: kasu honetan, gizakiari dago-kion sineskera bat. Bardin egingo genduke *fededun dana, euskaldun izatea, etxeko ala kanpoko zaitugu eta antzekoetan*» (162.or.) dio. Agian hobe legoke esatea ez duela mugatzalea birritan sartzen, guk gero eta gehiago egiten dugun moduan (cf. Mitxelena, «Miscelánea filológica vasca I» *FLV XXIX* (1978), 208.or. eta hur.). Alabaina, bada hemen garrantzizkoagorik, Arejitak ez markatu

arren: hots, *cireanac* «guztiak» esanahi zaharrarekin darabilela, oraindik *danak* ez bait zen, egun bezala, *izanen* adizkiekin sor daiteken *guztiak*en sinonimo bakarra. Gonbaratu, adibidez, Añibarren hurrengo egiturarekin: «*Niri ta guzacume dirianai* eguinico mesede neurri bagueac caitic» (*Esku-liburua*, 6.or.); gero 2.edizioan honela aldatuko zen: «*niri eta guisacume güzti guztiai...*» (10.or.). Lehenaldiko adibide bat idazle beragan: «...cirianai esan autsén ama irrituac...» *Misionari euscalduna* (eskuiz.), 368.or.

71: *Iai[n]coen fedea*: Gonbaratu 158. lerroko *ene fedearakin*. Cf. *Dicc. Aut. s.v. a fé*: «Modo adverb. para afirmar alguna cosa con ahinco o eficacia, que no llega a ser juramento, y equivale a por mi fé: y así se dice, A fé de Christiano, á fé de Caballero» eta *DRAE s.v. fede*: «Se emplea en diversas fórmulas de exclamación o de juramento: *Bai fedea, bafedea, ene fedea, ala fedea, ala ene fedea*, sí por cierto, a fe mía, etc.», Etxepareraren adibide batekin: *ala ene fedia!* («Amore gogorraren despita» 38.l.).

72: *eracussico*: Orijinalean *eracussica*: Arejitak bezala (aip. art. 163.or.) errata dela pentsatzen dut.

gañibitea: Hitz honen etorkiaz eta esanahiaz cf. Alonso Hernández, *El lenguaje de los maleantes españoles de los siglos XVI y XVII* (141.or.): «Los términos más numerosos que forman parte de este grupo [forma etimologíkona] son los derivados del francés *knîf*, «cuchillo», a través del catalán o del gascón antiguos (según Corominas), que da también derivados en varias lenguas (...). En español encontramos toda una panoplia de formas, unas bien asentadas y otras menos, que son: CANEVETE, CAÑIBETE, CAÑAVETE, GANIVETE, GAÑIVETE. La más normalizada es GANIVETE, anotada, entre otros, por Horozco, Covarrubias, Oudin, Juan de Valdés, etc. La mayor parte de las veces se emplea con el significado de «cuchillo», aunque no de grandes dimensiones, y es presentado como arma típica de pícaros o individuos apicarrados». Euskal aldaerarik ezagunena (ik. Azkue, s.v.) *ganibet(a) da*. Dena den, *EKkoa* ez da *ganibit-en* lekukotasun bakarra: *DRAn ganibit* agertzen da, Lardizabalen *Testamentuko* bi aipurekin (91 eta 192.or.). Bidenabar, aipuetan *ganibitaen* eta *ganibitan* egonik, *GANIBITA* lema behar luke izan.

74: *Yçorrabagaric*: Egun *izorraturi* ematen zaion bigarren adieratik («ondatu» alegia) nahiko hurbil dago: cf. 76 *aussi ez*

paleguie *Verbea barriz* balio berdinarekin; haatik, ez da esanahi honekin —oso berandu arte bederen— testuetan agertzen; izan ere, testu zaharretan lekukotasun urriak izateaz gain, beti —dakidalarik— «haurdun egon» adierazten du: Landucci «preñada, *yçorrea*», «preñez, *yçorraytea*», Kapanaga 113 «Elduten den emazteagana dagoanean bere costumbreacaz edo içorraric, seña bote-taco pelliburuagaz», Barrutia 55 «Yzorra sentizen dot neure espossea / aditu ezin dot niq zer dan causia»; Larramendik bakkrik «preñada muger, *izorra*» eta honetatik erakarriak dakartza; Azkuek, esanahi zahar honekin batera, bere desagerpenaren berri —Hegoaldean behintzat— ematen digu: s.v. *izorratu*: «Hoy, por lo menos en AN, B y G, disuenan estos términos [*izor*, *izorrandi*, *izorratu*], sobre todo en el último. En B y G se dicen por eufemismo SEINDUN (B), AURDUN (G, Matth. XXIV-19) en vez de IZOR (BN,L,S)». Cf. adibidez, C. Izaguirre *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate*: «*Izurramen ederra emun* = dar un castigo grande» eta «*izurrau*: a ella o a él».

78: Cf. Dicc Aut s.v. *jubón*: «En estilo jocoso vale los azotes que se dan por Justicia en las espaldas» eta bertan eransten den Quevedoren aipamena: «A este pusiera yo á la gineta sobre la mansedumbre de un jumento y vistiéndole un *jubón* al revés, se le abotonará a las espaldas con ducientos botones». Hitz jokoa oso ezaguna izan zen garai hartan, Chevalierrek *Cuentecillos tradicionales en la España del Siglo de Oro* bilduman ematen dituen «Que se ha vestido primero el jubón que la camisa» pasadizuaaren zazpi aldaerek (113-115.or.) —zazpiak literatur lanetatik edo erre-frau bildumetatik atereak— frogatzen duten bezala. Bestalde, pasadizu hau ez da ezezaguna euskal literaturan —itzulpen baten bidez bada ere—: cf. Mikoleta 39-40. I. «Auerea, lenago dacarsu jupoea alcandorea baño. Gura deustasu eguin azotaduen soria» (I. Sarasola «Contribución...» 190.or.).

Beste horrenbeste gertatzen da *aforradurekin*: cf. J. L. Alonso Hernández, *El lenguaje de los maleantes españoles de los siglos XVI y XVII: La Germanía*: «En el sentido de 'azotado' lo encontramos en un texto publicado por Juan Hidalgo al mismo tiempo que el *Vocabulario: he sido por todo el Garo / disciplinante de Penca / con cien Faxas aforrado...* (...); por influencia de FAJA, 'azote', el reo *es forrado* por fuera (los azotes, llamados también FAJAS, constituyen una especie de forro que cubre las espaldas del reo que los recibe)». Eta honela jarraitzen du: «Con un sentido semejante encontramos AFORRARSE, 'vestirse o armarse'.

Recordemos a este respecto que existen una serie de formas, JUBON y sus derivados, que aluden a los azotes que el reo recibe como si fueran vestidos que cubrieran su piel» (162.or.). J. A. Lakarrak esaten didanez, *jipoiturekin du, zalantzarik gabe, zerikusia*: cf. Azkue s.v. *jipoe*, «Chaqueta de lienzo grueso; por extensión, toda chaqueta. JIPOIA BEROTU (B,G) azotar a alguien, lit. calentarle la chaqueta» eta Aizkibel s.v. *jipoea* (*Diccionario Trilingüe referentziarekin*): «Jipón, vestidura que cubre los hombros hasta la cintura.»

Txantxetan, ohi bezala, *Relación y trasladon honela deskribatzen da frantsesen hondamendia*: «Mataron a los nuestros (los más canallas sin valor, sin honra) con los cañones de los arcabuzes, y á palos con las picas nos vareauan como si fuera tiempo de bellota» (451.or.).

79: Cf. Azkue s.v. *txil*: «palabra que, en una lucha á derribarse, dice uno de los contendientes para confesarse vencido; á la cual sigue la pregunta del vencedor: ¿BAAZ? lit.: 'ya eres' y la respuesta BANOK, 'ya lo soy' (...) TXIL EGIN, TXILAK ERAGIN, hacerle a uno darse por vencido. = Por extensión, aun se emplea en toda clase de juegos y contiendas».

80: Dendarik gabe, lerro hau aurrekoarekin doa; hots:

deraguiegun artean	{	chil erasso
		armaen indarragaz Christiau osso

83: *Cola*: Orijinalean, nahiz eta molde-tipo akastun batekin, G.; Arejitarak soilik erdiko bokalea argia ez dela dio hitzurrean (145. or.), gero pasarte honi dagokion lekuaren oharrik egin gabe. Bidetxidor antzu eta okerretarik (cf. Corominas s.v. *gola*: «'garganta, parte del cuerpo humano', es voz rara: la emplea el autor de la *Picara Justina* (1605), leonés y que gusta de emplear vocablos raros y dialectales, y figura una vez en *El Quijote*, pero formando parte de la fantástica jerga caballeresca de la Trifaldi...») ibili ondoren Jesús Antonio Cidek adierazi didan bezala zuzenkizun argi baten aurrean gaude: «Tiene que ser *cola*, y hace par con el *victor* (o *vitor*) como expresión de elogio y denuesto de origen académico-universi-

tario. Las gargantas y degüellos no tendrían ningún sentido, y la expresión «¡Victor Fulano! ¡cola Mengano!» es frecuentísima en textos del siglo XVII». Cf. *Dicc. Aut. s.v. Cola*: «Llevar la *cola* o ser *cola*: Obtener sólo el último e inferior lugar en el juicio de exámenes u oposiciones públicas, el que respecto de los demás coautores fue tenido por de inferior ingenio y doctrina: lo qual se dice comúnmente en la Universidad de Alcalá siempre que hai estos ejercicios literarios, para optar los grados de doctores de la universidad que el que sale el último en la graduación o lista que de esto se hace (que comúnmente se llama licencias) se dice que llevó la *cola*: y a imitación de esto se suele usar la misma phrase en los Estudios de Gramática con el que pierde en la composición que se encarga a todos» eta *s.v. Victor*: «La función pública en que a alguno se le aclama u aplaude alguna hazaña u acción gloriosa». Orobart Cobarruvias *s.v.*: «Llevar la *cola*, en las oposiciones de cátedras, quedar el postrero en votos». Testu bat aipatzearren, hara Francisco Ricok bere *Guzmán de Alfaracheren* edizioan (Planeta, Bartzelona 1983, 670. or.) «Don Juan de Guzmán, vitor, vitor, vitor»ri egin oharra: «*Vitor*: Viva, bravo, exclamación aprobatoria; lo contrario era *cola*» (bibliografiarekin). Ikusten denez, Alzola lizentziatuak biak lotzen eta kontrajartzen ditu lerro berean. Gure lizentziatura letragizona izaki hitzjokuetara emana zen (gogora Egia/egia, Domingo/Pazkoia) eta hemen ere ez du berarentzat oso ezagun bide ziren esaera hauek testuinguru berri batean erabiltzeko aukera galtzen, «behar» bezala espainiarren garaipena eta frantsesen ondamena adierazteko.

86-87: Beti mezprezagarri izanik norbaiten kontra bere hitzak, areago bere hizkera, erabiltzea, hemen mezprezu hori frantsesen izaerara hedatzen da 73-74. lerroetan jadanik atera den beren saldukeria berriz aipatuaz, 85. lerroak adierazten duen bezala. Bestalde, latinerazk *velis nolis* esaera ezagunaren oihartzuna dakar-kigute lerro hauek.

88: Lerro honek gogorra badirudi ere, ez da etsaiei zaien amorruaren isladapen txiki bat baino; gonbaratu, adibidez, Caro Barojak *Ensayo sobre la literatura de cordel* (289.or.) transkribatzen dituen lerro hauekin: «El quinto no matarás / de tu prójimo ninguno / los gabachos uno a uno, / matarás los que podrás». Azalpen gehiago eman nahiko nituzke EK eta bertso-paperei buruzko artikuluan.

89: *Arçobispo Burdeosco*: Cf. Llobregat: «La escuadra [francesa] cuyo objetivo era bloquear la plaza por mar, tenía por jefe al almirante Monseñor Enrique de Escobleau de Sourdís, Arzobispo de Burdeos» (135.or.), Moret: «Se ordenó y aparejó la Armada en las costas de Aquitania. Fue nombrado General de ella Enrique Sourdisio, Arzobispo de Burdeos. Ni tan solamente aquel año, sino otros muchos vió frecuentemente nuestra edad a este Ministro Purpurado de la Sagrada Orden capitanear por mar y costear las riberas de España con enemigas Esquadras» (18.or.). Palafoxen irazkina are zorrotzago da: «Y no menos es maravilloso el feroz y espíritu con que sigue Francia esta irreligiosísima empresa, pues andan embueltos los Arçobispos con los Generales, los Obispos con los ingenieros [hemen Nantesko apez-pikua (ik. 410.or.) aipatzen du], haciendo invasiones en Provincias Católicas y conduciendo a esto muchas tropas herejes» (411.or.). Bernal O'Reillyk ontzien kopuru eta nolakoaren berri ematen du: «Las fuerzas navales (...) se componían de 64 buques, de los cuales 44 eran navíos de 400 á 2.000 toneladas, y el resto de barcos menores de combate (...). Y según el estado que tengo a la vista, una parte de esta poderosa flota, que comprende solamente 25 buques, se hallaba armada con 208 cañones de hierro y de bronce» («Fuenterrabía» 196.or.).

90: Cf. Lafuente, *Historia general de España* (XI, 1888, 277. or.): «Apoderóse el pánico de los franceses: el arzobispo de Burdeos se refugió á sus bajales desalentado: siguióle el de Condé entrándose aturdidamente en el agua hasta ganar una chalupa: los demás no pararon hasta Bayona, creyendo siempre sentir en las espaldas las puntas de las espadas españolas» eta, bereziki, *Relación y traslado*: «...se atendió más a huir que á pelear; y que por no auer encontrado con el Arçobispo de Burdeos, que a uña de cauallo huyó tímido con el Príncipe de Condé...» (396.or.). Otaegik honela dio: «Igesi ere, aingura alcharik,/ *Sourdís* zure ontzidia?/ ¿Non dira zuen erronka audiak?/ Non zuen arrokearia?» (*Ondarrabiko Cherkoa* poema, 151-154. 1.). Hemen barregariro erabiltzen bada ere, Burdeosko Arzobispoaren Armada Lope de Hocesena hondatzeko gai izan zen Getarian abuztuaren 22an (cf. Moret 116-132.or., Palafox 210-218.or.); ez zuen zail ere, Moretek dioen bezalakoak izan baziren Spainiakoaren buruzagiak.

Colcoa: hitz honen erabilera metaforikoaz cf. Barrutia 266 «Berkok eder aoan orapiloa kolkoan» eta Oihenarten «*Almutea golcoan*, cest vne façon de parler proverbiale de quelqu'un qui

couue quelque dessein en son coeur» (*Apud Mitxelena, Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue 105.or.*).

91-99: Ez dut uste lerro hauetan kontatzen zenaz zalantzarak egon daitekeenik; 89-90. lerroetan Arzobispoaren hestualdia aipatzen da eta 100. lerrolik aurrera —ikusiko dugunez— frantsesen galeren kontu zehatza ematen zaigu; erabili iturrien segida bera du gu EKn: cf. Palafox: «El principe de Condé y (...) el Arçobispo de Burdeos, que eran los principales Cabos del exercito, viendo que era imposible remediar el curso acelerado de nuestra victoria, se retiraron con la misma confusión y desorden, passando en barcas la buelta del puerto de Zocoa. Quedaron mil y quinientos Franceses muertos en la cápaña y ahogados otros dos mil en la ribera, porque el concurso grande y miedo con que huían les hacía hallar mas brevemente la muerte, donde buscauan la seguridad» (402-403.or. Cf. Moret 216-220.or. eta Llobregat 153-154.or.). Beraz, berdatzit lerro hauetan Arzobispoaren ilhesarekin batean, Condérenaz ere —behar bada— mintzatuko zen (cf. *Relación y traslado*): «El ahorcado auía de ser el de Condé, pues por huir mas leue, dexó la capa en manos de sus enemigos» (397.or.) eta Moretek ematen duen bertsio serioagoa: «lastimándose de su desgracia al ver que no sólo se le iba como de las garras la presa, sino que se hallaba ya desalojado; dando de espuelas al caballo, se encaminó hacia el mar y ni aun se detubo en su tienda, con ser que pasó por junto a ella; y llegado que hubo a la lengua de agua, desmontándose del caballo, se metió a pie por el mar adentro, para que avivase más la diligencia en arrimarle alguna de las chalupas: y en efecto en una de ellas hubo de passar a la costa de Francia con pocos que le acompañaron, uno que poco antes mandaba un Exército tan numeroso y tenía tan cerca una Armada vencedora» (217.or.).

Honen ondoren —eta hau segurua da, 100-102. lerroak lekuko— Frantziako soldaduen gorabeherak hasiko lirateke; cf. Palafox: «Quedaron mil y quinientos Franceses muertos en la cápaña y ahogados otros dos mil en la ribera...» (403.or.); zenbaki hauei Moretek beste datu bat eransten die: «Cogieronse dos mil prisioneros...» (220.or.); Llobregat: «Costó al enemigo este memorable día más de mil quinientos muertos y dos mil prisioneros, a más de otros mil que se ahogaron en el río, ofreciendo horrible espectáculo» (154.or.) eta geroxeago: «Retiróse el ejército francés a San Juan de Luz, habiendo perdido en este sitio un total de 11.000 hombres, entre ellos mucha nobleza» (155.or.). Labayruk, bere aldetik, honela diosku: «con pérdida de dos mil prisioneros, mil

quinientos muertos y dos mil ahogados al atravesar el brazo de mar que separa á Fuenterrabía de Hendaya» (273.or.); *Breve y ajustada relación*: «Los que faltaron de los franceses, según dijo un trompeta suyo, fueron más de seis mil» (194.or.). Beraz, 100-102. lerroen egitura jarraituaz, frantses hilen, itoen, freso hartu zituztenen eta ihes egin zutenen kopuruak peitu ditugu galduetako lerro hauetan.

100: Aurreko oharrean emandako aipamenen arabera, lerro honetan hesialdi guztiko frantses hilen kopuruaz (Llobregaten hamika mila, *Breve y ajustada relación*eko sei mila lekuko) ari dela ia segurua da.

101-102: *dulabre*: Arexitak jadanik aipatzen zuen Azkueren hiztegiko *dulabre* «persona energética, activa» eta bai batak eta bai besteak *Peru Abarkako aipamen* bana (Azkuek «Andrakume euskaldunak... dira sona, dulabre ta askotakoak» (147.or.); Arexitak Zelaietak bere «*Peru Abarca-ren Hiztegia*»n (ASJU XII-XIII (1978-1979) 85-199.or.) dakarren «Dulabre ta ecertacuac dirian [Arexitak *dira* dakar, oharkabeen dudarik gabe] otseñac, arin egun bear ditube gauza guztijac» (55.or.)). Hauetz gain, Mogelek «Nomenclatura de diferentes voces bascogadas...»en «*Dulabre*, de mucho remango» dakar eta —Mitxelenak esan didanez— Schuchardt ere hitz honetaz aritu zen bere «Baskisch und Romanisch»en (ZRPh, 1906. A. Goenagaren itzulpena (*BAP* 1957-1959-1960) erabiltzen dut): «...algunos casos, en los cuales el concepto apropiado a la palabra vasca difiere como mal entendido de la románica que se da como base suya. El B. *dulabre* < cast. *durable*» (70.or.). Esanahia honela mugatu ondoren agiri da, ene ustez, 102.eko esaldiaren subjektua Spainako gudariak —eta ez, inolaz ere, frantses zaurituak— ditugula.

103-106: *tiro*: cf. *Dicc. Aut.* «Vale asimismo la pieza o cañón que dispara las balas de artillería». Aizkibelengen euskal hitz bezala agertzen da (s.v. *tiroa*, esanahi askoren artean, «La pieza ó cañón que dispara las balas de artillería». Ikusten denez, *Dicc Auteko azalpen* bera dakar; *Diccionario Trilingüe*ko erreferentzia ematen du, baina honetan soilik «Tiro, cañón, *sutumpa*» aurkitu ahal izan dut).

Testurako cf. Palafox: «Dexaron veinte y tres piezas de artillería, más de cincuenta vanderas, todo el vagage, municiones y bastimentos» (404.or.), Moret: «Cogiéronse (...) ochenta Vanderas, veinte y cinco piezas de Artillería, de batir las mas, y muy gran-

des...» (220.or.), Bernal de O'Reilly: «dejando en su poder cuarenta y siete estandartes, veinte y cinco piezas de sitio, numeroso armamento y efectos de todas clases (...), según refieren la correspondencia y los papeles del arzobispo de Burdeos Monseñor de Sourdís, actor y testigo de mayor excepción». («Fuenterrabía» 197.or.) eta Labayru: «veinte piezas de artillería con sus pertrechos y municiones y cincuenta y cuatro banderas» (274.or.). Nabari denez, ez dira kopuruetañ ados jartzen; haatik, banderenetan guztia —eta batez ere Bernal O'Reilly— nahiko hurbil daude EKn esaten denetik.

107: *bagera*: cf. Axular: «Eta hala kontatzen du Plutarkok ekharri zerautkatela egun batez errege Kotys hari present handi bat, *baxera* eder bat. Ordea hautskorra, lurrezkoa eta beirakizkoa» (192.or.), Oihenart: «Baigorrin *baxera* lurrez, nik haragei nuenean urrez» (*Atsotitzak* 66) eta Pouvrearen hiztegia: «*Bachera*, meuble vaisselle», «*bachera alhasea*, holça uasarium», «*bachera toquia*, lieu a mettre la vaisselle», «*bachergillea*, ouvrier en vaisselle». Azkuek ere —esanahi berarekin ez izan arren— badakar: «*baxera* (AN, BN,G,S,), olla, vasija de tierra» eta «*baxeregille* (BN,S), alfarero». Hitz honen etimologiarako —gaskoierazko *bachère*— eta zenbait berezitasun fonetikotarako ik. Mitxelena «Las antiguas consonantes vascas» (*Miscelánea homenaje a André Martinet*, La Laguna 1957, I, 113-157) 120.or.

Testurako, cf. Palafox: «Dexaron todas sus tiendas y ropa, los pagamentos abiertos, el dinero, plata y recámara del Príncipe de Condé y los demás Señores y Caualleros, los vestidos, alhajas, papeles y órdenes del Rey, enriqueciéndose muchos soldados» (405.or.); Moret: «Lo que daba gusto ver en los Reales de los Franceses eran los aparadores, llenos todos de bagilla de plata, y sus tiendas, adornadas de muchas y preciosas alhajas, desatendiendo al desaliento de que se hace vanidad en la Campaña; y en la del príncipe su cama y colgadura de mucho valor...» (221.or.; ik. Llobregat 154-155.or.); *Relación y traslado*: «...mi dinero fué con los doblones del Arzobispo de Burdeos, y con la plata, muebles, alhajas y presas del Príncipe de Condé, despojo de Irlandeses y Nauarros» (398.or.). Ageri denez, iturri guztiek —EKK ez bezala— ohea Printzearena zela diote. Bakarrik *Breve y ajustada relaciónen* Printzearena ezeze Arzobisporena ere hartua izan zela aurkitzen dugu: «Fué el pillaje para los soldados de importancia, por haber cogido toda la recámara del príncipe de Condé, su casaca y tusón. Al de Burdeos cogieron la recámara...» (194.or. Antzerako zerbaite Lan-dazuriren *Historia de Guipúzcoan* II, 145-146.or.).

109: *capusay*: cf. Azkue s.v.: «anguarina, capuchón, capisayo», Aizkibel: «Capisayo, vestido de gente montañesa con capucha para defender la cabeza del frío y de las aguas»; jadanik Larramendik dakar s.v. *capisayo*: «viene del bascuence *capusayo*, que significa lo mismo». Euskal aipu hauei *Dicc Autekoa* (s.v. *capisayo*) erans dokieke: «Vestidura corta á manera de capotillo abierto, que se viste por la cabeza como la sotana cerrada, y sirve como capa y sayo juntamente: de cuyos nombres se forma esta voz».

granazcoac: cf. *Dicc Aut* s.v. *grana*: «Paño mui fino de color púrpureo, llamado assí por teñirse con el polvo de ciertos gusanillos, que se crían dentro del fruto de la coscoja, llamado Grana».

Testurako cf. Palafox: «Veianse entre la confusión y la alegría del suceso, los mosqueteros Españoles vestidos de Monsiures, con capotes y capas de grana muy ricas, vendiendo a vilissimo precio piezas de plata, cauallos, joyas, cadenas y otras prendas desta calidad» (405-406.or.). *Relación y traslado*: «Aquí sí que har taron su codicia los Españoles y Irlandeses, pues de sólo capotes de campaña se hicieron ricos. Díoxles bien en el juego su fortuna, si es que ay algún influxo de aquesta deidad fingida, pues con capotes remediaron nuestros piques, y socorrieron su plaça, que alegres los recibió» (452.or.) eta *Breve y ajustada relación*: «Halláronse muchas joyas, cadenas, capotes de grana y otras cosas de monta» (194.or.). Moretek lerrootako gertaeren berri ematen ez baidu ere «capotillo de grana»ri —eta bere sinonimoa den «capotillo encarnado»ri— buruzko irazkin interesgarriak egiten ditu: «sa liendo al encuentro á los que huían, los principales Gefes suyos, y tal vez los Generales, según se podía conjeturar de la brillantez de las armas, y capotillos encarnados...» (183.or.), «...viendo al Oficial Francés (...) vistoso con un capotillo de grana...» (187.or.) eta «y mostrando los despojos que cogieron, espadas y capotes encarnados...» (52.or.). Aipamen guzti hauen aurrean, *kapusaik* be re ohizko zentzua hedatuxeago izan ote dezakeen nago.

110: *picaroac*: Orijinalean *pigarorc*; Arejitak —aldatu gabe utzirik— honako irazkin hau egiten du: «mugatzaile bako sintagma dirudi. Ezezkako esaldi baten kokaturik dago» (166.or.). Alabaina, delako sintagma mugatu gabe honi ergatibo marka kentzen baldin badiogu, gelditzen den *pigaror* hori zer izan daitekeen ez du azaltzen; bestalde, beheraxeago egiten dudan *jancieitecoren* irakurketari jarraituaz, hemen ergatiboa behar dugu. Ez dut hitz honen beste agerraldirik aurkitu euskal testuetan. Testu honetako esanaria zehazteko, 109. leattroaren oharrean aipatutako Palafoxen hitz

ezin argiagoez gain («...los Mosqueteros Españoles vestidos de Monsiures...»), konpli da Corominasek (s.v. *pícaro*) dioena hona ekar dezadan: «...muchas veces, en los primeros tiempos, su matiz peyorativo se refiere más bien a la situación social de un personaje que a su carácter moral o a una actuación más o menos contraria a las leyes (...); *normalmente se pensaba en un aspecto harapiento* [nik azpimarratua] y en la falta de un oficio u ocupación permanente (...); no se descartaba que el pícaro trabajase en menesteres despreciados más o menos transitorios, pero honestos...».

jancieiteco: Orijinalean *janciecteco*; Arejitak orijinalekoa mantentzen du: «Txorierrin gaur ere holan erabiltzen da: *joan ezteko, joan eztekotan eta abar*. Bizkaiko beste leku askotan, ostera, *joan ez egiteko, etorri ez egitekotan eta antzekoak*» (167.or.). Haatik, hau izango litzateke —J. A. Lakarrak esaten didanez— gutxienez XIX. mendera ondo sartu arte —eta agian beranduago ere— egitura horren agerraldi bakarra. Gainera, 12 *Vizcaico*, 16 *Vizcayac*, 16 *ditzuz*, 16 *pazcoac*, 22 *ez*, 23 *obedenciagaz* eta bestek adierazten dueitez z eta ez c (ç) eskatuko luke grafiak Arejitaren proposamenak egiantzik izateko; aldaketa handiegia behar, beraz. Hemen proposutako *eiteco* bai formaren aldetik —EKn sistematikoki *eguin* (14, 16, 20, 27, 39, 114, 141, 183) eta *eguiteen* aldamenean beti *eiteco* (22, 114, 170)— eta baita zentzuarenetik ere hobeto datorkiola deritzot. Cf. 114 *eguin eiteco*, VJ 7 *sinistu eitea*, VJ 8, Bet 92 *sinistu eiten*, VJ 9 *fortalecidu eiten* eta Bet 96 *eguin ez eytea, hil ez eytea, jausi ez eytea*, etab. Balegoke beste posibilitate bat, hots *jancieeteco*, non *jancieteco* (<**jancidu*) izango litzatekeen diplografiarik gabeko oinarritzko forma, baina ez dirudi egiantz handirik duenik.

111: 103-106. Ierroei egin oharreko Llobregaten aipamenari honako hauek erans bekizkio: «...y a cada paso por aquellos campos tendidas las armas, que la cobardía condenó como inútiles y la gana de escapar calificó de embarazosas» (Moret, 216.or.), «...huyeron tan desordenadamente, y con tal terror, q dexaron caer las armas, los mosquetes y las picas» (Palafox, 402.or.) eta «...y al rayar el alba, solo aparecieron infinidad de cadáveres, desgraciados heridos, *infinitas armas...*» (O'Reilly 278.or.).

112: Cf. Moret: «Armas, caballos y gente, todo pereció, y lastimosamente, aunque es verdad que los mas caballos, despolidos de los ginete, volvían á nado acia la orilla» (218.or.).

113-114: Cf. Moret: «Hallóse en los Reales mucha cantidad de bastimentos de toda especie y el dinero de los pagamentos, porque se dexaron abiertas las tiendas de las Tesorerías» (220.or.). Diru honetaz gain, Richelieuk bidalitako beste berrogei mila libera (cf. Moret 221.or., Palafox 410-411.or.) ere hartu ziren. Palafoxek honela komentatzen du aurkikuntza: «En que no puede dexar de parecer admirable la anticipada prouidencia con que tan atento y diligente ministro [Richelieuk] embió este socorro mas a nuestro exército, pues entre el despojo se halló también esta cantidad reseruada, sin auer llegado a ella los Franceses hasta que se la ganaron los españoles» (411.or.). Kopuruari zehazki gagozkiola, berrogei mila libera horietarik EKko eunda larogueimiletara dagoen aldea O'Reillyk eskeintzen digu, gutxi gora behera: «y que la nobleza de la Guinea había ofrecido al Rey [Frantziakoari, jakina] ciento cincuenta mil ducados para gastos de guerra...» (63.or.).

115-116: Cf. Palafox: «La otra parte del exército Francés se retiró por los Diques al calor de los quarteles q̄ tenian en Mendo-
lo y Irún, y la misma noche a Francia por el passo de Beobia *por donde auian entrado en España con bien diferentes esperácas y orgullo*» (403.or.) Gonbaraketarako, gogora bedi testuan subjuntibozko formak oraindik aoristozko esanahiarekin erabiliak direla. Otaegi ere frantsesen egoera aldaketa honi buruz —alegoria baten bidez— mintzatzen da: «Dardar egin du arranotzarrak, / Dago gaizki eritua: / Kabira doa itxuri duen / Odolez choll gorritua: / Egazterrena beziñ egoki / Etorri zan apaindua, / Eta millaka lu-
ma ederren / Aek laja ta dijua» (161-168. l.).

119-120: cf. Moret: «después que empezó a anochecer [Almí-
rantea eta Velezko Markesa] se encaminaron acia Fuente-rabía con
muchá comitiva de los Grandes y Principales del Exército, en
donde recibidos con muchá luminaria y aplausos de VIVAS y pa-
rabienes...» (230-231.or.).

123: *modu onean*: «modu honetan» eta ez «modu ederrean», alegría. Gaztelerazko literatur tradizioan oso ezaguna den formula honetarako cf., adibidez, *La Araucana*: «habló el bárbaro grave *deste modo*» (XXXIV, 4, 8), «adelantó la voz *desta manera*» (XXXIV, 43,8) eta *La Gran Victoria que tuvo Don Juan de Austria...* gorago aipatu plegua: «*desta suerte les decía*» (apud Caro Baroja, *Romances de ciego* 193.or.).

124: Cf. «Bergararroc asi dira / Trajioe baten asmaçean, / Euroen artean dioela: / Erre deçagun...» (*Arrasateko erreketak* 24.I.; in *TAV* 83.or.). Formula, bestalde, arrunta da gazteleraez: «les comenzó a decir estas razones» (*La Araucana* XXXIV, 54,8).

125-128: cf. Moret: «Y habiendo allí recibido y abrazado con las más expresivas demostraciones de cariño al Gobernador, a Butrón y a los demás sujetos distinguidos de la Ciudad y de la Guarnición y aplaudido con magníficas expresiones por el tesón con que se habían defendido y asegurándoles que podían esperar del Rey grandes mercedes». Ikusten denez, Alzolak —poemaren onerako, zalantzarak gabe— gertatutakoa aldatu egin du, leerro hauetarik aurrera Almirantea Erregearen mezulari eginaz, beranduago gertatuko ziren gauzak aurreratuaz (Erregearen gutuna (cf. 149. 1.) irailaren 15ean idatzi zen, Labayruk dakarrenez (276.or.).

129-136: Labayruk (276.or.) Erregeak Egiari bidali zion gutuna osorik transkribatzen du; hona hemen eskeini zizkion sariak: «...y por tanto agora os he hecho merced del castillo de Pamplona, por haber entendido estaba vaca á la muerte del castellano Don Jimen Perez Espliego [gogora hitzaurreko y sucessor del de Pamplona], y de buena ayuda de costa, y en caso que no tenga efecto lo referido, de una encomienda efectiva [cf. hitzaurreko [Co]mendador, 5-6.I.] y un tercio que os mandaré formar [cf. Teófilo Guiard Larrauriren *Historia de la Noble Villa de Bilbao*: «en 1639, servicio de cuarenta y seis infantes vestidos y armados conque el Señorío entraba en los cuatrocientos cincuenta ofrecidos para el regimiento del Conde Duque de San Lúcar y tercio de don Domingo de Eguía, sumó ochocientos doce mil quinientos cincuenta y seis mrs.» (326.or.)]. Labayruk berak berri gehiago ematen digu: «...que después fué investido por el Almirante de Castilla del hábito de caballero de Santiago, apadrinándole el Duque de Alburquerque, con otros grandes y caballeros que asistieron á la ceremonia» (275-276.or.; cf. hitzaurreko *Cauallero de la Ord[en]*, 5.I.). Palafoxek, aldiz, Santiagoko zaldun janztearena Egea gobernadorea iritsi zeneko garaira aurreratzen du: «Fue recibido el Gouernador con grande alegría y contento de los vezinos y con mucha conformidad del Capitán Domingo de Eguía, a quien su Magestad por lo bien y valerosamente que se auía dispuesto a la defensa hizo merced del hábito de Santiago...» (150.or.). Bi berriok, dena den, ez dau de bata bestetik dirudien bezain urrun: Erregearen gutunean aipatzan ez denez gero, sari hau aurretiaz emana zuela eta bakarrik hesialdia igaro ondoren bete zezakeela pentsa daiteke.

Oraindik ilunago da 130-131. lerroetakoak: izan ere, hitzaurreko del *Castillo de Fuenterabia y su Gouernador eta Breve y ajustada relación*eko «...al Gobernador una encomienda de dos mil duca-dos, hábito y título de Señoría, y que goce perpetuamente de su oficio» (195.or.) esaldien kontra, Moretek honako hau dio: «Para quien se decretaron los mayores premios, fue para Guzmán, el per-petuo Gobierno de la Guipúzcoa con título de Adelantado, que es magnífico en España, y doce mil escudos de renta al año; y pri-vadamente se le nombró *Gobernador perpetuo de Fuente-rabia* con sueldo; y que pudiesse exercer este empleo por medio de una persona puesta por él» (237.or.). Beraz, Moreti jarraituaz, Egia ba-karrik Hondarribiko gobernadore ordeko izan zitekeen; ondorio honen alde dator Erregearen gutunean gai hau isilean uztea. Ikus-ten denez, sarien gaia ilun xamar dabil historialariengen; oso adie-razgarria da, alde honestatik, O'Reillyk idatzia: «¿Y á Butrón? ¿Y á Eguía? ¿Y a (...), qué les dieron? Algo les darían... Los escritos de aquellos tiempos que he registrado, y son bastantes, no lo men-cionan, sin duda por lo insignificante, porque tan grandes servi-cios se recompensaron siempre con mucha parsimonia» (304.or.). Argibide gehiago izango genuke, behar bada, *Relación verdadera de las grandes mercedes que la Católica Magestad de Felipe Quar-to el Grande ha hecho al Gobernador, y a los demás caballeros... de Fuente Rabia* (Eziza, 1638) (*apud* Palau) delakoa ikusi ezkerro.

137-138: cf. *Libro de Alexandre*: «...demuestras muy grant cavallería / de cuantos hoy biven tu has grant mejoría» (52.l.).

139: cf. Konde Dukearen gutuneko: «...que haciéndose con Vd. lo más, será todo poco» (*apud* Labayru, 276.or.).

140: cf. Palafox: «Y no es pôderable la alegría de su Mages-tad cô ellas [berriekin], el gozo del Côde Duq y de todos los Mi-nistros y nobleza de la Corte. El pueblo, discurriendo por toda ella cô locura cuerdißima, en ocasión de tanto alborozo, iva por todas partes cô las espadas desnudas, gritando: *Viua el Rey, viua Espa-ña* (...). Llenáronse todas las ventanas de luminarias, todas las ca-lles de gente, todos los coraçones de alegría y contento...» (414-415.or.; ik. Moret 235-237.or. ere).

141-142: Formula hau —aldaketa gutxi batzuekin 159-160. le-rreroetan errepikatzen den bera— iluna da; lehendabiziko zatia (*Ecin guichiago eguin (essan) cenduquean (neuquean)*) Almirantea-

ren aurreko hitzei egokitzen zaie, zalantzarak gabe; ez da honelakoik gertatzen, ordea, bigarren zatiarekin: hein handi batean bezko esanahia duela ematen du. Delako esanahia zehaztatzen erraza ez bada ere, ik. 169-174. lerroei egin oharra.

149-150: *carten andia*: Nahiz eta Arexitak bere irakurketa hau zalantzaran jarri ("«carten» ipini dogun azken ikurra ilun dago testuan: «n» ete dan nago", 145.or.), zuzena deritzot, zentzua argi bait dago. Egitura oso maiz agertu ez arren, ezaguna da gure artean: cf. *Frantziako anderea* baladaren «hori da kutxiloaren puntaren zorrotza» (Mendatako aldaera, *apud* Lakarra, Biguri eta Urgell, *Euskal Baladak*, II. liburukia 98.or.) eta *Estudiante kondenatua* balada arruntaren «Hau da urkamendiko haxearen hotza / seguru izango da agoniko kanpa» (Dimako Eduarda Bilbaoren aldaera, *ibidem* 219.or.). Gramatikalarien artean, jadanik Astarloa saiatu zen egitura honi azalpena ematen, ohi bezala «filosofikoa» bada ere: «Si queremos expresar como móvil de nuestros conceptos una calidad en concreto, la pasamos á la clase de sustantivo; no por abstracción, pues ya no tendría energía, sino dexándola en su misma concreción: hacemos esta operación dexando sin concordancia el adjetivo, y constituyendo por su posesor al sujeto qualificado: decimos *Mutil-a-ren galant-a!* (...) esto es, qué hermosura de muchacho!, *Gauci-a-ren polit-a!* (...) qué cosa tan linda!, *Nescatili-a-ren zuri-j-a!* (...) qué blancura de muchacha!, *Zaldi-ja-ren arin-a!* (...) qué ligereza de caballo!» (*Apología de la lengua bascongada* (1803) 180-181.or. Amigos del libro vascoko faksimilea (1983) erabili dut).

151-152: Konde Dukeak egin gutunak honela dio: «Señor maes de Campo Domingo de Eguia: Doy á V. md. la norabuena de que quede por el mayor capitán de mi nación, el más constante, fiel y valeroso; y pido á V.md. perdón del ayo, confesando que V.md. lo puede ser de cuantos somos [zati hau iluna da; Landazuri (aip. lib. 147.or.) dakarren aldaerak ere ez digu ezer argitzen: «...y puedo a vm. como lo hago, confesando que vm. puede ser de quantos somos...】. Ofrezco á V.md. cuanto soy y valgo, y juntamente que haciéndose con V.md. lo más, será todo poco. Dios guarde á V.md. como deseo. Madrid 15 de Septiembre de 1638 años. D. Gaspar de Guzmán» (*apud* Labayru, 276.or.). Gutun honen oiartzun asko aurki daitezke testuan: aipatu 139. lerrokoaz gain, cf. 155-156. lerroak ere. Hondarribiko hesialdia zela eta, Konde Dukearen kontra zabaldu ziren zurrumurru eta salaketa guztiaik aipatzea luzeegi litzateke eta urrutiegi eramango gintuzkeen; Mo-

retek aski idatzi bait zuen honetaz, hara bidaltzen dut gehiago jakin nahi duena. Alabaina, adibide gisa, jadanik aipatutako sariez-naz (ik. 129-136. lerroei egin oharra) at, gerrara joáteko Erregearen baimena eskatzeak erakarri zuena erakusgarri izan daiteke: «El primero que se registró fue Gaspar Guzmán y presentó un memorial en que suplicaba encarecidamente se le permitiesse ir a Fuente-rabía; no sin murmuración de algunos, que decían que lo hacía por estar seguro de que no se le concedería. Y habiéndose tenido consulta aparte sobre ello, se le respondió de parte del Rey, *que más quería su dirección en la Corte, que en Fuente-rabía sus manos*» (41.or.).

159-160: ik. 141-142 eta 169-174. lerroei egin oharrok.

164: Or. *Veaturic*: formaz ezaguna egiten bazaigu ere, esanahiaz istilutsu gertatzen da hitz hau: dagoenean utzirik, garai eta euskalki horretan ia soilik «sepultar» (Mikoleta eta Kapanaga lekuko) izan daiteke. Alabaina badago oraindik beste posibilitate bat: bai *Acto para la Nochebuena* (146. I.) eta baita Martin de Iturberen *Quartetac gvre Príncipe Iavneanren* (sic) *D. Phelipe Prospero* ...n ere (cf. K. Mitxelena «Miscelánea Filológica Vasca II» 403.or. eta J. A. Lakarra «*Acto para la Nochebuena*. Texto y traducción» 115.or.) *vcatu* bezalako forma bat *veatu* (eta inoiz *beatu*) irakurri izan da. Izango ote dugu berriro hemen irakurketa txar bera? Zentzuari dagokionez, Mitxelenak artikulu hartan esaten zuena errepiñatu behar dugu: «Aunque *beatu* es conocido, o precisamente porque es conocido, no hay manera de que encaje en este lugar» (403.or.). *Ukaturekin*, aldiz, badugu egiantz handiko irakurketa bat, J. A. Lakarrak erakutsi didanez: 163-164. lerroak arretaz ikusi ondoren, nabarmena da *oeac* ez duela halabeharrez *ecussen*en objetoa zertain izan —hasiera batean zentzuak pentsarazi digun bezala—, aditza singularrean bait doa. Honen arabera, lerrook honela irakurri beharko lirateke: «Cegaiti *ecussen* Almiranteac (Eguia) ycerdiz balicituric, (bere buruari) *ucaturic* *oeac*, onrra emaiterren ... eguiten aguinetañ dau...».

168: *ce ondo cirudian*: Esaera hau berau Antonio Cidi esker ezagutu ahal izan dudan *El Cid pide parias al moro* (edo «Por el val de las estacas...») gaztelar erromantzean agertzen da: *o quan bien que parecía* (aldaera ezberdinak; cf. J. A. Cid «Semiótica y diacronía del 'discurso'» *RDTP* XXXVII (1982) 57-92.or. Bidali didan gutunean honako iruzkin interesgarri hauek egiten

ditu: «Este romance era tradicional y muy citado todavía en el s. XVII, y quedan restos en la tradición oral moderna en Galicia, León y Canarias».

ac: Arejitak *ao* dakar; ikusi ahal izan dudan orijinaleko fotokopian -c ikusten da, nahiz eta aurreko eta atzeko lerroetara ere zabaltzen den goitik beherako tximurdura bat nabarmena den. Halaber, *ao* forma beste inon —dakidalarik— agertzen ez denez gero, ausartegia dirudi Arejitaren irakurketa eta azalpenak.

169-174: Jakina denez, Espainiako Erregeak, Bizkaiko Jauna izateko, Foruak baiezttatu behar zituen erregetzara iritsi bezain laster; Felipe IV.ak ere —1621eko abuztuaren 16an (cf. Labayru 115.or.)— hala egin zuen. Dena den, ez dut uste honako pasarte hau ohitura horri zuzenean dagokionik, eta bai dela Foruen apologia argi eta garbia, 173-174. lerroetan batez ere. Apologiak ez dira sekula dohaineko —ez eta premiarik gabeko— zereginak izan ohi: beti eraso zein arazo agiriago edo estaliago baten erantzun bezala agertu ohi dira (ik. hizkuntzazko apologiez Mitxelenak Tovarren *Mitología e ideología sobre la lengua vascari* egin erreseinan (MUGA 10 (1980ko urria), 122-128.or.) dioena); 1638. urtean bazuen Alzolak zeren alde agertu: 142 eta 160. lerro ilunetan aipatzen den Bizkairen leialtadearen alde, hain zuzen. Ezaguna denez, XVI. mendearren bukaeratik aurrera Espainiako Erregeek —Haziendaren egoera larria konpondu nahian— Bizkaiarekin istilu franco izan zuten, hala nola 1590-1601eko Milioien zergarena edo 1632ko matxinadaren pizkailu izan ziren soldaduzka beharrezkoarena eta gatzarena (cf. *La España de Felipe IV* in Menendez Pidalen *Historia de España* (XXV) Espasa-Calpe, Madrid 1982, 188-190.or.). Beraz, Bizkaia Erregearen kontra atera zela eta are irabazi ere egin ziola oraindik guztien gogotan bide zegoen. Alde honetatik, EKren mezuak ezin argiago dirudi: Bizkaia 1632. urtean bere eskubideen alde agertu zela, baina honek ez duela inolaz ere Erregeari begirunea gordetzen ez dionik esan nahi: Espainia arriskuan ikustean Bizkaia lehena da defendatzen; eta, hain zuzen, Egia —Erregeari zor zaion leialtadea erakutsiaz— bizkaitarren ordezkaritzat aurkeztu nahi zaigu testuan. 169-170. lerroek Erregeak matxinadaren ondoren egin zuen agiriko hitzak dakarzkigu gogora: «...atendiendo á los señalados servicios que tiene hechos este Señorío, y de presente hace y espera harán en adelante, como tan fieles y leales vasallos, he tenido por bien de mandar, como por la presente mando, que ese Señorío goze de la paz y gobierno con que se ha gobernado y gobernaba antes que se enviaras las

nuevas Ordenes...» (1634ko maiatzaren 30ean; *apud* C. Rosell *Crónica General de España* Madrid 1866, 85.or.).

175-178: *Príncipe de Condé*: cf. Llobregat «...Enrique II de Borbón, Príncipe de Condé, hijo póstumo de Enrique I y de Carlota de la Tremouille» (135.or.) eta Moret «Richelieu (...) recomendó la expedición al Príncipe de Condé, persona poderosa en Francia por sus muchas riquezas, y enlaces de parentesco y, sobre todo, Príncipe de la Sangre» (17-18.or.) eta beherago eransten diona: «... venía con ánimo de aumentar con sus armas el Reyno de Francia a quien tal vez llegaría a gobernar, por estar cercano al Trono; pues el Rey no tenía sucesión, ni el hermano de éste tenía ningún hijo, que en Francia es lo mismo...» (39.or.).

Moretek Hondarribia hitzen indarrez menderatzeko lau saioen berri ematen digu: lehendabizikoetan, francesak bitartekoez —kaputxino batez (134.or. eta hur.) eta bi hendarrez (142-144.or.; cf. Palafox 344.or.)— baliatzen dira proposamenak egiteko. Beste bietan —eta Palafoxek ere ematen du hauen kontu—, ordea, Condèk mezulariak bidaltzen ditu gero eta mandatu gogorragoekin. Hauetako bati buruz ari da, zalantzarak gabe, Alzola. Halaz ere, badago arazo txiki bat: *EKn trompeteagaz* esaten den bitartean, bi historialariak ados daude mezulari bezala danbolin bat bidali zela estatean; ez dugu, dena dela, Alzolak erabili iturriak *trompeta* esaten zuela suposatzea baizik: cf. Moret: «...por medio de un Tambor, de quienes, ó de los pífanos [nik azpimarratua] es estilo de la Milicia servirse como de legados para semejantes mensages...» (149.or.) eta Palafox —baina Flandeskoaz ari dela—: «...y como auiéndoles embiado Xatillón un trompeta para que se rindiessen...» (85.or.; ik. 324 eta 327.or. ere).

Mehatxuaz, Condèk bietan Hiriaren truke bizitza eskeintzen die: cf. lehendabizikorako Palafox: «...su Alteza les declara, no esperen alcançar ninguna gracia del, antes todo el rigor que la hostilidad de la guerra haze sufrir á los que una ciega obstinación lleua hasta aguardar el último trance» (Condèren gutuna, abuztuak 30ekoak; aldaketa askorekin itzulpenean, ik. Moret 149.or.) eta bigarrenerako: «...teniendo la compasión que deue tener un Príncipe Christiano, y de sus partes, de las (sic) desórdenes que se seguirán en la toma de dicha villa por assalto, adonde la hôra de las mugeres y la vida de los inocentes están expuestas al furor de los soldados (...). No obstante esto, les ofrece toda razonable composición (...). Declarándoles, que si no se aprouechan desta ocasión, y se aguardan a obtenerla, fiados en los repa-

ros que pueden tener para las retiradas, no les será otorgada alguna en aquel extremo» (Condéren gutuna, irailak 3koa, apud Palafox 376-377.or.).

179-180: Ez da hau erabili ditudan iturrietan agertzen dena: 8. lerroari buruz esan bezala, EKn Egia historiaren aurrean bakarrik utzi nahi da; halere, hemen Butron alkatea aipatu beharra dago: geroxeago istiluak izan arren (ik. V. Galbete «¿Fué desinteresado don Diego de Butrón? Un documento inédito del Archivo de Fuenterrabía»), berau dateke mementu hartan erakutsi zuen adoreagatik historiara igaroko zena, ia Egia estalias; cf., adibidez, S. Múgica *Provincia de Guipúzcoa* (1921): «...pero siguiendo el ejemplo del intrépido alcalde don Diego de Butrón, que ofreció su plata para hacer balas y amenazó con la muerte al que hablase de entregar la plaza, todos rivalizaron en valor y sacrificios» (752.or.); pasarte bera —xehetasun gehiagorekin, gehienetan— Moret (175-177.or.), Palafox (378.or.) eta Llobregatengan (149.or.) aurkitzen dugu. Era berean, ik. Olavide «Documentos históricos importantísimos». Halaz ere, hesitu batzu hasiera batean kapitulazioaren alde atera zirela egia da (ik. Moret 175.or. eta Palafox 377-378.or.); bestalde, Moret aldi hartako Egiaren portaeraz ere mintzatzen da: «De este modo concibieron algun empacho de declararse los que estaban perplexos, y los esforzados se confirmaron en su determinación valiente; con que a insinuación de Eguia, a quien siempre quadraban designios de valor, imitando los demás el exemplo de los buenos, y aun aquellos mismos que antes pareció estaban algo tibios, dando otro sentido a las voces que se habían dexado caer y por no dejar rastro de sospecha, resistiendo aora fervorosamente la rendición...» (176.or.).

181-185: Honako hau izan zen Egiaren erantzuna: «Que para defender la plaça no nesesita ella de socorro alguno de gente, ni municiones de fuera, ni se aguarda a ninguno, y su Alteza puede dar los assaltos que fuere seruido, que aquí estamos resueltos a aguardarlos» (Egiaren gutuna, irailak 3koa; apud Palafox 378-379.or.). Bakarrik bigarren zemaian emandakoa transkribatzen dut, lehendabizikoa (ik. Palafox 351-352.or. eta Moret 176-177.or.) funtsean berdina bait da.

Gonbaratu 175-185. lerroak eta British Museumen gordetzen den hurrengo pleguearenak: «El de Condé les escribe / se rinden a su obediencia, / con decentes condiciones / haciendo virtud la fuerça. / Pues penetrando sus muros / defender difícil fuera / sus

gargantas del cuchillo, / sus hijas de la violencia. / Responde el famoso Egua: / Rendirá la fortaleza / sus muros con nuestras vidas, / sobrará vuestra fiereza / Que muertos primero todos / de la patria en la defensa, / ni avrá vidas ni mugeres / triunfo de victorias vuestras» (1638koá; *apud* García de Enterría 294.or.) Zati hau bakarrik ematen du, tamalez; ikusten denez, histori liburu en eta EKren bertsioen arteko zubia dirudi, nahiz eta testu osoa beharko genukeen loturarik salatzeko.

186: Ondraren gaiaren euskal testuetako beste agerraldi batetako cf. *Bretainako kantorea*: «Vicicea debala / onrarequin seguru» (36-37. l.).

188: Lukas II, 14ko «Gloria in altissimis Deo, et in terra pax hominibus bonae voluntatis» esaldi ezagunaren aldaerak eta egokitzeak nonnahi aurki daitezke; hauetarik bat, adibidez, «Aquí paz y después gloria» gaztelar errefrauia dugu. Era berean, «aquí gracia y después gloria» esaerak zabalkunde handia izan du, bertsoetan bederen; honi buruz Quevedok honako hau dio: «Fui el primero que introdujo acabar las coplas, como los sermones, con *aquí gracia y después gloria*, en esta copla de un cautivo de Tetuán: «Pidámosles sin falacia / Al alto Rey sin escoria / pues se muestra pertinacia / que nos quiera dar su gracia / y después allá la Gloria. Amén» (*Vidal del gran tacaño*, *apud* Caro Baroja, *Ensayo sobre la literatura de cordel*, 44.or.; beste adibide bat 53.or.an). Aingeruaren hitzen erabilera ez da beti horren zehatza izan, dena den: EKKO lerro honestan, urrutia jo gabe, Bibliako *bakea* etsaien kontrako *Victoria* bilakatua ikusten dugu; aldaketa hau ez da berria, ez eta ezezaguna ere, beharbada sarriago «y al que por la fe moría / en esta naval batalla, la gloria le prometía» (*La Gran Victoria que tuvo Don Juan de Austria...*, *apud* Caro Baroja *Romances de ciego*, 197.or.) bezalako itxuran ikusten bada ere. Gure testuaren azalpen on bat 1658ko plegu batean aurki daiteke: «Dexo de ser tu ser (cosa es notoria) / Por gozar de otro ser más soberano; / Pero logra más ser en la memoria / Quando dexa de ser para lo humano, / Pues dar de mano a la terrena gloria, / Es alcanzar la gloria con la mano» (A. Nierembergen heriotzean egindako plegua, *apud* García de Enterría, 397.or.).

192-193: Cf. Llobregat: «La provincia de Guipúzcoa, en sus Juntas celebradas en Zarauz a 13 de noviembre, acordó que, debiéndose tan señalado triunfo principalmente a la intercesión de la Virgen María, toda la provincia celebrara perpetuamente su Na-

tividad con vísperas cantadas y, al día siguiente, procesión y misas, con la mayor solemnidad que en cada lugar se pudiera» (157.or.); Hondarribikoaz zehazki: «...los fontarribienses, que habían prometido a Nuestra Señora ayunar perpetuamente la víspera de su festividad antes del asedio y cuando recogieron en su parroquia la venerada efígie de la ermita guadalupense, si les favorecía en el trance de la guerra, entonaron el *Te Deum* al anochecer de este día 7, víspera de la Natividad de la Virgen, y continúan celebrando con fiestas religiosas y cívicas, todos los años este suceso glorioso, muy digno, por cierto, de recordación perenne» (Labayru, 274.or.) eta «El 4 de Septiembre de 1639, se reunió el ayuntamiento de Fuenterrabía para dejar memoria imperecedera de la intercesión de la Virgen de Guadalupe en la liberación de la plaza, y acordó que el día 8 de Septiembre se hiciera anualmente al Santuario una procesión cívico-religiosa, que todavía se viene haciendo con el nombre de *Alarde*, que constituye el festejo más interesante de las fiestas patronales de Fuenterrabía» (S. Múgica, *Provincia de Guipúzcoa*, 752.or.). Jakina denez, alardea oraindik ere ospatzen da (Ik. ospakizunez Uranzu *Lo que el río vió*, 438.or., adib.). Garaipena Ama Birjinari zor zitzaiola *opinio communis* izan zen: cf. Moret 227-230.or. eta, batez ere, Palauk dakarren *Relación en que se declara lo que la Ciudad de Fuenterrabia avisa a S. M. del prodigo y milagro que ha sucedido en la devotissima imagen de Ntra. Sra. de Guadalupe*. Barcelona, Jaime Romeu, 1639.

195: *Gabaçhu*: Hitz honen euskarazko lehendabiziko agerraldia bide da. Corominasek (s.v. *gabacho*) XVI. mendearen hasiera ematen du gaztelerazko lehenengoarentzat. *Dicc. Auten* proposatutako etimologíaren kontra, hizkuntzalari honek hauxe dio: «nombre despectivo que se aplica a los franceses, procedente de oc. *gavach* 'montañés grosero', 'persona procedente de una región septentrional y que habla mal el lenguaje del país' (...). El hecho es que *gabacho* se ha aplicado en España, y como término peyorativo, a los franceses de todas partes [cf. gure testua], a los cuales, como tantas veces ocurre con los extranjeros vecinos, se atribuyen a menudo muchos defectos».

196-198: Hain ezaguna den balada arrunten formula honetaz arituko gara agindu lanean. Nola nahi ere, ik. Lakarra, Biguri eta Urgell, *Euskal Baladak I* (Hordago, Donostia 1983), 46-52.or.

201: Gai honetaz gehiago idaz zezakeela esan nahi duela dirudi.

203: *albiste neuri yndaçu*: cf. Axular: «Ea, iende penatuak, indazue *albiriste*, berri on bat eman nahi deratzuet» (388.or.) eta Azkue s.v. *albiriste*: «objeto que se da á quien trae una buena nueva». Ez dut esanahi honekin beste inongo testu zaharretan aurkitu; bai, alderantziz, beranduagokoa bide den «berriarekin», jadanik Zalgizeren errefraueta: 200 «*Albiriste, / Eztaquianac hobe vste*»; geroago Añibarroren *Esku-liburuaren* bigarren edizioan: «Ceruetatic ecarri eútsun / Angueruac *albistea*» (cf. lehendabizi-koan: «Angueru batec ecarri eutsun / Cerutic embajadea»).

205: *sugateraco*: cf. Azkue s.v. *sugate*: (B, Micol) hogar, fogón. Var. de SUATE, SUETE». Azken bi hauek «cocina» itzultzen ditu beti, hala nola *sugeete* (B-a-mu).

207: cf. O'Reilly: «...fanfarrones los otros; comiéndose desde Madrid la Francia entera y sus ejércitos» (43.or.).

209: Cf. «Negras Pasquas te de Dios» (Marco I, 228.or.) eta, batez ere, «¡Mala Pascua os dé Dios, y mal San Juan tengáis!» (Jerónimo de Alcalá Yáñez *El donado hablador* (1624-1626), apud Chevalier *Cuentos españoles de los siglos XVI y XVII*, Taurus, Madrid 1982, 298.or.).

210-211: Hala eman dezakeen arren, Holandakoak EKn agertzea —eta are irainduak direla— ez da harritzeko: izan ere, bakealdi gero eta itxurazkoago baten ondoren, 1621. urtean Espainia eta Holandaren arteko gerla berpiztu zen. Berehala Frantzia eta Holanda konpondio batera iritsi ziren: «Francia, por un tratado firmado en 1624, prometió subsidios [Holandakoei] si continuaban la guerra con España» (A. Domínguez, *El Antiguo Reímen: Los Reyes Católicos y los Austrias*, Alfaguara, Madrid 1973, 377.or.). Palafoxen liburuan irakur daitekenez, guri dagokigun 1638. urte honetan Espainiako harmadak arazoak izan zituen fronte guztietan: itsasoan zein lehorrean, Amerikan zein Europan. Guzti hauetan (cf., adibidez, Palafox: «...teniendo los Franceses y Olandeses capitulada y dispuesta la total destrucción de los Países Católicos de Flandes» (20.or.)) Frantzia eta Holanda —bakoitzaz bere aldetik edo batera— izan ziren Espainiaren etsai nagusienak. Oraindik hogeい urte beranduago ere badugu Holandarekiko istiluei buruzko lekukotasunik euskal testuetan, hauek hain urriak izan arren: cf. *Quartetac Gyre Principe Iavneanren D. Phelipe Prospero...*: «Olandaq vcatuarren / Austriaco Echea / zu içango zaitu / vetrico Iabea» (61-64.l.; in «Contribución...» 92.or.).

BIBLIOGRAFIA

9. *Laburdurak eta bibliografia*

- AGUADO, P., *Historia de España. Segunda época. Casa de Austria (1517-1700)*, Espasa-Calpe, Madrid 1958.
- AREITIO, D., *Los vascos en la historia de España*, Publicaciones de la Junta de Cultura de Vizcaya, Bilbo 1959.
- AREJITA, A., «Domingo Egikori gorazarre kantua» *Euskeraren Iker Atalak* 2 (1983), Labayru Ikastegia, Bilbo, 139-181.or.
- CLAVERIA, C., *Historia del Reino de Navarra*, Gómez, Iruña 1971.
- «Contribución...» = SARASOLA, I., «Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos» *ASJU XVII* (1983), 69-212.or.
- CPV = R. M.^a de Azkue, *Cancionero Popular Vasco*², Bilbo 1969.
- DIAZ-PLAJA, F., *La Historia de España en sus documentos. El siglo XVII*, Instituto de Estudios Políticos, Madrid 1957.
- Dicc Aut = Real Academia Española, *Diccionario de Autoridades* Madrid 1726 eta hur. Faksimila (3 lib.): Gredos, Madrid 1979.
- DOMINGUEZ, A., *El Antiguo Régimen: Los Reyes Católicos y los Austrias* in *Historia de España*, Alianza & Alfaguara, Madrid 1973.
- ERCILLA, A., *La Araucana*, Marcos A. Morinigo eta Isaías Lerneren edizioa, Castalia, Madrid 1979 (2 lib.).
- GALBETE, V., «¿Fue desinteresado don Diego de Butrón? Un documento inédito del Archivo de Fuenterrabía» in *Homénaje a D. Julio de Urquijo II*, 1949, 469-481.or.
- GUIARD, T., *Historia de la noble villa de Bilbao (1600-1700)* II, José de Astuy, Bilbo 1906.
- LAFUENTE, M. *Historia General de España XI*, Montaner y Simón, Barcelona 1888.
- LAKARRA, J. A. «*Bertso bizkaitarrak (1688)*» *ASJU XVIII* (1984)-2, 89-185.or.
- LANDAZURI, J. J., *Historia de Guipúzcoa I*, Imprenta Vicente Rico, Madrid 1921.
- LEGRAND, T., «Notas para la historia. Relato inédito del socorro de Fuenterrabía por el ejército del Marqués de los Vélez durante el sitio de 1638» *Euskal-Erria LII* (1905), 274-278.or.
- _____, «Notas para la historia. Otro curioso documento acerca del sitio de Fuenterrabía en 1638» *Euskal-Erria LII* (1905), 393-398 eta 449-452.or.
- MITXELENA, K., *Ik. TAV.*
- MUGICA, S., *Provincia de Guipúzcoa in Geografía General del País Vasco-Navarro*, Alberto Martín, Bartzelona 1921.

- MUNARRIZ, E., «1638. La cooperación de los navarros en la liberación de Fuenterrabía» *Euskalerriaren alde XIX* (1929) 87-98.or.
- OLAVIDE, J., «Documentos históricos importantísimos» *Euskal-Erria LXXI* 403-405.or.
- OTAEGI, C., «Ondarribiko cherkoa» *Euskal-Erria VIII* (1883), 438-443.or.
- ROSELL, C., *Crónica General de España* (Bizkaiari buruzko liburukia), Madrid 1866.
- SARASOLA, I., ik. «Contribución...».
- TAV = MITXELENA, K., *Textos Arcaicos Vascos*, Minotauro, Madrid 1964.
- TOMAS, F., et alii, *La España de Felipe IV* in R. Menéndez Pidalen *Historia de España* (XXV. lib.), Espasa-Calpe, Madrid 1982.
- URANZU, L., *Lo que el río vió*, Valverde, Donostia 1955.
- VILLAVASO, C., *Historia de Durango*, Biblioteca Vascongada Villar, Bilbao 1968.
- ZUBIKARAI, J., «XVII mendeko bertso zarrak», *Zer LXIV* (1983), 6-7.or.

**VISTA DE LA PLAZA DE LA CIUDAD DE FUENTERRABIA,
Sus cercanías, y estado del Campo Francés, en el Sitio del año 1638 mirada p'el alto del Monte Jaizquibel.**



Explicacion de los Números.

1. Palacio del Rey, construido i pr ^o de debajo.	Conde en el anno de Butron.	24. Batería contra el de Leyva.	pasa á España
2. Iglesia Parroq ^o de S. María.	Basílica de Ntra Sra de Guadalupe en el Promontorio Oleariso.	25. Bat. enemiga en la Colina de la Horrita de Ntra Sra de Gracia a las orillas del Marq ^o de Cobre.	Lugar de Endaya. ^{en la parte de Potes.}
3. Almuerzo i prueba de bomba.	16. Ejercito Español, al mando del Marqués de Torneira.	26. Bat. en el Arroyo de Ondarriauie, á la orilla de Francia.	Camino p' la Basílica de Guadalupe.
4. Baluarte de la Magdalena.	17. Ejercito al mando del Marqués de Mortara, cosa del Campo Francés.	27. Hornada de Ntra Sra de Gracia.	Rio que berna el barrio Chiquiu.
5. Baluarte de Loyola.	18. El Almir ^o y el Marq ^o de Vela, con el Ejercito Español.	28. Puente de Amute, fortificado por los enemigos de Mondelo.	Rio que berna el barrio Jaizquibel.
6. Baluarte de la Reyna.	19. Lidaa burlada en los crecientes del mar.	29. Fortaleza enemiga, bajo la Colina de Guadalupe, al n.º del Conde de Aguin.	Ejercito, al mando de D. Antón Juan
7. Puerta de Torre.	20. Dos Fuertes del enemigo y Campo de batalla de la Infantería Española, y Caballería Francesa.	30. Lugar de Irún, donde estuvo la Caballería Francesa al mando del Duque de S. Simon.	dijo, cosa de los Quartelos enemigos de Mondelo.
8. Baluarte de S. María.	21. Dos Baterías á la orilla del Río.	31. Ejercito al mando de D. Pedro Girón, contra las fortalezas enemigas de Irún.	Fortaleza Francesa á la entrada en Puerto Mondelo.
9. Baluarte de S. Felipe.	22. Batería junto a la Basílica de Sra María Magdalena.	32. Iglesia de Santiago, fundada el Cuemigo.	Rio Urola, límite de Esp ^o y Francia.
10. Baluarte de S. Iago.	23. Baterías en el Baluarte de la Reyna.		Promontorio Oleariso, que sigue al Monte Jaizquibel.
11. Castillo del Yguer.			Monte Jaizquibel.
12. Armada Francesa, al mando del Arzobispo de Burdios.			Hermida de S. Barbara.
13. Fortaleza Francesa, al n.º del Duque de la Vela, en la Colina llamada Porraz.			Hermida de S. Thalmo.
14. Hornada de Camp ^o del Príncipe de			Basilica de S. M. Madalena.

S'hallarán en la Librería de A. Muñiz, Calle de la Carrera, frente de la Imprenta Real.

EUSKARAZKO TRATAMENDUEN IKUSPEGIA: I. HISTORIA APUR BAT

JAVIER ALBERDI LARIZGOITIA

A.—LANAREN HELBURUAK *

1) Teoria mailan, euskararen «tratamenduak» direlakoei burreduz gogoeta batzuk egin nahi izan ditut, erregistroen giltzarria den euskal alokutibotasunaren bereizgarriak, ezaugarriak, funtsa agertu asmoz.

Bide batez, hiketa, zuketa, beroriketa, xuketa erregistroen zehaztapena, bilakabidea eta erabilera jasotzen dituen azterketa baterunzko bidea urratu nahi izan dut.

2) Tratamenduen arloan, gramatikaren beste edozein partean baino nabarmenago gertatzen zaigu «pragmatika» baten premia: erabilera azaldu beharra begi bistakoa da.

Gure lan honen asmo nagusietako bat hutsune hori betetzeko pausu bat ematea litzateke: hiketa eta beroriketa erregistro markadunen erabilera zehaztea dugu helbururik behinena.

Baina oraingoz, erabilera guztien berri ematerik ez dugunez gero, gorago aipaturiko erregistroen erabilera *markagabea* bakanrik izango genuke aztergai, alegia, erabilera markadunean garrantzizkoak izan daitezkeen zenbait aldagai (hala nola hizketa-

* Orain argitara ematen den lantxo hau, berez, Euskal Herriko Unibertsitatean irakurritako tesina baten lehen zatia baino ez da. Interesgarri, jakingarri gerta daitekelakoan hautatu dut atal hau. Etorkizunean, agian luzaro gabe, eskainiko zaizkie irakurleei hemen aipatu besterik egiten ez diren atalak.

-ingurua, hiztunaren aldartea, hizketa-lagunaren izaera, e.a.) berariaz alde batera utziko ditugu, ikerkizun dugun arloa hobeto zedarritzearren.

Azkenik, esan behar dugu ikerketarako hautaturiko ingurune geografiko-linguistikoa *Markina aldea* dela **.

3) Aztertu nahi dugu, beraz, hizketa-aldi bakoitzean solas-kidearen zein ezaugarriek eragin diezaiokenen Markinako hiztunari hiketa, zuketa edo beroriketa hautatzera. Hau da, hiru erregistro hauen azpian dautzan aldagaiak agerian jarri nahi ditugu.

4) Beste helburu nagusi bat, hiketa eta beroriketa erregistro markadunen gaurko egoera eta etorkizuna azaltzea litzateke.

B.—LANAREN TAIUKERA

Lana hiru zatitan dago banatuta: lehenengo atalean, gramatikariek eta euskalariek historian zehar tratamenduei buruz agertu izan dituzten azalpenen berri ematen da; gai hau oso eztabaidatsu suertatu da eta nori berea eman ahal izateko interesgarri eritzi genion historia moduko bat egiteari. Bigarren atalean, euskaraz hizketa-lagunari zuzentzeko dauden erregistro desberdinaren azterketa linguistikoa eskeintzen da: tratamenduen bilakabidea, euskal alokutibotasuna, sistema desberdinak... Hirugarren atalean, eta aurreko parte teorikoa osatzeko, pragmatikari iristen zaio txanda: *Markina aldean egindako itaunketaren azterketa* dugu azkenengo atala **.

** Gogora aitzin-oharra.

EUSKARAZKO TRATAMENDUEN IKUSPEGIA: I. HISTORIA APUR BAT

Eskuartean darabilgun gaia, tratamenduarena, historian zehar oso eztabaidatsua gertatu da gramatikari eta euskalarien artean. Batzuei hizpidea edo, eman die hizkuntzaren bilakaera bideetan limurtzeko, besteei euskararen apologia egiteko parada ederra eskeini die; eta azkenik, ez dira gutxi izan gaiarekiko aurreritziek eraginda, hizkuntza beren gogara aldarazi nahi izan dutenak.

Etimologikeria, apologiaren zaletasuna eta zenbait aurreritzirekiko atxikidura maiz suertatu izan dira nagusi objetibotasunaren gainetik, gaiak behar zuen azterketa askotan uste ustekin zipritzinduz, lausotuz.

OIHENART-ek XVII. mendean —mugaz bestaldeko euskarazari dela¹— garbi asko agertzen ditu tratamenduekin loturik dauden erregistro desberdinak:

Del verbo 'naiz', es decir, soy (que es del género neutro) viene 'nuc', de la misma significación en verdad, pero del género masculino, de tal modo, que sólo cuando se habla al varón ha de usarse esta voz; y de la voz 'nun', que es del género femenino, usamos en el mismo sentido, cuantas veces se habla a mujer; en fin, 'nuzu', que igualmente significa 'soy', y está compuesto del simple 'naiz' y el pronombre 'zu', vos, es del género común; y de él se puede usar indistintamente, para hablar a hombre o a mujer².

Ederto azaltzen digu, beraz, adizkera alokutiboen erabilera; nolanahi ere, OIHENART-ek errealtitate hau sistematizatzeko eraibili duen ikuspuntua ez da izan erregistroarena, jeneroarena bai-zik: «azpikonjugazioa» bitan banatzen da: a) jeneroa adierazten duena; b) jenerorik adierazten ez duena:

Ejemplo de la subconjugación no genérica de los verbos transitivos³: Del verbo 'Aiz', eres (que es la segunda persona singular del verbo 'naiz', soy) se deriva el 'izait', eres para mí, v.g.

1. A. Oyenart, *Noticia de las dos Vasconias*, RIEV XVII, 1926, 352-353.or.

Hemendik aurrera aipamen xehetasunetarako ikus bedi bibliografia azkenengo orrialdeetan.

2. *Op. cit.*, 352-353.or.

3. Oihenart-en terminologian 'transitivo' = NORIduna.

'pochelu izait', eres estorbo para mí; (...) En la tercera persona, 'zait', es para mí; 'zaic', es para ti⁴; 'zaio', es para él. Ejemplo de la genérica: En el género masculino 'nizaic', soy para ti; 'nizaioc', soy para él; 'nizaiec', soy para ellos. La segunda persona plural 'nizaizue' no tiene género; porque sólo la podemos emplear hablando a muchas personas, mas advertimos arriba que los géneros de estos verbos se refieren a personas singulares y no a muchas. La misma persona 'naiz' en femenino se conjuga así; 'Nizain' soy para ti; 'nizaon' soy para ella; 'nizaien', soy para ellos...⁵.

Hau ikusita, badirudi «jeneroa adierazten dutenen sailean» hitanozko (eta zukako?) adizkerak sartzen direla eta bigarrenean gainerako guztiak. Baino, zer dela eta 'zaic' eta 'nizaic, nizain' bezalako adizkerak sail desberdinetan sartu? Nire ustez, zalantza eta kontraésan hauek banaketarako erabilitako erizpidetik dator: jeneroak ezin bana ditzake sail bitan 'zaic' eta 'nizaic' bezalako formak. OIHENART-ek gehiegiz zorroztu ditu begiak bereizgarri den puntu honetara, jenerora alegia, eta hortik errakuntza:

Hay además en las personas esta singularidad, que admiten la distinción de género; porque son o masculinas o femeninas o comunes o neutras. Los tres primeros géneros corresponden al número singular únicamente⁶.

Beraz, singularreko bigarren pertsona aktantea gertatzen den kasu batzuetan ('zaic, nizaic' ...) ez du asmatu errealtitatea sailkatzen.

Edozein modutan ere, OIHENART izan da lehena 'ZU'-ren zentzuaren berritasuna antzematen eta azpimarratzen:

El plural era antes: 'ZU' y 'zuc', vosotros; 'zure', de vosotros; 'zuri', para vosotros; 'zuzaz (zutaz)', por vosotros; pero ahora se usan en singular estos casos. El plural se declina así por el artículo: 'zuec', vosotros...⁷.

'ZU' izenordainaren erabilera berri honek, logika hutsez, honako konklusio honetara darama OIHENART: zukako aditz-joko

4. Ez dago bat ere garbi zergatik 'zaic' den 'no genérica'.

5. *Op. cit.*, 353.or.

6. *Op. cit.*, 352.or.

7. *Op. cit.*, 340.or.

alokutiboak ere berria izan behar du. Berrikuntza hau inguruko hizkuntzetan gertatutakoaren kalkoa izan daiteke; honela diosku:

Si bien a mí me parece que estas voces y otras semejantes, compuestas del número singular del verbo y del nominativo plural del pronombre de la segunda persona, son nuevas y formadas por los nuestros a imitación de los italianos, franceses o españoles, que se sirven del plural 'vos' en singular. Porque hablamos en esta lengua, empleando tales personas del género común, cuando dirigimos la palabra a alguna persona no baja, o de inferior condición a la nuestra, sino igual o superior a nosotros: Verbi gracia, en la primera persona singular transitiva de este verbo 'naiz', soy, se expresan el masculino, 'nizaic' y el femenino 'nizain' por el pronombre latino 'tu'; más el común 'nizaizu' por el pronombre plural 'vos', tomado en singular, de tal forma, que 'nizaic' y 'nizain' equivalen al español 'yo te soy'. Pero 'nizaizu' se traducirá al español 'yo os soy' o 'yo soy a Vuestra Merced'⁸.

Bere jaiotzezko euskalkiaren ezaguerari esker euskarazko hitzen bukaerako -a, artikulua zelako eritzia mantendu zuenak zorratzasun berberarekin agertu zituen 'ZU'-ren erabileren berritasuna eta orobat, tratamendu desberdinaren erabilera.

XVIII. mendean, PIERRE D'URTE-k bere gramatikan aditza azaltzerakoan elkarren segidan ematen ditu adizkerak:

Le mot sans marque veut dire *la maniere hoñette sans tu-toyer*. Le mot marqué à l' 'm' indique le *tutoyement* de l'homme. Le mot marqué à l' 'f' denote qu'on parle à la femme en la *tutoyant* et le mot marqué à 'c' montre qu'on parle à tous les deux en les *tutoyant*⁹.

Beraz, forma alokutiboak (zein hikakoak, zein zukakoak) zaku berean sartzen ditu, 'tutoiemment' delakoa izanik partiketarako erizpidea.

Piska bat goraxeago, ordea, izenordainak sailkatzerakoan zera dio:

Tu, toy, sans tutoyer.
Nom. cu...

Tu, toy, en tutoyant
Hi...

8. *op. cit.*, 352.or.

9. Pierre d'Urte, *Grammaire Cantabrique basque*, 77.or. Geuk azpi-marratua.

Zukako adizkera alokutiboak baina, 'ZU' izenordainarekin loturik daude forma eta erabileraren aldetik; beraz, erabilitako terminologia eta emandako azalpenak ez zaizkigu benetako erabileraren argigarri gertatzen. Berriro topo egiten dugu, bada, erdizkako azalpen batekin.

ETXEBERRI Sarakoak latinezko bokatiboarekin lotzen du euskarazko hikako aditz-joko alokutiboa. Eta dudarik gabe, erlazionatze honen azpian badago hitanozko sistemaren jatorriaren susmoa:

**SUM BOKATIBOAREKIN, ETA JENEROAREKIN
KONJUGATUA**

Indicativo modo, tempore praesenti

Sing. Ni nauk, edo ni naun.

'Ego sum ô vir, vel ô femina'

Hura duk, edo hura dun.

'Ille est ô vir, vel ô femina'

Plur. Gu gaituk, edo du gaitun.

'Nos sumus ô vir, vel ô femina'

Hek dituk, edo hek ditun.

'Illi sunt ô vir, vel ô femina'¹⁰.

Jeneroa, 'tutoientement' delakoa, hizketa-lagunarekiko harremana, dira orain arteko azalpenetan azpimarraturiko alderdi nabarmenak. Nolakoa erizpidea, halakoa ikuspegia; ikuspegi desberdinotatik emandako deskribapenak ez dira osoak inondik ere; bes-talde, gehiegizko argitasunik ez emateaz gainera, batzuetan nahastea sortzeko arriskua dute.

Urte batzuk geroago, LARRAMENDIrekin batera iritsiko zen Hego Euskal Herrira euskaraganako kezka eta grina. Grina honen lehenengo agerpena, ordea, euskararen defentsa eta apoloziari itsatsita dakusagu. Euskara auzipean dago; kanpotarren irainari erantzunez azaltzen zaigu andoaindarraren lan gaitza. Euskaldunen hizkuntzaren defentsa gartsu, sutsu honetan, erakutsi behar zaizkie Espanako kulturako «jauntxo» ikasiei euskararen doaiak. Auzi honetan, benetan axola duena irabazole irtetea da, eta hone-

10. J. D'Etxeberri, *Eskual Herriari eta eskualdun guztiei eskuarazko hatsapénak latin ikhasteko in Joannes Etxeberri Sarakoaren lan hautatuak*, (X. Kintanak prestatua), 225-226.or.

tarako —MITXELENAk dioen bezala— LARRAMENDI eskuetan dituen bitarteko guztiez baliatuko da:

Las mismas cualidades que hacían de él un escritor de primer orden le perjudicaron en cierto modo como investigador y erudito. No tenía, a diferencia de Hervás, ningún entusiasmo desmedido por el trabajoso caminar de las ciencias reales, hecho de continuas rectificaciones y de retrocesos aparentes al contacto con la experiencia. Llevaba consigo el espíritu pleítista de su pueblo, acostumbrado a litigar interminablemente por derechos, privilegios y prioridades y a esto se añadió la dialéctica de la escuela que aprendió en las aulas. (...). En muchas de sus argumentaciones se diría que va implícito el supuesto de que los textos o los datos de cualquier orden, en cuestiones que no sean estrictamente de fe, no prueban ni refutan nada por sí mismos, sino que todo depende del partido que de ellos sepa sacar la penetración del que los alega¹¹.

Ez da, bada, haritzekoa tratamendu kontu honetatik ere, LARRAMENDI-k probetxurik handiena atera nahi izatea bere hizkuntzaren «onerako», edo hobeto esanda, euskararen goraipamenerako; gai hau, trebetasunez erabiltzen jakinez gero, oso egokia baitzen apologia egiteko.

Gauzak honela, gure gramatikariaren egitekoa da kanpotarrei frogatzea euskararen aberastasuna tratamenduei dagokienez; aberastasun edo ugaritasun honek agerian jarriko luke hizkuntzaren egokitasuna, eta aldi berean, hurbilduko luke «arrazoiaren hizkuntza» mitikorantz.

Helburu hau duelarik, bakarrik onartuko ditu —denok dakin arrazoigatik— aditza dela medio sortzen diren tratamendu desberdinak; bestelako bideak tratamendu mailak bereizteko (izenak, tituloak, e.a) berariaz zokoratuak izango dira, hizkuntzari berari ez, baizik eta modari dagozkiolako aitzakiarekin. Azterketa honela bideratuz, iristen da bere abiapuntuko ondorioetara:

La distinción, y puntualidad en las fórmulas de una Lengua, sin duda es perfección, y la tuviera aquel lenguaje de la razón. Consiste esta perfección en las fórmulas, que tiene una Lengua, de hablar, y saludar a varios sujetos: de suerte que como ay diversas personas, à quien yo puedo hablar, y que piden de mi trabajo diverso, ya de respeto, ya de llaneza, ya de amistad;

11. Luis Michelena, *Historia de la Literatura Vasca*, 95-96.or.

assi tambien se conozca en las formulas de una Lengua esta misma distincion, y puntualidad. No hâblo aqui de los tratamientos de Señoria, Excelencia, Magestad, y otros, que son formulas, no tanto de las Lenguas, quanto de la moda, del estilo, de la lisonja, &c. y en ellas pueden ser iguales todas las Lenguas. Hâblo solamente de las formulas, que lleva de suyo una Lengua, atendiendo à su institucion y caracter. Y digo, que en este sentido el Bascuenze es Lengua mas perfecta.

Pruebola. Puedo hablar à una persona de caracter, y à un amigo, que me favorece con su amistad: puedo hablar à otro amigo si, pero que por igual no me haze favor en serlo: y puedo hablar à un inferior. La distinción, y puntualidad pide esta misma diferencia en los modos de hablar; y el Bascuenze la tiene perfectamente. Por que à los dos sugetos primeros les da el tratamiento de 'berorí, berorréc', que corresponde al 'vuessa merced' del Romance, y es que la amistad en aquel caso se ha de hermanar con el respeto: al tercer sugeto le da el tratamiento de 'zu, zuc', ò 'zeu, zeuc' con la pronunciacion de la 'z' mas dulce, y mitigada, que en Romance, y es un tratamiento medio entre el 'usted', y 'tu': al quarto le da el tratamiento de 'hi hic- eu euc', que es mas llano, y desdenoso.

Esta puntualidad, y distincion no se halla en las otras Lenguas. El Latin tutéa à todo el mundo, ni haze diferencia de personas. Sea la que fuere, no tiene mas formula, que 'heus tu', oyes tu, y aun hablando con Dios dice, 'tu Domine' tu Señor. Quite se allá, que tan mal se zurze el 'tu' con el 'Señor', como el 'Don' con el 'turuleque'. Dirán, que ay 'majestas', 'celsitudo', 'sanctitas', 'dominatio vestra'. Esso aora no viene al caso, como ya hemos advertido. Ademas pregunto, essos tratamientos son de 2. persona, ò de 3.? Si son de la segunda, que inconsecuencia es faltar en el verbo, 'Sanctitas vestra affert', vuestra Santidad lo trae, y no, 'Sanctitas vestra affers', vuestra Santidad lo traes? Si son de la tercera, no hablamos de esso, y ademas: luego el Latin en la 2. persona no haze distincion de personas. Mas el Bascuenze en el pronombre, y en el verbo tiene esta puntual diferencia; porque ademas del 'berrorréc ecárten-deu', que corresponde al 'usted lo trae', y pertenece à la tercera persona por la razon, que diré en otra parte, tiene otros tres modos, 'hic ecárten-déc, hic ecárten-dén, zuc ecárten dézu', los dos primeros del trato infimo, uno para hombres, otro para hembras, y el tercero mas cortes para ambos sexos, à los quales no corresponde en Latin mas que el 'tu affers'. Y lo mismo le sucede al Bascuenze en los otros dialectos, 'hic ecárten-dóc, ecárten-dón, ecárten-dózu, hic ecárten-dúc, ecárten-dún, ecárten-dúzu'.

Del Romance digo lo mismo, que tutéa à otro con azer distincion de personas. Hable un Español à otro con apóstrophe, y no saldrá del 'oyes, tu eres bobo, tu pareces lerdo, tu, Señor, me hiciste cargo', y ábate el Don con el turuleque. Pues diga, habrador, me dirá alguno, no tenemos el 'usted', que es mas cortés, que el 'tu', y es para hablar en apóstrophe? Si, Señor,

le respondo; yo; pero sin distinción en el verbo, en que debiera hallarse principalmente. Los pronombres se dexan mil veces en la oracion sin vicio alguno: pues déjelos por su vida, y háble à un esclavo, à una esclava, y à un amigo, y verá; que no hay mas formula, que esta 'traxis telo?' porque el 'traxolo' es de tercera persona: pero el Bascuenze lindamente, 'ecarri-déc? ecarri-dén? ecarri-dézu? De aquí el argumento que haciamos contra el Latin; por que ò el 'usted' es de la segunda persona, ò de la tercera, &c. Esto mismo sucede al Francés, que fuera del 'tu', todo es 'vous vous' en tono de quien fufa. Lo mismo al Italiano con su 'tu' y 'voi'. 'Nunc sic' aora lindamente. Luego el Bascuenze es Lengua de mas distinción, y puntualidad en las formas de hablar, que todas essas Lenguas, y otras muchissimas. Esta consecuencia ya es innegable¹².

Hau gutxi balitz bezala, LARRAMENDI-k heltzen dio euskarak duen beste bereizgarri bati: aditzaren bigarren pertsonan egiten den jenero bereizkuntzari. Andrezkoentzako forma (-n bukaeraduna) hizkuntzak cortesia adierazteko dituen baliabideetako bat izango litzateke. Beraz, izatez emakumezkoari agertzen zaion cortesiaren seinale litzateke: nolabait, gogorra, latza den '-k' -dun adizkeraren ondoan, '-n' leun eta goxoa duten adizkerak egoteak adieraziko liguke emakumezkoenganako begiramena agertu nahia¹³.

BERORI, denok dakigunez, ez da zabaltzen errespetuzko tratamendu gisa mugaz bestaldeko euskarara. LARRAMENDIK emanen digu erregistro honen berri: 1728. urterako, Gipuzkoako euskaren formatzat dakar¹⁴.

Haren ustez, 'berori'-ri erromantzean 'vuessa merced' delakoa dagokio; eta euskarazko 'zu', erromantzezko 'usted' eta 'tu'-ren bitarteko izenordaintzat dauka, erabateko kidetasunik ez dagoela; 'hi-kako tratamendua, azkenik, bajuena litzateke.

Urte bat geroago (1729), euskara eta erromantzearen arteko konparaketa egiterakoan kidetasun berdintsuak agertuko ditu:

Aunque estos dos pronombres de segunda persona 'hi, hic, eu, euc' son synonimos, y equivalentes; pero el 'zu, zuc, ò zeu, zeuc'

12. Manuel Larramendi, *De la antigüedad y universalidad del bascuence en España: de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas Lenguas, demonstración previa al Arte, que se dará a luz desta lengua.* 127-130.or.

13. Ikus *De la antigüedad...,* 131-135.or. Liburu honetan esandakoa, hitz tzez hitz aldatuko du bere hiztegi famatuaren hitzaurrera (iij eta hurrengoak).

14. Harrigarriena «bere adiskidetasuna agertzen dizun lagunari» 'Berori' esateko ohitura da.

no son synonimos con los dos primeros, antes *ay entre ellos una bellissima diferencia, que no se halla en otras Lenguas*. Por que los dos pronombres '*hi, hic, eu, euc*', son de un tratamiento mas llano, y menos cortés: pero el '*zu, zuc*', ó el '*zeu, zeuc*' es de un tratamiento medio entre el '*usted*' y '*tu*' del Romance, ni tan cortés como el primero ni tan llano como el segundo, aunque se acerca mas à la cortesia del primero: y tanto, que en *Labort* usan del pronombre '*zu*', para el tratamiento, que corresponde al '*usted*'. Esta bella diferencia de las segundas personas se estiende tambien a las conjugaciones,...¹⁵.

Kidetasunok ezartzerakoan, bistan dago elementuak berak barkerka aztertu beharrean, elementuok agertzen direneko sistema desberdinak izan dituela gogoan: gipuzkeraren '*zu*', lapurterarena bera izan arren ez dira inolaz ere baliokideak, lehenengoak besteak ezagutzen ez duen '*berori*' bat bait dauka aldamenean. '*Zu*' berberori arrazoi berberagatik, ezin izan liteke erromantzearen '*usted*'-en pare-parekoa. Kontu honetan, bada, uste baino argiago eta zorrotzago agertzen zaigu LARRAMENDI; beste asko ez bezala, ez da kontent gelditzen itzulpen hutsarekin.

LARRAMENDI konturatu zen tratamenduak «sartzen» direla aditzjokoan; eta baten batek esan duenaren kontra, hikako aditz-joko alokutiboa ere erreparatu zuen¹⁶:

No obstante quiero advertir, que tal qual terminacion, assi activa, como neutra, en algunas personas, tiene inflexiones bien irregulares, y no menos significativas. Verbi gratia, '*esáten-cíoat*', '*irabaci-etzioat*', '*esan-cioate*', &c. En estas oraciones la persona es conocida, que es '*ni*', '*neu*', yo; pero no tan facilmente la inflexion. '*Esáten-cíoat*' yo se lo digo à aquel, suena à inflexion transitiva de la 3. persona, y la inflexion regular es, '*esáten-diot*'. Suena tambien à transicion de la 2. persona '*hi*' '*hic*', '*eu*', '*euc*'; y su inflexion regular no es '*cíoat*'. Digo, que es inflexion transitiva irregular à la 3. persona, pero que determinadamente se ha de usar en circunstancias, en que se habla '*contigo*', con el '*hi*', '*hic*', '*eu*', '*euc*'. Lo mismo sucede en algunos irregulares neutros, '*hor néagok*', '*ceágoc*', '*guéaudec*', '*céaudec*': '*baneabilc*', '*ba-ceabilc*', &. que llevan la circunstancia de hablar en apostrophe '*contigo*'.¹⁷

15. M. Larramendi, *El impossible Vencido*, 23-24.or. Geuk azpimarratua.

16. 'HI' izenordainari dagokion tratamendua eta aditz-jokoa 'familiar' kalifikatzaleaz bataiatzen du Larramendi-k. Harrezkero, askok eta askok onartuko zuten bereizkuntza hau euskal aditza sailkatzerakoan.

17. *El impossible vencido*, 233-234.or. Geuk azpimarratua.

Berdin diosku bere hiztegiaren hitzaurrean, nafarrera eta la-purterari buruz ari denean:

Usan con grande aire, y frequencia de aquella *conjugacion particular*, que apunta en el Arte, y tiene sus particulares terminaciones, que indican estar hablando con alguno, a quien se trata en el modo ínfimo, y familiar, 'artu ceoat'...¹⁸.

Hikako aditz-joko hau (alokutiboa) derrigorrezkoa da —zenbait pertsonatan— 'hi' izenordaina erabiltzen denean.

Hitz egiteko modu honetan, gramatikalki sarrarazten da entzulea —aktantea izan gabe— aditzetan. Hau eta tratamendu maila desberdinei buruz emandako informazioa zor diogu LARRAMENDI-ri. Beraz, lastoa eta alea bereizten jakinez gero, badaukagu zer jaso jesuita auzizalearen idazlanetatik¹⁹.

Apologiarako zaletasunaren gailurrera iristen da XVIII. mendearren bukaeran: euskara, paradisuko hizkuntza, munduko hizkuntzarik zaharrena, osoena, borobilena, perfektoena, filosofikoa da PABLO PEDRO ASTARLOA-ren begietan.

Ikuspegi honetatik, euskal hizkuntzak tratamendu kontuan dituen bereizkarriak ez dira kasualitate hutsaren fruituak, arrazoiz eta izeatz behar direnak baizik:

Reparó igualmente el Bascuence en los dos preceptos nada confusos que nos impuso la naturaleza; esto es, el respeto a los superiores y la conmiseración con el sexó débil para tratarle con suavidad y miramiento; y viendo que el verbo era la única parte de la oración que nos dirigía con la mayor proximidad à los superiores é inferiores, quiso dividir sus verbos en corteses y familiares para cumplir con el primer precepto, y los familiares en femeninos y masculinos para no quebrantar el segundo²⁰.

Honetaz gain, ASTARLOA jabetu zen aditz alokutiboaren muinaz:

18. M. Larramendi, *Diccionario Trilingüe del castellano, vascuence, y latin*, 1. liburukia, xxvij.or. (Geuk azpimarratua).

19. Nolanahi ere, egia da «hikako konjugazio irregularra»-renak azken orduko oharra edo eranskina dirudiela. Guztiz zeharka bait dator azalpen hori.

20. P. P. Astarloa, *Apología de la lengua vascongada*, 150.or.

¿Cómo podía imitar el Bascuence à la lengua Hebrea, si nuestro idioma tiene todas las personas en sus verbos femeninos? Si tiene, no solamente *verbos femeninos de direccion*, sino de accion, pasion y recepcion? quiero decir, no solamente *verbos femeninos, para quando se dirige el habla à una muger que no tiene relacion con el verbo*, sino tambien para quando la muger hace, padece ó recibe en nuestros conceptos²¹.

Aditz-joko alokutiboari 'conjugación familiar' deitzen dio eta honela zehazten du:

Por conjugación familiar entendemos como queda dicho anteriormente, aquella inflexion por medio de la cual nos dirigimos à una ó más personas familiares sin que las tales personas tengan relacion alguna con la accion comunicada; pero la tal accion ó conversacion se tiene con ellas, y digimos que estas conjugaciones unas eran femeninas y otras masculinas²².

Aipatu berri dugun liburu horretan, izenordainak aztertzera-koan, singularreko 2. pertsonarako sail bi bereiztu beharra azpi-marratzen du; berezkuntza hau bidezkoa, naturalezak agindu-takoa da:

Exige, pues, la misma naturaleza que la segunda clase de prop-nombres se subdivida en otras dos, de las cuales la una sirve para cuando nos dirigimos en nuestros conceptos à los que nos son superiores, y usamos de la otra con los familiares. Es tan natural esta subdivisión, que no han podido ménos de reconocer su necesidad todas las naciones cultas, sin embargo de haber tenido la desgracia de hallarse con unas lenguas tuteadoras. En efecto, ¿de dónde vinieron los Vds., los V.SS., los V.EE., etc., etc.? Es indispensable que recurramos à la natural vergüenza que causaria el tosco tuteo en el hombre filósofo²³.

Ez digu ematen, ordea, 'berori' tratamenduaren berri. Zergatik ote? Bildur naiz ez ote den LARRAMENDI-k aipaturiko arrazoi-bidea (aurreritzia) euskarari aplikatu izanagatik:

De esta suerte tratamos al superior cual corresponde, y idioma será perfecto en este ramo, sin que nos veamos obligados

21. *Op. cit.*, 156-157.or. (Geuk azpimarratua).

22. P. P. Astarloa, *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva ó gramática y análisis razonada de la euskara ó bascuence*. 451.or.

23. *Discursos...*, 279.or.

al vergonzoso uso de los solecismos que se cometan en los idíomas, en el trato cortés, valiéndose ó de terceras personas de singular, debiendo ser segundas, ó de segundas del plural habiendo de ser del singular²⁴.

ASTARLOA-ren arrazoiztatzeako moduari igartzen zaio behin-goan bere oinarrizko aurreritzikeria: arrazoiaaren hizkuntzarako postulatzen dituen ezaugarriak aldez aurretik euskararengan iku-sitakoak izaten dira; hau hola izanik, ondorengo egiaztatze prozesuak deus gutxi balio dezake. Tratamenduei dagokienez, durangarrak zerbaite berri eransten badu ere, gehienbat apologiaren muturera eramatzen ditu LARRAMENDI-ren esanak²⁵.

Zenbait urte geroago —1820. urte inguran—, LARRAMENDI-ren gramatikak utzitako hutsunea bete asmoz edo, AÑIBARRO-k idazten zuen bere *Gramática Bascongada*. Titulu hau jarri arren, gehienbat aditz-jokoari buruz dihardu, bereziki bizkaierarenari buruz. Hemen axola zaizkigun ohar interesgarri, jakingarriak egiten ditu:

El idioma político, religioso, y sagrado requiere otra delicadeza, otra cultura de estilo; y no se deben usar en Púlpito aquellos modos bajos, que se usan por familiaridad, o humildad de clase inferior. Y solo tal qual vez se podrán usar, como cuando se habla con el demonio, o se quiere expresar alguna frase de un maldiciente, o iracundo. Con todo se ponen al último estas conjugaciones familiares separadamente, por complemento del bascuence, que tiene la particularidad de hablar y distinguir de sexos en las conjugaciones a diferencia de otras lenguas²⁶.

Gipuzkeraren aditz-joko 'laua'ri buruz ari dela, hanka sartze nabarmen bat egiten du: agian LARAMENDI-k bere *Arte* delakoan eskeini zion arreta eskasarengatik edo, uste du AÑIBARRO-k aditz joko alokutiboa ez dela sartzen Gipuzkoan:

Vease en Bizcaya, el cuidado que se deve observar en el uso de este trato menos cortés en pulpito y confesonario: y como allí se extiende este trato familiar no solo a 'tu' como en Guipúzcoa, más también a todas las personas, menos a 'vos'²⁷.

24. *Discursos...*, 280.or.

25. Ikus *op. cit.*, 282-295.or. eta 424-443.or.

26. P. Añibarro, *Gramática Bascongada*, 13.or.

27. *Op. cit.*, ikus 17.or.

Eta paradigmak ematerakoan, 'hi' aktanteari dagozkion adizkerak bakarrik²⁸ agertzen ditu. Geroago bizkaieraz jarduterakoan halako zalantza izpi bat somatzen da —nahastea ez esatearren—:

Este trato familiar distingue dos locuciones de sexos y habla el primero con varón y el segundo con muger; y cuando no hai más que una terminación, habla con ambos. En el 'vosotros' no hai sino locución cortés: *pero en todos los demás admite la distinción de sexos en Bizcaya y Labort; en Guipúzcoa comunmente no lo usan sino en 'tu': también se usa en Guipúzcoa.*

Las primeras personas del singular y plural dirigen la palabra a si mismos, como hablando con alguno que está presente; y en las tercera personas dirigen su locución con relación a varón o a muger²⁹.

AÑIBARRO-k ez du jadanik apologia egiten, baina «arauzale» agertzen du bere burua («ez purpitoan, ezta aitorlekuan ere ez da erabili behar»), hikako konjugazioa kontuz, neurriz, mailak beriztuz, erabiltzearen alde dago.

Garai beretsukoa dugu AITA ZABALA. Orain axola zaigun gaiari dagokionean, esan dezakegu emaitza handia dela berak utzitako lana. Handia, batez ere, bide berriak urratu nahi izan zituelako. Ikus dezagun, bada, zer dioen bere idazlan landuenean³⁰.

Euskarak hiru tratamendu ditu: 'zu' kortesiakoa, 'ic' laua ('familiar') eta 'berori' sortu berria: lehenengo biak, ZABALA-ren ustez, zaharrak eta jatorrizkoak dira, bestea, ordea, berria eta kanpotik ekarria. Garbiago esanda, 'berori' gaztelaniaren 'usted' edo 'Vuesa Merced' direlakoen kalko hutsa besterik ez da.

Berezkoak dituen tratamendu zahar eta jatorrizkoengatik euskarak alde handia eramatzen die munduko gainerako hizkuntza ezaugun guztiei; tratamenduok perfekzioaren ezaugarri nabarmenentakoak dira:

Solo nuestro idioma posee conjugaciones corteses y familiares, con las que hace la distinción de cortesía y respeto, que con tanto empeño se han procurado las lenguas modernas: y lo

28. Salbuespen bakar batekin: IZAN laguntzailea (NOR).

29. *O.p. cit.*, 78.or. (Geuk azpimarratua).

30. P. Zavala, *El Verbo Regular Vascongado del dialecto vizcaino*, ikus II, VII, VIII eta X. atalak.

hace sin oponerse à lo que prescribe la naturaleza de los idiomas de tratar de 1.^a persona à la que habla, de 2.^a à quien se habla, y de 3.^a de aquél de quien se habla, y sin trocarlos los números à que pertenecen, como lo practicaron puntualísimamente las antiguas³¹.

Zukako tratamendua da, errespetuzko pertsonari eman behar zaion bakarra; horrela erabiltzen dute iparraldeko euskaldunek eta horrelaxe ohitzen zen Hego Euskadikoen artean:

Puede verse en el «Euscararen berri onac» (pag. 42) del P. Cardaberaz, que escribía hacia el año 1761, cómo trataba la casera de Elorrio à su Cura, que le pretendía la hija para esposa de su sobrino³².

Baina, 'berori' sartzeaz batera eta 'ic' desestimatzeaz batera, 'ZU' behiala handiaren balioak behera egin du. Hala eta guztiz ere, elizako jendearekin eta pertsona nabarmenekin izan ezik, 'ZU' da guztiekin erabiltzen dena:

Es pues el tratamiento de 'ZU' el más usual en el mutuo comercio, y casi el único del púlpito y escritos públicos (§ 6), y por lo mismo el más necesario³³.

ZABALA-ren ustetan, lehen-euskararentzat tratamendu bakkreko sistema bat jartea okerreko bidetik jotza litzateke. OIHENART-en baieztapen zuhurraren aurka, 'zu'-ren zaharkotasuna defenditzen du. Okerraren arrazoia —beti ZABALA-ren ikuspuntik—, konjugazio laua, singularreko 2. pertsonaren flexioetara ezezik, 1. eta 3. pertsonei dagozkien flexioetara ere zabaltzen dela ez ikustetik letorke. Hona hemen arrazoibidea:

Siendo pues cierto, como lo es, que el tratamiento de 'Ic' tiene los artículos dichos de 3.^{as} y 1.^{as} personas, lo es igualmente que los de sus 2.^{as} son proyectos de este trato, y que junto con aquellas compone su conjugación, sin tener que ver con los del

31. *Op. cit.*, II. atala, § 1, 6.or.; ikus X. atala, § 2, 163.or. Hau irakurritakoan, Astarloa eta Larramendi datozkigu gogora.

32. *Op. cit.*, 164.or. Hau, nolanahi ere, erdikako egia baizik ez da: «Eta, Jauna, zure mesedeak etorkizuna bazau?...». Ikus A. Cardaberaz, *Euskararen berri onak*, 104-105.or.

33. *Op. cit.*, 164.or.

'ZU'. No perteneciendo à la conjugación de 'ZU' los artículos de 2.^a persona del 'Ic', no pueden ser recientes los de 2.^{as} personas de singular de dicho 'ZU', sino que deben ser tan antiguos como los otros suyos de las cinco personas, que segun el modo de pensar del mismo Oihenart lo son tanto como el vascuence, so pena de que lo contrario haya de decirse que la conjugación vascongada, completa y entera en su trato llano, estuvo en una multitud de siglos manca é imperfecta de segundas personas de singular en su tratamiento cortés³⁴.

Ez dago bat ere dudarik bide zuzenetik ibilia, OIHENART de-na. ZABALA-k oso gogoko zituen tratamendu biok ('hi', 'Zu'); hizkuntzaren perfekzio ezaugarritzat zituen neurrian ezin onar zeza-keen sistema bikoitz horren berritasuna. Gai honetan igartzen zaio ASTARLOA-ren idazlanekiko menpekotasuna ('naturaleza', 'perfek-zioa', 'zaharkotasuna', e.a.). Hikako aditz-joko alokutiboa gustoko izateak gehiegikeriak idazteria bultzatuko zuen bezala³⁵, agian, 'ZU' tratamendua gogoko izateak eramango zuen 'ZU' horren jatortasuna azpimarratzera.

Eguneroko harremanetan erabiltzen da tratamendu laua, honako kasuotan:

1. Maila berekoekin edo/eta beheragoko mailakoekin xalotasunez eta lautasunez tratatuz gero.

Tratamendu hau azaltzen da, orobat, haserrealdietan eta sesioetan entzulearen beheragoko maila adierazteko.

2. 'ZU'-ka ari izan arren, konfiantzazko lagun artean izanez gero, hikako tratamendura jotzen da «barregarri ikutua», grazia eta gatza emateko jardunari.

3. Bakarrizketetan. Nork bere buruarekin, alegia.

ZABALAK oharrarazten digu, ordea, bizkaieraz andrazkoek gizonezko batekin ari balira bezala egiten dietela beren buruei:

Pero tengo notado en nuestro dialecto que las mujeres se valen en ellos de la conjugación masculina. Así es que una muger

34. *Op. cit.*, 165.or. Ikus X. atala, § 4.

35. Ikus L. Villasante, *Historia de la Literatura Vasca*², 242.or.: «Así, por ejemplo, encariñándose por la gracia y artificio de la conjugación familiar ha hecho extensiva ésta a tiempos y modos en que no parece que se haya usado nunca».

llamada Maria, reprehendiéndose á sí misma por alguna accion mala, se diria: «Mari ¿Cer egun doc? ¿Cer esango yoc besteac? ¿Celan aguertuco *atzáco* aurrean? ¿Celan beguiratuko *deva?*³⁶.

4. «Cuando se apostrofa a los ausentes»³⁷.

5. Animaliekin (katu, txakur, zaldiak, e.a.) eta gauzakin (mundua, eguzkia, ilargia, arbolak, tresnak, zarata, gaisotasunak, heriotza, e.a.) hitz egiterakoan.

Esandakoak eguneroko bizitzarako balio du; baina ZABALA-k honetatik bereizten du goragoko maila, jasoa, ikasia, landua, serioa: maila jaso honetan purpitoko hizkera eta idatzizko hizkera jartzen ditu. Azken hauetan seriotasuna derrigorrezkoa da; hala ere, erabili ahal da hikako tratamendua kasuotan:

1. Deabruarekin, kondenatuekin eta mespretxuz tratar tu behar direnekin hitz egiterakoan³⁸.

2. Norbaitek esandakoa hitzez hitz aldatu nahi denean. Esandako hori hika badago.

3. Jesukristoren pasioan, soldaduen mespretxuzko esal diak hika jartza ere egoki gertatuko litzateke.

4. Heriotzako orduan, pekatariari kontuak ateratzen Jaungoikoa ipini beharko bagenu edo/eta infernuko kondenatuen aurrean edo engainatutako norbaiten aurrean Deabruaren isekak jarri beharko bagenitu, egoki letorke hikako tratamendua.

Kasu hauetaz aparte, iparraldeko idazleen artean ohitzen da tratamendu hori beste kasu biotan:

1. Bakarrizketetan. («Cuando uno se habla á sí mismo, ó á su cuerpo, alma, corazón, potencia, sentidos, miembros, etc.»)³⁹.

2. Bizigabeko gauzei hitza zuzentzerakoan.

36. *Op. cit.*, 165.or. § 5.

37. *Op. cit.*, 165.or. § 5.

38. Deabruarenak Añibarro-rengandik jasoa dirudi.

39. *Op. cit.*, 166.or. (§ 6).

Beste erregistro bat bereizten du ZABALA-k: barre egiteko idaztiak, alegiak, ipuinak, e.a. Honelakoetan usuago eta askatasun gehiagoz erabili ahal da hikako tratamendua; gainera, egokitasunez eginez gero atseginagoak eta barregarriagoak gertatuko dira pasadizoak.

Beraz, ondo edo oker, zehaztasun dexente ematen digu aita ZABALA-k tratamenduen erabilerari buruz.

Bestalde, defenditu egiten du konfidantzazko tratamendu honen zahartasuna eta erabilera zabala. Tesi honen alde aipatzen ditu arrazoi batzuk: jende arruntaren ohizko tratamendua izatea, erabilera zabala 'berori' sartu ez den herriean edo gutxitxo sartu den herriean, bakarrizketetan oso erabilia izatea, errefrau askotako lekukotasuna, eta azkenik aipatzen du literaturako leku bi: XVI.eko IOANNES LEIZARRAGA eta zubererazko XVIII. mende hasierako doctrina liburu bat.

Guzti honek pentsarazten dio, beti, garai guztieta erabili izan dela, beharbada 'zu' baino gehiago lehenagoko garaietan⁴⁰.

ZABALA-k, bere liburua idatzi zuen garairako —XIX. mendearren lehenengo partean—, azpimarratzen du tratamendu honen beherakada; estimu gutxitan daukate orduko hegoaldeko euskaldunek, tratamendu apalegia, bajuegia delakoan.

Uste, eritzi honen iturburua hau izan daiteke:

Mas esta idea ha debido su principio y fomento á los que hablando habitualmente el castellano ó ignorando los artículos de dicho trato, ó lo saben mal, ó á lo menos quieren nivelar el vascuence por las reglas y gusto de aquel, usando como equivalente del trato de 'Usted' ó 'Vdm' de 'berori' que se ha formado á su imitacion: y como equivalente del de 'tu' el de 'zu';...⁴¹.

Tratamendu honen beherakada eta desestimua nabarmenagoa izan da hirietan, errepideetan, berauen ondoko herriean eta Gatzela herrialdearen ondokoetan. Gainerakoetan, hala ere, ez du aintzina izandako arrakasta.

Galtze honekin badu zerikusirik idazleek egin dioten «arbuioak»: gutxieng erabili dutenak bizkaitarrak dira, hurrengo da-

40. *Op. cit.*, ikus X. atala § 7, 166-167.or.

41. *Op. cit.*, ikus X. atala § 8, 167.or.

toz gipuzkoarrak, eta azkenik, frantsesak, gehien erabili izan dute-nak: «También le han desdeñado más que lo que debieran nuestros escritores»⁴².

ZABALA-k dei sutsu bat egiten die euskaldunei tratamendu honek behar duen bizitza zabala izan dezan.

Ciertamente es doloroso el que por unas ideas erradas se prive á nuestro bello idioma de una de sus mas hermosas perfeccio-nes, en que, como antes he dicho, aventaja á todos los lenguajes conocidos. (...) debemos procurar hacer que reflorezcra este tratamiento filosófico, formado con mas delicado primor y es-quisitez, y que lleva en sí la marca de la sabiduria de su in-ventor...⁴³.

Bukatzen du ZABALA-k atala (X: «Del verbo cortés y fa-miliar») 'Berori' tratamendua kanpotikakoa dela esanez. Kanpo-tikakoa (mailebatua) izateaz gainera, euskararen senaren kontra-koa da. Bi arrazoi ematen ditu: batetik, bere bizitza laburra eus-kararen historian, eta bestetik, hirugarren pertsonakoa izatea⁴⁴. Aldatuko ditugu hona haren bukaerako hitzak:

Tanto como esta ha sido la filosofia y tino de los inventores del trato de 'Berori'. Lo diré mas claro: tanto como esta ha si-do su ignorancia, irreflexion y capricho. Por que al fin que las lenguas que no tienen sino un solo trato, reputado esto despues de la civilizacion por defecto, anden inventando con que suplir-lo y enmendarlo del modo que puedan, aun cuando no sea con mucha propiedad, es cosa que se puede y aun debe tolerarse, pues al fin el pobre tiene que remediar sus necesidades como acierta. Pero ¿en qué razon cabe, que á un idioma rico que tiene dos tratos hermosos y filosóficos, formados con el mayor tino y sabiduria, se le haga olvidar el uno para obligarle á imi-tar al que tuvo que andar en tales suplementos?⁴⁵.

Apologia alderdia alde batera utzita, oso jakingarria eta ha-rrigarria da ZABALA-ren informazioa. Geroztik ikusiko dugu haren eragina beste gramatikariengana.

42. *Op. cit.*, ikus X. atala § 8, 167.or.

43. *Op. cit.*, X. atala, § 9, 168.or.

44. Arrazoi horretan badu bere pisua Astarloa-k eta Larramendi-k eman-dako eritzia-k.

45. *Op. cit.*, X. atala, § 10, 169.or.

LARDIZABAL-en gramatikak tratamendu arloan orpoz orpo jarraitzen dio aita ZABALA-ri, ia-ia hitzez hitz segitzen dio haren irakatsiari⁴⁶. Nabari da, halaber, LARRAMENDI-ren eragina⁴⁷;uste du LARDIZABAL-ek LARRAMENDI ez zela jabetu hikako aditz-joko alokutiboaz:

El P. Larramendi, con otros varios Escritores, no dio al tratamiento de 'i, ic', mas conjugaciones que las en que (sic) entra la segunda persona de singular; pero es ya indudable, que este tratamiento tiene las mismas conjugaciones que el cortés, hecha excepcion de las que funciona la segunda persona del plural, en las cuales se usan los artículos del trato cortés⁴⁸.

Bi urte beranduago, INCHAUSPE-k zuberoeraren berri ematen digu (tratamenduei dagokienez) era honetara:

Le verbe basque possède de plus quatre manières d'exprimer chaque distinction de temps, de personnes et de nombres; nous les appelons 'traitements', à l'exemple des grammairiens basques espagnols. Le premier traitement, le plus important et le seul absolument nécessaire pour écrire et pour parler le basque, est le traitement 'indefini'; on l'emploie *dans le discours public et en général lorsqu'on s'adresse à plusieurs personnes*: eskéntzen DU, il offre; ján DUT, j'ai mangé. Le second traitement est le 'masculin'; il indique le genre masculin de la personne à qui l'on parle, et on en fait usage *avec un inférieur et avec toute personne du sexe masculin que l'on traite familièrement*; eskéntzen DIK, il offre; éman DIAT, j'ai donné. Le troisième traitement est le 'féminin'; il indique le sexe féminin de la personne à qui l'on parle, et on en use *à l'égard des inférieurs et généralement à l'égard de toutes les personnes du sexe féminin avec lesquelles on a des rapports familiers*: eskéntzen DIN, il offre; éman DINAT, j'ai donné. Le quatrième traitement est le 'respectueux'; on s'en sert *avec un supérieur et avec toutes les personnes auxquelles on doit des égards*: eskéntzen DIZU, il offre; éman DIZUT, j'ai donné. Ces divers traitements ajoutent sans doute à la complication du verbe basque, mais ils ont l'avantage d'identifier la personne qui parle avec celle à qui elle s'adresse, et d'exciter sans cesse l'attention de celle-ci⁴⁹.

46. F. I. Lardizabal, *Gramática Vascongada*, Ikusi, batez ere, «bostgarren eransquina».

47. Ik. *op. cit.*, 7.or.

48. *Op. cit.*, 17.or., oharra.

49. M. Inchauspe, *Le Verbe Basque*, 2.or. (Geuk azpimarratua).

Lehenengo eta behin, ohar gaitezen terminologiaz: izen hauek erabiliko ditu BONAPARTE printzeak bere lan garrantzitsuenean⁵⁰.

BONAPARTE-k bost tratamendu bereizten ditu: 'indéfini', 'masculin', 'féminin', 'respectueux' eta 'diminutif'. 'Respectueux' delakoa, —zukako aditz-joko alokutiboa sartzen dena, alegia— bakarrik zuberoeran eta ekialdeko baxenafarreran agertzen da. Berak 'diminutif' deitutakoa bakarrik ekialdeko baxenafarreran:

Le traitement en 'zu', lorsque la seconde personne n'entre dans le terminatif ni comme sujet ni comme régime, n'a lieu qu'en souletin et en bas-navarrais oriental. (...) Le traitement diminutif, lorsque la seconde personne n'entre dans le terminatif ni comme sujet ni comme régime, n'existe qu'en bas-navarrais oriental, le mixain excepté⁵¹.

Gainera, zehaztasun gehiago ematen digu; zukako aditz-joko alokutiboa agertzen deneko tratamendua, berez bakarrik da errespetuzkoa zuberoeran: erronkarieran maila berekoen artean erabiltzen da, ta 'indéfini' delakoa «jeneralean» hitz egiteko ezezik maila goragokoari hitza zuzentzeko ere erabiltzen dute; ekialdeko baxenafarreran maiz («régulièrement») agertzen da 'respectueux', 'indéfini' izenekoaren ordez (kasu bakanak dira 'indéfini' erabili beharrekoak); ttpigarria (šu) umeei hitz egiteko eta maila berekoen artean (!) agertzen da Garazi-n, Bardoz-en, Lehuntze-n, Mugerre-n, Urketa-n, Zaraitzu-n....

Zenbait urte lehenago, BONAPARTE-k bataiatu zituen tratamenduak 'alokutibo' adjetiboaz:

...mais on sera beaucoup plus surpris en voyant que la deuxième, la troisième et la quatrième colonne consacrées à la langue basque présentent des formes masculines, féminines et respectueuses correspondant à celles de la première. Ces formes que je propose de qualifier du nom d'*allocutives* ou même de celui de *parlementaires* ne s'emploient que quand on veut adresser

50. Bonaparte laguntzaile zuberotarraren terminologiaz baliatzen da *Le verbe basque en tableaux-en*. Ikus «Deuxième tableau préliminaire...».

51. *Le verbe basque...*, azkenengo orrialdea, bigarren oharra. Gogora dezagun erronkariera zuberoeraren barruan sartzen dela, eta zaraitzuerak ekialdeko baxenafarreraren barruan. Ikus P. Yrizar-en artikulua: «Los dialectos...», 382 eta hurr. orrialdeak.

la parole d'une manière expresse, soit à un homme, soit à une femme, soit à una personne des deux sexes à laquelle on veut témoigner quelque respect⁵².

Esan beharra dago, bestalde, BONAPARTE-k antzeman ziola 'ZU'-ri bere aintzinako pluraltasuna; ez du uste, ordea, sinkronikoki pluralekotzat hartzerik dagoenik: gauza bat da forma, eta besterik erabilera:

Nous ne doutons point que le pronom 'zu' n'ait jadis exprimé le pluriel français 'vous', mais nous ne pensons pas qu'il puisse pour cela être regardé comme appartenant à ce nombre dans la langue actuelle, malgré la forme comparable en tout point à celle du pronom 'gu' «nous». Il ne peut appartenir au pluriel, par la raison bien simple que depuis des siècles il ne s'emploie guère qu'en parlant d'une seule personne. C'est un fait accompli, qui comme tel doit être respecté, et sur lequel il serait oiseux de revenir. Nous croyons toutefois qu'il sera très utile d'étudier ce pronom dans ses terminatifs verbaux, comme s'il n'avait jamais discontinue d'être un pluriel. En le comparant ainsi aux terminatifs du pronom 'gu', on ne manquera pas d'observer qu'il n'est pas jusqu'au pléonasme et à la rédonnance que l'on remarque souvent chez ces derniers, qui ne se reproduisent dans les mêmes circonstances et d'une manière exactement typique chez les premiers. C'est donc par la forme que l'origine plurielle de ceux-ci est mise en évidence...⁵³.

BONAPARTE-ren eritziz, tratamenduen aberastasuna euskaren bereizgarrietariko bat da, euskal aditzaren «logikotasunaren» erakusgarri:

Le conjugaison objective pronominale à régime direct et indirect à la fois et les traitements masculins, féminins et respectueux sont exclusifs au basque *qui, seul en Europe, peut se vanter de posséder un verbe si riche en formes logiques*. Je ne leur appliquerais pas cette qualification si elles ne servaient pas à exprimer des rapports différents⁵⁴.

GEZE-k, urte batzuk geroago, ez dio aparteko ezer eransten INCHAUSPE-k esandakoari⁵⁵.

52. L. L. Bonaparte, *Langue basque et langues finnoises*, 19.or. (Geuk azpimarratua).

53. *Le verbe basque en tableaux*, xvi.or. (Ikus bigarren oharra).

54. *Langue basque et langues finnoises*, 21.or. (Geuk azpimarratua).

55. L. Geze, *Eléments de Grammaire Basque*, Ikus 76-77.or.

Hego Euskal Herrian, 1884.ean agertzen da gramatika on bat ARTURO CAMPION-en eskutik. Tratamenduak direla eta, iturri nagusi bi erabiltzen ditu: AITA ZABALA eta BONAPARTE. Iturri hauetaz baliaturik halako ikuspegi oso bat izateko moduko testu bilduma bat eskeintzen du⁵⁶.

'HI' izenordainari buruz dio tratamendu lauari («familiar»-ari) dagokiola. Zerbait erabiltzen du herriko jende lauak, arruntak berre klasekoekin; goragoko mailakoari hika zuzentzea gauza zatarra litzateke:

..., pues se consideraría una insigne grosería, contraria a todos los hábitos de respeto del pueblo euskaro, el que un inferior se valiera del 'i' dirigiéndose à un superior⁵⁷.

Bestalde, CAMPION-ek azpimarratzen du hikako aditz-joko alokutiboaren zaitasuna; izenordainari konjugazio ikaragarri aberatsa dagokio, txikitatik ez dakienari trebetasunez erabiltzea ezinezkoa egiten zaiona:

Este «encanallamiento» del 'i' es verdaderamente lamentable, porque à dicho pronombre corresponde una riquísima conjugación, tan completa como complicada, cuyo uso es de gran donaire y viveza, de la que jamás consiguen valerse con soltura los que no la mamaron en la cuna⁵⁸.

'ZU' izenordainari buruz, PRINTZEA-k esana errepikatzen du, VAN EYS eta VINSON-en eritziak harira ekarriz⁵⁹.

CAMPION-ek bost tratamendu bereizten ditu, BONAPARTE-ri jarraituz:

a) el indeterminado; b) el familiar, que se subdivide en masculino y femenino; c) el respetuoso y d) el diminutivo. De considerarse el masculino y femenino del familiar como tratamientos separados —según lo hacen algunos tratadistas— resultan cinco. Este es el criterio del Príncipe Bonaparte.

56. A. Campión, *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*, Ikus, 50, 162-3, 332-335.or.

57. *Op. cit.*, 162.or.

58. *Op. cit.*, 162..or.

59. Campión-ek 'ZU'-ren pluraltasunaren «aurkikuntza» Bonaparte-ri zor zaiola uste arren, Oihenart dugu lehena fenomeno jakingarri hori azpimarratzen.

Llamo yo tratamiento indeterminado al que los gramáticos del país acostumbran denominar «cortés»; ó sea, á las flexiones correspondientes al 'ZU'. Le doy el nombre de indeterminado, porque al revés de los restantes, no especifica ni el sexo, ni la edad de la persona con quien se habla, pero sí que á quien se habla es «con comedimiento y cortesía»⁶⁰.

AITA ZABALA-ren tesiak bereak egiten ditu: hikako tratamendua aberatsa eta jatorra da; 'Berori' sortu eta sartu berria, nahastearren fruitua da⁶¹;... Orobak, bere egiten du haren deia hikako tratamendua berpizteko.

Errespetuzko tratamendua ,edo gauza bera dena, 'indeterminado'-aren gainetik dagoen tratamendua, bakarrik zuberoerak dauka⁶². Azkenik, tratamendu ttipigarria bakarrik dago ekialdeko baxenafarreran.

CAMPION-ek mugaz bestaldeko lanen berri duenez gero, euskalrazko tratamenduen ikuspegi osoago, zabalago bat ematen digu; behintzat, hegoaldeko gramatikarien aldean.

Mendearen bukaeran, ITHURRY-k hiru tratamendu maila bereizten ditu lapurterarentzat (CAMPION-en terminologiaz baliatuz):

Il y a trois traitements, savoir: 1.^o l'indéterminé; 2.^o le masculin; 3.^o le féminin, c'est-à-dire que la flexion du verbe dans la même personne est parfois différente suivant qu'on s'adresse: 1.^o à quelqu'un indéterminé (abstraction faite du nombr, du sexe, de la dignité); 2.^o à un homme qu'on tutoie; 3.^o à une femme qu'on tutoie...⁶³.

Ohar gisa, gaineratzen du baxenafarrera eta zuberoeran laugarren tratamendu bat dutela, 'respectueux' izenekoa.

60. *Op. cit.*, 332-333.or.

61. *Op. cit.*, 334.or.

62. Campion-ek Bonaparte-ren oharra jasoz, errespetuzko tratamendua zuberoeran bakarrik dugula diosku; baina baieztapen hori zehaztu egin beharko zukeen: tratamendu hori zabaltzen da baxenafarrerara (erronkariera eta zaraitzera barne); baina izenaren esanahiari gagozkiola (errespetua adierazteko) hobetoen zuberoeran irauten omen du.

63. Ithurri, *Grammaire Basque*, 61.or. Ikus 13, 18, 60, 61.or.

1894.ean argitaratu zen ARANA-GOIRI-ren artikulu bat, euskaltzale batek egindako galderei erantzunet⁶⁴; bertan tratamen-duei buruzko eritzia eta erabilera buruzko «legeak» agertzen ditu. Bere tesien oinarritzko iturria AITA ZABALA da; beroni segitzen dio goitik behera, zenbait ideia gehitxoago desarroilaturik.

Egiten zaison lehenengo galdera da, ea zergatik 'ZEU'-ren itzul-pentzat, 'usted' ematen duen, eta esanahi hau izatekotan, ea zein ote den 'berori'-ri dagokiona.

Erantzuna berehalaxe dator: «Euskarazko 'zeu' edo 'zu' singularreko bigarren pertsonaren izenordain errespetuzkoa delako, bere esanahiari begira, gaztelaniazko 'usted' edo 'vuesa merced', 'vos'-en baliokidea; eta 'berori' edo 'berori', izenordaina barik, «ese mismo» adierazten duen erakusle bat delako».

Jarraian, euskaltzaleari zalantza hori ulertzen duela diotsa. Euskaldun gehienetan ustez, 'eu' edo 'i', 'tu' eta 'usted'-en bitarteko zerbait da, 'tu' baino errespetu handiagokoa eta 'usted' baino errespetu gutxiagokoa; 'berori', gaztelaniazko 'usted' baino errespetu gehiagokotzat daukate:

Pero éste es uno de los muchos errores vulgares que deben desvanecerse⁶⁵.

S. ARANA-ren eritziz bizkaieraz⁶⁶ tratamendu bi baino besterik ez dago: itanozkoa eta zutanozkoa⁶⁷. Euskal aditzean ba ote dago 'berori'-ri dagokiokeen bigarren pertsonaren flexiorik? Ez,

64. S. Arana Goiri, *Obras completas*, «Documentos póstumos» 2348-2351.or. «Cartas a Euskófilo» 385-394.or.

65. *Op. cit.*, 385.or.

66. Orriaren beheko oharrean dio berdin dela gainerako euskalkietan: bakarrak zuberoruan dago hirugarren tratamendu bat, haurrekin erabilia. Bistan dago Arana Goiri-k ez zuela Bonaparte-ren lana irakurri.

67. Hitzen azterketa morfológikoa dakar:

itanoz: i(tú) + ta(y) + no(yo) + z

-i, 'eu'-ren ordez.

-ta, 'eta'-ren ordez.

-no, 'neu'-ren ordez.

zutanoz: zu + ta + no + z (-z: moduzko atzizkia).

zu, 'zeu'-ren ordez. = «usted».

bat ere ez; beraz, 'berori' eta 'eurok' ez dira izenordainak, eta izenordainak ez direnez gero ez dute sortzen hirugarren tratamendurik.

Zein flexio dagozkio 'berori'-ri eta 'eurok'-i? Hirugarren pertsonarenak. Horra hor kontraesana! Lehenengo pertsona, hitza duena bada, bigarrena hizketa-laguna (hitza zuzentzen zaiona) bada eta hirugarrena aurrekoak ez beste edonor bada, hara kontraesana: 'berori' erabiltzen da hizketa-laguna adierazteko —2. pertsona— eta dagokion flexioa 3. pertsonarena da.

Así, 'berori da' significa 'tú él es': ¿quién es aquí el que es? ¿tú o él?⁶⁸.

Honen ondoren, AITA ZABALA-ren eritzia dakar: 'berori'-ren asmatzaileek baldarki, ez-jakintasunez eta nahikeriaz jokatu dute; euskarak ez zuen inondik ere holako «monstruo» baten beharrik.

Behin 'berori' tratamendua hizkuntzatik erauziz gero, tratamendu bi bakarrik gelditzen dira: hitanozkoa eta zutanozkoa. Tratamendu bioi aditz-joko desberdinak dagozkie: bata errespetuzko pertsonentzakoa («cortés»), bestea konfidantzazkoentzat («familiar»); azkenengo hau bitan banatzen da entzulearen sexoaren arauera ('masculinas' eta 'femeninas')⁶⁹.

Gauzak honela, ez da zaila euskal izenordainak itzultzen: errespetuzko tratamenduko 'zeu'-ri, gaztelaniazko errespetuzko izenordain guztiak ('usted, vuestra merced, Vuestra Majestad, Vuestra Santidad, Vuecencia, Vuestra Reverencia, Vuestra Paternidad,...') dagozkio, eta berebat, konfidantzazko 'eu'-ri gaztelaniazko tratamendu laueko izenordaina ('tú').

Itzulpenaren auzia erabaki eta berehala, erabilerari ekiten dio: noiz tratamendu bata eta noiz bestea?⁷⁰. Bakotzaren erabilerarako zerrenda bana ematen digu.

68. *Op. cit.*, 387.or.

69. *Op. cit.*, 2348-2349.or. Honetan, Larramendi-ren ondorengo gramatikarien tradizioari jarraitzen dio S. Arana Goiri-k.

70. Erabilera zehaztu beharrak agerian jartzen du proposatutako itzulpenak ez digula, berez, gehiegi laguntzen, edo bestela esan, itzulpenaren alferreko eztabaidea izan daiteke.

Hitanoa erabili behar da:

1. Izaki bizigabeekin hitz egiteko: zerua, itsasoa, burdina, ea. Beti jenero maskulinoa.
2. Landare eta animaliekin. Alegietan animaliak elkarrekin hizketan jartzerakoan kontutan hartu beharko da bakoitzari dagokion tokia: inaurriak leoiari 'zeu' esango dio, baina leoiak inurriari 'eu'⁷¹. Jenero maskulinoa.
3. Kondenatuekin, zein aingeru zein gizonekin. Beti jenero maskulinoa.
4. Arimaren etsaiek. Jenero maskulinoa.
5. Grina eta pasio txarrekin: alferkeria, lizunkeria, ordikeria, jokoa. Jenero maskulinoa.
6. Gorputzari hitz egiteko. Jenero maskulinoa.
7. Mespretxua adierazteko hizketa-lagunari. «Jeneralean» jenero maskulinoa, baina gizabanako konkretuei, zeini bere sexoaren arauera.
8. Bakarrizketetan. Beti jenero maskulinoa, emakumezkoa izan arren bere buruarekin hizketan dagoena.
9. Bertan ez dagoen pertsona batez gaizki esaka ari zterakoan. Pertsonaren sexoaren arauerako jeneroa.
10. Konfidantzazko pertsonen artean, zerbaiti barregarri edo irrigarri kutsua emateko. «Jeneralean» maskulinoa: gizabanako bakoitzarekin bere sexoaren arauera.
11. Beheragoko mailako pertsonekin: seme-alabak, beheragoko mailako senideak; haurrak; gaztelaniaz 'tú' erabilten dugun guztietan (morroi, neskame eta zerbitzariek ezik⁷²) jeneroa, sexoaren arauerakoa.
12. Maila berekoekin: neba-arrebak, senideak; adiskideak, pertsona oso ezagunak, e.a. Jeneroa, sexoaren arauerakoa.

71. Ohar hau berak egindakoa da, eta seguru asko, guztiz zentzuduna.

72. Ohar hau Arana Goiri-rena da.

Zutanoa erabiltzen da:

1. Jaungoikoari, Aingeruei eta Santuei hitz egiteko.
2. «Con los 'lugares' sobrenaturales: el Cielo de los bienaventurados, el Trono de Dios, el Purgatorio, etc.»⁷³.
3. Giza-arimarekin.
4. Doaiekin⁷⁴.
5. Goragoko mailakoekin: gurasoak eta goragoko mai-lako senideak; zaharrekin, oso ezagunak izanda ere, 'agin-tea' dutenei agintari bezala tratatzerakoan.
6. Pertsona ez-ezagunekin; errespetua gorde behar den guztietan: maisuak bere ikasleei, nagusiak bere morroin-neskameei, e.a.

Jeneroari buruzko ohar gehienak, ARANA GOIRI-renak badira ere, zerrenda biok —bizpahiru kasu ezik— AITA ZABALA-ren «El verbo regular vascongado»-tik jasoak ditugu. Jeneroari dagokionean gehienetan asmatu egin du; ez hain-bestе hitano/zutano banaketan (batez ere, «bere kolkotik» zerbait eransterakoan).

RESURRECCION M.^a DE AZKUE-k arreta handia eskeini zion tratamenduen gai honi. Orrialde franko, argitasun handiko pasarte franko, eta egia aitortzeko, gehiegikeria franko aurki daitezke haren lan garrantzitsuenetan zehar. Lekeitiar euskaltzale eta euskalari handiak, gai honi dagokionean, luma bizkorregi erabili ez ote zuen gaude, bere ohizko hizkuntzarekiko sena, zentzua eta zuhurtasunaren zantzurik ere ez bait dugu pasarte batzueta somatzen.

Ikus dezagun, bada, bere gaztaroko gramatikan —AZKUE-k bere «gaztaroko pekatua» zeritzonean— zer dioen tratamenduei buruz. Esan beharra dauagu, nahikunde edo nahikeria baten mendeko agertzen zaigula AZKUE lan honetan: euskaraz, singularreko

73. *Op. cit.*, 389.or.

74. 2, 3, 4, kasuek, logikaz, Zabala-ren esanetatik atereak dirudite. Esan behar da logika hori manikeismoarena dela: gaizkiari hitanoa dagokio, ongiari, ordea, zutanoa. Urrunegi joatea ez ote den nago: Zabala-k ez du hain-bestearainoko zehaztasunik ematen.

bigarren pertsonan izenordain bakarra dago ('i'), 'ZU'-k pluraleko esanahia duka («vosotros»). Nahikunde honek itsututa, azaltzen du bere teoria⁷⁵.

AZKUE-ren eritziz, 'hi' ezin daiteke konfidantzazko izenordaintzat har, 'ZU'-k errespetua barik «vosotros» adierazten duela-ko; aurretikako ideia honetan oinarrituta, esaten du konfidantzazko tratamendua bakar-bakarrik aditzean erakusten dela (aditz alo-kutiboaren bitartez):

Autu laua aditzean bakarrik erakusten dai. «norberan nai bezte baten egimenetan' itz egiten iakana sartutea» dai autu laua (=«conversación familiar»)⁷⁶.

Autu laua mendekoekin eta adiskide urkoekin ohitzen da. Honela sortzen da euskaraz aditz-joko berezi hori:

El euskara suele manifestar con 'i=tú' á quien se habla (ó la segunda persona); é intercalando 'i' en el verbo conjugado se manifiesta la llaneza ó familiaridad de la conversación («autuan lautasuna»)⁷⁷.

AZKUE-k artean ez zuen ongi bereizten aditz-joko alokutiboa eta NOR-NORI tankerako konjugazioa: 'Nago' esateko lau hauiek ditugu: naIagok=Te(te) estoy, naIagon=te hembra(te) estoy, naIgoka=(te) le estoy, naIagotsu=(te) os estoy, naIagoke=(te) les estoy⁷⁸.

Gero dio, 'I' horrek ez duela esanahi garbirik: itzultzerakoan 'te' jarri du nolabait iragartzearren.

Bigarren pertsona (NOR, NORK) denean autua ezin lautu daiteke (horra aipatutako nahastea: 'naioatsu=(te)os voy' autu laua litzateke 'I' sartu delako, 'I' aditzetik kanpora —izenordaina denean— ez da lautasunaren agergarria:

75. R. M.^a Azkue, *Euskal Izkindea*.

76. *Op. cit.*, 68.or. (187 zenbakia).

77. *Op. cit.*, 68.or.

78. Ikus 69.or. (188-189.zenb.). Urte asko pasa eta gero, bere MV-n, artean uste zuen 'NOR-NORI' sistemako adizkerak «autu lauaren» eragin-nezkoak zirela, halako nahaste bat, alegia.

I lautasunezko autuan artetutenean («tartekatzen») dain gizan' bezte autugin ('locutivo') bat lotsazkoan («errespetuzkoan») artetuko balitz' nai ta nai-ez bitariko autuginak dagozala autortu bear izango geuke: lotsazkoak eta lauak. Baino lotsazko aditzetan arteturiko autuginik egon-ezen ganera' 'i' bere ezdai lautasun utsezko autugina; edo obeto adierazoteko' 'i' aditz-artearen lautasuna agergarria izan arren' aditzetik kanpoan' lotsaa la lautasuna agertutenean dauz⁷⁹.

AZKUE-ren tesi nagusia hauxe da:

«Ezdauka BEREZ euskaraak I-n ordezko lotsazko autuginik». Hau frogatzeko bost «argimen» ematen ditu:

1. Lotsa (errespetua) eta lautasuna, ez daude izenordainetan, aditzean baizik.
2. Euskarak errespetuzko izenordainik baleuka, aditzetan tartekatuko luke, autu laua adierazteko, 'i' tartekatzen den antzera.
3. Euskal idazle guztiak, 'hi' bigarren pertsonaren izenordaintzat daukate (askok ezaintzat eduki arren).
4. Aitortu behar da, 'hi' singularra eta 'zu' plurala direla, edo euskarak berez ez duela 'hi'-ren ordez 'zu' esaten⁸⁰.
5. 'Zu' plurala delakoan daude oraintsuko idazle gehienak ere. BONAPARTE-k itxuraz ere plurala dirudiela dio, eta ondo dio: 'ni, hi' singularrak, 'gu, zu' pluralak⁸¹.

Bezte izkeretan ordu tsarrean ikasita' gizon bati 'ator' 'abil', 'auka' ... 'esan bearren' 'zatorz', 'zabilz', 'zaukaz', 'zakarz', 'zegozan', geienetan (beti ta edonon ez) esaten iaka gaur. 'Zu' diakoa («plurala») daina iakiteko atzenengo 'z-n begiak ipintea baino ez dai bear. 'Zatorz' 'vos venís' erdarazkoa dai, eta onelan bezte guztiak: diakoak eurenez, eta erdaldunen antzera bakartuta⁸².

79. *Op. cit.*, 69.or. (191.zenb.). (Geuk azpimarratua).

80. Euskera nahastuan, ordea, 'zuek' erabiltzen da «vosotros» adierazteko. Ikus 71.or. lehenengo oharra.

81. Aitortzen digu, ordea, hau bigarren eskuko iturritik jaso duela, ez bait du Bonaparte-ren lanak eskuratzerik izan.

82. *Op. cit.*, 71.or. (195.zenb.).

5. Euskarara ere, gaztelaniaz gertatutakoari jarraituz, ekarri dira adabaki batzuk: erdarazko 'vos'-en ordez 'zu' plurala, 'usted'-en ordez 'Berori'⁸³ eta 'Don'-en ordez 'on'(!). 'Zu' plurala da, 'Berori' = «ese mismo» eta 'On' astakeria galanta.

Azkenean aitortzen du ohiturak leku gehienetan modako kortesia hauen alde erabaki duela. Baino ez du uste, logikaren kontrako usadioari jarraitu behar zaionik; aitzitik, ohiturok lurperatu behar dira:

Erbeztek oituraak' erbeztean dagoz ondoen; oitura *tsarrak'* edonongoak izanda bere' lurpea ta obia daue bizi-lekurik ego-kiena⁸⁴.

Autu laua bakarrik aditzaren bitartez adierazten da; honetarako lotsazko aditz-erroari aurretik, 'i' itsasten zaio eta atzetik -k, -n, edo -tsu (!). AZKUE-ren nahastea nabarmena da: 'natorkik' eta 'natorkizu' ezin daitezke lautu bigarren pertsona iragarrita da-gelako, 'naiagok' eta 'naiagotsu', ostera, lautzat dauzka (!)⁸⁵.

Importantea da azpimarratzea, baita ere, AZKUE-k uste duela lautasunaren agergarri tartekatzen den 'i-' hori, bigarren pertsonaren izenordaina dela, 'hi' alegia.

83. Itzulpen hau aditzaren pertsonari begira dago egunik, Azkue-k berak diosku esanahiaz 'berori = vos' eta 'zu = usted' (ikus 72.or.).

84. Hau irakurri ondoren, harritu egiten gaitu Azkue-ren ohar batek: «Gramatika idazten nagoela kontuan eduki bezate irakurleek; bestela, errespetuz hitz egiteko ez hauek bakarrik, beste mila modutako hitz, 'behar iza-nez gero', ohituko nituzke». Ohar honen ondoan ikus dezagun pasarte batzuetaiko grabetasun kutsua:

«len esanda daukatanez' nastea dai eriotzarako biderik artezena; ez aztu.» (184.or. 546.zenb.)

«No he hecho esta advertencia con el deseo de que se empleen esas confusiones, sino para saber cuáles sean los elementos vulgares en hora mala euskarizados» (194.or. 567.zenb.)

«erdaristik diartean («pluralean») sartuta daukaguzan 'lotsagarrizko' autzinakaz ('zu, berori, eta on') zalgiaz aitzurlariak egiten dauena egin behar daugu: inguruak ondo iorratu' sustrai ta guzti aterata... jaurti.» (233.or. 657.zenb.)

85. Ikus 233.or.: 655 eta 657.zenb. Alderatu bestalde, 190 zenbakia eta 655 zenbakia.

Orain artean agerturiko uste eta ideia horietariko zenbait, tematsu defendituko ditu AZKUE-k bere heldutasuneko lan handietan. Uste horien itsumenean, okerreko bidea hartuko du urte batzuk geroago, bere *Morfología Vasca-n*.

Bi garai hauen bitartean, haren hiztegi bikainaren lekukotasuna dugu:

En nuestros días este pobre pronombre está en desgracia, se le desprecia como tratamiento bajo, vil; en G, le llaman desdiosamente IJITOEN IZKUNTZA... el pronombre un tiempo plural, ZU ha usurpado su puesto y le empuja; de algunos pueblos ha conseguido echarle. ¡Lástima que entre nosotros no le haya acogido la Iglesia, como le acogió en Inglaterra [inglesezko THOU-z ari da], bajo el amparo de su inmunidad, y no le haya ennoblecido como le ennoblecio allí, haciendo que él y no otro pronombre pudiese dirigirse á Dios! ⁸⁶.

Ikusten denez, 'HI' izenordainari harrera beroa egitearen aldekoa da AZKUE. Itsusitzat daukatenei, gogorazten die; a) beste hizkuntza batzueta tratamendu hau deabruarekin eta, erabili arren, ez dutela zitaltzat, dongetzat hartzen; b) hots handiko 'ZU', zornearren antzera sortu zela: handitu, puzgo batetik.

Zornea, gorputzaren handitutik dator, errespetuzko tratamendua arimarenetik. Gure 'ZU', —erdarazko 'vos' harroxkoaren kutsapenez etorria, harrokeriak sortua, antustea hazia, ez-jakintasunak eta ohiturak mantendua— hizkuntzatik erauzteari bidezkoa deritza AZKUE-k, kentze hau onuragarria litzateke, behintzat gramatikaliki—. Baino dagoeneko, tamalez ezinezko da.

Jarrerak, *Euskal Izkindea*-ko harako hura eta oraingo, susstraian ez daude hain urrun elkarrengandik: baina oraingoan AZKUE makurtu egiten da usadioaren aurrean.

'ZU' artikuluan, «vos», «usted», «vous (singulier)» itzultzen du, eta bigarren adiera batean «vosotros», «vous (pluriel)» arkai-kotzat dakar⁸⁷. Gaztelaniaren «vos» ematen badu ere, 'ZU'-ri ez dagokio euskaraz esanahi hori («vos» adierazteko euskarak 'ori, berori' dauka (!)): kidetasuna dator, ez esanahiaren aldetik, aditzean

86. R. M.^a Azkue, *Diccionario vasco-español-francés*. 1. liburukia, 376.or.

87. *Op. cit.*, 2. liburukia, 465.or.

behar duen pertsonatik baizik, formaren aldetik, alegia⁸⁸. Esanahiari gagozkiola, 'usted'-en parekoa dugu. Oraindik ere gainera-tzen du:

No hay necesidad de volver á hacer ver que el único «tú» del vasco es 'I', por más que muchos, considerando bajo este tra-tamiento, se valen de 'ZU' en vez de este otro.

Frantsesezko artikuluan dio:

Aujourd'hui il a la même valeur que le français 'vous' (singuli-lier): ZUK ERRAN DUZU, «vous l'avez dit». Le traitement res-pectueux français de la troisième personne s'exprime en basque par les mots 'ORI (AN,BN), KORI (BN,R)' et 'BERORI' (B,G). Il est inconnu dans les dialectes basques-français BN,...,L et S: KORREK ERRAN DU (R), ORREK ERRAN DU (BN-aezk.), BE-RORREK ESAN DU (G)⁸⁹.

Jarraian, 'ZU'-ren jatorrizko pluraltasunaren arrazoiak ema-ten dizkigu:

1. 'GU' izenordainarekin duen antza. (Berriz dio BONAPARTE izan zela lehena hori ohartarazten).
2. Aditz-jokoan oso nabarmena da haren pluraltasuna: pluralgiledun adizkerak ditu.
3. Bizkaierazko adibideak (MOGEL, BARTOLOME,...): 'ZU'-ri dagozkion flexioak (ENAKUTSU, DAKIZU, EDEGI-DAZU,...) «vosotros» esanahia dutela.

88. Ohar hau berau egina zuen bere *Euskal Izkindea-n* (Ikus 72.or. 197.zenb. eta lehenengo 'oharra).

Bestalde, hiztegian bertan (I. lib., 156.or.) 'Berori'-ren itzulpenean dakar bigarren adieran «vos», «vous».

Dena dela, kidetasunak bakarrak balio du leku batzuetarako (AZKUE-ren garaieko Nabarniz-ko zaharrak, Elgoibarkoak, Eibar Soraluze, ...), eta garai baterako (Mogel, Bartolome...). Hortik kanpora, euskarazko 'dezu' plu-rala izan daiteke diakroniarekin aldetik edo formagatik; gaztelaniazko 'ha-béis', 'vosotros' izenordainarekin erabiltzen den plural bera da (ikus Bona-partea, *Le verbe...* xvi.or. 2.oharra).

89. *Op. cit.*, 466.or. BN *Kori* zaraitzukoa da.

Gero zehazten digu konjugaziotik kanpora ez duela holakorik aurkitu: 'ZU' izenordaina ez da inoiz erabiltzen «vosotros» esanahiarekin⁹⁰.

Bukatzen du artikulua esanez:

El pronombre 'ZU' es hoy usado como «tú» allí donde 'I' ha desaparecido. La borriquera, protagonista de una composición festiva de mi padre, que al encontrar á su jumento le dio este tratamiento, sin duda no habló así por amabilidad: BARABASA, le dijo, ¿OR ZAGOZ?

Morfología-n AZKUE-k honela azaltzen du zertan den aditz-joko laua —*Izkinka-dea-n* erabilitako adjetiboaz baliatzeko—: hitz egiten zaion pertsona, 'HI', maitekiro sarraraztea bereak ez diren bigarren pertsonaren flexioetan⁹¹. Lautasunaren ezaugarria aditz-erroaren aurretik doa eta atzetik sexoarena: 'k' gizonezkoak direnean; 'n' hitz egiten zaiona andrezkoak denean⁹².

Ez dator bat ARRIANDIAGA-rekin aditz-joko honi eman behar zaion izenaz: 'aditz-joko elkarrizketatua' ('conjugación dialogada') izenari ez deritza zuzen. Horrela ez dugu ondo bereizten besteetatik: zukako aditz-joko alokutiboa ere elkarrizketatua da; elkarrizketan ez da aditz-joko hori derrigorrezkoa; bestalde, mintzaria, izatez, elkarrizketan gauzatzen den zerbaite da.⁹³

90. Bonaparte-ri erantzunez dio, 'ZU' ez dela dagoeneko frantseseko 'VOUS' bezain plurala aditzetik kanpora, aditz-jokoan, ordea, bada plurala.

91. *Izkinka-dea-n* Azkue-k 'maitetasuneko irabiamena' darabil «Conjugación familiar» adierazteko. Eta 'maitetasunek' itzultzen du «cariñosamente». Beraz, 'familiaridad' eta 'familiar' bi eratara dakar: 'maitetasuna-lautasuna' eta 'maitetasuneko-laua'.

92. Iku *Morfología Vasca*. Batez ere, 588-601.or. (Baita, § 639, § 640, § 641).

93. Agian Arriandiaga-k deitura horrekin arindu nahiko zukeen aditz-joko hau, leku batuetan hartutako zentzu txarretik. Azken finean, Arriandiaga-k *Euskal Izkinka-dea*-ko Azkue-ri jarraitu nahi dio, harako gramatika hartako teoriak «logikotasunek» azken muturreraino eramanez.

'HI'(I) singulararentzat eta 'ZU' pluralarentzat jarri ondoren, ez da harritzekoa, lehenengoa lautzat hartzearekin ados ez egotea, eta Arana Goiri-k hitanoaren erabilera legegekin bat ez etortzea. Iku M. Arriandiaga, *Euskal-Aditza*, 1897, 30.or. eta «El verbo vasco familiar y dialogado» hitzaldiaren laburpena, 179-181.or.

—'Dialogado-a' itzultzeko M. Lekuona-k 'alkarrizketatu' darabil. Iku «Deikia aditzetan», 99-116.or.

Hau azaldu ondoren, bere eritzia ematen digu: aditz-joko honi —konjugazio lauari— *bereizgarri, nahaste-sortzaile, eta zaharkotasun laburrekoa* deritza AZKUE-k.

Bereizgarria, zeren

pues aunque hay varias lenguas que tienen sistema parecido de conjugación al de la nuestra, jamás ha llegado hasta nosotros noticia de que haya una sola que distinga entre flexiones corteses y familiares, que exprese por ejemplo, las ideas de «vengo», «estoy, se murió» de una manera cuando se habla con un amigo de confianza y de otra cuando debemos respeto al interlocutor⁹⁴.

Uste du gainera, hikako aditz-joko alokutiboak ikaragarrizko nahaspila eta hondamena sortu duela euškal aditzean, batez ere bizkaieran: 'IZAN- NOR-NORI' laguntzaileak galdu du -ki- jatorrizkoa hikako konjugazio alokutiboaren eraginez, eta gaur, 'dakit, dako, dakigu,...' adizkeren ordez, 'dat, dako, daku'... (zait, zaio, zai-gu...) bezalako forma nahastuak ditugu, itxuraz alokutiboen modukoak, esanahiz errespetuzkoak. Hortik dator kio konjugazio lauari bigarren adjetiboa: *nahaste-sortzailea, nahastekaria* ('perturbadora' dio berak).

Zaharkotasunik eza frogatzeko, luzatzen da piska bat. Lau arrazoi ematen ditu bere teoriaren alde:

1. 'zotorrek' bezalako flexioetan, uste du AZKUE-k hasierako 'z-', 'ZU' izenordainari dagokiola (!). Hemendik ateratzen du bere ondorioa: euskalki batzueta, 'ZU' konjugazio lauaren ezaugarritzat agertzen da, sexo ezaugarriekin batera ('-k, -n). 'ZU', —aintzina batean plurala, gaur singularra— adizkera alokutiboan agertzeko, alokutibo honek berria izan behar du, gutxienez 'ZU' singularra bezain berria (!).

2. Elkarrizketan behin 'HI' edo/ta 'HI' aktanteari dagokion flexio bat erabiltzeak, hortik aurrera aditz-alokutibo sartzera behartzen gaitu (errespetuzkoa baztertuz). Hau betidanik hola izan balitz, gaur ez zegoeken errespetuzko-kortesiako aditz-jokorik.

94. *Op. cit.*, § 828.

Bestalde, hikako alokutiboa ez da zabaltzen ez subjuntibora, ez aginterara. AITA ZABALA-k holakoetan ere sartu zuen aditz-joko laua. Honek zera esan nahi du:

todavía la conjugación familiar está en latente elaboración, habiendo empezado ya por lo menos un siglo atrás su lento y constante trabajo de perforación en flexiones conjuntivo-subjuntivas⁹⁵.

3. Lautasuna, euskararen izatezko, jatorrizko ezaugarría balitz, agertu beharko litzateke lautasun hori, gurekin elkarritzetan ari diren pertsonekin hitz egiteko darabiltzagan flexioetan. Baino pertsona bat baino gehiago aurrean baditugu, orduan ez daukagu autua lautzerik. Bestela esanda, ezinezkoa da lautasuna bat baino gehiagorekin hitz egiten ari garenean.

Hikako tratamendu laua berria izateaz gainera ('ZU' singularzearren ondorengoa), uste du gainera sartu zela hizkuntzan ez maitetasunaren agergarri bezala, koarteleko tratamendu gisa, gaztekeria gisa baizik. AZKUE-k bere egiten du jendearen aurreritzia: 'motzailen berbetea', 'ijitoen izkuntza'...⁹⁶.

Gaineratzen du: 'I' izenordainaren eboluzioa *ki* > *gi* > *yi* (R) > *hi* (L,BN,S) > *i* izan balitz, orduan ia-ia ezinezkoia izango zatekeen bigarren pertsonaren izenordaina aditz-erroaren aurretik tartekatzea.

Gero bere gustoa agertzen du: bere esku balego, hikako konjugazio alokutiboa lurperatuko luke, orobat, 'ZUEK' eta 'ZUEK'-i dagozkien flexioak. Aditz-jokoa honela geratuko litzateke balizko kasu horretan: 'nator, ator, dator, gato(r)z, zatoz, dato(r)z'. AZKUE-ren gustorako aditzjoko alokutiboa sobran dago:

en flexiones como 'ñaroak' él me te lleva, 'gaiatornaz' nosotros nos te venimos,... etc. ¿Qué oficio desempeña 'i' incorporándo-

95. *Op. cit.*, § 830.

96. Ikus M.V., II, § 640 (22-40.or.), § 641, lehenengo oharra.

se a 'n' en la primera flexión acompañada de 'k' y agrupándose a 'g' en compañía de 'n'? Ninguno, como no sea el de intruso⁹⁷.

4. 'I' izenordaina, errespetuzko pertsonei zuzentzeko 'ZU' singular bihurtu zenetik da laua eta herri xehearena. Ordura arte "bigarren pertsonaren izenordain bakarra zen, Jaungoikoari eta munduko azken izakiari berdin-berdin zuzentzen zitzaiona. 'ZU'singularra, berria denez gero, berria da 'I'-ren lautzea ere.

Lautasun berri eta nahastekari honen ondoan, AZKUE-k jartzen du beste «lautasun» moeta bat, berak edertzat daukan: 'ni sendoa nauzu' klasekoa⁹⁸.

Ekialdeko zukako aditz-joko alokutiboa zaku berean sartzen du:

1. Las formas 'naiz, aiz, da',... etc., cuando pertenecen a IZAN, no como verbo auxiliar, sino como sustantivo, permutan con los de UKAN, no solo con los de segunda persona agente 'nauk, naun, nauzu' sino hasta con las flexiones cuyo agente es de primera o tercera persona. 'Ona naiz' permuta con 'ona nauk(nok), naun(non), nau, nauzu(nozu), naue' según se ha visto en § 835.

2. 'naiz, aiz, da, ...' aditz iragangaitz baten IZAN laguntzai-learenak badira, orduan ordez, bakarrik UKAN-en bigarren pertsonaren flexioak agertuko dira: 'etorri naiz'-en ordez, 'etorri nauk, etorri naun, etorri nauzu, etorri nauzu(t)e'. Aitortzen digu AZKUE-k, holakorik testuetan topatu ezin izan badu ere, bizkaieraz barra-barra erabiltzen direla.

97. *Op. cit.*, § 843, 597.or. (20-23 lerroak). Ikus § 639, 431.or.

Urte asko igaro eta gero, azalduko zen eritzi horretako jendea: «Auek nere eritziz onela izanik, bearreko ez diran ainbeste aditzera oriek euskeraren batasunari kalte egiten diote. Euskaldun guziak berdin itzegitea nai ba'dugu, ta onela euskera errezago, edatuago ta indartsuago egin nai ba'dugu, gaurko euskal-aditzatik adar batzuk ebaki bearko. Gaurko iketa aditz-iokaerak, erabat artuta, zugatz eder bikaiña ez baiñan sasi-meta izugarria dirudi» zioen M. Oiartzabal-ek. Ikus «Iketa aditz-iokaera» 30-33.or.

Esan dezagun bide batez Azkue-k ez duela bat ere gogoko hegoaldean zehar zabaltzen den '(h)ori, berori' tratamendua (!). Ikus MV, § 831 (3-20 lerroak), 594-595.or. Bestelako eritzia dutenen artean, Zamarripa, 'berori'-ren defendatziale porrokatua aipatu behar da. Ikus P. Zamarripa Uranga, *Manual del vascófilo*, 263-265.or. eta *Conjugaciones guipuzcoanas*, 53-59.or.

98. Ikus MV, § 835.

Beraz, konklusioa hauxe da: BONAPARTE-k zioenaren kontra, «errespetuzko» deitzen duten tratamendu hau, ekialdeko baxena-farreran eta zuberoeran ezezik, gainerako euskalkietan ere badago (!!!).

Baina, horra beste galdera bat: «¿Merece el nombre de conjugación respetuosa?». Erantzuna: hegoaldean-mendebaldean hobeto errespetuzko gizonari 'gu etorri gara' esango dio gazteak, «guardando el 'gaituzu' para personas a quienes se trata, sí, de 'ZU', pero con cierta confianza». Ekialdeko euskaldunen artean, dio AZKUE-k, errespetu handiagokoa da esatea 'gu xinen gira', 'gu xinen gituzu' esatea baino. Azkenengo honek, errespetu barik, konfidantza, maitetasuna, lautasuna, adierazten du. Hau frogatzeko, 'ZU' eta 'HI' elkarren ondoan erakusten dizkiguten flexioak (DETXEPAK-erabiliak) aipatzen ditu: 'diagozu, niatorkezu'. Konklusioa agerian dago: tratamendu hau —ez mendebaldean, ez ekialdean— ez da berez errespetuzkoa⁹⁹.

AZKUE-ren teoria ez zen erantzunik gabe geratu. Luzaro gabe, 1925ean J. EGUSKITZA-k puntuz puntu aztertzen zituen lekeitiarraren tesiaren arrazoibideak¹⁰⁰.

'Daukak' eta 'jaukaat' bezalako adizkerak zaku berean ezin sar daitezkeelakoan, EGUSKITZA-k hasiera ematen dio bere artikultuari esanez, bai tradiziotsik datorkigun deitura ('Conjugación familiar', 'aditz-joko laua') bai AITA ARRIANDIGA-k emanikakoa (dialogada'-elkarritzetatua), biak jaso behar ditugula hitanoari buruz hitz egiteko. 'HI' NOR, NORI, NORK gertatzen deneko flexioak ditugu batetik, eta bestetik, 'HI' erlazio elementu hutsa deneko flexioak: lehenengo adizkerei 'lauak' ('familiares') deitura emango diegu, bigarrenei-elkarritzetatik kanpora ezin ager daitzekeenez gero— 'elkarritzetatu lauak' ('dialogado-familiares').

Gero, zuzendu egiten dio AZKUE-ri, 'IZAN' iragangaitzak aditzjoko laurik ez daukala dioenean; EGUSKITZA-ren eritziz, baieztapen hau orokorregia da eta zehaztu beharra dago. Badu aditz iragangaitz honek bere aditz-joko elkarritzetatu-laua; honetaz konturatzeko beste aldiak ikusi besterik ez daukagu¹⁰¹.

99. Ikus *op. cit.*, § 836, § 837.

100. J. Eguzkitza, «Conjugación familiar o dialogada?», 3-15.or.

101. Ematen dituen adibideak ez dira oso egokiak (5-8.or.).

Artikuluaren hirugarren atalean, aditz-joko elkarritzetauden berritasuna edo zaharkotasuna eztabaidatzen du, AZKUE-ren arrazoibidea bere lekuan jarriaz.

AZKUE-k ematen duen lehenengo arraziaren kontra, 'zetorreki, zekik, zaidak...' bezalako flexioetako hasierako 'z-' hirugarren pertsonaren ezaugarria dela dio EGUSKITZA-k; eta inola ere ez 'ZU' izenordainarena. Gaineratzen du: hasierako 'z-' hori 'ZU' izenordainarena dela onartuko bagenu ere —ezinonartuzko gauza— orduan frogatu beharko litzateke 'z-' sartu zela hor aditz-joko elkarritzetaua sortzearekin batera eta ez aditz-joko honen historian zehar.

AZKUE-ren bigarren arraziaren aldean, EGUSKITZA-k bere ustea agertzen digu: aintzina, 'HI' bigarren pertsonaren izenordain bakarra izango zen garaian, adizkera lauek ('dok, daukak, dakik, e.a.') ez zuten derrigorrez eskatzen beren ondotik 'flexio elkarritzetauak' erabili beharra; azkenengo hauek aukerakoak izango ziren orduan.

'HI' lautu aurretik ('ZU' singular bihurtu aurretik, alegia), elkarritzetauak aukerakoak izateaz gain (yoat, yok, e.a.), ez ziren lauak izango: 'HI' lautzeaz batera, elkarritzetauok lautuko ziren. Gaur, flexio lauak (dok, daukak, ...) eta elkarritzetauak (yoat, yok, ...) lauturik, bidezkoa, arrazoizkoa da flexio klase biok elkar bilatzea, elkarrekin juntatzea¹⁰².

AZKUE-ren hirugarren argudioari honela erantzuten dio:

De que el euskera haya tenido flexiones dialogadas para hablar con una segunda persona del singular, no se sigue que necesariamente hubo de tenerlas para hablar con un grupo¹⁰³.

AZKUE-ren laugarren baieztapenarekin bat dator EGUSKITZA: 'ZU' singulartu ondorengoa dela 'HI'-ren lautzea hasieratik onartu du eta; bistan dago «lautzea» fenomeno berria dena, honek,

102. Beste argudio bat darabil: zukako aditz-joko elkarritzetauak, bizirik dirauten lurraldeetan, ez ditu baztertzen desagertzearaino elkarritzetauak ez diren flexioak. Ikus 12.or.

103. *Op. cit.*, 14.or.

Uste du, gainera, euskarak izan zituela talde batekin hitz egiteko flexio elkarritzetauak: zukako elkarritzetauak, hain zuzen. Eritzi horretakoa da, zukako aditz-joko alokutiboa 'ZU' singulartu ondorengoa dela frogatzen ez den bitartean (!).

ordea, ez du inondik ere frogatzen flexio elkarrizketatu laantuak berriak direnik.

Nos consta positivamente que las flexiones 'ator, abil, az, dok, dauat, deunat', etc. existieron antes de su familiarización; pero si a estas flexiones de agente, paciente o recipiente les sobrevino su carácter familiar cuando eran ya muy antiguas en la lengua, ¿Qué razón hay para creer que la creación de las dialogadas de 'i' se demoró hasta que aquéllas se vistieron con el nuevo traje de la familiaridad? Pero en este caso —se dirá— no hubieran sido familiares, a lo menos desde su origen. Pues que no lo fueran; no por eso hubiesen dejado de ser dialogadas, expresivas y energéticas, razón suficiente para legitimar su existencia¹⁰⁴.

EGUSKITZA-ren ustez, beraz, AZKUE-ren arrazoiek hikako aditz-joko elkarrizketatuaren *lautza berria* dela frogatzen dute; baina ez aditz-jokoa bera berria denik.

AZKUE-k, euskal aditz-jokoan dauden hainbat «irregularistasun» aditz-joko lauari egozten dizkio; beronen eraginezkotzat dauzka gertatutako «hondamen» eta «nahaste» asko. Uste honek eraginda, hikako aditz-joko alokutiboa dela eta erretolika franko botatzen ditu: «hobe sortu ez balitz», «nahaste-sortzailea», «triskantza askoren eragilea», e.a.

AZKUE-ren hitanoarekiko eritziak, neurri handi batean, okeurreko etimología batek sortua dirudi. Urte batzuk geroago, alde honetatik eterri zitzaison erantzuna: zorrotz eta kritikoa bezain neurtua izan zen ALTUBE-ren artikulua¹⁰⁵.

'Jagok, jaukaat...' bezalako adizkera alokutiboetako 'j'-ren jatorria 'd' izatea, daitekeena da ALTUBE-ren ustez; baina horrik kanpora, bizkaierezko 'j'-dun adizkera alokutibo guztien itur-

104. *Op. cit.*, 15.or.

I. M.^a Echaide-k Euskaltzaindian sartu zeneko hitzaldian besterik esaten zuen. Haren ustetan, hitanozko aditz-joko alokutibo osoa ez zen lehengo, aintzinako euskararena; Echaide-k aditz-joko alokutiboa —edo zati bat behintzat— 'HI' lautu ondoren sartu zelako ustea agertzen zuen.

Ikus I. M.^a Echaide, «Jatorrizko Euskeraren azterpenaldia» («Ensayo sobre el primitivo euskera») in *Desarrollo de las Conjugaciones Euskaras*, 513-514.or. batez ere.

105. S. Altube, «Flexiones receptivas de IZAN», *Observaciones al Tratado de M.V. de Don R. M. DE AZKUE in Morfología Vasca*, III. liburukia, § 88, 154-185.or.

burutzat 'd' proposatzeari gehiegikeria deritza: esaterako, lehenaldiko 'jeukan' alokutiboaren abiapunturako 'd' hasierako adizkera bat jartzea ez da bidezkoa —lehenaldiko adizkeretan 'd' aurritzka ez da normala eta—; orobat, AZKUE-k laututzat edo sasi-lautzat dauzkan 'jat, jako, ...' flexioetako 'j' ez letorke 'd' batetik, beste euskalkiek duten 'z'tik baizik ('zait, zako, ...'):

zaio (G,L,S) = zako (BN) > xako > dxako > yako...;
xako > jhako (B)

AZKUE-ren etimologiaren arauera:

1. IZAN aditzaren NOR-NORI indikatiboa, jatorrizkoa («lautu gabea») tankera honetakoa da: 'dakit, dakio, ...'. 'zait, zaio..., jat, jako, ...' flexioen akatsetako bat da, NOR-NORI sistemako flexioen bereizgarri den '-ki' artizkia galdu izana (!).
2. 'zait, zaio, ...' tankerakoek, horretaz aparte, beste akats bat dute: 'zotorrek'-en hasierako aurritzki berbera du ('Z-'), 'ZU' izenordainetik datorren aurritzka.
3. 'jat, jako, ...' tankerakoak ere ez dira iatorrizkoak, hasierako aurritzkian, '(h)' izenordaina sarturik dagoelako.

Hirugarren baieztapenari erantzunez, ALTUBE-k dio, flexio lauetan eta NORIdunetan 'j-, di-' aurritzkiek agertzen duten 'i' hori ez dela 2. pertsonaren izenordain laua; NORIdun flexioetako ezaugarrí importanteeneko bat baizik:

La vocal 'i' es uno de los morfemas principales (pero completamente ajenos a dicho pronombre familiar) que alternan en la caracterización de las flexiones de *régimen indirecto o secundario*, sea éste el dativo (1.^a plural -gu en flexiones como *zaigu, iaku, digu, dizagun, datorkigu, iatorku...*) o el *vocativo* (2.^a femenina -na- en: *ieutsanagu(B), dionagu (S),...*)¹⁰⁶.

ALTUBE-ren eritziz, lekukotasun zaharrenetatik hasita ageri zaizkigun 'j-dun eta 'di-dun flexioak ezin izan daitezke aditzjoko

106. *Op. cit.*, 165-166.or.

lauaren eraginez sortuak; are gutxiago AZKUE-ren arrazoibidetik: hikako aditz-joko alokutiboa berria balitz, ezin uler liteke nola sor zitzakeen hainbesteko nahasteak bere bizitza laburrean.

ALTUBE-k beste arrazoi bat dakar bere eritziaren alde: ekialdeko zukako eta hikako konjugazio alokutiboen arteko paralelismoa; egituraren aldetik igual-igualak dira. Beraz bietan tartekatzen den 'i' hori ez da errespetuzkoa, ezta konfidantzazkoa (laua) ere:

indica que los morfemas pronominales '-k, -n' actúan con significación '*indirecta*': no funcionan como 'agentes' sino como '*vocativos*'. La misma 'i' le señala idéntica función '*indirecta*' al vocativo '*respetuoso*' '*-zu*' (...) ...Es el '*infijo común*' de las flexiones de régimen '*indirecto*'.¹⁰⁷

Bigarren baieztapenari dagokionez, guztiz oinarri gabea, eta ausartegia deritura ALTUBE-k:

...que la conjugación euskérica se haya desarrollado en forma tan extraña como supondría el hecho de servirse de un morfema de significación determinada ('zu' respetuoso o cortés) para expresar precisamente su opuesta ('i' familiar), es cosa que jamás se le hubiera ocurrido al autor de la MORFOLOGIA a no ser forzado por unas premisas equivocadas con las que se encariñó, creemos, excesivamente.¹⁰⁸

IZAN-en NOR-NORI sistemako flexioetan ('zait, zaio, ...') agerian dago zuzen-zuzenean IZAN-etik hartutako erroa ('za-'). ALTUBE-k uste du 3. pertsonaren flexioetako 'z-' aurritzkiak IZAN aditzaren erroan duela bere jatorria. Hau oso nabarmena da lehenaldiko flexioetan ('zan, ...'). Hemendik zabalduko zen hikako formetara ('zoan, zonan...') eta geroago, beste aditzetako 3. pertsonaren flexioetara ('zuen, zikan, ziñan, zegoen, zegokan, ...').

Azkenik igaroko zen 'z' hau orainaldiko flexio alokutiboetara: 'ziagok-ziagon, ...'.

Lehenengo etimologiari buruz ALTUBE-k argitzen du errakuntza: 'zaio (jako)...' ez datozi 'dakio...' baten eboluzioz. Hemen, oinarrian bi aditz desberdin ditugu: IZAN eta *EDIN. Eta noizbait, nonbait, azkenengo hau lehenengoaren ordez erabili ahal izan bada

107. *Op. cit.*, 167.or.

108. *Op. cit.*, 169.or.

ere, morfologikoki bakoitzak bere flexioak ditu, bestearengandik inolako dudarik gabe bereizten dutenak.

'KI'-artizkiaren galerari buruz, uste du ALTUBE-k ez dela ezer galdu, flexiook (Jako, ...) 'ki'-sekula izan ez dutelako. Guzti honen ondorio moduan:

...se deduce también que son injustificados los dicterios y epítetos depresivos que la MORFOLOGIA lanza contra la estructura de una gran parte de las flexiones de la conjugación euskérica, usados por los euskaldunes desde los tiempos más remotos a que alcanzan la tradición y los documentos escritos¹⁰⁹.

Honenbestez, uste dugu zuzenduta geratzen dela aditz-joko laua (hitanozko alokutiboa) euskal aditzean «nahaste-sortzaile» gertatu delako ustea.

AZKUE-k aipaturiko —hitanozko konjugazioaren— ezaugarri haietatik —bereizgarria, nahaste-sortzailea, zaharkotasun laburrekoa— bakarrik lehenengoa mantentzen da haren arrazoibidea azterketa eta kritikaren bahetik pasaarazi ondoren.

Hego Euskal Herrian gramatikariak aditz-joko alokutiboa zela eta ez zela holako eztabaidetan ari ziren bitartean, atzerriko euskalari batek oinarri sendoagoa, argitasuna jartzen zuen darabilgun gai honetan.

H. SCHUCHARDT-ek 1893.ean euskal aditzari buruz agindako ikerlana jasotzen zeneko liburu trinko eta bikaina ematen zuen argitara, euskal linguistikarako maisu lana: *Baskische Studien I*. Batez ere, euskal aditz alokutiboaren jatorria, sorrera zuen aztergai. Laburki bada ere, ikus ditzagun lan honen ardatz nagusiak¹¹⁰.

Paradigmak ematerakoan, 2. pertsona singularrekoa (2. sing.) 'tú', esanahi singularra duen 2. pertsona plurala (2. plur. sing.) 'vos' eta esanahi plurala duen 2. pertsona plurala (2. plur.) 'vosotros' itzuliko ditu, honela ordenaturik:

'naiz', yo soy	'gera', nosotros somos
'aiz' tú eres	'zera', vos (sing.) sois
	'zerate', vosotros sois.

109. *Op. cit.*, 181.or.

110. Ikus H. Schuchardt, *Sobre la formación de las flexiones de relación del verbo vasco*, 217-337.or.

Euskarak, 'HI'-ri dagozkion adizkera batzuen bukaeran maskulinoa eta femeninoa bereizten ditu atzizkien bitartez. Bereizkuntza hau egiterik ez daukagu, ordea, adizkeraren hasieran (hator, haiz, haute, haukate, e.a.). Hau dela eta, ez dauka bereizkuntza hau zahartzat euskaraz: are gutxiago, —BONAPARTE-k proposatzen duen bezala— 'k(a)', 'H'-ren aldaera bat baizik ez balitz; '-n(a)' bukaerari dagokionez, besterik ezean, pentsatzen du SCHUCHARDT-ek ez ote datorkeen erromantzezko deikari batetik: '(do)ña, (do)na' (gipuzkeraz eta bizkaieraz, 'on' < 'don')¹¹¹.

Euskaraz ez da berez alokuzio ugaritasuna harritzen gaituena, *alokuzio guztiok aditz-joko osoan sartza* baizik. Fenomeno honen muina, ordea, ez zaie guztiz arrotz egiten beste hizkuntza batzuei; hau da, euskaraz gertatzen dena, beste era batera bada ere, topatzen dugu inguruko hizkuntzetan:

Cuando la persona con la que hablamos no queda realmente mencionada, podemos sin embargo expresar una relación familiar a ella estimulando su atención o participación por ej. 'hoy te he visto ('os he visto a vos' u 'os he visto a vosotros') alguna cosa muy particular' o 'tú (vos) hoy he visto algo muy particular'¹¹².

Beste hizkuntzetan —esaterako alemaneraz— bakanka, norberak nahi duenean esaten den hori, euskaraz arau, erregelea, derrigorrezko bihurtu da, garai batean zuen helburu jakin hura —hizketa-lagunaren arreta geureganatzea— gaur dagoeneko erabat galdu delarik: aintzina funtzio berezia zuen fenomenoak iraun du bere horretan euskaraz, baina harako helburu edo funtzioa guztiz ahaztuta: «lo intrínseco se ha vuelto externo» SCHUCHARDT-ek dioen bezala.

SCHUCHARDT-ek, 2. singularrari eta esanahi singularra duen 2. pertsona pluralari dagokien izenordain 'pleonastikoa'¹¹³ agertzen duten adizkerei, '*erlaziozko flexioak*' deitura ematen die. Delako

111. Burutapen hau alde batera utzita, geroago beste proposamen batzuk egin zituen: bereber 'kem' «tú» (mef), eta geroago, elkarren ondoan '-n(a)' eta 'no' (deikaria). Ikus *Le système du verbe basque au XVI^e siècle*, 1. liburukia, 412.or.

112. *Op. cit.*, 228.or.

113. 'Pleonastiko' adjetiboak hemen, oker ez banago, esan nahiko luke (NOR, NORI, NORK) ez den bigarren pertsonari dagokiola izenordaina.

'izenordain pleonastiko' hori agertzen ez duten adizkerei '*absolutoak*' edo '*ohizkoak*' ('comunes', es decir, 'las comúnnemente empleadas') deitzen die.

Bide batez, ohartarazten du euskarak dituen 'erlaziozko flexioak' ez direla izan daitezkeen guztiak: lehenengo pertsonari legozkiokenak falta dira eta ('yo tengo a ti' sortu zen moduan, sor zitekeen berdin 'tú _{me} tienes', 'él _{me} tiene', e.a.).

Bereizkuntza honek (erlaziozko flexioak/ohizkoak-absolutoak) ikaragarrizko importantzia dauka. Era honetara saihesten ditu SCHUCHARDT-ek tratamendu mailaketatik datozen errakuntzak eta nahasteak: 'HI' eta 'ZU' pertsonen ezaugarririk ez duten adizkerak tratamendu berezitzat hartea (BONAPARTE-ren 'indéfini' delakoa)¹¹⁴, 2. pertsona agertzen duten ohizko flexioak erlaziozkoekin batera sailkatzetik datorren nahaspila, e.a.

SCHUCHARDT-ek, jatorriari begira, *erlaziozko flexioak* hiru sailetan banatzen ditu:

A) IZAN aditzaren erlaziozko flexioak, (*EDUN) «haber» aditzaren ohizkoak berak dira NORI gabeko adizkera batzuetan. Hau da, *EDUN-en ohizko flexioak —2. sing., eta ekialdeko euskaldunen artean 2. sing. eta 2. plur. sing. 'NORK' dutela— erabiltzen dira IZAN-en erlaziozko flexioak ('nauk, naun, nauzu, gaituk, gaitun, gaituzu...') sortzeko. Erlaziozko flexio hauei SCHUCHARDT-ek 'improprias' deitzen die: iza-tez, morfologikoki ez ziren erlaziozkoak eta¹¹⁵; baina funtzioaren zabalpena zela medio erlaziozkoak izatera igaro

114. Adizkerak tratamendu desberdinietan sailkatzeko ohiturari jarraituz, Bonaparte-k eta, 'hi' eta 'zu' pertsonen ezaugarririk ez dutenak 'traitemen indéfini' deitzen dutenaren barruan sartzen dituzte.

Schuchardt-en eritziz hau ez da bat ere zehatza: mintzatzeko modu guztiak ez dira tratamenduak. 'HI' eta 'ZU' pertsonen ezaugarririk ez duten ohizko flexioak maiz erabiltzen dira hizketa-lagunaren kontzientziarik izan gabe. Honelakoetan ez dago tratamendu berezi bati buruz hitz egiterik.

Beste batzuetan egon daiteke kontzientzia; eta gauzak honela iuslita, 'ZUEK' pertsonaren tratamendutzat hartuko genituzke ekialdeko (BN.S.Zaraitzu.R) euskaldunen ohizko flexiook eta gainerako euskaldunenak, 'ZUEK' eta 'ZU' pertsonen tratamendutzat. Hegoaldeko gramatikariek egiten duten bezala, kortesiako tratamendua deitzeari ez derīta ondo.

Bonaparte-ren 'traitemen indéfini' egokia gerta daiteke 'ZUEK'-en adizkerak sailkatzeko: berauek ohizko flexioetatik at geratuko lirateke, tratamendu desberdinekin erabilgarriak direla.

115. Honelakoetan ez dugu 'datibo etiko' delakoaren aztarnarik!

ziren, jatorriz aktiboak (NOR-NORK) ziren flexioak. Hau dela eta, guk '*ordezkapenezkoak*' dei geniezaieke klase honetako erlaziozko adizkerei.

Euskaraz, 'naz, da, gara, nintzan, zan, ...'-en ordez esan daiteke batuetan 'nozu, nozue, dozu, dozue, gozuz, gozuez, ...'; eta 'zara'-ren ordez esan ohi da 'zaitut, zaitugu, ...'. Hau da, IZAN-en 1. eta 3. pertsonen ordez, *EDUN-en flexioak —'NORK' = 2. plur. sing. eta 2. plur.plur. dutela— era-biltzen dira; eta IZAN-en 2. pertsonen ordez, *EDUN-en flexioak — 'NORK' = 1. sing. 1. plur. direla. Orobata, IZAN-en 3. pertsonen ordez erabili ahal da *EDUN, NORK = 1. pertsona NOR = 3. pertsona direla: 'nor da hori?' esan beharrean 'nor dugu hori?'.

SCHUCHARDT, AITA ZABALA-ren eritzikoa da: goraxeagoko direlako '*ordezkapenezko flexio*' horiek aipatu berrri dugun erabilera honetan dute beren jatorria; behiala zabalagoa izan zitekeen erabilera bitxi honetatik sortuak dirudite erlaziozko flexioek. Bestalde, forma aldetik, inguru hizkuntzetan 'tú me tienes' eta 'yo soy'-ren artean alde handia badago ere, euskaraz ez da horrela; 'na-k, dek, ...e.a.' erlaziozkoek, 'naiz, da, ...' ohizko flexioetatik eratorriak dirudite. Egituraren aldetiko antzekotasunak erreztuko zuen neurri handi batean *ordezkapena*¹¹⁶.

B) IZAN-en erlaziozko flexio guztiak, NORI gabeko adizkeretan, ez dira 'A' moetakoak; gehienetan —euskal kiaren arauera— ez dira *ordezkapenezkoak*, esat. bat. (B) 'nintzatekek'.

Maiz, ordea, erlaziozko flexio moeta nagusien arteko nahasteak aurkitzen dira:

h-u-en, h-it-u-en >	h-u-kan, h-it-u-kan	{	z-u-kan, z-i -tukan
z-en			
huke, üke + -k liteke, lizate		{	(L) lukek, (S) lükek
huken, ükian + -ka ziteken, zatekian			
			(L) zukeyan, (S) zükeya

116. *Op. cit.*, 231-233.or.

"Zukan-zitukan, lukek, zukeyan, ..." erlaziozko *flexio nahasiak* ('mixtas') lirateke: batetik, IZAN-en adizkeraren elementuren bat (aurrizkia...) eta bestetik, ordezkapenezko erlaziozko flexioen zati bat (erroa, ...). Beraz, ez dira guztiz 'ordezkapenezkoak', eta ezta guztiz 'berekoak' ('propias'), nahaste bat baizik¹¹⁷.

D) 'A' eta 'B' klasekoak ez gainontzeko guztiak '*berezko erlaziozko flexioak*' ('propias') lirateke, importanteenak, esat. bat. 'niatorkezu, diagozu, nkek, naitekek, nintzatekek, e.a.'

Flexio hauetako askok —'naitekek, nintzatekek, e.a.'—, ohizko flexioen aldean bereizgarri dutena, bukaerako 2. pertsona singularrekoaren ezaugarria besterik ez bada ere (nintzateke-nintzatekek), SCHUCHARDT-en eritziz, hau ez zen aski izango hasieran ohizko flexioetatik bereizteko.

Berezko erlaziozko flexioek, 2. pertsonaren ezaugarriaz gain (-ka, -na, -zu) izan beharko zuten beste osagairen bat erlazio berezi hura —datibo etikoarena— adierazteko. Osagai bereizgarri hori '-i' litzateke, ZABALA-k ondo seinalatu zuen bezala.

Zer ote dugu '-i' misteriotsu hori?

AZKUE-k uste zuenaren kontra, ez da '(H)I' izenordaina. '-i' hori, ohizko flexio NORIdunetan agertzen dena bera delako ustea defenditzen du SCHUCHARDT-ek: 'd-i-o, z-a-i-t, za-y-o, ...' bezalako flexioetan, -i- datibotasunaren ezaugarria den '-KI' baten laburdura litzateke (batzuetan, metatesia dela medio adizkeraren hasierarantz aldatua). '-i, -ki-' flexio NORIdunetan datibotasunaren marka bada, antzeko zerbait genuke erlaziozkoetan: 'datibo etiko' delakoa dugu hemen, -i- horren sarrera eragingo zukeena¹¹⁸.

Ordezkapenezko erlaziozko flexioen ondoan —nauk, gaituk... alokutiboen ondoan— haien jatorria argitzen digun erabilera zabalago baten arrasto gisa, 'nauzu, nauzue, gaituzu, gaituzue, ...'

117. Ikus *op. cit.*, 244-257.or.

118. Lafon-ek eragozpenak jartzen ditu. Ikus *Le système...*, 409.or. 33. oharra eta 420.or.

flexioek iraun duten bezala, berezko erlaziozko flexioen ondoan, datibo etikoaren antzeko zerbaitek iraun du: 'artuten deutsut' «yo te tomo», 'egon natzatzu' «yo vos he estado», 'nik jan nizun nere aitaren etxeán', «yo te comí en casa de mi padre»... Beraz, erabilera honetan bilatu behar da berezko erlaziozko flexioen jatorria: datibo etikoa derrigorrezko bihurtu zen garaiean, hizkuntzak NORI-dun flexioak eta datibo etikodunak (erlaziozkoak, alookutiboak) elkarrengandik bereizteko premia sentituko zuen; premia honek eraginda, bide desberdinatik joko zuten NORI-dunek eta erlaziozkoek¹¹⁹.

ALTUBE eta EGUSKITZA irakurritz, SCHUCHARDT-en lana ezagutzen ez ote zuten zalantza datorkigu burura. Lehenengoak AZKUE-ri damaion erantzunean badagoke alemaniarraren argitasunen oihartzuna: '-i, -ki' artizkien funtzioa, bizkaierazko 'jat, jako...' flexioen jatorria, 'za-' ('zait, zaio, ...' adizkeretan) IZAN aditzaren erroa delako ustea, e.a.

Beste batuetan, ordea, teoriak desberdinak dira. Ikus dezagun bada, AZKUE-k aditz-joko lauaren eraginezkotzat hartzen zituen flexioak nola azaltzen zituen SCHUCHARDT-ek:

- a) 'zait, zaio, ...' adizkeretan 'ki- artizkiak irauten du itxuraaldatuta, izkutatuta: 'za-it'-en -i, '-ki' baten laburdura litzateke.
- b) Bizkaierazko 'jat, jako, ...' flexioentzat ('y-' horren jatorria ez da bilatu behar 'dj-' batean):
 - 'jat' < z-i-a-t, 'jako' < *z-i-a-ko, e.a.
 - 'y > š' eboluzio ohizkoaren ondoan, hemen alderantzizko gertatu da: [*sj-] > š- (Oñati, Aezkoa) > y-¹²⁰
- c) —'zait, zaio, ...' flexioen 'z-' IZAN aditzaren errorena da.

119. Ikus *op. cit.*, batez ere, 258-263.or., 307-308.or.

NORIdun flexioak eta erlaziozkoak nola bereiztu diren jakin nahi duenak irakurtzea dauka: *op. cit.*, 311-335.or.

Hemen aipatzen den 'datibo etiko' horren jatorrizko zentzua galduko zen derrigorrezko bihurtzerakoan. Ikus H. Schuchardt, *Primitiae Linguae Vasconum*, 68-70.or. eta 79-80.or.

120. Ikus *op. cit.*, 306-307.or.

—'zetorrek, ziok, ...' flexioen hasierako 'z' bestelakoa litzateke: D + i- > *ž > (Aezkoa) š-(x) > (B)j- (G,L) s-.

Adibidez: (Zaraitzu) diakok; (*ž-) > (Aezkoa) zakok; (B) (deutsa) jeutsak; (G,L) ziok¹²¹.

Nolanahi ere den, SCHUCHARDT-i aitortu behar zaio flexio alorutiboen jatorria eta sorrera argitzearen meritu handia.

Harrezkero ikerlariek argitasun gehiago ekarri zuten arlo honetara (GAVEL, LACOMBE, LAFON, e.a.), baina beti SCHUCHARDT oinarritzat zutela.

121. Ikus *op. cit.*, 321-322.or. P. Yrizar, *Contribución a la Dialectología de Lengua Vasca*, 307-308.or. L. Michelena, *Fonética Histórica Vasca*², 173-174.or.

ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

- ALTUBE,TAR, S., *Observaciones al Tratado de M.V. de don R. M. DE AZKUE, Morfología Vasca* (beherago aipaturiko argitalpena), 3. liburukia.
- ALVAR eta BESTE BATZUK, *Lecturas de Sociolingüística*, EDAF Universitaria, Madrid 1977.
- ALLIERES, J., «Petit Atlas Linguistique Basque Français Sacaze», *Via Domitia*, VII (1960), 206-211.or. + 15 mapa, VIII (1961), 82-126.or. I-IX + 68 mapa.
- ANÍBARRO, P., *Gramática Bascongada*, (~ 1820), L. Villasanteren edizioa, ASJU, III (1969).
- ARANA-GOIRI, S., *Obras Completas*, Sabindiar-Batza, Buenos Aires, 1965.
- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA, ETNOLOGI MINTEGIA, *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa -EAEL-*, Munibe-ren eraskina, Donostia, 1983.
- ARRIANDIAGA, M. de, *Euskal-Aditza*, eskuizkribua, 1897.
- , «El verbo vasco familiar y dialogado» hitzaldiaren laburpena, *Euskal Erria*, or. (1918).
- ARRIZABALAGA, J. J., *Markiña Zarra kontu-kontari*, M. Onaindia, Ermua 1978.
- ARTOLA, K., «Erronkariko uskarararen azken hatsak...oino're», *FLV*, 25 (1977), 75-107.or.
- ASTARLOA, P. P., *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva*, Establecimiento tipográfico de Pedro Velasco, Bilbo 1883.
- , *Apología de la lengua vascongada*, Madrid 1803 (=Amigos del Libro Vasco, 1983).
- AZKARATE ARREGUI, X., «Hika, zuka eta berorika» «B» mailako lana, argitaragabea, 1977.
- AZKUE, R. M.^a de, *Euskal Izkindea-Gramática Euskara*. Tipografía de José de Astuy, Bilbo 1891.
- , *Diccionario vasco-español-francés*, 2 liburuki. Tours 1905-1906; 2 ed. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo 1969.
- , *Morfología Vasca³* (*Gramática básica dialectal del euskera*). Euskaltzaindia, Bilbo 1984.
- , «Aezkera», *Euskera*, 8 (1927), 179-300.or.
- , *Euskalerriaren yakintza*, 4 liburuki. Espasa Calpe, Madrid 1935, 1942, 1945, 1947. 2. Liburukia (*Ipuin ta irakurgaiak*), 2. argitaraldia, Madrid 1966.
- BELOQUI, J. J., ELOSEGUI, J., SANSINENE, P. eta MICHELENA, L., «Contribución al conocimiento del dialecto roncalés», *BAP*, 9 (1953), 499-536.or.
- BENVENISTE, E., *Problèmes de linguistique générale*, NRF, 1964.

- BONAPARTE, L. L., *Langue basque et langues finnoises*, Londres 1862.
- _____, *La prophétie de Jonas*, Londres 1862.
- _____, *Le verbe basque en tableaux*, Londres 1869.
- _____, *Parábola del sembrador*, Londres 1878.
- _____, *El salmo quincuagésimo*, Londres 1869.
- BOUDA, K., «Les formes respectueuses du verbe mixain», *Eusko Jakintza*, 2 (1948), 595-615.or.
- BROWN, R. eta FORD, M., «Adress in American English», *Journal of Abnormal and Social Psychology*, 62 (1961-2), 375-385.or.
- CAMPION, A., *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*, Tolosa 1884 (=Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao 1977. 2 liburuki).
- CARDABERAZ, A., *Euskeraren berri onak*, Iruñean 1761. Auspoako (Donostia 1964) edizioa erabili dut baina ikusi dut L. de Lopetegui S. Jren hitzaurrearekin La gran enc. vascan 1973an atera faksimilea ere.
- DARRIGOL, *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque*, Imprimerie de Duhart-Fauvet, Baiona 1827.
- DUBOIS eta BESTE BATZUK, *Diccionario de lingüística* (*Dictionnaire de Linguistique*, Librairie Larousse, 1973); espainierazko itzulpena, Alianza Editorial, Madrid 1979.
- EGUSKITZA, J., «¿Conjugación familiar o dialogada?», *Euskera*, 6 (1925), 3-15.or.
- ETXAIDE, I. M., *El verbo vascongado*, San Ignacio, Donostia 1923.
- _____, *Desarrollo de las Conjugaciones Euskaras*, Gráfico-Editora, Donostia 1944.
- _____, «Las flexiones verbales contenidas en *Peru Abarka de Mogel*», *Euskera*, 5 (1960), 123-155.or.
- ETXEBERRI, J., *Joannes Etxeberri Sarakoaren lan hautatuak*, Lur, Donostia 1972. X. Kintanak paratutako testu bilduma.
- FAGOAGA, B., «Algunas frases inéditas del euskera antiguo», *Euskera*, 6 (1961), 27-29.or.
- GARCIA AZurmendi, R., ARREGUI URIZAR, K., «Hikako aditz-joko alokutiboa bizkaieraren ekialdeko subeusalkian (Markina aldea)», *FLV*, 38 (1981), 23-65.or.
- GAVEL, H. eta LACOMBE G., *Grammaire basque in Gure Herria*, 1933 (maiatz-ekaina) — 1936 (iraila-abendua). Ikus bereziki 1934, 446-450.or.
- GEZE, L., *Elements de Grammaire Basque dialecte souletin suivis d'un vocabulaire Basque & Français-Basqué*, Baiona 1873 (=Hordago, Euskal Klasikoak 27).
- GILI-GAYA, S., *Curso superior de sintaxis española*, Barcelona 1961. 11. arritarraldia, Biblograf, Barcelona 1976.
- IRIGOYEN, A., «Cartas de Inchauspe al Príncipe Bonaparte», *Euskera*, 2 (1957), 171-260.or.

- , «Cartas de Mariano Mendigatxa a D. Resurrección M.^a de Azkue. Escritas en vascuence roncalés y en castellano», *Euskera*, 2 (1957), 119-170.or.
- IRIGARAY, A., «El euskera en Zufía», *RIEV*, 24 (1933), 34-36.or.
- , «Promesa de matrimonio en euskera», *Yakintza*, 81 (1934), 130.or.
- , *Prosistas navarros*, Institución Príncipe de Viana, Iruña 1958.
- ITHURRI, J., *Grammaire Basque*, 1895. Ediciones Vascas eko (Donostia 1979), edizioa erabili dut.
- KNÖRR, E., «Hiketa edo hitanoaz zerbait argi», *Euskera*, 2 (1977), 701-719.or.
- LAFITTE, P., «Koska eta entterka Heletan», *Euskera*, 22 (1977), 138-139.or.
- , *Grammaire Basque*³, Elkar, Donostia 1979.
- LAFON, R., «La langue de Bernard Dechepare», *BAP*, 7 (1951), 309-338.or.
- , «Quelques traits essentiels de la langue basque», *BAP*, 7 (1951), 13-24.or.
- , «Notes pour une édition critique et une traduction française des *Linguae Vasconum Primitiae* de Bernard Dechepare», *BAP*, 8 (1952), 139-180.or.
- , «Remarques sur l'emploi du masculin et du féminin en Basque», *Via Domitia*, 4 (1957), 1-10.or.
- , «Place de la 2^e personne du singulier dans la conjugaison basque», *Bulletin de la Société de Linguistique*, 54 (1959), 103-129.or.
- , *Le système du verbe basque au XVI^e siècle*, Delmas, 1944. 2. argitaraldia. Elkar, Zarautz, 1980.
- , *La Langue Basque*, Baiona 1973.
- LAMBERT, W. E., «The use of TU and VOUS as Forms of Address in French Canada: A Pilot Study», *Journal of Verbal Learning and Verbal Behavior*, 6 (1967), 614-617.or.
- LARDIZABAL, F. I., *Gramática vascongada*, Imprenta de Ignacio Ramón Baroja, Donostia 1856.
- LARRAMENDI, M., *De la antigüedad y universalidad del bascuence en España*, Antonio Joseph Villargordo, Salamanca 1728.
- , *El imposible vencido*, Salamanca 1729 (=Hordago, Euskal Klasi-koak 23).
- , *Diccionario Tilingie del castellano, vascuence y latín*, 1. liburukia. Bartolomé y Montero Impressor, Donostia 1745.
- LECLUSE, M. Fl., *Manuel de la Langue Basque*, P. Gazals Imprimeur Libraires, Baiona 1874.
- LEKUONA, M., «Deikia aditzetan», *Euskera*, 1 (1956), 99-116.or.
- LEWANDOWSKI, T., *Diccionario de lingüística* (Alemanerazko orijinalaren espainierazko itzulpena), Cátedra, Madrid 1982.
- LYONS, J., *Semántica (Semantics I and II)*, Cambridge University Press, 1977-koaren espainierazko itzulpena), Teide, Barcelona 1980.

- MARCOS MARIN, F., *Reforma y modernización del español*, Cátedra, Madrid 1979.
- MICOLETA, R., *Modo breve de aprender la lengua vizcayna [1653]*, Establecimiento Tipográfico de Francisco de P. Díaz. Sevilla 1897. 2. argitaldaria.
- MICHELENA, L., *Historia de la Literatura Vasca*, Minotauro, Madrid 1960.
- , *Fonética Histórica Vasca²* Gipuzkoako Diputazioa, Donostia 1977.
- , «Notas fonológicas sobre el salacenco», *ASJU*, 1 (1967), 163-177.or.
- , «Un catecismo salacenco», *FLV*, 39 (1982), 21-42.or.
- N'DYADE, *Structure du dialecte basque de Maya*, Mouton, The Hague-Paris 1970.
- OIARTZABAL, M., «Iketa aditz-iokaeraz», *Eusko Gogoa*, 2 (1951), 30-33.or.
- OREGI, J., «Birrazterpen bat: Hiketa eta Zuketa», *Euskera*, 22 (1977), 685-699.or.
- OYENART, A., *Noticia de las dos Vasconias*, Paris 1638. P. Javier Gorostazuren Parisko latinezko orijinalaren itzulpena, *RIEV*, 17, 18, 19. Lan honetan egindako aipamenak 17. liburukitik jasotakoak dira.
- PLA CARCELES, J., «La evolución del tratamiento «Vuestra Merced», *Revista de Filología Española*, 10 (1923), 245-280.or.
- PUJANA, P., *Oletako Euskal Aditza*, Arabako Diputazioa, 1976.
- REBUSCHI, G., «Autour des formes allocutives du basque» in Euskaltzaindia, *Iker I*, 307-321.or.
- REBUSCHI, G., *Structure de l'énoncé en basque*, Collection ERA 642, Numéro spécial, Paris. Imprimé dans l'Atelier des Publications de Nancy II, 1982.
- ROLLO, W. M., *The Basque Dialect of Marquina*, Amsterdam 1925.
- SAMPER, P. J., «Curiosidades euskaras. Carta escrita en el subdialecto Salacenco al Príncipe Luis Luciano Bonaparte, por D. Pedro José Samper, Abad de Jaurrieta, acompañada de notas gramaticales redactadas por aquel ilustre báscófilo», *Revista Euskara*, 6 (1833), 322-336.or.
- SANCHEZ DE ZAVALA, V., *Indagaciones praxiológicas*, Siglo XXI, Madrid 1973.
- SATRUSTEGI, J. M.³, «Xukako aditz-joskera Luzaideko mintzairan» in Euskaltzaindia *Iker I*, 343-354.or.
- , «Promesa matrimonial del año 1547 en euskera de Uterga», *FLV*, 9 (1977), 109-114.or.
- SCHMIDT, S. J. *Teoría del texto* (orijinala Munich 1973). Espainierazko itzulpena, Cátedra, Madrid 1977.
- SCHUCHARDT, H., *Primitiae Linguae Vasconum*, espainierazko argitalpena, A. Yrigaray-k gertatutako ohar eta irazkinez hornitua eta Urkijo jaunaren sarrerako gutun batekin. C.S.I.C., Salamanca 1947.
- , *Sobre la formación de las flexiones de relación del verbo vasco*, Angel Goenagak prestaturiko espainierazko argitalpena, (*Baskische Studien I*, Viena 1893koarena) BAP 28 (1972), 217-337.or.

- TXILLARDEGI, «Hika eta zuka-ko aditz-joko edo konjugazioaz», *Euskerá*, 13 (1968), 127-136.or.
- _____, *Oinarri bila*, Donostia 1977.
- _____, *Euskal Gramatika*, Ediciones Vascas, 1978.
- URTE, P., *Grammaire cantabrique basque (1712)*, Imprimerie D. Berot, Bagères de Bigorre 1900.
- VIDEGAIN, X., «Alokutiboa LOPEZ-engan (1782)» in *Euskaltzaindia Iker II*, 625-646.or.
- VILLASANTE, L., *Historia de la Literatura Vasca*², Ed. Franciscana-Aránzazu 1979.
- WINERMAN, C., *Sociolingüística de la forma pronominal*, Trillas, Méjico 1976.
- YRIZAR, P., «Los dialectos y variedades del vascuence», *Homenaje a Don Julio Urquijo*, San Sebastián 1949, I, 275-424.or.
- _____, «Aditza Euskalki Guzietan», *Euskerá*, 20 (1975), 407-451.or.
- _____, *Contribución a la Dialectología de la Lengua Vasca*, 2 liburuki, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, Donostia 1981.
- ZUMARRIPA URAGA, P., *El baskuence facilitado*, Imprenta y Librería de José de Astuy, Bilbao 1909.
- _____, *Manual del vascófilo*, Impr. y Enc. de José A. de Lerchundi, Bilbao 1909.
- _____, *Conjugaciones guipuzcoanas*, Impr. Libr. Gaubeka, Bermeo 1929.
- _____, *Gramática vasca*, Bilbao 1947.
- _____, *Gramática vasca*, Bilbao 1955.
- ZATARAIN, A., «Ni naiz ta i aiz», *Euskerá*, 22-2 (1977), 739-746.or.
- ZAVALA, P., *El verbo regular vascongado*, Imprenta de Ignacio Ramón Barroja, Donostia 1848.

“LARRAMENDIREN ERAGINAZ ETA” *

IBON SARASOLA

Mende honen hasieratik orain arteko ikuspegien arabera, Larramendi ez zen izan euskal gramatika baten eta hiztegi bitxi batzen egilea, eta hegoaldeko literaturgintzaren nolabaiteko eragile teorikoa baizik. Ikuspegi ofizial horren aurrean, badirudi azken urteotako euskal ikerkuntza hasia dela Larramendiren euskal literaturareniko eraginaren egiazko garrantzia z jabetzen. Ikuspegi berri honen lekuko —leku baino zerbait gehiago—, J. A. Lakarraren «Larramendiren hiztegigintzaren inguruan» (ASJU XIX-1, 1985) artikulu bikaina gertatzen da. Lerro hauetan delako artikuluak eragin dizkidan zenbait iruzkin eta gogoeten berri eman nahiko nuke, besterik gabe.

1. Lakarraren artikuluaren ildotik, eta hitzberrien erabiltzeari dagokionez, zerok gaineratu beharko lirateke gutxienez:

- a) Ulibarrik bere *Gutun liburuan* dakarren euskal-erdal hiztegi-modukoak ia iturburu bakartzat Larramendiren *DT*-a du. Bestalde, bere eskutitzetan ez dira falta hitzberriak, larramenditarrak (*ekautu* etab.) nahiz haren erara sortuak (*izortegi* etab.).
- b) Espero zitekeen bezala, Adiskideen Batzarrekoen hitzaldi eta bertako ikasleen euskal lanetan begien bistakoa da jesuita andoaindarraren eragina¹. Orabat Ubillosengana (*hitzune, araututsa, Jakiunde* etab., etab.), E. Adoainengana (ik. F. Ondarraren «Escrítos en vascuence del P. Esteban de Adoáin», *FLV* 1985, atera berria), eta zer esanik ez Mendibururengana.
- c) Iparraldeari dagokionez, Lakarrak aipatu obrei, 1828-ko *Testament berria* gaineratu behar zaie. Hau da agian, Iztueta eta Egiategiren idazlanen ondoan, Larramendiren eragina nabarienik

* Eskerrak eman behar dizkiet J. A. Lakarra eta I. Segurolari, artikulu honen lehen idatzaldia irakurri gero egin dizkidaten ohar eta kritika jakingarriengatik.

1. Ik. X. Alzibar, «Euskara Adiskideen Batzarrean», *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae* (Gasteiz 1985), 1119-1135. or.

azaltzen duen Lore-Jokoen garaiaz aurreko liburua. Bestalde Lé-cluse-ren *Manuel de la langue basque*-ko hiztegietan nabaria da Larramendiren itzala eta are, neurri batean bederen, harekiko zuzeneko zorra. Orobak, I. Segurolak adierazi didan bezala, Inchauspeka, *Gueroco Guero*-ren bere «ekhoiztean» bederen, erabiltzen ditu hitz larramenditarrok: *batundetu, eskiribakida, adere, adibidez, hitzaurrean bertan.*

e) Lore-Jokoen garaiari dagokionez eta haien inguruuan sortu zen hizkuntz eraberritzean badago oraindik zer aztertukik I. Paganak azaldu dituenez gainera. Adibidez, Antiaren itzulpen lanak DT-aren erabat mendeko eta are morroi lotsagabe agertzen dira². Lore Jokoetatik at baina garai bertsuan, Iturzaeta otxandiotarra-ren obrak berraztertze sakona merezi luke, eta ez Larramendiren eraginaren ikuspegitik soilik³.

2. Beste maila batera igarotzen garela, Larramendiren era-gina neurtzeko ez da aski «agerkidatu», «jaiera» edo «leinargiti» agertzen diren testuen bila aritza. Beraren lana zela medio Hegoaldean (edo Gipuzkoan edo Bizkaian) hedatu ziren hitzak ere kontuan hartu beharko lirateke. Izan ere, hitz asko dira gaur egun erabatekotzat edo euskalki guztietan betidanikotzat jotzen badi-tugu ere Larramendiri eskerrak berezko eremutik at hedatu dire-nak: esate baterako, *adin* ez da Larramendiri esker gipuzkerazko idazleen artera hedatu zen hitz bakarra⁴.

2. Vicente de Arana-ren, *El brebaje maravilloso*, poemaren itzulpen *Aberedari Miragarria*-ren honako pasartean marka guztia hausten bide di tu Otaegik: *Kolko tupozkari altxatuaren, eta lepo marmol-arrimeta ederra-en antza «el levantado seno palpitante y el primoroso cuello alabastrino» (Euskal Erria 1882c, 578); cf. Larramendiren DT-n «Alabastro, marmolen motako arri churi bat».*

3. Iturzaetari buruzko Villasanteren iritzia (HLV 280.or.) «todas las obras de Iturzaeta están en vascuence vizcaíno popular y auténtico» badirudi ez dela erabat zuzena, bereziki haren *Aita Gaspar Astete-ren Icasbide Cristinaukorraren azalduera laburrera* (Durango 1899) obrari dagokionez. Liburu osoa neologismoz (larramenditarrez nahiz bere kabuzkoez) josia ager-tzen da. Idatzankera ere aski nabarmena da, honako erakusgarrian ikus daitekeenez: *Cergaitic derichoe asigarriak edo lenenac lau on-oidade onei? Diralaco on-oidade oituracor guztien asiera eta jatorriac leguez. Neke han-dirik gabe aurki ditzake irakurleak delako azaldueretan pasarte are nabar-menagoak.*

4. Laster argitarako den K. Mitxelenaren *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren lehen liburukan frogatzen edo den bezala, *adin* Iparraldeko eta Nafarroako hitza zen berez. Gipuzkoako libruetan —eta beharbada sermoigintzan— Larramendiren hiztegiaren eraginez hedatzen da. Bizkaian ez da gauden men-dea arte hedatzen, bizkairazko idazle klasikoaren *adin* «adimendu»-ren ordezko bezala erabiltzen zelako.

Kontu berean, *Hiztegi hirukoitz-a-ri* eskerrak hegoaldeko idaztlangintzatik desagertzen —edo bakantzen— diren hitzak sartu beharko lirateke. Puntu hau ez da gure artean oraingoz batere aztertu, baina nik bederen badut halako susmoa azterketa horretatik fruitu oparoak aterako genituela. Hemen ere mailak leudeke: denek edo baztertzen dituzten hitzak (*infinitamente* etab.), eta idazle «txukunenak» soilik (Mendiburuk eta Agirre Asteasukoak bai, baina Cardaberazek eta Gerrikok ez, esaterako) bazterten dituztenak.

3. Arazoa oro har harturik, Larramendiz aurreko eta ondoko idaztankerak dira erkatu beharko liratekeenak.

Da gauza bat esan, eta pensatu alditequean excelenteena, ta admirableena; Jaun bat infinitamente Poderosa, Sabioa, Justoa, Principioa eta fiña gauza guztiena.

Da esan al, ta pensa al ditequean gauzarik andiena, ta miragariena; Jaun bat fin gabe ona ahalsua, jaquinsua, justua, gauza guzien asiera ta fiña.

Bi pasarte hauen artean hogei urteko aldea besterik ez dago. Lehenegoa, Irazustarena, 1739koa da; bigarrena Mendibururenca 1760 ingurukoa. Bitarte labur horretan jazo den «iraultza»-k iturburu jakina du: Larramendiren obraren —bereziki 1745eko hiztegiaren— eragina. Ildo beretik, azpimarkagarria da XVIII.mendearen bizkaierazko obren artean helduena eta XIX.mendearen hasieran eratzen den literatur bizkaieratik hurbilen dagoena Cardaberazen *Kristiñau Dotrinea* izatea.

Ikusten denez, ia erabateko eraberritze hori ez dagokio soilik hiztegi-alderdiari. Hizkuntzarekiko jarrera orokorra da hemen aldatu eta irauli dena. Hots, Larramendiren eraginez, erdararen mendeko eta morroi huts izateari utzi eta hizkuntzaren berezko baliabideei begira jartzen saiatzen hasi da euskal idazlea.

Iru oetatic bata iñola ere ez da bestea; ta iru oetatic bacoitza, beste biak bezala, da Jaincoa; zeren Aitatasuna, Semetasuna ta Espiritu-Santutasuna, gauza baná edo bereziak izanagatik, Jaincotasun bat baizic ez da Irutasun edo Trinidadade hau guzia.

Milaren artean hautatu dudan Ubillosen (*Christau doctrin berri-ekarlea* 126) pasarte hau, esaterako, inungo aldetik ezin begi-

tanduzkoa litzateke Larramendi baino lehen; orobat, K. Mitxelenak inoiz komentatu didan bezala, Muniberen teatro-saioek edo Basterretxearen bertsoek erakusten duten moldaera-handinahia.

4. Ez dut hau aukerarik egokiena literatur hizkuntza baten aurrerabidea baldintzatzen duten alderdi guziez aritzeko. Bainabada bat Euskal literatur hizkuntzaren bilakaeran ene ustez frogaharri gertatzen dena, orain arte egin zaion hutsaren hurrengo jarmona gorabehera. Euskal atzizki-sistemaren bilakaera eta aurrerabidea da. Izan ere koerlazio guztiz garaia bide dago literatur euskalki baten eratzearen eta bertan gertatzen den hitz eratorrien kopuruaren artean. Iparraldean, Etxepare —gaiak tratatzeko moduan eta, P. Altunak erakutsi duenez, darabilen hizkuntza-motan— poeta erabat herrikoia da; eta, hain zuzen, ia hitzik ez da Etxeparerengan atzizki bidez sortutakorik. Lapurtar klasikoa eratzen duten Leizaragaren, Etxeberri Ziburukoaren eta Axularrengan, al-diz, hitz eratorrien ehunekoa nabarmenki altuagoa da, antza. Badakit puntu honek azterketa zehatza eskatzen duela, eta atzizki bakoitzen bilakaeraren historia finkatu arte ez dagoela baiezatze biribilik egiteko modurik. Dena dela banago, esaterako, Lakarrak aurkezten dituen Leizarraga eta Axularrenganikako hitz-zerrendetan ezer gutxi dela herriaren ahotik jasoa. Are gehiago, *-tasun* atzizkia zenbatzaile bati itsatsiz Etxeberri Ziburukoak *hirutasun* sortzen duenean, delako atzizkiaren ohizko ezartze-eremua bortxatzen ari da, *uhindi* (Man. Dev. II 151) edo *arraindi* (ib. 153) sortzrakoan *-di*-rena bortxatzen ari den bezalaxe⁵.

5. Beste kontu bat da atzizkiok gerora izan dituzten gorabeherak. *-tasun*-en ezartze-eremua etengabe hedatuz joan da, eta gaur egun *nortasun* bezalako hitzberri bat ez du inork aitzakiatzen. *di-ri* dagokionez, bere eremu-hedatzea ez da askok uste duten bezain berria: Etxeberriren aipatu adibideez gainera, Cardaberazengana *angerudi*, *santudi*, *erregladi*, jendedi aurkitu ditut, *ondi*, *gizondi* Lécluseren *Manuel-ean* eta *gurdidi*, *odolgirodi* Iztuetarenagun; eta begien bistakoa da azterketa sakon batek itxuragabe ugalduko lituzkeeta adibideak. Horrela, P. Altunak Mendibururen *Idazlan argitaragabeak*-etan zertu duen azterketan *ondasundi*, *landi*, *nekadi*, *atsegindzi*, *etxedi*, *ontartedi*, *zulodi*, *garidi*, *grazidi*, *bekatudi*, *indardi*, *oialdi*... aurkitu ditu. Eta *lagundi*-ren fabore esan dezadan ez dela Sabino Arana zorionekoak asmatu hitz bat: I. Pagolak erakusten duenez aski erabilia zen Lore-Jokoien garaiaren, Larramendiren *lagunkida*-rekin batera. Egia esan, ez da ulertzen zergatik *nortasun*, *hiztegi* edo *arautegi* «zilegitzat» ematen dituztenek ez duten *lagundi* edo *araudi*-rekin orobat egiten, arazoa hizkuntzarekiko gabe ideologikoa (cf. *Euskadi...*) ez bada bederen. Eta *gaztedi* ego-kia iruditzen ez zaienetakoa naiz, *gazteria* aspaldidanik ongi finkatua hobesten dudalako, besterik gabe.

Hegoaldekoari dagokionez, Larramendiz aurreko literatur ekoizpenaren tasun nabarienetako bat hitz eratorrien eskasia gorria eta atzizki bidezko —*tasun*, eta leharbada *garri*-ren bidezkoak ezik— hitz-sortzerik eza da⁶. Jakina denez, egoera hau erabat aldatu zen Larramendiren *Hiztegi Hirukoitzaz* gero.

Bat nator Lakarrarekin «*Hirukoitzean* gutxiena da asmatua eta gehiena herritik eta autoreetatik hartua» dionean, baina dena dela asko da nere ustez berak sortua. Atzizkien ezartze-eremua hedatuz sortuari buruz ari naiz. Hemen ere badago zer aztertuk eta zer zehazturik⁷. Halere, hor zehar —hitzerdika bederen— hain zabaldurik dagoen ustea, «Larramendik gaizki eratutako hitzak besterik ez zituen asmatu; bere hiztegiko gainerako eratorriak betidaniko euskal hitz jatorrak ziren» edo diona, ezin onartuzkoa iruditzen zait. Gaur erabiltzen ditugun eratorrietako asko Larramendiren eskutik heldu zaizkigu; beste askok, aski bizirik —gaur proposatzen zaizkigun beste zenbait baino biziago— iraun zuten, mendearen hasieran Arana birgarbizalearen eta Azkue populistaren eraginez baztertuak gertatu ziren arte.

5. Aipatu direnak gorabehera, esan beharrik ez dago Larramendiren proposamenetako asko ezer gutxi erabiliak edo erabat

9) Amaitu, baino, lehen, egin nituen irakurketa batzuez ditudan zalantzak agertu nahi ditut. 15d-an «Mitx.ren proposamena («Ad experiendum» 225) nirea eginaz *goru<u>aco* irakurri dut [nuen] Esk. eta Mur.en *goruaco*»; orain, ordea, errazagoa iruditzen zait *guerraco armea* behar duela suposatzea, cf. 14. ahapaldiko *goru, arma, Erkules, bala eta geziak*. Hutsaren etorkia azaltzeko *rr=u, e=r eta u=o* aldaketa aski arruntak genituzke; *goru<u>aco armea-k* ez dakit zer esanahi izan dezakeen, gainera, eta *One-taraco meal/ da gauza importantea,/ agaz baicin ezin ley/ guerraco armea oso garbia* —eta zirikatzailea hura gabe Bizkaiaren aurka gerlara abiatzen ziren gipuzkoarentzat— dugu alde honetatik. Lehen bezain iluna da niretzat 24b-ko azken hitza (*cortera* ala *Cortes[a], corte[a]...*) eta orain ez lehen bezain segurua 24d-ko *pleit[e]a, e-a* puntu egiteko ez bait da -e- hori erantsi beharrik -ei- bat ere aski izaki. 28g-an ere, lehen ez bezala, hobe iruditzen zait Mitxelenarekin *lan[c]ea* zuzentzea eskuizkribuko *lanea*; nahiz eta errazagoa izan nire *lauea* hutsen aldetik, beste hau (haplografia) ere ez da batere zaila. 36a-n azkenik, ez ote hobe *badaqui[e]* edo *badaqui[o]* osatzea, eta ez *badaqui[gu]* *garbatu*, garbatzekotan zerbait giputzei garbatuko bai zitzaien (BBen egilearen ustez!) eta ez bizkaitarrei? Horren alde dato 36b-n bitartekotzat hartzen den San Ignazio eta 37a-d-n gipuzkoarrei aurpegiratzea lehenagotik ere jakin behar zutela Bizkaiari erregu egin behar ziotela.

Hemen utziko ditut, oraingoz, ia amai gabe luza bide daitezkeen ohar hauek. Balioko al dute BB interesgarri bezain interesatu hauek zerbait argitzeko.

**KOORDINAZIOAREN ZENBAIT ALDERDI
DUHALDEREN
“MEDITAZIONEAK GEI PREMIATSUENEN GAINEAN”
LIBURUAN**

KOLDO BIGURI

— *Sarrera Gisa.*

Koordinazioa delakoak, hizkerak dituen baliabide emankorrenetakoia izana gatik ere, ez du lortu, nahiko berandu arte ez bada, hizkuntzalarien ardura edo interesa biztea. Honen erruaz hitz eginet gero, koordinazioak berak eragiten duen errazesteari leporatu beharko genioke delako erru hori. Izan ere, gure begiak zorroztzen ez baditugu, izen bat edo sintagma arrunt bat beste bati erantsita edota perpaus oso bat beste bati itsatsia besterik ez dugu ikusiko. Gure hizkuntzari gagozkiolarik, euskaldun xehe batek zer horiek egiterakoan gertatzen diren zenbait elipsi edo ezabaketari erreparatuko dio, apika. Euskaldun xehe horrek antzemango dio agian zenbaitetan aditz forma bat edo eta halako atzikzia ez agertzeari. Hizkuntzaren ikertzaile batek bere aldetik mami eta katra-mila askoz gehiago topatuko dio euskaraz gertatzen den hizkuntz fenomeno honi.

Hortaz, koordinazioa den erasketa hori nola, noiz eta zer elementurekin gerta daitekeen edota ezin gerta daitekeen aztertzea dateke ikertzaile horren lana, eta halaber koordinazio horrek euskaraz eragiten dituen bestelako fenomenoak deskribatzea. Gure lan honek, ordea, ezin har dezake «Koordinazioa euskaraz» izena, hau da, gure hizkuntzan gai honi loturik gertatzen diren fenomeno ororen azterketa asmorik. Beraz, zerbait egitekotan, euskararen sintagma eta perpausen koordinazio kopulatiboan agitzen diren elipsi edo elipsi-ezak eta hauen inguruko beste zenbait aztergai ikutu nahi genituzke hemen; eta koordinazio kopulatibo horren mugak gehiago zehatzuz, *ETA* juntagailuaren jokaera bereziki.

Honetarako bildu dugun *corpusa* Duhalderen *Meditazioneak gei premiatsuenen gainean* (Baiona, 1809 eta Hordago argitaletxeak 1978 urtean berrargitaratu) liburutik atera dugu.

Hautu honek, ordea, alderdi txarrak baditu, gehiegi ere non-bait: hasteko, hizkuntza idatziak ez du jasotzen hizkuntza mintzatuak duen bizitasun guztia, edo beste hitz egokiagotan esateko, ez ditu erakusten zilegizko diren jokabide guztiak. Bestalde, hitzegiteko moldeak ezberdinak badira ere, hizkuntza idatzian askoz nabariagoak dira idazleak jakinaren gainean erabiltzen duen idaztankeraren nondik-norakoak, hauen artean zenbait esamolde jator bazterzeko joera ere egon daitekeelarik. Ziurrenik, honetan datza erabili ditugun adibideen artean hain gutxitan elippia geratzearen zergatia. Pentsatu beharko dugu idazle honek gogoz murritzduela adierazbide hau; hala ere, gutxi izanik, badira, eta beraz legezkoak dira; eta ez egonagatik ere legezkoak dirateke. Beste alde batetik, liburu batetan, honelako batetan gutxienez, aurkituko ditugun adibideak beti izango dira, besteak beste, koordinazioaren eredu positiboak edo legezkoak, nolabait esateko; honek esan nahi du ezin dugula esan zeintzu diren usadio zilegizko guztiak, eta zeintzu diren agramatikalak, halako guztiak, lehen esan bezala, ez bait dira agertuko, eta honelakoetarik ez bait da agertuko ale bat ere.

Beste alderdi batera lerratuz, lan guztiekin bezala honek ere komenientziazko legeak ditu, eta hauen berri eman beharrean gau-de baliagarri gertatuko bada. Hasteko, adibide bezala eskeintzen diren esaldien idazkera gaurkotzen saiatu gara, baina beti idazle honek darabilen euskalkiari dagozkion ezaugarriak gordeaz. Dudazko genuen beste zenbait kontutan, jatorrizko grafia mantendu dugu (batez ere *-j-* erabiltzen zuenetan, zeren eta honekin nahasirik *-i-* ere erabiltzen bait zuen zenbaitzutan). Bestalde, esaldiak bere hartan agertzen saiatu gara gehienetan lanean barrena, inongo zatirik kendu gabe; alabaina, zati horiek okerbide gerta zitezkeenetan ezabatu egin ditugu exenpluetarik. Azkenik, esaldien atzetik doazen parentesiarteko zenbakietatik, aurrekoak liburuaren orria adierazten du, eta bigarrenak *ETA* juntagailua agertzen den lerroa.

— *Corpusaren deskribapena.*

Hitzaurrean esan dugunez, lan honetan erabili *corpusa* Duhalderen *Meditazioneak gei premiatsuenen gainean liburutik* aterea da. Obra hau *Euskararen Hiztegi Orokorra* tajutzerako ordenadorez tratatu izan direnetako bat da; dena den, liburu hau soilik 44. orritik 277. orriraingo perforatu zela esan beharko, perforatze lan hau neure ardurapean zelarik. Honi eskerrak, eta teknologia horrek eskeintzen duen «mirari» batez baliatuz, orri hauen artean kausitzen diren *ETA* juntagailuak oro, testuingurua eta guzti, lortu ahal izan ditugu, agerraldi guzti hauek alfabetoaren arabera sailkatuta daudelarik. Guztira, bada, 2750 adibide dira. Kopuru handi hau gure oraingo indarretatik kanpo gelditzen denez gero, agerraldi guztien artean hautaketa egin behar izan dugu. Honela, Izen Sintagmen arteko koordinazioak atzizkien erabilera dituen eraginak aztertzen NOR, NORI eta NOREN kasuei dagozkien atzizkien portaera aztertu dugu: NOR kasuaren lehen 90 agerraldiak; NORIren 24 eta NORENen 65, azken bi hauenak zerrendaketan agertu guztiak direlarik. Eta perpausen arteko koordinazioa miatzeko, 76 adibide erabili ditugu. Azkenik, beste atal batean laga ditugu *ETA* juntagailua era bukatuan dagoen aditzari erasten zaioneko agerraldiak, guztira 10 jaso ditugularik. Izan ere, forma hauetan dagoke -TA atzizkiaren bidez tajutzen den partizipoaren sorrera, eta honegatik merezi du forma hauek bereizteak.

Hitz hauetan, bada, ikus daiteke zein den lan honek darabilen egitura eta zeintzu diren bere atalak. Atal bakoitzean ikertzen den atzizkiari edo aditz jokoari dagozkien jokabide guztiak, hau da, exenpluen eskutik gertatzen diren jokabide guztiak jasotzen dira. Hala eta guztiz ere, zenbait alderdi ikutu gabe laga beharrean aurkitu gara ilunak edo direlarik, sintasiaren bidez argitzen zailak diruditelako. Agian beste zientzia batek azalduko lituzkeenak; narratologiaz edota diskurtsoaren sintasiaz ari naiz pentsatzen batez ere: *ETA* juntagailu honek batzutan badirudi sintagmak edo perpausak baino gehiago diskurtsoaren sekuentzia handiagoak uztaizten dituela hain zuzen. Nolabaiteko egitura parataktikoa geratzen dela esango genuke honetan.

Honela, ez dira gutxi puntu edo puntu-koma baten atzean eta aurreko klausularekin zerikusi nabarmenik eduki gabe *ETA*-z hasten diren esaldiak edota are atal edo azpiatal baten buruan horrela hasten direnak liburu honetan. Zenbaitzutan, ordea, begibistakoa da eten grafiko hauek gora behera bi klausulak, zentzuagatik edo,

eta are egituragatik, uztarkideak direla; honelakoxea ditugu ondoko hauek:

— «Hain errespetu guti erakhusten duten; *eta* alientzia berriko odol adoragarria hain sakrilejoki ostikatzen duten ondiko Kristau hekiei?» (225,28).

— «Hela! ikhusten du Jainko hora eta bethikotz galdu due-la; *eta* bere faltaz galdu duela» (156,5).

Baina zer esan beste hauei buruz?

— «Jan-edanetako sobretasuna ta arruntasuna, bai eta lana ere, osasunarentzat eta luzeki bizitzeko laguntza on batzu dire; *eta* hala osasun hoherena ta bizitze luzena, girstino bere bizitze guzian ongi erregeletuak direnetan kausitzen ohi dire» (197,33).

— «Zer dire meza, hain fede gutirekin, hain hozki, hain barrajatuki, erditan non zen eta zertan zen gogoan hartzen ez duela, entzun dituen hek? Erreligione-gabekeria izigarri batzu, behatu mortal batzu.

Eta bereziki sakramendutan, oi! ala beldur izateko baita, girstino laxo hark asko sakrilegio egin duken!» (143,3).

— «*Eta* nola hilen naiz? Supituki othe, ala aitzinetik ezagutzen dudala hiltzerat nohala? Eztakit. Dakidana da, asko heriotze supitu gerthatzen dela; nere bizian urthe guti iragan bidea, non ezten halako zenbait gerthatu. *Eta* nork erran daut eztogola neretzat zorthe bera? [...] *Eta* dakidan denboran hori gertha ditakeala, nola mirakulu eskurik aski etsaiak har diezaket behaturat lerratzeko?» (122. or.).

Hauetan badirudi perpausen sintasiarenak baino gehiago diskurtsoaren sintasiaren ezaugarriei topatzen garela, diskurtso harren antolaketen erabiltzen diren moldeen artean edo, sartzen bait dira. Diskurtsoaren antolaketa molde hau, ezaguna denez, oso da propioa aitzineko ahozkotasuna («oralidad primaria») delako fasesan aurkitzen diren herriena, hau da, hizkuntza idatzirik ez duten edota oso ahula duten gizartea. Honela, ezaguna denez Biblia-ren hizkerari berari ere aurkitzen zaio molde hau, ondoko testuan ikus daitekeen bezala:

Eta Jaungoikoak esan zuen: Egin dezagun gizona, gure antz eta iduriko; eta izan bedi, itsasoko arrainen, zeruko hegaztien, etxeko abereen eta lurreko narratzien jaun. Eta egin zuen Jaungoikoak gizona bere iduriko: Jaungoikoaren iduriko egin zuen; gizaseme eta emakume egin zituen. Eta bedeinkatu zituen Jaungoikoak, eta honela esan zien: Hazi zaitezte eta ugaritu; bete

ezazue lurra, eta izan zaitezte beraren jaun; menpera itzazue itsasoko arraiak, zeruko hegaztiak eta lurrean dabiltsan bividun guztia. Eta Jaungoikoak esan zuen: Begira, zuentzat ematen dizkizuet, lurraren azalean hazia sortzen duten belar guztia; eta hazia sortzen duten aledun zuhaitz guztia zuen janari izango dira; eta belarra ematen diet janari lurreko pizti guztiei, eta lurreko narratzi guztiei eta arnasadun guztiei. Eta hala egin zen. Eta ikusi zuen Jaungoikoak, erak egindako guztia; eta oso ona aurkitu zuen. Eta arrats eta goiz: seigarren eguna. (Genesis 1, 26-31).

Honekin, jakina, ez dugu esan nahi liburu hau aitzineko ahoz-kotasunaren garai horretako denik. Izan ere, egitura parataktikoa, honi ez ezik beste hizkuntz maila batzuri ere badagokio: Erre-torikari, kasurako. Azken finean, juntagailuaren erabilera berezi hau estilo kontu bat genuke, eta ez, edo ez soilik, gramatika kontua.

Hau bezala, beste arazo asko ere aipatu beharko lirateke. Batzuk bere denboran ikutuko ditugu lan honetan zehar, eta gehienak, ziurrenik, aipatu ere gabe geldituko dira neronen mugatasunak direla medio. Izan ere, jatorrian lan hau ez zen plazaratzeko asmoz tajutua izan, eta horregatik bortizki mugatua eta nik nahi ez nukeen bezala gelditu da. Hala ere, itxadon gura nuke oinarri-lan bezala erabilgarritasunik izango duela, eta, noizbait, jarraipen sakanago eta osoagoa.

Azkenik, hitzaurre honi amaiera emateko, lan xume hau egitean izan ditudan laguntzak aitortuko ditut, esker emanenez: Ibon Sarasola irakasleari, haren bitartez *corpusaren sailkapen ezin hobea eta asperlan kengarri gertatu bait zait ordenadore bitartez egin didan zerrendaketa*. Eta Itziar Lakari, berak gai honetaz aurretik egina zuen lan argitaragabea¹ ikusi eta erabiltzeko parada eman bait dit.

* * *

1. Itziar Laka, «*Eta juntagailua: 1700.ekiko aurreko testuen sailkapen bat*», B titularako aurkeztua. Honekin batera, beste bi lanek osatzen dute artikulu hau egiteko erabilitako behin behineko bibliografia: lehenengo, Pataxi Goenagaren *Gramatika Bideetan* (Erein argit., Donostia 1980); eta bigarrena, Juan Luis Tato-ren «Sobre la Coordinación» (in Sánchez de Zavala, *Estudios de Gramática Generativa*, ed. Labor, Barcelona 1976).

1.—IZEN SINTAGMEN KOORDINAZIOA

Koordinazioa gertatzen denean batzen diren Izen Sintagmetan zein Perpausetan errepikatzen den elementua ezabaturik geldi daiteke sarri asko. Errepikatzen den elementu honi AMANKOMUNE-KO GAI edo COMMON TOPIC deritzaio. Badirudi, hala ere, AG honekin bakarrik ezin daitekeela koordinazioaren funtsa azal, Juan Luis Tatok «Sobre la coordinación» artikuluan frogatu zuenez. Izan ere,

— *Munduko onthasunak, ohoreak eta atsegina (190,17)*

sintagman, amankomuneko gaia *munduko* delarik, behin bakarrik agertzen da, euskaraz guztiz arrunta den klausula bat osatzu. Baina, lehen esan bezala, AG honek ez digu balio azaltzeko zergatik

— *Jon ateratzen ari da eta euskara irakaslea da*

bezalako perpaus bat ezin daitekeen hain erraz onartu, *Jon* delarik AG.

Antzeko zerbait gertatuko da beste honetan ere:

— **Munduko onthasunak eta gramatikari sortzaileak.*

Jakina, sintagma honen edo beste edozein klausula baten gramatikatasuna edo onargarritasuna ezin neur daiteke haren testuinguruari begiratu gabe; izan ere, gerta liteke honelako batek bere soiltasunean zentzurik ez edukitzea baina bai testuinguru bat lotzen zaionean, testuinguru berezi bat nonbait.

Hau oraingoz alde bat utzirik euskaraz beste fenomeno batzuk ere gertatzen dira koordinazioarekin batera, edo koordinazioaren poderioz; atzizkia eta aditz laguntzailea ere ezaba daitezke, euskaraz hauek ere Amankomuneko Gaiaren antzera errepikatzen bait dira. Eta lanaren atal honetan, atzizkien jokaera aztertzen saiatuko gara. Horretarako, hiru kasuri dagozkion atzizkiak hautatu ditugu, NOR, NORI, eta NOREN kasuei dagozkienak, alegia.

Lanaren hitzaurrean esan bezala, atzizkien jokaera, koordinazioaren arazo honetan behintzat, hiztunaren, edo, gure kasuan idazlearen, mende gelditzen den baliabide bat da nolabait. Izan ere, atzizkia ezabatzea edo ez ezabatzea, hiztunaren aukerakoa da, eta

gure azterketa egiteko hautatu dugun idazlearen aukera, ikusten denez, atzizkiak ez ezabatzearen alde makurtzen da. Holatan, kontutan izan ditugun 179 agerraldietatik hamar adibidetan bakanrik agitzen da delako elipsia (5 NOR kasuari dagozkio, 2 NORIri, eta gainerako hirurak NOREN kasuari). Hau da, %6ra ere ez da iristen elipsiaren erabilera. Hain kasu gutxi izanik, gure azterketa ezin izango litzateke zuhurtasunak eskatuko lukeen bezain zehatz edo fidagarria; *corpus handiagoa* ikertu beharko da hortaz, koordinazioaren nondik norakoa azalduko badugu. Baina oraingoz daukagun apurrarekin jokatu besterik ez dugu, eta horri ekingo diogu, bada.

Atzizkiaren elipsia edo ezabaketa hizkuntzaren erabiltzailearen mende dagoen zerbaite dela esan dugu lehentxeago, baina hala ere, ez da hitz trakets hauek irudika dezaketen bezain libreki gertatzen hiztun horren aukera, betebeharreko erregelek ere badaude eta: gutxienez, atzizkien jokabidean daitezkeen konbinaketa guztiak ez dira onargarri. Ikus ditzagun bada.

Izen mugatuaren deklinabidean (komenientziazko arrazoia diera medio, deklinabide mugagabea ez dugu kontutan hartuko), atzizkiak har ditzakeen formak hiru hauek dira:

- a. ez agertzea = \emptyset ikurraz markatuko dugu.
- b. singularrean agertzea = 1 ikurraz markatuko dugu.
- c. anitzean agertzea = 2 ikurraz markatuko dugu.

Eta gutxieneko koordinazioa egon dadin bi elkargai behar dirinez gero, hiru elementuren binakako konbinaketaren erregeleen arauera, honako posibilitateak izango ditugu, teorian behintzat:

- a. $\emptyset + \emptyset$ = bi atzizkiak ezabaturik.
- b. $\emptyset + 1$ = lehenengoa ezabaturik eta bigarrena singularrean.
- c. $\emptyset + 2$ = lehenengoa ezabaturik eta bigarrena anitzean.
- d. $1 + \emptyset$ = lehenengoa singularrean eta bigarrena ezabaturik.
- e. $1 + 1$ = bi atzizkiak singularrean.

- f. 1 + 2 = lehenengoa singularrean eta bigarrena anitzean.
- g. 2 + Ø = lehenengoa anitzean eta bigarrena ezabaturik.
- h. 2 + 1 = lehenengoa anitzean eta bigarrena singularrean.
- i. 2 + 2 = bi atzizkiak anitzean.

Baina jakina denez, hauetako batzuk (*d* eta *g* kasuak) ezin ger-
ta daitezke euskaraz. Hau da, atzizkia ezin egon daiteke ezabatu-
rik azken elkargaian doala. Lehenengo kasua, ordea, berezia da,
eta zertzelada oso konkretuetan gertatzen da: NOR kasuan baka-
rrik, eta izenak era mugagabeen doazelarik, edota predikatiboetan
(Nominatiboaren azpiatalaren 1.4. zenbakiekin markatu ditugu era
honetakoak).

Daitezkeen kasu guzti hauei dagozkien kopuruak ematen hasi
baino lehen, zera esan beharko dugu, lanaren ondorioak zehatz-
goak izan daitezen bi sailetan banatu ditugula izen sintagmen koor-
dinazioa aztertzeko aurkitu ditugun adibideak. Izan ere, koordi-
nazio hau bi ISren artean gerta daitekeen bezala IS bakarraren
barneko osagaien artean ere gertatzen da: «*Ohorea eta aipamen
ona*» (196,6) genuke lehenengoaren eredu, eta «*Jaunaren neskato
aphal eta ezjeusaren izena*» (273,12) bigarrenarena. Bigarren hone-
takorik ez dugu NORI kasuan aurkitu, ordea.

Pasa gaitezen, orain bai, iragarritako kopuruak ematera; haue-
rek dira, bada:

1.—IS ezberdinak batzen direnean

	nominatiboa	datiboa	genitiboa
b.	02 % 02,50	02 % 08,00	01 % 01,92
c.	— % 00,00	02 % 08,00	— % 00,00
e.	16 % 20,00	07 % 28,00	21 % 40,38
f.	02 % 02,50	06 % 24,00	04 % 07,69
h.	01 % 01,25	— % 00,00	03 % 05,76
i.	30 % 37,50	08 % 32,00	17 % 32,69

2.—IS bakarreko osagaiak batzen direnean

	nominatiboa	datiboa	genitiboa
b.	03 % 03,75	—	01 % 01,92
c.	— % 00,00	—	01 % 01,92
e.	11 % 13,75	—	02 % 03,84
f.	— % 00,00	—	— % 00,00
h.	— % 00,00	—	— % 00,00
i.	10 % 12,50	—	02 % 03,84

3.—Guztira

	nominatiboa	datiboa	genitiboa	GUZTIRA
b.	05 % 02,79	02 % 01,11	02 % 01,11	09 % 05,02
c.	— % 00,00	02 % 01,11	01 % 00,55	03 % 01,67
e.	27 % 15,08	07 % 03,91	23 % 12,84	57 % 31,84
f.	02 % 01,11	06 % 03,35	04 % 02,23	12 % 06,70
h.	01 % 00,55	— % 00,00	03 % 01,67	04 % 02,23
i.	40 % 22,34	08 % 04,46	19 % 10,61	67 % 37,43

Portzentaia eta zenbaki guzti hauetaz ohar batzuk erasteko beharrean gaude, ez bait dira erizpide edo neurbide berari jarraituz egin. Izan ere, lehenengo bi tauletakoak koordinazioan zilegizkoak diren sei kasuetan gertazen diren adibideen kopuruak dira, eta haien portzentaiak horietan gertatzen diren kasuen heinean ateareak dira. Ez ditugu kontutan hartu, bada, sei kasu horietan sartzen ez diren agerraldiak. Hortaz, Nominatiboaren zutabeen agertzen diren portzentaia kopuruak kasu honetan aurkitu ditugun 90 agerraldietatik sei posibilitate horietan sartzen diren 75 agerraldien arauera eragin dira. Datiboarenean, 24tik 23 sartzen dira. Eta Genitiboarenean, 65etik 52.

Baina guztira kalkulatzeko eraiki dugun taulan agertzen diren portzentaiak ez dira neurbide honen arauera eginak, baizik eta Izen Sintagmen koordinazioa aztertzeko erabili ditugun 179 agerraldien arauera. Honela, gure lan honetan ikertu dugun testu *corpusaren* osotasunean gertatzen diren posibilitate edo jokabide guztien portzentaia borobila lortu dugu. Hortaz, erabili ditugun

179 agerraldi guzti horietatik 152etan bakarrik dago atzizkia «hiztunaren arauera» erabiltzeko aukera. Gainerakoak geroxeago iku-tuko ditugu.

Azken taula honek erakusten duenez, Duhaldek liburu honetan erabiltzen duen estilo edo idaztankera koordinazioak batzen dituen Izen Sintagmetako atzizkien ezabaketaren kontra makurtzen da. Izan ere, guk erabili esaldien arteko gehienetan, koordinaturiko Izen Sintagma guztiekin erakusten dute atzizkia: 124 esaldi dira, hots, guztien %81,5 baino gehiago².

Aitzitik, aurreneko atzizkiaren ezabaketa bederatzi esalditan gertatzen da soilik, hau da, esaldi guztien %5ean. Kopuru hau oso da txikia atzizkien elipsiaz ezer finkorik esan ahal izateko, baina, hala ere, non eta nola gertatzen den ikusi behar dugu.

Hasteko, topatu ditugun adibideen erdia Nominatiboari dago-kiola esan beharko dugu. Ondoan ikus daitekeen bezala sailkatzen dira:

a) IS ezberdinak batzen diren kasuetatik, lehenengo atzizkiaren ezabaketa bi bider gertatzen da nominatiboan, bietan atzizkia singularra delarik; adibidez:

«Jauzkor, urguilus eta atseginetarat ekharria» (133,9).

Anitzezko atzizkiaren ezabaketaren adibiderik lortu ez badugu ere, hau gertatzea guztiz arrunta da euskaraz: *«Gizon eta emakumeak»*.

2. Esaldi hauek *e.* eta *i.* izendatu ditugun puntuei dagozkienak dira, hau da, elkargai guztiekin atzizki berdina (singularrekoa zein anitzekoa) daramatenak, haietan lehenengoaren atzizkiaren elipsia, teorian behintzat, gerta zitekeelarik; *f.* eta *h.* puntuei dagozkienak, ordea, ez ditugu kontutan hartu Izen Sintagma guztiekin atzizkia eduki ezean, esaldiaren esanahia aldatuko bait litzateke. Ezberdinak topatuko genituzke, esaterako

«Zoin bere ahalen eta herrunkaren arabera» (72,16)
eta

«Zoin bere ahal eta herrunkaren arabera»,
non ezabatzen den atzizki hori singularrekoa dela ulertu beharko genukeen.

Beste batzuk, ordea, ezgramatikal hutsak lirateke:

«* Ez eman mugarririk hartuko duzun urriki(ari),
eta eginen ditutzen penitentziei».

Antzekoa gertatzen da genitiboaren adibideetan ere, baina balaiteke hau esaldi bakarra topatu dugulako gertatzea:

«Bere seme maite ta gure salbatzaile amultsuaren pairamenak»
(225,35).

Aldiz, datiboaren adibideetan guztiz kontrakoa agitzen da, atzizki plurala bakarrik topatu bait dugu:

«Inguratzen zituen onthasun, olore ta atseginei» (182,3).

b) Eta IS bakar baten barnean bi elementuren koordinazioa gertatzen den kasuetatik gehienak nominatiboari dagozkio lehenengo puntuaren bezala; hiru adibide dira, eta hirurak atzizkia singularra dutenak; zehatzago, ezin esan daiteke hiru adibide direnik, hiru agerraldiok berdin-berdinak bait dira:

«Jesus, bihotzez ezti ta aphalgura, urrikal...» (78,31).

«Jesus bihotz-ezti ta aphalgura...» (104,7).

«Jesus bihotzez ezti eta aphalgura, egizu...» (109,5).

Genitiboan bi adibide gehiago topatzen ditugu, bata atzizki singularraren ezabaketa erakusten duena, eta bestea atzizki pluralarena.

Aldiz, datiboaren adibiderik bat ere ez dugu hemen topatu ahal izan, baina ez ezgramatikalak direlako, jakina; izan ere, guztiz arrunta litzateke *«Jesus bihotz-ezti eta aphalgurari»*.

* * *

Portzentaia eta zenbaki guztiok eman baino lehenago egin du gun plantelamenduan esan dugunez, izen mugatuaren deklinabidean atzizkiak hiru modutara eman daitezke: hots ez agertu, eta singularrean edo anitzean agertu. Bainan hauetan ez dira joko guztiak ahitzen, nominatiboan ez beste guztietan behintzat. Izan ere, beste kasu guzti hauetan koordinazioaren lehen osagaia mugatzai-learekin ere ager liteke, eta *liteke* diogu ez bait dugu adibiderik aurkitu. Patxi Goenagak nahiko zalantzagarri deritza honi, eta ? ikurra ipintzen dio berak ematen duen adibideari: *«? gizona eta andreari»*. Bainan zalantzarak ez du *«gizonak eta andrei»* ezgramatikala dela esateko.

Interesgarria da, gainera, ematen duen eritzia:

Iruditzen zait singularrak eta pluralak jokabide desberdina dutela eta, bestalde, nolako atzizkiarekin ari garen ere kontutan hartu behar dela. (*Gramatika Bideetan*, 243. or.).

Goenagak esaten duen bezala, hau da aztertu behar den puntu bat, «idazteko orduan nahiko zalantzaren iturri» gertatzen bait da. Tamalez, guk kontutan hartu ditugun adibideen artean ezin izan dugu puntu hau argi dezakeenik idoro, eta beste ikerketa handiago baten zai gelditu beharko dugu oraingoz.

* * *

Lehen egin dugun azalpenean sartu ez ditugun kasuak ikusi beharko ditugu oraingoan. Eta sail berezi batean kokatu ditugu, hauen barneko egitura ez bait da hiztunaren aukerako, zeren eta hiztun horrek nahitanahiez begiratu behar bait ditu egitura horren legeak, ezgramatikalak diren klausulak ez osatzeko. Koordinazioaren elkargaiak adjektibo edo erakusle bera daramatelarik agertzen diren kasuetaz ari gara, jakina. Honelako 22 agerraldi topatu ditugu; adibidez:

«*Ibilketak eta elheketa alferrak*» (51,22).

«*Lagun eta adiskide guziei*» (126,36).

«*Eternitate luze eta ezin akhabatuzko haren aldean*» (199,16).

Honelakoetan, normala denez, adjektiboak edo erakusleak edo dena delakoak eraman ohi du atzizkia, zeren eta lehenengo elementuak eramango balu guztiz esanahi ezberdina hartuko bait lu-ke esaldiak; ikusi bestela hauek:

«*Ibilketak eta elheketa alferrak*» edo «*Lagunei eta adiskide guziei*». Zalantzazkoagoa genuke, ordea, «*Eternitate luze haren eta ezin akhabatuzko haren aldean*».

Beste alde batetik, azkenexenplu hauetan ez da atzizkia, edo atzizkia bakarrik, errepikatzen dena. Esaldi hauek badute lehen aipatu dugun *Amankomuneko Gai* hura, kasu hauetan adjektiboa edo bestelako bat delarik. Honela,

«*Ibilketa eta elheketa alferrak*» = «*Ibilketa alferrak eta elheketa alferrak*».

Eta AG izanik, ezabaketa jasaten dute, normala den bezala.

* * *

Nominatibo atzizkia darabilten adibideen artean badaude esaldi batzu azpimarratu beharrean ditugunak, juntagailuaren bidez Izen Sintagmak bereganatu ohi duen aniztasuna ez bait dator bat aditzarekin; hau da, komunztadura ez da ustez behar lukeen bezala gertatzen, eta aditzak ez du aniztasun hori erakusten hala Subjektuekin nola Objektuekin. Jakina, singularrean agertzen diren elkargaien arteko koordinazioaz ari gara. Ikus ditzagun ondoko esaldiak:

«Ohorea eta aipamen ona ere Jainkoaren zerbitzari lejalentzat da» (196,6).

«Nahi duen guziaren egiteko antzea ta ahala eskuetan duen hark» (170,12).

«Merezi dugula handik dathorkigun beheragunea ta ahalgea» (68,17).

«Jainkoaren aldean duen kredita eta ahala, eta guri diakhargun maithagunea» (266,13).

«Hori da Jainkoak eman duen legea eta arrimua» (252,5).

Beste hau, ordea, dudazkoagoa genuke:

«Aphaindu zinituen Birjina ama Maria loriosaren gorputza eta arima, Jesu-Kristo zure semeari zegokon bezaleko egon-lekhu izan zedintzat» (87,32).

Ez da erraza epaitzea hauetakoak ezgramatikalak eta, hortaz, idazlearen okerrak diren, edota onartzeko modukoak. Gutxiegi ditugu oraingoan ere alde batera zein bestera makurtzeko. Pentsa dai-teke agian elkartzen diren Izen Sintagmak, singularreko atzizkia eramanik, eta nolabait antzeko eremu semantikoei dagozkielarik, singulartasun hori nagusitzen dela eta aditzera ere lerra daite-keela, bi elementu horiek kontzeptu bakan bat osatzen dutela jotzen bait da. Baina adibide gehiagotan agertu beharko liguke hipotesi hau frogatu edo ukatzeko³.

3. Lan hau egiteko erabili dudan *corpusean* besterik topatu ez eta liburuaren gainerako orrietara jo nahi izan dut puntu honi argi gehiago ematearren. Honela, berehala topatu ditut hainbat adibide, lehenagokoetara bildu behar ditugunak, eta dudarik gabe beste horiek bezain gramatikalak direnak. Hauexek dira: 1-16, 5-34, 7-5, 7-14, 10-35, 38-16, 39-29, 40-33, 43-17, 281-13, 284-16 eta 290-37.

Fenomeno hau, bestalde, ez dagokio soilik koordinazio kopulatiboari, adibide berri hauetan ikus daitekeenez, koordinazioari berari, eta orobat justaposizio hutsari dagokiela pentsatzekoa delarik.

Azkenik, azterketa honi amaiera emateko koordinazioaren beste alderdi bat isladatu beharko dugu. Orain arte ikusi ditugun adibideetan baiezkako esaldiak besterik ez dugu topatu, baina zer gertatzen da beste bi hauetan?


«*Ez naiz hordia, ez naiz ohoina, ez eta arnegaria*» (66,16).

«*Ez horiek, edo bertze nor nahik ukhan duen tresora, ez eta aingeruetako gorenak ukhan duena ere*» (262,37).

Bigarren esaldia guztiz arrunt egiten bazaigu ere, lehenengoarekin bada zalantzarak: Izen Sintagmак dira hemen elkartzen direnak, ala perpausak? Sakoneko egituran badirudi bi perpaus ditugula elkarri lotuak, azaleko egituran aditzaren ezabaketa dela medio perpaus bakarra dugula ematen badu ere. Sakoneko egituran bitasuna proposatzen da koordinazioa azaltzeko, baina hau ez da beti hain nabarmena. Honela,

«*Ni ohoina eta arnegaria naiz*»

esaldia bi perpausen batuketatzat azaldu ohi da, edo behintzat horrela azaltzea proposa daiteke. Gure esaldiaren sakoneko egitura ustezko hori honelakoxea genuke, orduan:



Baina hau ez da guk daukagun perpausa. Hortaz, aldaketa erre-gela bat beharko dugu azaleko egiturako modura helduko bada.

NOMINATIBOA

ETA juntagailuaren bidez nominatiboari, edo bestela nahiagoz gero, NOR delako kasuari dagozkion atzizkiak (singularrekoak zein anitzekoak) daramazkiten izen sintagmak nola lotzen diren aztertzearen, 78 adibide bildu eta miatu ditugu⁴. Adibide hauek osatzen dituzten perpausen artetik, pentsatzekoa denez, bi multzo bereizi izan ditugu:

1. lotzen diren elementuak IS desberdin batzuei dagozkienekoa, eta
2. lotzen diren elementuak IS bakun edo bakarrari dagozkionekoa.

1.—IS desberdinak biltzen direnekoa.

ETA juntagailuak NOR kasuan darabilen jokamoldean ondoko moetak bereizi ahal izan ditugu, beraren bitartez bi IS edo gehiago biltzen direnetan:

1.1.—Kasu atzizkia IS guzietan agertzen da:

1.1.1.—SINGULARREKO ATZIZKIA

- «Haren izpiritua eta arima» (209,26)
- «Birjina Ama Maria loriosaren gorputza eta arima» (87,42)
- «Ohorea eta aiphamen ona» (196,6)
- «Hori da Jainkoak eman duen legea eta arrimua» (252,5)
- «Ene Jainkoa eta ene Salbatzailea» (44,3)

Ikus, halaber: 68,17 77,29 91,31 149,34 170,12 174,31 203,10
239,5 245,25 262,18 eta 266,13.

1.1.2.—ANITZEKO ATZIZKIA

- «Entzun haren solasak eta abisuak» (59,22)
- «Haren ahaideak eta adiskideak» (138,20)
- «Elemenia bat bekhatu, bereak eta bertzerenak» (146,4)
- «Munduko onthasunak, ohoreak eta atseginak» (190,17)
- «Haren nekheak eta borrokak» (230,17)

4. Adibide guzti hauetatik, bost aldiz bakarrik agitzen da atzizkiaren elipsia, baina behin ere ez da ageri elkargaiak izenak direnean. Hortaz, nominatiboari gagozkiolarik, Duhaldek soilik adjektiboen artean onartzen (edo behintzat erabiltzen) zuen elpsi mota hau; eta ez beti, atal honetako 2.1.1. puntuko adibideek erakusten diguten bezala.

Ikus, halaber: 64,9 68,34 72,37 86,17 91,8 100,16 135,5 150,29
 150,30 150,31 161,1 169,34 186,29 189,6 191,30 196,16 230,7 230,18
 239,9 246,10 251,13 255,23 261,28 eta 271,9.

1.2.—Kasu atzizkia azkenak bakarrik darama:

1.2.1.—SINGULARREKO ATZIZKIA

- «Umil eta aphalgura izateko» (105,17)
- «Jauzkor, urguilus eta atseginetarat ekharria denari» (133,9)

1.2.2.—ANITZEKO ATZIZKIA

Ez dago adibide bakar bat ere.

1.3.—IS horiek zenbaki desberdinako atzizkiak daramazkite:

1.3.1.—SING.-PLUR.

- «Garrazki pagatuko dituzte maithagune itsua eta atsegin gaxtoak» (163,10).
- «Nere bizia eta eginkunde guziak» (111,25)

1.3.2.—PLUR.-SING.

- «Munduko handitasunak, ohoreak eta distiadura osoki arbutzen ditu» (259,5)

1.4.—IS guztiak atzizkirik gabe agertzen dira:

- «Gauerdi eta eguerdi, ilhunbea ala argia, bardin dire zuretzat» (203,10)
- «Izan gaiten beraz leyal eta arthatsu» (47,36)
- «Hanbat gogoramendu on eta barneko abisu» (242,32)

Ikus, halaber: 96,26 eta 145,4.

1.5.—IS guztiekin adjektibo bera daramate:

- «Ezpaituk orduan bertzerik egin, Judas eta borredo berria» (149,34)
- «Ibilketak eta elheketa alferrak» (51,22)
- «Gizon eta emazteki, bere eginbidetarik urrun dabiltsanak» (196,23)
- «Miletan gaitz eta bidegabek gehiago» (187,33)
- «Bere nahikara eta atsegin guziak ematea» (119,23)
- «Haren gutizia, pendura eta ahal guziak» (158,4)

2.—Koordinazioa izen bakarrari dagokionekoa.

2.1.—Atzizkia izenari atxikitzen zaizkion adjektibo guztiekin daramate:

2.1.1.—SINGULARREKO ATZIZKIA

- «Jainko da izate bat guzia ederra eta edertasun guzien ithurria» (184,3)
- «Jesu-Kristo phiztua, eta bere aitaz lorifikatua» (222,19)
- «Aita zuzena eta adoragarria» (258,7)
- «Izate bat zeru-lurrak ezdeusetik athera dituena, eta gauza guziak gobernatzen dituena» (183,32)
- «Erreligioe bat finkatua izan dena, eta debruek aithortu izan dutena» (112,26)

Ikus, halaber: 47,6 59,4 145,6 145,19 184,23 eta 259,3.

2.1.2.—ANITZEKO ATZIZKIA

- «Egin baditu ere berenaz ditezken gauzarik hoherenak eta baliosenak» (46,18)
- «Edozein mundutar bezain ximenki aphainduak eta arrimatuak» (49,8)
- «Erreflexione luzeak eta ederrak» (51,33)
- «Asko izan diren aingeru gisan bizi izan direnak, eta galdu izan direnak» (125,8)
- «Familia prestuak, ohorezki bizi direnak eta bere egiteko guziak ederki dohazkotenak» (197,9)

Ikus, halaber: 96,6 100,25 130,21 176,11 eta 191,37.

2.2.—Atzizkietako bat ezabatzen da:

- «Jesus, bihotzez ezti eta aphalgura, urrikal zakizkigu» (78,31)
- «Jesus bihotz-ezti ta aphalgura» (104,7)
- «Jesus bihotzez ezti eta aphalgura, egizu...» (109,5)

2.3.—Bi adjektiboak zenbatzaile baten mende daudelarik:

Hemen ere elipsia gertatzen da, baina oso adibide gutxi topatu ahal izan dugu:

- «Mienbro guri eta atseginzale bat» (233,17)
- «Nausi gogor eta ekhar-gaitz bat» (48,4)

DATIBOA

Datibo atzizkia daramaten IS oro aztertu ondoren, lekukotasun guzti hauek multzo bakarraren barnekoak direla ikusi ahal izan dugu: bi IS edo gehiago biltzen dituzten adibideak dira; ez dago, beraz, nominatiboaren tokian ikusi dugun bezala, izen bakarrari dagokion koordinaziorik. Egia osoa esateko, topatu dugun adibide bakarra erlatibozko perpausa da, eta hortaz, perpausen arteko koordinazioari legokioke, ez izenen artekoari.

Hala, bada, idoro ditugunak honela sailka genitzake:

1.—Bi IS-ek daramate atzizkia.

1.1.—SINGULARREKO ATZIZKIA

- «Arimari ta salbamenduari ukitzen zaizkonak» (86,17)
- «On guzien ithurburuari eta emaleari bezala» (273,6)
- «Gomenda nork bere burua andre dena Mariari, bere aingeru begiraleari ta bere patroin seinduari» (50,27)

Ikus, halaber: 54,14 69,34 127,10 eta 253,20.

1.2.—ANITZEKO ATZIZKIA

- «Bere buruei ta sentsuei» (191,29)
- «Eztiotela bere eginbidei ta premiazko lanei hutsik eginen» (63,16)
- «Behatu behar zaje meditacioneko gei hari datxeizkon berzte gauzei, eta darraizkon onei edo bidegabei» (101,36)

Ikus, halaber: 118,28 126,11 192,16 193,12 eta 261,16

1.3.—SING.-PLUR.

- «Nere naturalezari ta jaidurei emateko» (188,15)
- «Othoitzari, ta bertze debozionezko egintzei» (216,9)
- «Ez eman mugarrirrik hartuko duzun urrikiari, eta eginen ditutzun penitentziei» (223,9)

Ikus, halaber: 44,13 193,27 eta 233,3.

2.—Kasu atzizkia azken IS-ak bakarrik darama⁵.

Hemengoan, anitzeko atzizkia duen adibiderik baino ez zaigu ageri:

- «Inguratzen zituen onthasun, ohore ta atseginei» (182,3)
- «Haren maxima galdu ta moda ergelei jarraiki hatzaje» (149,5)

3.—Koordinazioko izenek adjektibo bera daramate.

Lehengoan bezala, oraingoan ere adibide gutxi bildu ditugu, bakarra, egia esateko, eta hau ere anitzeko atzizkia daramala:

- «Lagun eta adiskide guziei» (126,36)

5. Hemen, nominatiboaren kasuan ez bezala, izenen artean bakarrik topatzentz dugu elipsia. *Corpus* handiago batean bestelakoak ere aurkituko genituzke, zalantzarak gabe. Hala ere, aztertu dugun liburu-zatiaz at agertu zaizkigun esaldien artean behin ere ez da ageri elipsisrik.

GENITIBOA

Genitibo atzizkia duten IS koordinatuen artean ere bi multzo berezi ahal izan ditugu, lehenagokoan bezala. Alabaina, oraingoan elementu berri bat kontutan hartu beharra dago: «TO GEN» izenaz ezagutzen duguna, alegia. Ikus ditzagun, bada, oraingo honetan aurkitu ditugunak:

1.—IS desberdinak koordinatzen dira.

1.1.—Kasu atzizkia IS guztietan agertzen da⁶:

6. -ren kasu-atzizkia, batzen diren IS guztietan agertzen denean, badi rudi haien mendeko izena dela Amankomuneko Gaitzat hartu behar duguna. Kasu guztietan ez, ordea: soilik AG honek nominatiboaren atzizkia ez beste kasu-atzizkiren bat duenean.

Antzeko samarrak dira, adibidez, bi esaldi hauek:

«Nere salbatzailearen ta nere Jainkoaren bihotz adoragarria» (82,7); eta
 «Nere salbatzaile ta nere Jainkoaren bihotz adoragarria».

Baina ez ordea beste hauek:

«Bat egiten naizelarik Jesu Kristoren eta haren Elizaren intentzioekin» (1,15); eta
 «Bat egiten naizelarik Jesu Kristo eta haren Elizaren intentzionalekin».

Izan ere, lehenengoaren AG *intentzionalekin* genuke («Jesu Kristoren intentzionalekin eta haren Elizaren intentzionalekin»); eta bigarrenaren Amankomuneko Gaia atzizkia genuke («Jesu Kristorekin eta haren Elizaren intentzionalekin»).

Antzerakoa gertatuko da, orduan, beste esaldi hauetan ere:

«Jesu Kristo gure salbatzaile adoragarriaren ta gure juje guzien Jainkoaren merezimendu xederik gabeak» (219,12),

non AG *merezimendu xederik gabeak* den; eta

«Jesu Kristo gure salbatzaile adoragarri ta gure juje guzien Jainkoaren merezimendu xederik gabeak», non AG -ren atzizkia den.

Baina zer esan, orduan, ondoko esaldi honetaz:

«Jainkoaren eta Elizaren manamenduen kontra» (298,31), non, manamendu ezberdinak direnez, *manamenduen* izan daitekeen AG? Kontra izatekotan, iduri luke «Jainkoaren kontra eta Elizaren manamenduen kontra» izan beharko lukeela.

1.1.1.—SINGULARREKO ATZIZKIA

- «Jauntz modeski zein bere adinaren ta herrunkaren arabera» (49,1)
- «Jesu-Kristoren eta Eliza Ama seinduaren xedea» (61,21)
- «Nere salbatzailearen ta nere Jainkoaren bihotz adoragarria» (82,7)
- «Zure loriaren ta nere salbamenduaren etsai izigarri hau» (85,26)
- «Jainkoak bere jujamenduaren eta sentenziaren erregelatzat hartuko duena» (133,21)

Ikus, halaber: 89,16 149,28 174,2 174,3 183,9 184,33 185,35
188,28 197,24 197,25 202,7 219,12 225,27 252,34 256,21 eta 277,8.

1.1.2.—ANITZEKO ATZIZKIA

- «Bere lanen eta hara-hunen erdian» (51,28)
- «Jenden laudorioen ta munduko ohoren gutiziatik» (67,27)
- «Mundutarren burlen eta erasien beldurrez» (67,30)
- «Bere ohitura gaxtoen ta jaidura muthirien kontra» (100,17)
- «Laido saminen eta thormenta gogorrenen artean» (256,19)⁷

Ikus, halaber: 91,29 99,28 113,5 126,17 177,29 212,19 212,33
219,7 eta 256,17.

1.1.3.—SING. — PLUR.

- «Munduko distiaduraren ta gizonen laudorioen etsai» (273,4)
- «Jainkoaren legearen ta nere eginbiden gainean» (145,13)
- Meditatzen den gaiaren eta bat bederaren beharren arabekoak» (103,14)

7. *Artean* aditzlaguna izen sintagma bati erasten zaionean; jakina denez, izen sintagma horrek -(r)en kasu-atzizkia hartu behar du nahita ez. Izen sintagma bat baino gehiago direnean, azkenak eraman behar du derrigorrez, aurrenekoetan agertu gabe joan daitkeelarik. Guk bildu *corpusari* gagozkiola, agertu zaizkigun adibideen artean, elipsia ez da behin ere geratzen, izen sintagma guztiak bait daramate atzizkia. Antzera gertatzen da, halaber, *arabera*, *aldean*, *gainean*, *azpian*, *erdian*, eta *kontra* erabiltzen di-
tuenean.

1.1.4.—*PLUR.* — *SING.*

- «Zoin bere ahalen eta herrunkaren arabera» (71,16)
- «Eraman dituen garaitien eta garbitasunaren gainean» (74,5)
- «Ukhan dituan sentimenduen eta eraman duan bizitzearen artean» (149,17)

1.1.5.—«*TO GEN*»

- «Lege seindu haren, ta gainerako bere eginbiden ongi ikhasterat» (134,12)
- «Zeruko laguntzen eta grazien ardiesteko bidea» (49,29)
- «Horieta eta heki ez maithatzeko» (249,27)
- «Bere jaidura gaxtoen eta tentamenduen garaitzko grazia» (225,14)

1.2.—*Kasu atzizkia IS bakar batek darama:*

- «Bere seme maite ta gure salbatzaile amultsuaren pairamenak» (225,35)

1.3.—*IS guztiekin adjektibo bera daramate:*

- «Jainko haren edertasun ta maithagarritasun mugarririk gabentz aldean» (177,23)
- «Haren nahikara ta gogoramendu likhitsen arabera» (149,3)
- «Kofesor eta predikari haren bidez» (158,32)
- «Ifernuan da gaitz eta thormenta guzien bilduma» (165,1)
- «Ahaide eta adiskide maiten heriotzea» (194,13)

Ikus halaber: 165,23 173,22 181,29 225,24 258,32 eta 276,17.

2.—Koordinazioa IS bakarraren barnean eratzen denekoa.

Atal honetan aurkitu ditugun adibideak honela sailka daitezke:

2.1.—*Kasu atzizkia bi koordinaziokideetan gertatzen da:*

2.1.1.—*SINGULARREKO ATZIZKIA*

- «Bizitze luzenaren eta egintz onez bethenaren akhabantzan» (262,35)
- «Maithagune garbienaren ta bizienaren su sakratua» (32,29)

2.1.2.—ANITZEKO ATZIZKIA

- «Izen batzuen eta bertzen azpian» (265,2)
- «Etsai are higuinagoen eta kruelagoen eskuetarat» (221,4)

2.2.—*Kasu atzizkia azkenak bakarrik darama:*

Honetan adibide bakarra idoro ahal izan dugu⁸:

- «Jaunaren neskato aphal eta ezjeusaren izena» (273,12)

Dena den, badago beste adibide bat sail honetan sartu beharko genukeena, baina «To Gen» dela markatu beharra dago; hauxe da:

- «Bere gathe phisu ta ahalkagarrien phorroskatzen» (270,21)

Azpisail berri bat egin beharko genuke hemen, badaudelako bi esaldi gutxienez beste inon baino gehiago hemen sartu beharrekoak; hauetan, kasu atzizkia koordinatzen diren bi elementuen atzean doan erakuslean agertzen da, modu arruntari jarraituz. Hauexek dira bada:

- «Eternitate luze eta ezin akhabatzko haren aldean» (199,16)
- «Sari handi ta gozo haren ardiestea» (174,24)

Ikusten dugunez, bigarren hau ere «To Gen» moetari dagokio.

8. Datiboaren kasuan gertatzen zen bezala, badirudi genitiboarenean ere Duhaldek adjektiboen artean erabiltzen duela gehienbatez atzizkien ezabaketa. Dena den, oso gutxitan bada ere, izenen artean ere agertzen da, 1.2. ataleko adibideak erakusten digunez, Alabaina, Duhalderen joera nagusia, lehenago esan bezala, atzizkiak beti jartzearren aldekoak da.

2.—PERPAUSEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Duhaldek Izen Sintagmak nola lotzen dituen aztertzen saiatu gara orain arte. Bainha hauek ez ezik, perpausak ere elkarri lotzen dira pentsamenduak osatzeko; jakina, perpausak ere ez dira nolanaiki elkarri lotzen: badaudeke erregela batzuk koordinazio hori zilegi edo ezinezko bihurtzen dutenak. Patxi Goenagak dioenez, maila berdineko edo *status* gramatikal berdineko perpausak bakanrik lot daitezke; eta geroxeago aitortzen duenez ez da oso erraz jakiten «maila berdintasun hori zertan datzan»⁹. Izan ere, edozein eratako perpausak ezin koordina daitezke. Izen Sintagmen artean bezala, perpausen koordinazioan ere nola edo halako *gaikidetasuna* (Goenagak darabilen hitzaz esateko) behar dute izan lotzera doazen perpusek. Nabardura asko dira gaikidetasun honetan sartzen direnak, eta haien artean ez dira garrantzi gutxienekoak alderdi semantikoa eta alderdi sintaktikoa. Tamalez, puntu honetaz ezer gutxi argitaratu da gure hizkuntzaz. Gure indarren neurrian puntu honi argi zerbait ematea ardietsiko bagenu, arrunt betetzat aitortu beharko genuke gure asmoa.

Hasteko, Lakoff eta Peters-en lanez geroztik, koordinazio kopulatiboaren bikoitzasunaz mintzatu ohi da; hau da, alde batetik *koordinazio simetriko* bat edukiko genuke, eta *koordinazio asimetriko* bat bestetik. Koordinazio simetriko horretan elkartzten diren bi perpausak juntagailuaren edozein albotan egon daitezke, klausula horren balio sintaktiko-semantikoa aldatu gabe. Honekoxeak genituzke ondoko hauek:

a.—perpaus nagusien artean:

«Zenbait seinduren besta denean, hari gomenda gisa berezi batez, eta anima haren prestuguneak imitatzerat» (58,8).

«Zeruan ikhusi eta aditu ditut gauzak» (169,5).

9. *Gramatika Bideetan*, 229. or.

b.—eta perpaus txertatuen artean:

«Hain errespetu guti erakhusten duten; eta alientzia berriko odol adoragarria hain sakrilejoki ostikatzen duten ondikozko Kristau hekiei?» (225,28).

«Mila ezdeuskeriek Jainkoa ganik eta gauza Izpiritualetarik urrunten eta barrajatzten baikaituzte» (155,20).

Eta, aldiz, koordinazio asimetrikoa izango dugu kokatze alda-keta hori ezinonartuzkoa gertatzen denean edota haren ondorioz balio semantikoa guztiz aldatzen denean. Hau da, bigarren koordinazio mota honetan elkargaien ordena bereizlea da, bigarrenak halako denborazko harremana duelarik lehenengoarekiko (gehiendetan lehenengoaren ondorioz gertatzen bait da). Harreman hau hurrengo esaldiotan ikus dezakegu:

— perpaus nagusien artean:

«Hautazazu bada orai bi muga hetarik zeintara nahi zaren heldu, eta atxikazu zinki hautatzen duzunerat xuxen daraman bidea» (153,27).

«Sentimendu hek beti finkatuz doazi, eta azkenean natural bezala egiten dire» (97,12).

Bildu ditugun perpaus txertatuen artean ezin izan dugu adibide egokirik topatu, baina aski genuke eman ditugun azken bi perpausak txertatu bihurtzea.

Koordinazio kopulatiboaren bikoitzasunarekin jarraituz, euskalraz badago juntagailuaren erabilera berezi bat esan dugun honekin zerikusi handia duena. Honela, oso erabiliak dira

«Afaltzera joan gin, azkeneko eguna zen eta»

bezalako esaldiak. Esaldi hau beste era batera ere esan liteke:

«Azkeneko eguna zen eta afaltzera joan gin»

baina ez beste modu honestara:

«Afaltzera joan gin, eta azkeneko eguna zen»

Izan ere, badirudi kausazko erlazio bat dagoela bi elkargai hauen artean; hau da, adibidea kausazko perpaus balitz bezala har genezake:

«Afaltzera joan ginен azkeneko eguna bait zen»

Beraz, juntagailu enklitikoa duten perpausetan koordinazio asimetrikoa gertatzen dela esan dezakegu, eta bi perpausak lekuz alda daitezkeelarik, juntagailua ere beraiekin batera aldatu behar dugu nahitanahiez, oker semantikorik gerta ez dadin.

Bigarren puntu bat ikutu behar duguna elipsiarena da, perpauen arteko koordinazioan ere horrelakorik bait dago. Lehen esan bezala, perpaus koordinatuetan elementuren bat errepiatzen bada, ez da beharrezko biak jartzea. Baina izenezko zatiak ez ezik, aditzak ere, eta zehazkiago aditz laguntzaileak, ezaba daitezke berdinak direnean. Jakina, ezabaketa hau idazlearen hautazkoa da eta ez da beti automatikoki gertatzen aditz laguntzailea berdina izanagatik ere. Batzutan, gainera, aditz laguntzailea ezabatzeak ilun utzi lezake esaldia, eta hortaz bere hartan uzten da. Bestetan, halako erretorika asmo bategatik, hau da, esaldiari indar handiagoa ematearren, ez da ezabatuko.

Guk bildu ditugun 66 esaldietatik hamalautan ezabatzen da aditz laguntzailea: hamaika aldiz perpaus nagusietan, eta hiru bider perpaus txertatuetan. Ezabaketa, gainera, lehenengo perpaus nagusian zortzi aldiz gertatzen da, eta hiru azkenean; perpaus txertatuetan, bakarrik aurreko perpausetan agertu zaigu ezabaketa, baina ez dirudi azkenengo perpusean gertatzea ezgramatikala denik, beti behintzat; honela adibidez, lekukotasun batzuk topatu ditugu Itziar Lakak egin lanean:

«...eta ala desseacendut guciei onericci çayçaten, eta cerviçatu»
(Berain, TM)

«Vioruten direala, eta batuten, gure gorputz propioac» (Kapanaga, DC)

Eta, esan bezala, aditzak berdinak izanik ere, batzutan ezabaketarik ez da egiten. Honetako hamahiru lekukotasun topatu ditugu; adibidez:

«Hartzen dut gero nere floka Izpirituala, eta akhabatzen dut nere meditazionea» (109,20)

«Gorputz seinduko sakramenduan errezibitu ditutzun eta egun oroz errezebitzen ditutzun laido saminak» (82,10)

Hauetan badirudi ez zegoela oztopo larrik ezabaketa egiteko, baina hala ere ez da gertatzen. Beste kasu batuetan, ordea, esaldia nahiko ilun geldituko litzateke aditz laguntzailea ezabatz gero:

«Haren laguntha aska bezate, eta arartekotzat balia dakiela ohoitz bezate» (269,10)

«Hain errespetu guti erakhusten duten; eta alientzia berriko odol odoragarria hain sakrilejoki ostikatzen duten ondikozko Kris-tau hekiei?» (225,28).

Honekin bukatzeko, aditz laguntzailearen ezabaketa agertzen duten lekukotasun guztietañ aditz nagusiak beti denbora berean daudela topatu ditugu. Pentsarazi behar ote digu honek bestela agertzerik ez dagoela? Zer esan, orduan, ondoko perpusei buruz:

«Zuk jasotzen eta jasoko dituzun irainak».

«Zuk egin eta egingo dituzun lanak».

«Denoi gertatu, gertatzen eta gertatuko zaizkigun ezbeharrak».

Hauek nahiko erretorikoak gertatzen badira ere, nik ez nituzke inondik inora ezgramatikaltzat hartuko.

